

ITZULPEN ETA TERMINOLOGIAZKO ALDIZKARIA

# senez

TESTU SAKRATUEN ITZULPENA

ITZULTZAILE IKASKETEN BERRIKUNTZA

1988

1-2

zenbakiak

**Portada: LAURA ESTEVE**  
**ISBN: 84-7086-198-0**  
**Depósito Legal: S.S. 109/89**  
**Imprime: Gráficas ORVY - Lasarte-Oria.**

# **Senez**

## **Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria**

**7**

**IV urtea  
1- 2 zenbakiak**

Aldizkari honen erredakzio batzordea ez dator bat, derrigor, artikulugile bakoitzak bere lanetan azaltzen dituen iritziekin

**E.I.Z.I.E**



# Senez

## Itzulpen eta Terminologiazko Aldizkaria

### **Erredakzio Batzordea:**

Zuzendaria:

Jesus M. Zabaleta

Idazkaria:

Lurdes Auzmendi

Hizkuntz arduraduna:

Koro Navarro

Batzordekideak:

Jose I. Berasategi

Iñaki Ibañez

Xabier Mendiguren

Andoni Sarriegi

Beatriz Zabalondo

### **Maketa eta konposizioa:**

Jesus M. Zabaleta

### **Helbidea:**

EIZIE

Etxague jenerala, 6

DONOSTIA

Telefonoa: 42 91 66



## Aurkibidea

Ale honetan .....	13
-------------------	----

### Gaiak

Itzulpen tradizioa eta Biblia Mendebaldean. <i>Xabier Mendiguren</i> .....	19
Korana eta Ekialdeko testu sakratuen transmisioa. <i>Mohamad-Akram-Umar – Koro Navarro</i> .....	35
Bibliaren itzulpena Euskal Herrian. <i>J. M. Zabaleta</i> ....	51
Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea. <i>Dionisio Amundarain</i> .....	97
Liturgiako Itzulpen Batzordearen Itun Berria. <i>Eustasio Etxezarreta</i> .....	111
Traduire sans trahir: Itzulpenaren teoria testu biblikoei egokitu. <i>Lurdes Auzmendi</i> .....	131
Ruiz Arzalluz: Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento. <i>Beatriz Zabalondo</i> .....	157
Euskarazko Bibli-itzulpenak. <i>J. M. Zabaleta</i> .....	165
Bibliaren itzulpenari buruzko Bibliografia .....	171
Itzultzaile eta Interpretarien ikasketen berrikuntzari buruzko kontsiderazioak. <i>H. A. E. E.</i> .....	179
Etorkizuneko itzulpen lizentziatura: zenbait ohar kritiko. <i>Xabier Mendiguren</i> .....	195
Steinbeck, John: The Pearl – Perla: Ordorika, R. <i>Beatriz Zabalondo</i> .....	209

### Iruzkina

Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea	217
Bibliografia	
SANTOYO, J.C.: Teoría y Crítica de la traducción. Antología .....	233

## Berri eta Albiste

Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkartea. <i>Lurdes Auzmendu</i> .....	237
Interpretaritzari buruzko mintegia. <i>Iñaki Ibañez</i> .....	249
Idazketa eta itzulpen ikastaroa. <i>Beatriz Zabalondo</i> ....	253
Itzultzaileentzako laguntzak? <i>Pello Zabaleta</i> .....	255
Estatu Espainoleko hizkuntzen arteko itzulpen- jardunaldiak. <i>J. M. Zabaleta</i> .....	257
Tarazonako Itzultzailearen Etxearen inaugurazioa. <i>J.M. Zabaleta</i> .....	263

## Testu sakratuen itzulpenak

Korana. 98. Kap. Al-Bayyinah. <i>Koro Navarro</i> .....	11
Biblia. Apokalipsia XXII, 18-19 <i>Leizarraga - Duvoisin - Eliz arteko Biblia - Liturgi Batzordearen Itun Berria</i> .....	9
Biblia. Jenesia, III, 1-6. <i>P. d'Urte - Duvoisin - J. A. Uriarte - Olabide</i> .....	127
Biblia. Jeremiasen deitorea I, 1-8 <i>Duvoisin - Zabala-Arana - Olabide</i> .....	161
Biblia. CXXXVII Salmua. <i>Duvoisin - Olabide - Orixe - Zugasti-Kerexeta</i> ....	93
Biblia. S. Juanen Ebanjelioa. I, 1-14 <i>Leizarraga - Brunet - Zabala-Arana - Eliz arteko Biblia</i> .....	47



## Apokalipsia 22, 18-19

18 Μαρτυρῶ ἐγὼ παντὶ τῷ ἀκούοντι τοὺς λόγους τῆς προφητείας τοῦ βιβλίου τούτου· ἐάν τις ἐπιθή ἐπ' αὐτά, ἐπιθήσει ὁ Θεὸς ἐπ' αὐτὸν τὰς πληγὰς τὰς γεγραμμένας ἐν τῷ βιβλίῳ τούτῳ· 19 καὶ ἐάν τις ἀφέλῃ ἀπὸ τῶν λόγων τοῦ βιβλίου τῆς προφητείας ταύτης, ἀφελεί ὁ Θεὸς τὸ μέρος αὐτοῦ ἀπὸ τοῦ βύβλου τῆς ζωῆς καὶ ἐκ τῆς πόλεως τῆς ἁγίας, τῶν γεγραμμένων ἐν τῷ βιβλίῳ τούτῳ.

### J. Leizarraga:

18. Ecen protestatzen draucat liburu hunetaco prophetiarê hitzac ençuten dituen guciari, Baldin nehorc gauça hauey eratchequi badiécé, eratchequiren drautza hari Iaincoac liburu hunetan scribatuac diraden plagác.

19. Eta baldin nehorc ken badeça deus prophetia hunen liburuko hitzetaric, kenduren du Iaincoac haren partea vicitzeco liburutic, eta Ciuitate saindutic, eta liburu hunetan scribatuac diraden gaucetaric.

### Duvoisin:

18. Bainan hitz diot liburu hontako profeziako hitzak aditzen dituen edozeini: Baldin nihork iratchikitzen badiote zerbait, berari Jainkoak iratchikoko diozkala liburu hontan iskribatuak diren izurriak.

19. Eta baldin norbaitek gutitzen badu liburu huntako profeziaren hitzetaric, Jainkoak khenduko duela haren ikhustekoa bizitzeko liburutik, eta hiri saindutik, eta liburu huntan iskribatuak direnetaric.

### **Elizen arteko Biblia:**

18. Liburu honetako hitz profetikoak entzungo dituenari testigantza hau egiten diot: Honi ezer gehitzen dionari, liburu honetan aipatzen diren zigorrak leporatuko dizkio Jainkoak.

19. Eta liburu profetiko honetako hitzetatik zerbait kentzen duena, Jainkoak kendu egingo du liburu honetan zehatz azalduko bizi-zuhaitzetik eta hiri santutik.

### **Liurgiako Itzulpen Batzordea:**

18. Liburu honetako profeta-hitzak entzuten dituzten guztiei hauxe adierazten diet: Inork ezer erasten badie hauei, berari emango dizkio Jainkoak liburu honetan aipatzen diren zigorrak.

Eta inork ezer kentzen badu liburu honetan idazten diren profeta-hitzetatik, horrelakori Jainkoak ez dio utziko, liburu honetan idatziak diren biziaren zuhaitzetik eta hiri santutik parte izaten.

# KORANA

## 98 Kapituluua

### AL-B'AYYINAH

Allàh Graziaz betearen eta Errukitsuaren izenean.

بِسْمِ اللَّهِ الرَّحْمَنِ الرَّحِيمِ ①

Liburuaren Herriko sinesgabeek eta idolatrek ez diote beren sinesgabeziari utziko harik eta guztizko argitasuna iristen ez zaien arte:

لَمْ يَكُنِ الَّذِينَ كَفَرُوا مِنْ أَهْلِ الْكِتَابِ وَالشُّرَكِيِّينَ مُنْفِكِينَ حَتَّى تَأْتِيَهُمُ الْبَيِّنَةُ ①

Allàhregandiko Mezulari bat, Eskritura doiak erreztatzen dizkiela,

رَسُولٌ مِنَ اللَّهِ يَتْلُو صُحُفًا مُطَهَّرَةً ①

Haietan bait daude betirako Aginduak.

فِيهَا كُتِبَ قِتْمَةٌ ①

Eta Liburua eman izan zaien haiek ez ziren bereizi izan argitasun guztizkoa iritsi zitzaizen arte.

وَمَا تَفَرَّقَ الَّذِينَ أُوتُوا الْكِتَابَ إِلَّا مِنْ بَعْدِ مَا جَاءَهُمُ الْبَيِّنَةُ ①

Eta ez zitzaien agindu ezpada Allàh zerbitzatzea, Harekiko egiasi eta manuko izatea, eta hala heziak izatea, eta Otoitza egitea eta Zakàta ordaintzea. Eta hauxe da egiazko erlijioa

وَمَا أُمِرُوا إِلَّا لِيَعْبُدُوا اللَّهَ مُخْلِصِينَ لَهُ الدِّينَ هُ حُنَفَاءً وَيُقِيمُوا الصَّلَاةَ وَيُؤْتُوا الزَّكَاةَ وَذَلِكَ دِينُ الْقِتْمَةِ ①



## **Ale honetan**

### **Aldizkaria**

Senez aldizkari honek dakarren lehenengo albistea, bere azal orrietan ezkutaturik datorrena, jabego aldaketari dagokiona da, aldizkari honen argitaratzailea, orain arte Donostiako Itzultzaile Eskola zena, hemendik aurrera Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte izango bait da.

Senez aldizkari hau Donostiako Itzultzaile Eskolak sortu zuen, orain dela lau urte, bere lehenengo alearen sarreran aitortzen zuen bezala, euskal itzultzaileen gogoeta eta topaleku izateko. Bere oinarriko asmoa euskal itzulpengintza ezagutu, kalitatea jaso eta sendotzea izan da, euskal itzulpengintzak sendotzeko behar dituen tresnak ekarri eta haiez hornitzea. Zentzu horretan, euskal itzulpengintzak lekua duen alor guztietan saiatu da aldizkari hau bere sorreraz gero itzulpen munduari buruzko gogoeta burutzen: itzulpen teoria, itzulpen literarioa eta pragmatikoa, interpretaritza, itzulpen kritika eta historia, hizkuntzalaritza kontrastiboa, itzultzailearen egoera eta lan baldintzak. Labur, euskal itzulpengintzari zegozkion guztietan ahalgindu da, ahalak —ahal laburrak, tamalez— iristen zitzaizkion heinean.

Euskal itzultzaile, interpretari eta zuzentzaileen premiak eta nahiak ezagutu eta bideratzen ere egin du bere ahalegintxoak. EIZIE elkartearen abiapuntu oinarrizkoenetako bat aldizkari honek egindako inkesta batean dago, hain zuzen ere. Eta hala, Euskal Herriko itzultzaile, zuzentzaile eta interpretariak elkarrengana biltzeko eta elkarrekin sendotu eta indartzeko zuten premia eta asmo horri izateko bidea eman zaiolarik sortu da EIZIE elkarteak, euskal itzulpenaren mundua sendotzeko berebiziko aurrerapausoa eta tresnarik garrantzizkoena izan behar duena.

Elkarte honek bere I Biltzarre Nagusian izateko hartu zituen helburuen artean *“euskal itzultzaileak prestatu eta hobe daitezen saiatzea”* aipatzen da (II Titulua, 7. Artikulua – d). Modu eta era askotara bete dezake Elkartek eginkizun hori: argitalpen, bilera, mintegi, etab., eta hasia da helburuak deklarazio soil izan ez daitezen zenbait mintegi antolatzen ere.

Donostiako Itzultzaile Eskolak aldizkari honentzat Elkartea leku hobea zela ikusirik, berau eskaini zion Elkarteari, beronen lehen alearen sarreran aitortzen zituen helburuak Elkartek dituen berberak direla kontutan harturik: *“Aldizkari honek beraz, gaitzat hartu dugun alorrean interesa dugun guztion elkargarri izatea du lehen-dabiziko helburua”*. eta geroxeago *“bigarren helburua... kanpoko teorizaziotatik hartu eta baliagarri izan genezakeen guztiaren berri ematea da”*.

Elkartearen Zuzendaritza Batzordeak haren eskaintza onartu zuen, eta erredakzio batzorde bat antolatu zuen aldizkari hau aurrera ateratzeko. Erredakzio hori Elkartek dituen alor guztietako pertsonak osatzen dute: Administrazio eta komunikabideetako itzultzaileen batzordekoak, Itzulpen literarioan ari direnak, interpretariak. Erredakzio honek hartu dituen erabakien artean aldizkariaren maiztasunari erantzutea, aldizkaria arintzea, eta itzulpen arazo konkretuei buruzko lan puntualak gehiago argitaratzea izan dira ondorio gehien ekar lezaketanak.

Ale honekin beronekin hasi berria duen bizi-epe honetan urte askotako oparotasuna opa diogu beraz SENEZI.

## **Ale hau**

Munduan diren erlijio handietako testuen itzulpenak arazo larriak sortu izan ditu beti, eta arazoak diren guztietan bezala, gogoeta ugari ekarri du, eta ondorio asko izan du gertatu den leku eta momentuetan.

Hainbat hizkuntzaren literatura idatziaren hasierak testu sakratuen itzulpenean du oinarria: Gure artean ezagunak dira armeniera, gotikoa, errusiera, ukrainiera, alemaniera, lituaniera, txekiera, eta ia ia euskararen kasuak. Berrirago, joan den mendetik hona, hain sarri aipatzen ez badira ere, misiolariak alfabetoz hornitutako hainbat hizkuntza aipatu beharko lirateke Afrikan eta Amerikan batez ere. Hizkuntza horiek dira, Sobiet Batasunean Urriko Iraultzaren ondotik alfabetatu zirenez aparte, idatzi izatera iritsi diren ia hizkuntza bakarrak.

Horregatik, ordea, ez dira ahaztu behar, Ekialde urrunean batez ere, testu sakratuen itzulpenak berebiziko eragina izan duen zenbait hizkuntza: tibetana, japonesa eta txinoa bera, neurri batean.

Testu sakratuen itzulpenak teorizazio ahalegin handi bat eragin du, gainera, egin izan den guztietan, jatorrizko testuaren edukiari, eta gehienetan formari, aparteko errespetoa izatea eskatzen duelako; hitz sakratua, izan ere, eragilea bait da berez.

Hari honi jarraituz, testu sakratuetatik euskarara (Bibliatik) egin diren itzulpenen historia labur bat egin da. Historia horren bukaeran, ordea, bi itzulpen handi aurkitzen dira: Eliz arteko Bibliaren itzulpenarako taldearena, eta Liturgi Batzordearen Itun Berriaren itzulpena. Hauek ere artikulu banatan aztertzen dira.

Senezen ale honen gai monografikoa den horren ondoan, ordea, azkeneko aldi honetan itzultzaileen artean pilpilean dagoen beste gai bat dator: Itzultzaile ikasketen erregulazioa. Espainiako Estatuan itzultzaile ikasketak aldatzeko asmoa dago, eta proposamendu batzuk egin dira. Proposamendu horien iturburuak eta nondik norakoak aztertzen dira bi artikulutan.

Horiez gainera, Senezek bereak dituen atalak betetzen dira: itzulpen kritika, aldizkari eta liburuen berri ematea, eta berri eta albiste laburrak.



**GAI AK**



## **Itzulpen tradizioa eta Biblia Mendebaldean**

### **X.Mendiguren**

Itzulpen formalak izan zirelako testigantza K.a.ko hirugarren milururean jarri behar dira, Assyriako Sargonek bere balentriak inperioko hizkuntza ugarietan aldarrikatu nahi izan zituenean. Hammurabiren Babylonia bera ere hiri eleaniztuna zen eta inperioan burutzen ziren hainbat arministralgo egintza ediktua hizkuntza desberdinetara itzultzen zituzten eskribau taldeei esker gertatzen ziren. Eskriba hauek burutzen zuten lanaren partetariko bat hizkuntza desberdinen artean baliokideak ziren hitzen zerrendak egitea eta gordetzea izaten zen, taulatxo kuneiformetan gorderik alderdi eta garai desberdinetatik iritsi zaizkigun "hiztegi" hauetan ikus dezakegunez. Antzinateko itzultzaileen egintzaz aipurik ere ageri da Biblian bertan ere Esther 9:9 pasartean, non esaten den Erregeren eskribauei eskaria egin zitzaieela ediktu bat presta zezatela *"Indiatik Ethiopiaraino probintzia guztietako satrapa eta gobernari eta printzeei, ehun eta hogeita zazpi probintziari, probintzia bakoitzari bere idazkeraz eta herri bakoitzari bere mintzairaz, eta beraz Juduei ere beren idazkeraz eta mintzairaz"* igortzeko.

Nehemiharen garaian itzulpen mota berezi bat garatu zen juduen komunitatean, K.a.ko 397 urte aldera. Nehemiah 7:73b-8:8

pasartean datorrenez, herri osoa biltzen zen legearen irakurketa entzuteko Ur Atearen aurrekaldeko plazan, "*Eta liburutik irakurtzen zuten, Jainkoaren legetik, argiro (edo interpretaritzarekin); eta zentzua ematen zuten, herriak irakurria uler zezan*". Mesopotamia-ko gatibualditik itzultitako jendea ez zen gai Idatzietan erabilitako hebraiera ulertzeko. Ondorioz, jendeak uler zezan nahi izanez gero, itzultzaile (edo interpretariak) azaldu behar zioten aramaieraz, Mediterraneoaren Ekialdean bizkor hedatzen ari zen merkatal hizkuntza semitikoz. Eskritura Santuen atalen baten itzulpen formalaz daukagun testigantza fidagarri bakarra Ecclesiasticus liburuari buruzkoa da, apokrifoen artean sartuarena. Siraken Jakituriaren liburuua Egipton grekora itzuli zuela dakigu haren bilobak K. A.ko 130 urtean. Garai beretsuan Itun Zaharra grekora itzuli zuten zenbait adituren artean Egiptoko Alexandriako komunitate judua hazten ari zelako eta grekoaz gero eta gehiago baliatzen zirelako.

Antzinateko greko eta erromatarrek nahikoa eskarmentu zuten arren itzulpen lanetan (ikus bedi Livio Androniko, Naevio, Aennio, Quintiliano, Cicero, Horazio, Catullo, Plinio gazteak eta abarrek nolako itzulpen bikainak egin zituzten grekotik eta teknikari buruzko zeinen gogoeta zorrotzak eskaimi zituzten) zoritxarrez, Bibliaren itzulpena ez zen baliatu beti esperientzia jori honetaz eta sarritan "*letra gehiago errespetatu zen izpiritua baino*" bihurketa lan haue-tan. Aquilak Itun Zaharretik grekora egin zuen itzulpen hitzez-hitzezkoa izan daiteke joera letrazale honen lekuko nabarmenenetako bat. Theodotianok ere bigarren mendean, egin zuen ahaleginik itzulpena hobetzeko eta azkenik Symmakok, mende beraren azken alde-ra, eman zituen pauso batzu testu sakratua ulergarriago gerta zedin.

Itun Berriaren itzulpenak goiz eta hizkuntza desberdin askotara egin ziren. Aurrena syriera eta latinera, ondoren koptiko, ethiopia, gotiko, armeniera, georgiera eta abarretara, gero eta bizkorrago hedatzen ari zen kristau komunitatearen premiei erantzuteko. Ezagutzen ditugun latinezko itzulpenak oso hitzez-hitzezkoak dira eta aski traketsak. Horregatik K.o.ko 384ean Damaso Aita Santuak Itun Berria latinera itzultzeko eskatu zionean Hieronimori, aski lanbide zaila sortu zitzaion hainbeste bihurpen kontraesankor eta interpretazio

desberdinen artean aukera egin behar bait zuen. Hieronymo jakinaren gainean zegoen bere egitekoaren zailtasunaz eta egingo zizkio ten zenbait kritika aurrez ikusiz aurrea hartzea erabaki zuen. Antzinateko itzultzaileen artean buruturiko lanik sistematikoena eta zorrotzena izan zen Hieronymok burutua, ongi pentsatu eta hausnarturiko abiaburuen arabera eta argi eta garbi aitortu zuen “*zetzuz-zetzuz itzuli zuela eta ez hitzez-hitz*”, horretarako Ciceroren autoritateaz baliatuz.

Erdi Aroan zehar Europaren Mendebaldean, Bida Beneragarriak San Joanen Ebanjelioaz egin zuen itzulpena kenduz gero, latin zurrunez egindako erlijiozko entsegetara mugatu zen itzulpen lana. Hala ere, IX eta X mendeetan Bagdad klasiko grekoak arabierara itzultzeko zentro garrantzizko bihurtu zen. XII mendean Espainiako Toledo ere klasiko grekoak latinera itzultzeko zentro gailen gertatu zen baina normalean siriera eta arabiera bezalako hizkuntzak erabiltzen ziren bitartekotzat. Baina garai hartan ere ez ziren falta itzulpenaren oinarrizko teknikak ezagutu gabe lan honi ekiten ziotenak, eta XII mendearen azkenetan Maimonidesek ere berriro gogora ekarri behar izan zuen, lehenago Cicerok bezala, hitzez-hitzeko itzulpenak sarritan ulerkaitez eta ilunak gertatzen direla eta zentzuraz jo behar dela areago.

### **Errenazimendutik gaur arte**

Errenazimendu garaian, Mendebaldea grekotik egindako itzulpenez gainezka zegoen, izan ere berauek lagundu bait zuten hein handi batan Antzinatea berraurkitzen. Nola testu hauek elizgizonak ez zirenentzat ere interesgarriak gertatzen ziren, sarritan herri-hizkera erabiltzea justifikaturik zegoen itzulpena egitean irakurlego zabala go hura kontutan izanez. Agi denez, itzulpen hauen maila ez zen oso ona eta parez-pare artean ere arreta handiz lan egiten zen Biblia itzultzean; horregatik itzulpen abiaburuei buruzko eztabaida eta ahaleginak ia beti Bibli itzultzaileen artean garatzen ziren.

XVI mendean itzulpenaren alorrean gailentzen den figura Martin Lutero da eta beronen ekarpena zenbaterainokoa izan zen jakiteko,

aurreko garaian zer gertatzen zen jakin beharra dago. Luterok bere Itun Berria argitara eman zuenerako 1522an (Biblia osoa 1534ean agertu zen), ordurako bazeuden itzulpenak Mendebal Europako hizkuntza nagusienetan, esate baterako, holanderaz, alemanieraz, txekieraz, ingelesez eta frantsesez. Gainera Erasmo bezalako intelektualek egundoko eragina izan zuten itzulpen teorian, zilegi bada orduan itzulpena egiteko moduz nagusi zebiltzan ideiei izendapen hori ematea. Bestalde, arrazoi politiko eta sozialengatik, gortean eta elizgizonen artean erabiltzen zen latinaren parean herri-hizkuntzak sendotzeko interesa eta joera ari zen indartzen. Horregatik, latinezko erretorikoek, zeharka bazen ere, herriari bere hizkuntzak zeukan nortasun eta izakera berezia eta apartekoa kontutan hartzera bultzatzen zioten. Eta nahiz eta Nikolas von Wyle bezalakoak hitzez hitzezko itzulpenaren alde agertzen ziren, itzultzaile gehienak jendeak hitzegitean erabiltzen zuen bezalako hizkuntzaren alde agertzen ziren. Eta horrela jokatzearan Erdi Arotik mailegaturiko abiaburu erretorikoei azpikjokoa egiten ari ziren.

Guztiarekin ere, itzulpen esanahitsuagoaren aldeko joera goiztiar hauek gorabehera, Luterok meritu guztia merezi du ulergarritasun guztizkoa lortzearen premia sentitu izan zuelako, batez ere eztabaida teologikoarenugarretan. Luterok ez zuen, oro har, jendeak Eskritura Santuak ulertzeko zuen eskubidea defendatu bakarrik egin, baizik eta sistematikoki landu zituen bere abiaburuek itzulpenean zituen ondorio eta inplikazioak: hitzen ordenua aldatuz, laguntzaile modalen erabilera sartuz, behar zirenean konektagailuak ezarriz, alemanieraz baliokiderik ez zuten termino greko eta hebraierazkoak ezabatuz, jatorrizko hitzak itzultzeko perpausak erabiliz, metaforak ezmetafora bihurtuz eta zehaztasun exegetikoa eta testuetako aldagaiak arretaz irakurriz.

Luterok Eraberrikuntzan izan zuen buruzagitza ikusirik eta Itun Berria alemanierara itzultzean izan zuen arrakastaren aurrean, ez da harriztekoa William Tyndalek, Itun Berria ingeles modernora aurrenekoz itzuli zuenak, Luterok egin zuen lanaren parez-pareko bat burutu nahi izatea. Nahiz eta Tyndalek zuzenean grekotik itzuli eta in-

geleseko hitzen hautapenak egitean ezin izan alemanierazko hitzen baitan egoterik izan, guztiarekin ere atxekimendu nabarmena agertu zuen Luterok bere itzulpenean baliarazitako abiaburuekiko. Horregatik abiaburu hauek zeregin nagusia izan zuten Tyndalen obra gerora ingelesera egin ziren Itun Berriaren oinarritzat onartua izan zedin.

Nahiz eta Luterok garrantzi aparta izan itzulpenaren alor osoan ez bakarrik burutu zuen lanaren jarraibidearekin, baizik eta bere **Sendbrief vom Dolmetschen** (1530) saiakeran adierazten dituen ideiengetik ere, halere Etienne Doleti aitortu behar zaio lehenengoz itzulpen teoria bat formulatzearen meritua.

Etienne Dolet, Frantziako Orleansen jaioa, buru-belarri murgildu zen garai hartan indartzen ari zen mugimendu humanistikoan, Erasmorekin eztabaidatan eta beste ekintza politiko eta intelektual ugarietan esku hartuz. Guzti honen ondorioz behin baino gehiagotan egon behar izan zuen gartzelan eta eta bere hamahiru libururekin batera epaitu eta erre egin zuten agintariak. Badirudi Platonen obretan agertzen den elkarrizketetako bat "*gaizki itzuli*" zuelako, heresetzat salatu eta ateismoaren aldeko bezala agertzen omen zelako hilezkortasuna auzitan jarriz, torturatu eta estrangulatu egin zuten sutan erre aurretik.

Etienne Doletek berak honela laburtu zituen itzulpen abiaburu oinarritzakoak:

1. Itzultzaileak erabat ulertu behar ditu itzultzen ari deneko autorearen edukina eta asmoa.
2. Itzultzaileak itzultzean darabiltzan hizkuntzen ezaguera ona izan behar du: zeinetatik ari den eta zeinetara ari den.
3. Hitzez-hitz itzultzeko joerari ihes egin behar dio itzultzaileak, zeren eta hori egitea jatorrizkoaren esanahia deuseztatzea eta adierazpenaren ederra hondatzea bait da.

4. Erabilera arrunteko hizketa-erak erabili beharko lituzke itzultzaileak.
5. Bere aukera eta hitzen ordenuarekin itzultzaileak efektu orokor guztizkoa sorterazi behar du eta "tonu" egokiarekin.

Interesgarria da ohartzea nola Doletak sentitzen duen jatorrizko autorearen espiritu eta ahaleginarekin harreman betean egon beharra.

Garai honetako beste itzulpen gogoangarri bat Casiodoro de la Reina espainiarrak egin zuen Bibliarena da, 1568an argitara emana eta 1603an Cipriano de Valera adiskide eta lankideak zuzendua. Bi gizon hauek harreman estutan zeuden Frantzia, Ingalaterra eta Alemaniako intelektual nagusienekin eta beraien jakituriari eta hizkuntzaren erabilerarekiko sentiberatasunari esker itzulpen aparta sortu zen. Espainian zehar, zenbait gainbegiratu hartu ondoren, eragin nabaria izan zuen testu hau ez zen iritsi, halere, ingeles eta alemaniar itzulpenek itzulpen teoria eta praktikan izan zuten eragin bera izate-ra.

Ingalaterrako James I Erregeren gomendioz Bibliaren itzulpen lanari ekin zioten itzultzaileek ez zuten itzulpen abiaburu edo teoria berririk garatu. Izan ere, ez zuten ezer berririk egiteko asmorik, baizik eta aurreko itzulpenetan zeuden ekarpenik hoberenak hautatzea, sarrera argi eta garbi aitortzen dutenez. Baina atal-metatze zaporegabea izan zitekeen zerbait itzulpen ohargarri gertatu zen, itzultzaileek exegesian erakutsi zuten zentzu onarengatik eta eta jendarean irakurri beharrekoa zen testua bat egitean nabarmendu zuten sentiberatasunarengatik. Hasiera batean testu honek etsai ugari izan bazuen ere –Mayflower Konpainian ez zuten onartu– gerora irabazi egin zion borroka Rheims-Douay izeneko bertsioari. Mende batean baino gehiagotan hizkuntza desberdinetako Bibli itzulpengintza zordun gertatu izan zaio James Erregeren agindupean buruturiko itzulpen bikain honi.



## Les belles infidèles

Idatzi Sakratuen itzultzaileek, oro har, erakutsi zuten ardurarekiko kontraste nabarmenean, obra profanoak itzultzen ari zirenek askatasun mugarik gabea azaldu zuten XVII eta VIII mendeetan zehar. Georges Mounin hizkuntzalariak izen egokia aurkitu du aro honentzat: “*Les Belles Infidèles*” edo “*Desleial Ederren*” Aroa. Abraham Cowleyren ideiak aski eragingarriak izan ziren itzulpenean askatasun kontzientezko bidetik jo nahi zutenentzat. Pindaroren Odak itzuli zituelarik, “*zoro-lantzat*” jotzen zuen haren poemak hitzez-hitz itzultzea, eta horregatik bere gogara gauzak kentzen eta eransten zizkien poemei eta espreski aitortzen zuen bere asmoa ez zela Pindaroren hizkera zehazki ematea baizik eta haren bidearen eta moldeen berri ematea orokorrean.

1680an, Drydenek ez zuen ontzat eman Cowleyren itzulkerak eta “*imitazio*” iritzi zion beronen lanari. Drydenentzat hiru itzulpen mota zeuden: metafrasea edo hitzez-hitzezkoa edo lerroz-lerrokoa; parafrasea edo autoreak esana arretaz kontutan hartzen duena baina ez hitzez-hitz zentzuz baizik eta imitazioa edo itzultzaileak hitzak ezezik zentzua bera ere aldatzeko askatasuna bere gain hartzen dueneko. Drydenek berak parafrasea proposatzen zuen itzulpen egokitzat, beste biak itzuri beharreko mutur gisa ikusten zituelarik. Alexander Popek, 1715ean, bide beretsuari heldu zion eta hitzez-hitzezko itzulpena nekez izan zitekeela jatorrizkoaren ordain bikaina aitortzen zuen.

Berrogeitamar urte geroago Batteux frantsesa zuhurrago agertzen da hitzezkotasuna kondentatzean eta berak proposaturiko “*arauek*” ahal zen neurrian hitzen eta ideien ordena errespetatzea eskatzen zuten, luzeera bereko perpausak erabiltzea, juntagailuak bikoiztea eta parafrasari ihes egitea. Batteuxek ez zituen baztertzen aldaketak beharrezko zirenean baina arreta handiz jokatzeko forma birsortzeari zegokionean. Alemanian antzeko garapena gertatu zen, Herder eta Schlegelen itzulpenetan ikus daitekeenez.

1755ean argia ikusi zuen John Wesleyren Itun Berriaren itzulpenak eragin nabaria izan zuen Liburu Santuaren itzulpenean, zeren

bere lana oso aurreratua gertatu bait zen garai hartarako. Oso ongi isladatzen zituen itzulpen profanoaren erizpideak eta arazo teologiko, tekniko eta exegesiari buruz hartu zituen zenbait erabaki gerora itzulpen standardetan jaso zen.

1789an, Aberdeengo George Campbellek liburu gogoangarri bat argitaratu zuen itzulpenaren historiaz eta teoriatz, batez ere Idatzi Santuekin zerikusia zuen heinean. Ebanjelio itzuliak zekartzaten bi liburuki hauei egin zien 700 orrialdetako sarreran, Campbellek era sistematiko batez tratatu zuen Bibliaren itzulpena, ordura arte beste inor eman zion bezalako zabalera eta sakonera gaiari eskainiz. Adibide ugariaren bitartez adierazi zituen Hieronimo, Kastalio, Beza eta abar bezalako itzultzaileen artean dauden aldeak eta ikuspegi zorrotzak agertu zituen testu kritikari dagokionean. James I Erregearen itzulpenari egin zizkion kritiketan ikus daitekeenez jakitura trinkoa eta zentzū amankomuna uztartzen ongi zekien eta azkenik, hiru printzipio edo abiaburutan laburbildu zituen itzulpen on baterako irizpi-deak:

- 1.– Jatorrizkoaren zentzua ongi eman.
- 2.– Itzulpenean, autorearen espiritua eta moldea ahalik eta gehien eman idaztean darabilen hizkuntzaren izakerarekiko kontsistentzian.
- 3.– Ahaleginak egin jatorrizko saioak duen gaitasuna izan dezan, "*naturala eta erraza bezala agertzeko.*"

Biblian ezezik klasiko grekoak ingelesera itzultzeko ere abiaburu hauek zernolako inplikazioak zituzten argitzen saiatu zen Campbell.

Hurrengo urtean –1790ean– Alexander Fraser Tytlerrek **The Principles of Translation** izeneko liburua argitaratu zuen eta honek ere hiru abiaburutan laburbiltzen zituen itzulpenari buruzko bere ideiak: jatorrizko obraren ideia erabat eman behar da, jatorrizkoaren estiloa eta moldea izan behar ditu itzulpenak eta jatorrizko konposizioaren erosotasun guztia izan behar du itzulpenak. Campbellek plagiotzat salatu bazuen ere Tytlerren lana, askoz eragin handiagoa izan zuen Lord honen obrak eta zentzu batean Tytlerrekin aro bat

amaitu eta beste bat hasi zela esatea bidezkotzat daukagu. Izan ere, XIX mendearen hasieran supersofistikazio moduko bat sortzen bait da itzulpenaren alorrean "*itzultzea merezi duen oro itzulezina dela*" pedanteki esanez. Matthew Arnoldek hexametrotan egin zuen Homeroren obraren itzulpena izan daiteke esanaren lekuko bat.

Joera honek bere literalismoaz Bibliaren itzulpenean izan zuen eragin kaltegarriaren testigantzatariko batzuk **Bibliaren Ingeleseko Bertsio Berrikusian** (1881, 1885) eta **American Standard Version** deritzonzonean aurkitzen ditugu. Bertsio hauek izan litezkeen bezain literalak dira baina halere zentzudunak dira: ongi zehazturiko abiaburuen ondorio direlako gertatzen da hori. Itzulpen hauek oso ezagunak bihurtu dira grekoa eta hebraiera ikasten ari ziren teologia-ko ikasleen artean lagungarri edo "pony" bikainak gertatzen bait ziren, baina ingelesez mintzatzen diren kristau komunitateetan ez dira gertatu hain ezagun eta erabiliak, ez bait dute komunikazio helburua ongi lortzen XVI mendeko esamoldez horniturik (batzutan James Erregearen bertsioak dituenak baino arkaikoagoak gertatzen dira zenbait esamolde) eta sintaxia trakets eta jatorrizkoari lotuegi batez emanak daudelarik. Pasarte asko ingelesezko hitzez tajutuak badira ere, gramatikari dagokionean arrotz gertatzen dira eta zentzurik ez zaie hartzen.

XX mendea errotiko aldaketaren lekuko izan da itzulpen abiaburuei dagokienean. Lehenengo eta behin komunikazioari buruzko kontzeptu berriak landu dira gero eta kaskarragoa gertatzen ari zai- gun mundu honetan. Psikologo, semantikari, politiko eta publizitate- gileen eraginez, komunikatzea lortzen ez duen mezua alferrikoa dela ulertzera iritsi gara. Gainera, azken urteotan garrantzi handiko gertaerek eragina izan dute itzulpen teorian munduaren alderdi desber- dinetan: hizkuntzalaritza estrukturalaren hedakuntza bizkorra (Saus- sure, Kopenhagen eta Pragako Zirkuluak), gaur eguneko metodoak Bibli itzulpenaren arazoetan erabiltzea eta Bibli Elkarte Batuek Ho- landan hasita egin dituzten bilerak (Wycliffe Bible Translators, "**The Bible Translator**"); 1955ean hasita Babel aldizkaria argitara ematea FITek UNESCOren babespean eta azkenik, makina bidezko itzulpenaren ikerketak hartu duen bultzada izugarria EE.BB, SESB eta Japonian batipat.

## **Itzulpen Teoriaren funtsezko gatazkak**

Aldi eta alde oro, joera eta iritzi desberdintasunik ugari izan bada ere testu sakratuak, eta bereziki Biblia itzultzeari zegokionean, funtsean bi joera nagusitara laburbil daitezke guztiak, bi "polo"ren inguruan ardaizten direlarik: itzulpen literala/itzulpen librea, formarekiko enfasia/edukinarekiko enfasia. Bi diferentzi mota hauek elkarrekiko lotura estuan daude baina ez dira erabat gauza bera, izan ere hitzez-hitzeakoaren eta librearen arteko tirandura era beretsuan esan baitaiteke forma eta edukinari buruz ere. Baina, oro har, literal eta libre hitz hauen esanahia ez da normalean ongi definitzen eta nork bere itzulpena defendatzeko eta inorena kritikatzeko eslogan bezala areago erabiltzen dira. Inoir gutxik aztertu ditu zehaztasunez printzipio hauek dituzten ondorioak.

Itzulpen mota literal edo hitzez-hitzeakoa, nekez esan daiteke egiazko itzulpena denik. Batzuk, Arias Montanus edo Aquilaren bertsioak, hor daude, joera horren lekuko. San Hieronimoren hebraieratikoa latinezko itzulpena zeharo desberdina zen printzipioz, baina Itun Berrian nahikoa bihurketa traketsak egin zituen, grekozko zenbait esaldiren hitzez-hitzeako itzulpenak eskainiz. Itun Berriarekiko bere lanketa bizkorrean itzultzaile baino editatzaile areago izan zela esan daiteke eta sarritan aurretiko itzulpen ugariak eskaintzen zituzten era desberdinen artean aukera egitea –behin baino gehiagotan formarik desegokienaren alde gainera– besterik ez zuen egiten. Hain eskasa iruditzen zitzaion Bembo Kardinalari San Hieronimoren bertsioa latinaren aldetik, non uko egiten zion latinez Itun Berria irakurtzeari, bere latinezko estiloa hondatzen omen ziolako.

Aldiz, Sebastianus Castelliok 1551ean argitara eman zuen Eskritura Santuen itzulpena, latinaren alderditik irakurgai atseginagoa egiteko asmoz, ia beste muturrera joan zen, sarritan hizkera loratuegia eta exotikoezia erabiliz. Itzulpen literala eta librearen arteko desberdintasunak ez dira negatibo/positibo dikotomia batera mugatzen, baizik eta berezketa polar baten arabera hobeki ulertzen dira tartean maila ugari daudelarik.

Forma eta edukinaren arteko gatazka aski garrantzizkoa gertatzen da mezuaren forma oso espezialdua denean, poesiaren kasuan bezala. XVII mendean Sir John Denham erabat oharturik zegoen auzi honetaz Virgilioren Eneidaren II liburuaeren sarreran honako hitz hauek jaulkitzean: *"I conceive it a vulgar error in translating poets to affect being fidus interpres. Let that care be with them who deal in matters of fact or matters of faith; but whosoever aims at it in poetry, as he attempts what is not required, so shall he never perform what he attempts; for it is not his business alone to translate language into language, but poesie into poesie"* (Tytler, 1790, p.35).

Poesia lirikoa ez dago hitz lauz egoki itzultzerik, zeren eta jatorrizkoan "kanta" baten era zuena "kanta" baten gisako zerbaiten bitartez bihurtu behar bait da. Metroa edo neurria desberdina izan daiteke, baina oro har efektuak baliokidea izan behar du inolako zentzurik izatea nahi bada. Horrela, kasu batzutan forma alde batera utz badaiteke ere edukinarengatik, poesia lirikoaren kasuan formarekiko hurbilpen moduren bati eutsi beharra dago, nahiz eta edukinaren galera edo aldaketaren bat gertatzen bada ere.

### Arazo teologiko bereziak

Aurretik ikusi ditugun arazoetatik ateratzen denez, Bibliaren itzulpenak arazo berezi batzuk planteiatzen ditu. Lehenengo eta bat, historia luze bat duen edozein testuk planteiatzen dituenak Izan ere, Biblia bezalako dokumentu erlijioso bat ez da determinatzen aurrena hartu zutenentzat zuen esanaiaren arabera soilik, baizik eta mendez mende jende desberdinarentzat izan duen esanahiaren arabera ere bai.

Biblia itzultzeko orduan prozedurak eta printzipioak ezartzeko orduan sortutako gatazkei dagokienez, honako hiru zentzu hauetan sortuak direla esan behar da: batzu filogogia eta inspirazioaren artean gertaturiko kontrajartzearen ildotik, beste batzu tradizioa eta al-dian aldiko autoritatearen kontrajartzearen bidetik eta azkenik, teologiak gramatikarekin behaztopa egitetik.

Gaur eguneko itzultzailea, esan genezake, zerbait gehiago fidatzen eta oinarritzen dela testuan, hau da, idazle biblikoen berenez zerbait gehiago hitzegiteko aukera ematen zaie, tradizioa eta teologia-ren ekarpenetara gehiegi isuri gabe, baina, jakina, giza ekintzaren edozein esparrutan bezalaxe, erabateko objektibitatea ezinezkoa da, izan ere gu geu ere kultur testuinguru jakin baten partaide eta atal gara, zeinean eta zeinentzat itzultzen ari bait gara. Halere, gaur egunean arreta gehiago zuzentzen da Eskrituraren testua bera aztertzerara eta sakontzerara, beronen inplikazio filosofiko soiletara baino, eta hau osasungarria dela aitortu behar da. Zentzu honetan Luterok burutu zuen lana garrantzizkoa izan zen, nahiz eta Erreforma garaian berrikuntza zirenak, gaur egun guretzat tradizio bihurtu direlako bere garbiketa gatazka lanaren handitasuna lausotua ageri zaigun.

Zorionez, gaur egun hizkuntza moderno nagusi gehienetan agertzen diren Bibli itzulpen gehienak komunikazioaren beharrian funtsezkoaz jabeturik dauden itzultzaileek burutuak dira eta ulergarritasunean aurrera-pauso nabarmena eman denik ez dago ukatzerik.

## SINTESIS

### **La traducción de la Biblia: Su tradición en Occidente**

La historia de la traducción es muy larga: las primeras traducciones documentadas aparecen tres mil años antes de Cristo, en Asiria; en la Babilonia de Hammurabi utilizaban glosarios bilingües, cuyos restos se han hallado en tablillas cuneiformes. Se puede decir que en el mundo antiguo tanto traducción como interpretación fueron actividades frecuentes.

Griegos y romanos se dedicaron con celo a la traducción, e incluso han quedado reflexiones teóricas de gran interés, como las de Cicerón; sin embargo, la traducción bíblica no aprovechó esa experiencia, ya que en ella se respetaba más la letra que el espíritu.

La traducción del Nuevo Testamento comenzó temprano y a muchas lenguas, a fin de responder a las necesidades de una cristiandad que se ampliaba rápidamente.

Las primeras traducciones al latín no fueron de calidad, exceptuando la de Jerónimo, (s.IV), quien confiesa *3haber traducido el sentido y no la palabra*, siguiendo a Cicerón.

En la historia de la traducción bíblica, uno de los momentos más importantes lo constituye la publicación del Nuevo Testamento de Martín Lutero. Hay que decir que Lutero trabajó en un ambiente propicio, distinto al de la Edad Media; así pudo llevar a cabo una traducción moderna, en la que el sentido está cuidadosamente estudiado. Pronto le imitaron en Inglaterra; William Tyndal traduce la Biblia tratando de utilizar procedimientos similares a los de Lutero, aunque sin los mismos resultados. Sin embargo, el mérito de formular por primera vez una teoría de la traducción se le debe a Etienne Dolet, quien defiende la traducción del espíritu y del propósito del autor. Fue torturado y asesinado por haber traducido mal a Platón.

En los siglos XVII y XVIII, surge el fenómeno que Mounin ha denominado "*les belles infidèles*"; traducciones profanas bellas y totalmente distinta de los textos originales, que contrastan profundamente con las cuidadas traducciones bíblicas.

En 1789 George Campbell publica un libro sobre teoría e historia de la traducción, importante sobre todo en lo que respecta a los textos sagrados; un año más tarde, aparecerá otro libro similar, **The Principles of Translation**, de F. Tyler. Con él se cierra una época y se abre otra, el romanticismo. Los románticos llegan a afirmar que "*todo lo que merezca ser traducido es intraducible*"; esta tendencia influyó negativamente en la traducción de la Biblia.

En el siglo XX ha habido un cambio radical en lo que respecta a criterios de traducción. Entre otros factores está el nuevo concepto de comunicación, y la rápida expansión de la lingüística estructural. Estas teorías se han aplicado también a la traducción bíblica.

Hoy en día, al hablar de los diferentes criterios de traducción, hay que señalar que la principal contraposición está en la traducción libre/literal. De la traducción literal se podría decir que no es traducción; sin embargo, esta dicotomía no corresponde siempre a positivo/negativo. Los criterios difieren enormemente según los géneros, estilos, etc.

Por lo que respecta a los problemas teológicos específicos que puede plantear la traducción de la Biblia, nos limitaremos a nombrar su procedencia. Así, pueden surgir de una contraposición entre filología e inspiración; de las diferencias entre tradición y la autoridad del momento; por último, cuando la teología choca con la gramática.

Hoy en día los traductores fijan su atención fundamentalmente en el texto a traducir, lo cual es saludable. La mayoría de los traductores conocen las necesidades comunicativas, y ello ha supuesto un gran paso en la comprensibilidad de la traducción.

## SYNTHESIS

### *The Tradition of Translating and the Bible in West Europe*

*The history of translation has run a long way since its beginnings: the first documented translations make their appearance three thousand years before Jesus Christ, in Assyria. In Hammurabi's Babylon bilingual glossaries were used, whose remains have been found on cuneiform tablets. It can be said that in ancient times both translation and interpretation were usual activities.*

*Greeks and Romans worked hard on translation and some theoretical writings of great interest have reached our days, as for instance those of Cicero; but the biblical translation did not profit from this experience as the letter was taken into account more than the spirit.*

*The translation of the New Testament began early and into many languages in order to answer to the needs of Christianity which was expanding very quickly. The first translations into Latin were not of a great quality, with the exception of that of Jeronimus (IVth c.), who admits "having translated the meaning and not the word", following Cicero's teachings.*

*One of the most important events in the history of biblical translation is represented by the publication of Martin Luther's New Testament. It must be said that he had the appropriated atmosphere to work, unlike the one breathed in the Middle Ages; thus he was able to make a modern translation in which the meaning has a careful treatment. He was soon to be imitated in England; William Tyndal translated the Bible trying to make use of similar procedures, although the results were different. But the merit of establishing a theory of translation for the first time is due to Etienne Dolet who advocates for the translation of the meaning and the purposes of the author. He was tortured and assassinated for having wrongly translated Plato.*

*In XVIIth and XVIIIth centuries a phenomenon was given which Mounin named "les belles infidèles"; profane translations, beautiful but very different from the original texts, in contrast to carefully made biblical translations.*

*George Campbell published a book on history and theory of translation in 1789, important above all with regard to sacred texts; a year later, a similar book made his appearance, *The Principles of Translation*, by F. Tyler. With it an era is closed to give birth to a new one, Romanticism. Romantics affirm that "all that is worth translating is untranslatable"; this atmosphere had a negative influence on the biblical translation.*

*In the XXth century a radical change has taken place as far as translation criteria are concerned. Among others, the new concept of communication as well as a*



*fast expansion of structural linguistics. These theories have also been applied to biblical translation.*

*Nowadays when speaking of the different criteria of translation, it should be pointed out that the main opposition lies within the free/literal translation. Of literal translation it could be argued that it is not a translation; but this dicotomy does not always correspond to positif/negatif. Criteria greatly differ depending on genres, styles, etc.*

*As for the specific problems that the translation of the Bible is likely to arise, we shall only mention their sources; thus, they can come out from an opposition between linguistics and inspiration, from the differences between tradition and the authorities of the time; finally, when theology enters into conflict with grammar.*

*· Today translators pay attention to the original text; which is quite praiseful. Most translators are acquainted with the needs of communication and that has meant a step forward into the comprehensibility of translation.*



## **Korana eta Ekialdeko testu sakratuen transmisioa**

Mohammad-Akram-Umar-ek prestatua  
(Misión Ahmadia del Islam, Pedro Abad, Córdoba)  
Koro Navarrok itzulia eta antolatua.

José María Valverdek dioenez<sup>(1)</sup>, Islamak, Mahomak sortutako erlijioak, tankera eta estilo berezia ematen dio arabiar literaturari; Mahomaren aurretik zegoen literatura berpiztu egiten du eta, Islamaren zabalkundearekin batera, oso urruneko idazleengana ailegatzen da, jatorri eta hizkuntza desberdineko idazleengana, fedea bateratu bait zituen denak.

Korana da Islamaren liburu sakratua: Jainkoa zuzenean arabiarrez mintzatu omen zitzaion Mahomari eta hitz horiek osatzen dute Korana musulmanen ustetan.

Korana, "irakurketa", sura izeneko 114 atalek osatzen dute. Atal hauetako bakoitzak hainbat bertso dauzka, aya izenekoak, eta errima dute, edo erritmoa bestela, neurri jakinik gabe ordea; guzti honengatik, prosa neurtuzat hartzen dira, Testamentu Zaharreko jakituria liburuen modura. Horrela, musulmanek beti izan dute atsegin bertso hauen irakurketa entzutea.

---

(1) J. M. Valverde, Martín de Riquer, *Historia de la Literatura Universal*, 3. alea. Planeta, Barcelona 1984.

Mahoma bere doktrina zabaltzen jardun zeneko urtetan osatu zen Korana; hura hil zenean, berak esandako hitzen kopiak geratu ziren, jarraitzaileek hartuak; batzuek buruz ere ikasi zituzten.

Elementu horiekin, 650 urtean eta Otman kalifaren gidaritzapean, testua ordenatua eta betirako finkatua geratu zen.

Elementu judutarrak, kristauak eta arabiar sinesmen zaharrak ere badaude Koranen, baina hala ere berezia eta originala gertatzen da; leiendak ere agertzen dira, esate baterako, zazpi lotiena.

Koranak arabiarrez idatzitako literatura erlijosoa eraikitzen du; gainera, duen estilo klasiko eta uniformeak garai guztietako eredu bihurtu zuten.

Jainkoak bere egiak arabiarrez aditzera eman zituelako komenzi-menduak hizkuntzarekiko halako kultoa sorrarazi zuen, Koranak erabiltzen zuenarekiko batez ere; horrela, exegesiaren ondorioz, ekarpenak ugariak izan ziren filologian, bidebatez hizkuntza finkatu eta kodifikatzen zelarik. Gramatika eskolak garrantzitsuak izan ziren: Basora eta Kufako eskolek ospe handia izan zuten, baina Bagdadekoak aurrea hartu zien. Hantxe bildu eta aztertzen zuten arabiarra persiar, greko eta turkoek, arabiar hizkuntzak erabat asimilatu zituelarik. Bagdaden nabaria izan zen hizkuntz dogmatismoa; dogmatismo hura mesedegarria izan zen ordea hizkuntzaren garbitasuna mantentzeko.


Islamaren zabalkunde eta urrezko gariaren ondoren, XII-XIII mendean dekadentzia dator, Espainian ezik. Libanoko kristauak gorde zuten arabiar hizkuntzaren garbitasuna. Beraiei esker, eta besteak beste, han hasten da polik-poliki XIX. mendean mugimendu nazionalista berria, eta beraiek bultzatuko dute kultur berrikuntza. Hala hasi zen Nahda delakoa (berpizkundea); mende honetan indar handia hartu du, hizkuntza klasikoaren garbitasuna bersortuz.

Dena den, esan behar da historian gutxitan ezagutu dela kultur hizkuntza bakarra duen halako eremu zabalik. XI mendearen bigarren erdiraino, edozein motatako lanen idazketa arabiarrez burutzen

zen, Indiako bazterretik Penintsula Iberikoraino. 1050. urtetik aurrera bakarrik agertuko dira persieraz eta hebraieraz idatzitako lan garrantzitsuak. Eta ondoko mendeetan -eta baita XX. mendean ere- latinak oso galdua duen bitartekotza beteko du arabiarrek.

Koranak arabiar kulturaren zuen garrantziaz jabetzeko, argigarria gertatzen da musulmanen metodo didaktikoetaz zertxobait hitzegi-

tea. Horrela, hasiera batean idazkerak ez zuen garrantzi handirik, eta horrek ondorio nabarmenak izango ditu eskolatan mende askotan zehar. Irakaskuntza memoriaz baliatzen zen nagusiki, rapso-dek (rawiya) egiten zuten bezala, eta baita hasierako Koranaren irakurleek ere (qurra). Haurrak lehenbizi idazten eta irakurtzen ikasten zuen. Gero buruz ikasi behar zuen Korana (al-Qur'an), eta ondoren kantatuz ia errezitatu; izan ere, haur pila izaten omen zen eskolatan, denak batera erdi kantari, gorputza aurrera eta atzera balantzaka mugitzen zutela.



## THE HOLY QUR'AN

ARABIC TEXT AND  
ENGLISH TRANSLATION  
WITH COMMENTARY

*Ahmadia Misioak ingelesez  
argitaratutako Koran itzul-  
penaren azala*

## **Koranaren itzulpenaz**

Gauza jakina da arabiarrek zientzi transmisioan izan duten garrantzia, eta transmisio horretan itzulpena, arabiar itzultzaileen lana funtsezkoa izan dela. Hala izan ez balitz, segurua da bestelakoa oso izago zela Europa. Koranari dagokionean ordea, itzulpenik ez dela ia izan oraintsu arte esan behar da lehenik eta behin. Korana, Biblia ez bezala, ez zen denbora luzez itzuli. Exegeziak berriz, goian esan dugenez, oso ugariak eta aberatsak izan ziren. Izan ere, musulmanek joaten ziren lekutan arabiar hizkuntza irakasten zuten, Koranaren irakatsiak uler zitzaten.

Dena den, Ummayad eta Abbasid kalifatoen garaian, Espainian batez ere, bai musulmanak eta baita kristauak ere itzulpen lanetan hasi ziren Korana beste hizkuntzatarata itzuli asmoz, baina honen frogarik ez da geratu ordea. Esan ohi da halaber Koranaren lehen itzulpen osoa, latinera, XII. mendean egin zela

XIX eta XX. mendeetan, goian aipaturiko berpizkundea dela medio, Koranaren argitarapen ugari egiten da, eta horrela itzulpenak ere ugaltzen hasten dira; zenbaki zehatza ordea ez da ezatzen.

1889an Ahmadia Nazioarteko Komunitatea sortu zen, Islama mundu guztian barrena zabaltzeko asmoz. Ahmadia taldeak berrogeita hamar hizkuntzatarata itzuli du jadanik Korana, eta munduko hizkuntza guztietara itzultzeko asmoa dauka. Urte honen amaierarako bertso antologia baten itzulpena ehun hizkuntzatarata itzulia izango da. Hau da, 1989erako itzulpen zabalkunde handi bat eginteko asmoa dago, urte horretan ospatzen bait da Ahmadia Komunitatearen lehenengo mendeurrena. Espainierarako itzulpena Ahmadia Muslim Mission Spain delakoak egin du. Londonen argitaratuko da eta laister aurkitu ahal izango da Espainian.

Ahmadia taldeak Korana itzultzeko honako arrazoi hauek ematen ditu:

- Koranaren itzulpen gehienak arabiarra ezagutzen ez zuten jendeak eginak dira, edo ezagutzen bazuten ere oso jakin-

tza eskasa zutenak. Beraz, Koranaren benetako zentzua ez zuten ulertzen eta oso itzulpen aldrebesak egiten zituzten.

- Itzulpena ez zen arabiar hiztegian oinarritzen, eta komentario hutsak hartzen zituzten abiaburutzat.

Horrela bada, arabiarra ezagutzen ez dutenentzat arabiar hiztegian oinarriturik itzulpenak egitea erabaki zen. Dena den, honako hauek hartu behar dira kontutan:

- Koranaren itzulpena oso landua eta leiala izanik ere, laguntza baino ez da izango Korana bezain esanahianitza eta aberatsa den liburuaren erakutsiak ulertzeko.
- Ezinezkoa da ia Koranaren bertso batzuk aukeratzea gai bat landu edo argitzeko, bertso guztiak elkarren artean loturik bait daude, kanale anitzetako komunikazio sistema bailitzan.

Guzti hau hala bada ere, lehen esan bezala, kontutan izanik munduko bizilagun gehienek, kultur eta hizkuntza desberdinetakoak izaki, ezin dutela Korana ezagutu, egoera larria dela esan behar. Izan ere, tragedia da azken hamalau mendeetan Korana hirurogeita bost hizkuntzatarara baino ez itzuli izana. Biblia berriz, eta Bible Societies-en txostenaren arabera, 1808 hizkuntzatarara itzuli da. Hemendik aurrera beraz itzulpenaren bidez Korana ezagutzera emateko asmoa du Ahmadiak.

### **Literatura sanskritoa: sorrera**

Indiako literatura sakratuak, eta budismoarenak bereziki, badu antzik Koranaz esandakoarekin; horrela, eta beste zenbaitetan gertatu den bezala, hizkuntza bera, erlijoaren bitarteko denez, sakratu bihurtzen da, honek dituen ondorioekin: hizkuntz exegesia, purismoa, hizkuntza kodifikatu, finkatu eta mantentzea, eta abar. Itzulpenari dagokionean berriz, bestelakoak dira gauzak, budismoaren testuak azkar, hizkuntza askotara eta ondo itzuli bait ziren.

Indoeuropar herrien literatu obra zaharrenak, Indian agertzen dira sanskrito idatzirik —ezagutzen den indoeuroparraren mailarik zaharrena da sanskrito—, J.K.a. 2.500 inguruan. Erlijioa, kultura eta jakintza dira idazki hauen gaiak, giro poetiko eta magikoan murgilduta. Literatura sanskritoaren lehen aroa vedikoa deritzana da (vedak “zientzia” esan nahi du), J.K.baino bi edo hiru mila urte lehenago sortua.

Beste literatur obrak ere badira aro honetan; testu erlijiosoak di-relako, eta liturjian erabiliak, mantendu eta ailegatu zaizkigu.

Rigvedaren lehen himnoek, veda-sanskritoz idatziak, oraindik iraniar zaharraren antza handia dute. Veda-sanskrito apaiz mintzaira da, ukitutegina, eta forma betirako egina du Vedatan, nahiz eta geroago zertxobait aldatuko den bigarren mailako idatzietan.

Guzti honen ondorioz sortu zen sanskrito klasikoa. Hasieran apaizek baino ez zuten erabiltzen, baina gero erlijiotik kanpo ere izango zuen erabilpenik. Hein handi batean hizkuntza artifiziala izan zen, erlijio jakin batzuek ez ezik, klase batzuek erabilia. Indiar gramatikariek oso goiz kodifikatu zuten, eta betirako finkatu. Panini gramatikaria eta bere eskolaren garrantzia, esate baterako, gaurko hizkuntzalari guztiek aitortzen dute.

Sanskritoak ikaragarritzko garrantzia izan du, oraintsu arte ia, Ekialdean. Sanskrito izan zen India Handiko kultur eta erlijio bizitzaren hizkuntza, XV. menderarte gutxienez. Gaur egun ere, leku eta hizkuntza desberdinetako indiar kultoak sanskrito mintza litezke.

Hizkuntz erabilera berezi honi dagokionean, antzeko gauzak aurkitzen ditugu Ekialdeko beste zenbait hizkuntzatan: horrela, akadiera, hizkuntza semitikoa, aramearra, fenizioa eta hebraiera bezala, Babilonian, persiarrak jabe zirelarik, apaizen jakintza-hizkuntza izan zen (J. K. a. 626-532). Baita hebraiera zaharra ere, Babiloniako katigaldiaren ondoren (538), otoitz hizkuntza bezala eta testu sakratuen idazkerarako erabiltzen zen, herrian berriz aramearra zabal-tzen zen artean.



## **Budismoa: literatura eta itzulpena**

J.K.a. IV mendean, Siddharta printzeak, Buda, "argia duena" izendatuko zutena gero, erlijio berri bat sortu zuen Indiaren ifar-ekialdean; bizitza asketiko gogorra egin ondoren, Jainkoak bere egiak agertu zizkion, budismoari hasiera emanez horrela. Oso bizkor zabaldu zen, erlijio vedikoaren lekua hartuz. Buda Indian barrena berrogei urtez ibili zen bere doktrina erakusten; erakutsi hauek bere jarraitzaileek jaso eta gorde zituzten, ahoz lehenbizi eta idatziz gero.

Horrela burutu zen budismoaren literatura kanonikoa. Literatura hau hizkera desberdinetan emana zegoen: paliz -indiar erdi literarioa-, sanskrito nahasiz eta sanskrito hutsez. Guzti honek testu multzo ikaragarria osatzen du, zenbaitetan kalitate handikoak gainera.

Badira halaber Budari buruzko kontakizun biografikoak, Lalita-Vistara esate baterako; honek eta beste biografia batzuek osatu zuten, arabiarrez, Barlaam eta Josafat famatua, Espainian oso azkar ezagutu zena, eta Mendebaldera Budaren leienda ekarri zuena, gero hainbat idazlek erabilia.

Budismoaren testu sakratuen itzulpena oso azkar hasi zen; horrela, J.K. o. I. go mendean, hasten da budismoa Txinan sartzen, eta erlijioarekin batera itzulpena. Lehen itzulpen hauek ordea ez ziren oso egokiak izan. Budismoaren hitz teknikoak itzuli egin zituzten gehienak; beste batzuk transkribatu soil-soilik, baina txinerak ez zituen bereganatu. Arazo sintaktikoak berriz askoz larriagoak ziren; betiko burruka aurkitzen dugu, itzulpen librea ala literala ote den hobe. Bi mutur zeuden: edo eta estilo txinar egokia erabili, edo eta sintaxian guztiz desberdina zen testu bati leialtasun osoa. Ondorioz, idazki budisten hasierak oso itzulpen libreak dira, itzulpenak izan ezik, jatorrizko testuen parafraasiak diruditela sarritan; bestalde, oso hizkera bitxian daude emanak gehienetan, eta hain da estiloa bitxia, ezen ulertzina gertatzen zen budismoan aditua ez zen txinarentzat.

Oso bestelakoa da berriz Tibeten gertatutakoa. Han, VII. mendetik XIII. era, hizkuntzen lanketa sakona izan zen, itzulpenaren bide-  
tik sarritan. Tibeteko hizkuntza, artzai hizkuntza hasiera batean, VII.

mendean hasi zen idazten, Cachemira inguruko alfabetoan, eta aberastasan eta malgutasun handia lortzen du. IX. mendetik aurrera tibetar-sanskrito hiztegi bat burutu zen, 9.800etik gorako hitzekin, Mahavyupatti izenekoa. Itzultzaileek, indiar eta tibetarrak (lotsava), talde lanean, tibetar hizkuntzara itzultzen dituzte budismoaren testu nagusiak –**Kanjur**– eta baita komentario ugari ere –**Tanjur**.

Lan hau egin ahal izateko, hitzak sortu behar izan iztuen lehenbizi tibetarrak; maileguak ahalik eta gutxien erabiliko dira eta parafrasiak sortu. Parafraasi hauek hitz sanskritoaren egituratze formal eta semantikoan oinarrituz burutzen dira. Sanskritoz, hitz batek berak sorrarazten ditu esanahi inplizitoak (nirukta sanskritoz, itzulpenik gabe guretzat). Horrela, “santu”ren izen budista arhant da, “gai izan” esan nahi duen erro baten orainaldiko partizipioa; hau uler liteke, hitz trukaketa bidez, “etsaiak” (ari-) “hil dituen” (han-) bezala.

Horrela bada, eta nahiz eta alde handiak izan sanskrito eta eta tibetarraren egituren artean, fraile indiar eta tibetarrei esker, oso zehatzak dira itzulpen hauek, eta testu tibetarretan oinarrituz jatorrizkoen berridazketa burutu ere egin zitekeen. Obra budista asko betirako desagertu zirenez gero turkiar-afganoek unibertsiteateak erasotu eta lapurtu zituztenean, itzulpen hauek lehen mailako iturri dira indiar budismoa ezagutu ahal izateko, Erdi Arokoa bereziki.

## **Ekialdeko literaturaren zabalkundea: Toledoko Itzultzaile Eskola**

Ekialdeko literaturaz eta beronen transmisioaz mintzatzerakoan, nahitaez aipatu behar da Toledoko Itzultzaile Eskola izendatu dena, erabakiorra izan bait zen han egindako lana kanpoko obrak ezagutzera ematerakoan. XII. mendean sortu zuen Toledoko apezpiku gaskoi batek, Raimundo. Hantxe bildu ziren jakintsu kristau, arabiar eta judutarrak, latinera obra klasiko eta ekialdekoak latinera itzultzea helburu zutelarik; obra hauek oso ekarpen garrantzitsua egin zioten zientziari eta orohar kulturari. Toledon bildu ziren Penintsula eta Italiako jakintsuak, eta elkar lanean aritu, nahiz eta erlijio desber-

dinetakoak izan; eta arabiarrez idatzitako obrak latinera itzultzen hasi ziren, eta baita grekeraz lehenbizi eta gero arabiarra itzulita-koak ere. Jatorrizko testu arabiarrek batzutan gaztelarrera itzultzen omen ziren (testu horiek galduak dira betirako), eta gero ekiten zioten latinezko azken bertsiolari.

Itzultzaile hauei esker Europako Mendebaldeko jakintsuek, latina ezagutzen bait zuten baina batere ez grekera, Aristoteles, Euklides eta abarren testuetara hurbiltzeko aukera izan zuten, literatura arabiarra zuzenean ezagutzeaz gain.

Toledoko Itzultzaile Eskolak ez zuen jarraipenik izan, baina tradizio bizi bat utzi zuen hainbat hizkuntzako idatzietan, eta zubi izan zen Ekialde eta Mendebaldeko kulturen artean.

Jakina da bestalde Erdi Aroan itzultzailea eta berridazlea direla europar kulturaren zutabeak. Lan baldintzak benetan kaskarrak ziren. Oso laguntza eskasa zuten beren lanean: arabiarrentzat hiztegi batzuk ( arabiar-latina lehenengo hiztegia 1100 urtearen inguruan agertu zen Espainian). Itzultzaileen jakintza batez ere enpirikoa da. Itzulpen batzuk errakuntza eta pasarte ilun ugari dituzte. Hitz askok latinezko ordainik ez dutenez gero, bere hartan uzten dira. Hortik dator espainierak batez ere arabiar jatorriko horrenbeste hitzen ugaritasuna.

Berreskuratu diren itzulpenen zenbakia ikusirik neur daiteke zenbateraino sartu ziren eta nolako eragina izan zuten antzinako obrak Europan. Berridazleak konturatzen ziren kulturari egiten zioten zerbitzuaz. "Hizki, lerro eta puntu bakoitzeko pekatu bat barkatzen zait", dio bazterrean Arraseko XI.mendeko eskuizkribu batek.

## SINTESIS

### **El Corán y la transmisión de los textos sagrados de Oriente**

El Corán, libro sagrado del Islam, es una obra fundamental no sólo para la religión islámica, sino para toda la literatura árabe, debido a su clasicismo y estilo uniforme. Según la tradición, le fue revelado al profeta Mahoma en árabe, y por esta razón la lengua misma adquirió gran importancia, dando lugar a una larga serie de estudios exegéticos y lingüísticos que codificaron y fijaron muy pronto la lengua árabe. Todo ello produjo cierto dogmatismo y puritanismo lingüístico, presente sobre todo en la famosa escuela de Bagdad; sirvió sin embargo para el mantenimiento del idioma.

El Corán apenas se ha traducido hasta tiempos recientes. Los musulmanes, en el esplendor de su imperio, enseñaban la lengua árabe a aquellos que quisieran conocer el Islam. Así, en los últimos catorce siglos, el Corán ha sido traducido únicamente a sesenta y cinco idiomas. En cambio la Biblia ha sido traducida a 1808 lenguas, según el informe de Bible Societies.

Ante esta situación, la Comunidad Internacional Ahmadia, creada en 1889 con el fin de extender el Islam por todo el mundo, ha traducido el Corán a cincuenta lenguas, y para el año próximo -primer centenario de la creación de la Comunidad- tiene el propósito de preparar una antología de versículos del Corán en otras cincuenta lenguas.

La literatura sánscrita sagrada, y la del budismo principalmente, presenta algunas similitudes con el Corán. Así, como ha ocurrido también en otros casos, la lengua, al ser portadora de la religión, ha adquirido un carácter sagrado, con todo lo que ello supone: exégesis, purismo, codificación y conservación de la lengua, etc. De hecho el sánscrito fue para el budismo al principio lengua religiosa, sacerdotal, aunque tuviera más tarde usos civiles. Aún hoy se utiliza a veces como lengua de cultura entre indios de diferente lengua. En cambio, en lo que respecta a la traducción las cosas son distintas, pues los textos budistas se tradujeron temprano y a muchas lenguas. Así por ejemplo en el siglo I d. J.C., comienza la penetración del budismo en China, y la traducción de textos budistas al chino; pero debido entre otras cosas a las enormes diferencias lingüísticas entre las dos lenguas, más que traducciones eran paráfrasis, casi incomprensibles para el chino no iniciado en el budismo.

En el Tibet en cambio encontramos un caso ejemplar de trabajo en equipo. Para ello, monjes tibetanos e hindúes, trabajando juntos, elaboraron un glosario tibetano-sánscrito de más de 9800 palabras. Las traducciones tibetanas son tan perfectas que, al desaparecer en diversos saqueos los originales sánscritos, se han podido utilizar para reconstruir estos originales; así ha sido posible conocer el budismo hindú de la Edad Media.

En lo que respecta a la transmisión de las literaturas orientales, árabe principalmente, hay que nombrar lo que se ha llamado "Escuela de traductores de Toledo", creada en el siglo XII por el arzobispo Raimundo. Cristianos, árabes y judíos llevaron a cabo una labor de gran magnitud en la traducción de obras árabes y griegas al latín, creando así un puente entre la cultura occidental y la oriental.

## SYNTHESIS

### *The Koran and de transmission of Oriental Sacred Texts*

*The Koran, the sacred book of Islam, is a basical work not only for the islamic religion, but for all arabian literature as well, due to its classicism and uniformity of style. As tradition goes, it was revelead by God to the prophet Mohammed in Arabian and for this very reason the language itself became very important, giving way to a long series of linguistic and exegetical studies which would very soon codify and establish the pattern for a literary language in Arabian. All this produced a certain kind of linguistic dogmatism and puritanism above all at the famous School of Bagdad; nevertheless it was useful to preserve the language.*

*The Koran has hardly been translated until recently. Muslims, in the splendor of their empire, taught the arabian language to those who wished to know the Islam. So, in the last fourteen centuries the Koran has only been translated into sixty five languages. The Bible, for instance, has ben translated into 1808 languages, according to the repport of Bible Societies.*

*To face this situation, the Ahmadia International Community, which was founded in 1898 in order to expand Islam all over the world, has translated the Koran into fifty languages, and for the next year -first centennial of the foundation of the Community- intends to make an antology of versicles of the Koran into another fifty languages.*

*Sacred sanskrit literature, and mainly Budism, presents some similarities with the Koran. Thus, as it has happened in other cases, language, being transmitter of religion, has acquired a sacred character, with all that this implies, exegesis, purism, codification, maintenance of language, etc. In fact, Sanskrit was at the beginning a religious language, although later it would have other uses. Still today it is sometimes used as a language of culture among indians of different languages. But as far as the translation is concerned, the situation is different, as budist texts were translated early and into many languages. Thus, for example, in the first century a.C., Budism started to enter China, as well as the translation of budist texts into Chinese; but due to the enormous linguistic differences between both langua-*

*ges more than a translation they were paraphrase, which a chinese who was not acquainted with Budism could hardly understand.*

*In Tibet, on the other hand, we find an exemplary case of team work. In this sense hindus and tibetan monks, working toghether, ellaborated a tibetan-sanskrit glossary containing more than 9800 words. Tibetan translations are so perfect that, when the original sanskrit texts were lost in the course of several pillages, they were used to reconstruct the said originals; it has been thus possible to know hindu budism of the Middle Ages.*

*As for the transmission of oriental literatures, mainly arabian, what it is called "Translators Schol of Toledo", founded by Archbishop Raimundo in the XIIth century, should be mentioned. Christians, arabs and jews carried out a very important work translating arabian and greek works into Latin, thus establishing a bridge between oriental and occidental cultures.*

**1** <sup>1</sup> Ἐν ἀρχῇ ἦν ὁ Λόγος,  
καὶ ὁ Λόγος ἦν πρὸς τὸν Θεόν,  
καὶ Θεὸς ἦν ὁ Λόγος.  
<sup>2</sup> Οὗτος ἦν ἐν ἀρχῇ πρὸς τὸν Θεόν.  
<sup>3</sup> Πάντα δι' αὐτοῦ ἐγένετο,  
καὶ χωρὶς αὐτοῦ ἐγένετο οὐδὲ ἓν ὃ γέ-  
[γινεν].  
<sup>4</sup> Ἐν αὐτῷ ζωὴ ἦν,  
καὶ ἡ ζωὴ ἦν τὸ φῶς τῶν ἀνθρώπων.  
<sup>5</sup> Καὶ τὸ φῶς ἐν τῇ σκοτίᾳ φαίνει,  
καὶ ἡ σκοτία αὐτὸ οὐ κατέλαβεν.

### Leizarraga:

1. Hatsean cen Hitza, eta Hitza cen Iaincoa baithan, eta Iaincoa cen Hitza.
2. Hitz haur cen hatsean Iaincoa baithan.
3. Gauça guciac Hitz harçaz eguin içan dirade: eta hura gabe deus ezta eguin, eguib denic.
4. Hartan cen vicitzea, eta vicitzea cen guizonen Arguia:
5. Eta Argui hunec ilhumbean arguitzen du: eta ilhumbeak hura eztu comprehenditu.

### Brunet:

1. Asieran itzan zan, eta Izan jaungoicoarequin, eta Itza zan Jaungoicoa.
2. Au, Itza dana, asieran Jaungoicoarequin zan.
3. Gauza guziac eguiñac izan ziran artaz, eta hura gabe, ez zan ecer eguin, eguiña izan zanetic.
4. Bizia aregan zegoen, eta bizia zan guizonen Arguia.
5. Eta Arguiac distiatu du illumbetan, eta illumbeac ez dute ezagutu.

### Elizen arteko Biblia:

1. Haseran bazen Hitza, eta Hitza Jainkoarengana zegoen, eta Jainko zen Hitza.
2. Hau haseran Jainkoarengana zegoen.
3. Gauza guztiak honen bidez dira eginak; eginikorik ezer ez da hau gabe egin.
4. Harengan zen bizia, eta bizia gizon-emakumeen argia zen,
5. eta argiak ilunbetan egiten du argi; eta ilunak ezin itzali zuen.

6 Ἐγένετο ἄνθρωπος,  
ἀπεσταλμένος παρὰ Θεοῦ,  
ὄνομα αὐτοῦ Ἰωάννης·  
7 οὗτος ἦλθεν εἰς μαρτυρίαν,  
ἵνα μαρτυρήσῃ περὶ τοῦ φωτός,  
ἵνα πάντες πιστεύσωσιν δι' αὐτοῦ.  
8 οὐκ ἦν ἐκεῖνος τὸ φῶς,  
ἀλλ' ἵνα μαρτυρήσῃ περὶ τοῦ φωτός.  
9 Ἦν τὸ φῶς τὸ ἀληθινόν,  
ὃ φωτίζει πάντα ἄνθρωπον,  
ἔρχόμενον εἰς τὸν κόσμον.

### Leizarraga:

6. Içan da guïçon-bat Iaincoaz igorria, Ioannes deitzen cenic.
7. Haur ethor cedin testimoniage ekartera Arguiaz testifica leçançat, guciéc harçaz sinhets leçatençat.
8. Etzén hura Arguia, baina igorri cen Arguiaz testifica leçançát.
9. Haur cen Argui eguiazcoa, mundura ethorten den guïçon gucia arguitzen duena.

### Brunet:

6. Izan zan guizon bat Jaungoicoac bialdua, Juan izena zuena.
7. Au etorri zan lecucoa izateco, eta Arguiaren lecucotasuna emateco, guciac artaz fedea izan zezaten.
8. Hura ez zan Arguia, baicic etorri zan Arguiaren lecucotasuna ematera.
9. Hura, ceña zan Argui eguiazcoa, da mundu onetara datorren guziari argui eguiten diona.

### Elizen arteko Biblia:

6. Izan zen gizon bat Jainkoak bidalia: Joan zuen izena.
7. Testigu bezlaa etorri zen, argiaz testigatzera, haren bidez denek sinets zezaten.
8. Ez zen hura argia; argiaz testigantza egin behar zuena baizik.
9. Hitza zen egiazko argia, mundura datorrena, gizon-emakume guztiak argitzera.



10 ἐν τῷ κόσμῳ ἦν,  
καὶ ὁ κόσμος δι' αὐτοῦ ἐγένετο,  
καὶ ὁ κόσμος αὐτὸν οὐκ ἔγνω.  
11 εἰς τὰ ἴδια ἦλθεν,  
καὶ οἱ ἴδιοι αὐτὸν οὐ παρέλαβον.  
12 ὅσοι δὲ ἔλαβον αὐτόν,  
ἔδωκεν αὐτοῖς ἐξουσίαν  
τέκνα Θεοῦ γενέσθαι,  
τοῖς πιστεύουσιν εἰς τὸ ὄνομα αὐτοῦ,  
13 οἱ οὐκ ἐξ αἱμάτων  
οὐδὲ ἐκ θελήματος σαρκὸς  
οὐδὲ ἐκ θελήματος ἀνδρὸς  
ἀλλ' ἐκ Θεοῦ ἐγεννήθησαν.

### Leizarraga:

10. Munduan cen, eta mundua harçaz eguin içan da, eta munduac eztu hura eçagutu.

11. Beretara ethorri içan da, eta beréc eztute hura, recebitu.

12. Baina hura recebitu duten guciey, eman draue priuilegio Iaincoaren haour içateco, haren icenean sinhesten duteney:

13. Cein ezpaitirade iayo odoletaric, ez haraguiaren vorondatetic, ez guiço-naren vorondatetic: Baina Iaincoaganic.

### Brunet:

10. Munduan zegoen, eta mundua berac eguiña izan zan, eta munduac bera eçagutu ez zuen.

11. Bere echera etorri zan, eta beretacoac ez zuten errezibitu.

12. Baño bera errezibitu duten guciai, eman diote Jaungoicoaren semetzeko nausitasuna; [esan nai da] bere izenean fedea izan duten ayei;

13. Zeñac ez dira izan sortuac odolez, ez araguiaren borondatez, ez guizonaren borondatez, baizic Jaungoicoaz.

### Elizen arteko Biblia:

10. Munduan zen, eta mundua haren bidez egina izan zen, eta mundukoek ez zuten onartu.

12. Onartu zuten duztiei, orde, harengan sinesten dutenei alegia, Jainkoaren zeme-alaba izateko eskua eman zien.

13. Hauek ez dira giza odolekoak, ez giza izaerakoak, ez eta gizonaren nahiaz jaioak, Jainkoarengandik sortuak baizik.

14 Καὶ ὁ Λόγος σὰρξ ἐγένετο  
καὶ ἐσκήνωσεν ἐν ἡμῖν,  
καὶ ἔθεασάμεθα τὴν δόξαν αὐτοῦ,  
δόξαν ὡς μονογενοῦς παρὰ Πατρός,  
πλήρης χάριτος καὶ ἀληθείας.

**Leizarraga:**

14. Eta Hitza haragui eguin içã da, eta habitatu içan da gure artean, (eta cintemplatu vkan dugu harê gloria, gloria diot Aitaganic engêdratu vakoi-tzarena beçala) gratiaz eta eguiaz bethea.

**Brunet:**

14. Eta Itza eguin zan aragui, eta bizitu zan gure artean; eta icusi guenduen beraren gloria, Aitaren Seme Bacarra becelacoaren gloria; doayaz eta eguiaz betea.

**Elizen arteko Biblia:**

14. Hitza gizon egin zen eta gure artean etxolatu, eta ikusi genuen haren aintza, Aitaren Seme bakarrari dagokion aintza, graziaz eta egiaz betea.

## **Bibliaren itzulpena Euskal Herrian Historia apur bat**

Jesus M Zabaleta

### **Sarrera**

Bibliaren euskarazko itzulpenaren historia deskribatu eta aurkeztu nahi dugunean, hasiera izan zuen momentutik gaurko eguneraino gakartzan bide sare bat bezala azaltzen da aztertzailearen begietara. Sare horrek une sendo batzuk ditu, gailur une batzuk, momentuan momentuko eta era askotako arrazoiek eraginak: garrantzi handiko eta arnas luzeko itzulpenak egin diren momentuak. Garrantzia, jakina, era askotako arrazoiengatikoa izan liteke, batzutan arrazoi bategatikoa, bestetan bestegatikoa.

Beti ere euskal literaturaren garai bat markatu duten itzulpenak izan dira ordea, garai bati beren marka eman diotenak, edo euskal literaturaren garai oso baten adierazgarri izan direnak.

Bibliaren euskarazko itzulpenaren historia une goren horien inguruan ehunduko dela aurreratu liteke. Itzulpen handi bakoitzak eragin berezia izan du, Bibliaren beraren beste maila batzutatako itzulpenetan, eta are euskal literaturaren zabaltasun osoan ere.

Sarrera honetatik bertatik gailurra jo den une horietako batzuk aipatu behar badira, lehen unea bera aipatu behar da lehenik: J. Leizarragak egin zuen itzulpena.

Hurrena aipatzekoak L. L. Bonaparte printzearen eraginez J.-P. Duvoisin kapitainak eta J. A. Uriartek burutuak dira (azkeneko hau osorik argitara eman gabe dagoena oraindik ere). Euskarazko lehenengo Biblia osoak dira.

Ondoren R. Olabidek itzuli eta argitaratua (1958) ez da ahaztu behar. Hizkuntz ideologia jakin batek baldintzatua, baina aldi berean gaur egun euskal idazle direnek eta adin batetik gorako euskaldunek eskura eduki ahal izan duten euskarazko Bibliaren bertsio bakarra (Testamentu Zaharraren irakurketarako erabilia batez ere. Duvoisin kapitanaren Bibliaz Biblioteca de la Gran Enciclopedia Vascak argitaratu zuena askoz ere beranduago iritsi bait zen).

Zentzu berean aipatu behar dira Orixek argitaratu zuen **Urte guziko meza-bezperak** (1950), gaur egun euskararen alorrean aktiboan dagoen belaunaldiaren puska on batek iturri horretatik edan bait zuen hizkuntz eredua.

Geroztik Vaticano II Kontzilio ondoko erlijio katolikoaren berrikuntza eta euskal mugimendu politiko berri baten ernetze momentu bat elkarren interseksioan gertatzen direlarik, euskal bizitzaren zuzperraldi horretan (69az aurrera eta atzera hedatzen den hamarkada inguru bat, denborari mugak jartzeak zentzurik baduen heinean), arrakasta handiko zenbait Bibli itzulpen argitaratu ziren (**Lau Ebanjelioak, Salmuak**), eta batez ere arnas luzeko bi itzulpen proiektu jarri ziren martxan: Liturgi Batzordearen Bibli itzulpena, eta Eliz arteko Bibliaren itzulpena.

Lerro gutxiotan ageri den Bibliaren euskarazko itzulpenaren gailurreko uneak azaldu dituen sarrera labur honen ondoren, astiroago eta xeheago aztertuko dituzu Bibliaren itzulpenak gure artean eman izan dituen urratsak.

### **Azterketa irizpideak**

Euskal Bibliaren azterketa on, serio eta sakon batek itzultzailearen usteak eta itzulpenaren errealitateak ongi ezagutzea eskatzen du. Itzultzailearen usteak, hain zuzen, bere lanerako izan dituen iritziak

ezagutu behar direlako: zein itzulpen irizpide erabili dituen, bere garaian nagusi ziren irizpideak, zer asmorekin egina den itzulpena, nola konjugatzen eta elkarretara batzen diren Jainkoaren hitzarekiko errespetoak itzultzaileari eskatu izan dion literaltasuna eta pastoral-tzarako erabilerak eskatzen duen hizkuntz egokitasun eta dotorezia; eta itzulpenaren errealitateak: zein euskalkitara itzuli den, zeintzuk izan diren itzulpenarako erabili diren jatorrizko testuak eta testu lagungarriak, zenbateraino bete diren itzultzailearen iritziak.

Horrek guztiak lan monografiko ugari eskatzen du Bibliaren euskarazko itzulpenaren historiari serio heldu aurretik. Lan monografiko horietako bat, eredu bezala har litekeena, Iñigo Ruiz Arzalluz jaunak oraintsu *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*-n argitaratua da: "*Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo testamento*"<sup>(1)</sup>. Beronetan James Barr-ek landu duen tipologia batetan oinarriturik<sup>(2)</sup> Haraneder, Harriet eta Duvoisin-en itzulpen moduaren eta jatorrizko testuarekiko duten leialtasunaren azterketa bat egiten du, San Mateoren ebanjelioaren itzulpenean oinarri artuta batez ere.

Orain aurkezten dugun lan honi dagokionez, egin diren itzulpenen analisi zehatzetan oinarritu ezinez, Euskarazko Bibliaren historia osatu duten itzulpen eta itzultzaileez dauden testigantzetan oinarritu dugu, eta haien bilketa, sailkapen eta konfrontaziora mugatu, hain zuzen. Zentzu horretan, eta muga horien barruan hartu behar da beraz artikulua hau, eta beti eduki kontutuan, ahaztu gabe, itzultzailearen irizpideak gezurta litzakeela, eta oso maiz gezurtatzen dituela gezurtatu ere, itzulpenak berak. Zerbaiten ustean besterik egin, sarri gertatzen bada, itzulpenean are usuago bait da gertatzen.

---

(1) RUIZ ARZALLUZ, Iñigo: "Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento" in *Anuario del Seminario de Filología Vasca "Julio de Urquijo"*, XXX-3. Donostia 1987. 709-723 or.

(2) BARR, James: "The typology of Literalism in Ancient Biblical Translations" in *Nachrichten der Akademie der Wissenschaften in Göttingen*. Ruiz Arzalluzek aipatua, op. cit. 711. or.

## Bibliaren Lehen itzulpenak

Euskarazko Bibliaren historiaren sorrera ofiziala La Rochelle-n gertatzen da 1571an, Joannes Leizarraga **Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria** argitaratzen den unean.

Garaitsu horretan bertan Europako hainbat hizkuntzataraz itzulzen da Biblia, protestanteen eraginez batez ere.

Ordura arte, euskal kristauak, Europako hainbat hizkuntzataraz hitzun diren kristauak bezalaxe, Bibliaz umezurtz egonak dira, Bibliaren zuzeneko ezagutzarik gabe, alegia.

Juan San Martin jaunak galdetzen du ordeaz: *“Es ésta en realidad la primera traducción de la Biblia al vascuence? Eta berak erantzuten segidan: Sí como obra impresa, pero por la literatura oral se puede testimoniar la existencia de algunas partes de la Biblia vertidas al euskara: En el cancionero popular se mencionan frecuentemente pasajes de Noé, Salomón, etc. También en la lectura de pastorales (teatro popular suletino) encontramos de Moisés, Josué, Abraham, Sodoma y Gomorra, el Hijo Pródigo, San Juan Bautista, etc., además de las menciones a salmodias, epístolas y Evangelio en las predicaciones de los sacerdotes”*<sup>(3)</sup>.

Horrez gainera, predikarien eraginez, ahoz aho hedaturik aurkituko ziren Bibliaren beste hainbat pasarte ere han eta hemen.

Biblia izan ere, euskaraz ez bazen, latinez, behin baino gehiagotan aipatzen da Euskal Herrian. Besteren artean aipatzekoa da Nafarroako errege Santxo Azkarrak (1194-1234) bazuela ale bat, latinez idatzia, eta anitz marrazkirekin, Ferrandus Petri de Funesez egindako marrazkiz apaindua Yale-ko unibertsitateak 1970ean berriro argitaratu eman zuena (*François Bucher. The Pamplona Bibles. A facsi-*

(3). SAN MARTIN, Juan: **La Biblia en euskara** in **Boletín de la Real Sociedad Bascongada de los Amigos del País**. Donostia. XXXVII urtea - 1981. 602 - 608 or.

*mile compiled from two picture Bibles with martyrologies commissioned by king Sancho el Fuerte of Navarra*). D. Luis Nafarroako gobernariak bazituen beste bi ale 1361an<sup>(4)</sup>.

Bestalde, bada susmoa Leizarragaz aurretik beste Bibli itzulpenen bat egin ote zen ere. Tomás Fermín Arteta Agoiztarrak zeukan esku izkribu batean oinarriturik, Artemós-Sarratel Jaunak honela bait zioen: *Hay muchos fragmentos de uno y otro testamento que no son de aquella versión (Leizarragarena). Entre otros sabemos que don Tomás Arteta... tiene la Pasión de Jesu-Christo, según San Mateo y San Juan, donde se evidencia que no hubo una sola traducción de la Biblia al vascuence*<sup>(5)</sup>.

### Joannes Leizarraga: Iesus Christ Gure Iaunaren Testamentu Berria (1571)

Esanik geratu da Bibliaren euskararako itzulpenaren historiaren gailur guncetako bat bere lehen unea bera dela. Ez lehenengo itzulpena delako bakarrik ordea, euskal literaturaten historian ere, B. Etxepareren ondoren aipatzen den bigarren obra izanik, ageri duen heldutasunagatik baizik. "*Sorprende ciertamente hallar en los principios de la literatura vasca una obra tan perfectamente acabada, tan adulta*", dio I. Omaechevarriak **Euskera** liburuan<sup>(6)</sup>.

Luis Villasantek, hari beretik, dio: *Las obras de Leizarraga son extremadamente pulidas y perfectas. Para ser un iniciador, sorprende de que hasta tal grado consiga dar la impresión de una lengua tan normalizada y fijada... En sus obras constantemente se revela como un perfecto conocedor de los recursos de la lengua que maneja*. Eta

(4) SAN MARTIN, Juan, Ibidem. Eta **Enciclopedia General Ilustrada del País Vasco**, Ed. Auñamendi, Donostia 1978. *Biblia* artikulua.

(5) ARTEMÓS-SARRATEL: **Diccionario histórico, cronológico, geográfico y universal de la Santa Biblia**, I tomoa (Madrid, 1788) 180, or. SAN MARTIN, Juanek aipatua, Ibidem.

(6) OMAECHEVARRIA, I.: **Euskera**. Ed. Itxaropena. Zarautz, 1959, 156. or

geroxeago: *En suma, Leizarraga aparece en el escenario de la literatura vasca como un gigante solitario, especie de monstruo, sin antecedentes ni consiguientes*<sup>7)</sup>.

Goraipamen eta ohorezko hitz horiek merezi izan dituen itzulzailearen bizitzaz hitz bi esateko gelditzea merezi du: Beraskoitzen jaio zen, berak aitorturik jakin ahal izan denez, noiz eta norengandik zehatz jakiteko modurik aurkitu ez dela ordea, 1506 aldera. Apaiz katolikoa izana, dirudienez, kalbinistetara batu zen 1550-1560 aldean, Haranederrek susmoa zuenez. 1557an eliz-ministro izendatu zuten. 1563-1571 bitartean **Testamentu Berriaren** eta beste zenbait testu laburren itzulpenak burutu eta argitaratu ondoren, Labastidan geratu zen elizako ministro, eta han hil zela dirudi, 1589-1601 bitartean.

### Obraren jenesia eta argitalpena

1559ko Pazkoaz Joana Albreteko, Nafarroako erreginak erlijio katolikoari uko egin, eta kalbinisten erreforma hartu zuen. Bere leinuari Auñamendiz hegoaldeko erresuma guztia kendu zioten Gaztela erregeen kontrako erantzuna izan zen. Erreforma kalbinista bere lurralde guztietan hedatzeko lanari ekin zion berehalatik. Biarnoarrak Genevera bidali zituen, Calvinorekin berarekin ikas zezaten. Zuberoako eta Behe Nafarroako zati bateko handikiak alde zituen. Zuberoako herria ere erreformaren alde jarri zen, ez ordea behenafarrak.

Erregina 1562an alargundurik, are suharkiago ekin zion erreforma lanari. 1563an argitaratu zen Testamentu Berria biarnoeraz.

Leizarragaren itzulpen lana ere erreforma zabaltzeko plan hone-tan kokatzen da. Paben 1564eko martxoaren 14ean ospatu zen sino-doak eman zion Leizarragari Testamentu Berria, Otoitzak eta Dotri-na itzultzeko enkargua, G. Lacombek argitara eman zuen dokumen-

---


(7) VILLASANTE, L.: *Historia de la Literatura Vasca*. (2. ed.) Ed. Aránzazu, Oñati. 1979. 57. or.



tu batean ageri denez "pour s'employer à La translation du Nouveau testament prières et Catechisme en Langue Basque ez pour se préparer aservir au Ministère en Ce pays (Biarn)ou en La basse-Nauuarre"<sup>(8)</sup>.

Lan nekeza (cein içan baita nehorc lehen vicitic estima ahal liçaqueen baino handiago) eta burura eramán gaitza bizkarreratu zitzaion Leizarragari. Nafarroako Erreginari egin zion eskaintzan garbi ageri du Leizarragak bere lanak duen nekearen kontzientzia osoa eta zehatza: *Carguaren hartzera bathiric ecin naidiqueen, eta guti falta cedin non ezpainendin choil guibelera, nacusanean hambatez ere empresa handiágo, cembatez nic scribatu dudan lengoage motá baita, sterilenetaric eta diuersenetaric: eta oraino, tráslationetá behinçat, vsatu gabea.*

IESVS CHRIST  
GVRE IAVNAREN  
FESTAMENTV  
BERRIA.



MATH. XVII.

*Haur da ene Seme maisca, ceinetan neure atseguin onk harizen baintz, huni beha çaquizguiose.*

ROCHELLAN.  
Pierre Hautin, Imprimiciale.  
1571.

Hala ere, Leizarragak 1564 bertatik ekin zion lanari, eta Testamentu berriaren itzulpena 1565erako bukatuta zeukan, urte horretan

(8) LAFON, Renék aipatua: *Le système du verbe basque au XVIe siècle*. Ed. Elkar. Donostia, 1980. 59. or.

bertan ekin bait zion zuzenketa lanari Biarnoko Sinodoak agindurik Sanz de Tartas, La Rive, Landetcheverry eta Tardets osatzen zuten taldeak. Lau zuzentzaileetatik bi behintzat Zuberotarrak ziren: Tartas eta Landetcheverry.

Urtebetean itzulitako liburuak, ordea, sei urtez geratu beharko zuten argitaratu gabe. Argitaratzeko lanetan inprentako lana begiratu eta zuzentzeko Rochellan egon zen Lizarraga, eta hantxe izenpetu zuen Nafarroako Erregina Joana Albretekoari egin zion eskaintza: *Rochellan Agorrillaren 22. 1571.*

Ez da gauza segurua Leizarragaren emaitzak argitalpen bakarra ala bat baino gehiago izan zituen. Ale batzutatik bestetara zenbait aldaketa bait daude. Ale guztiak ez dira berdinak: zenbaitetan Testamentu Berriarekin batera argitaratu ziren gehigarriak ez dira ageri bestetan. Gehigarririk gabeko horietakoren bat ezagutu bide zuen Larramendik, esaten bait du: *“Consta lo tercero al parecer que el autor es calvinista, por el tiempo en que hizo su traducción, por el lugar de la impresión, por la libertad de hacerla en lengua vulgar, y por la reina de Navarra Juana de Albret, á quien la dedica, que vivió y murió calvinista el año 1672. Por lo demás no se puede conocer sea calvinista el traductor, que está á mi entender muy ajustado en su traducción”*<sup>(9)</sup>. Eta ondoren aipatzen dituen osagarrietan, Testamentu Berria osatzen duten liburuak besterik ez ditu aipatzen.

Pentsa liteke, beraz, Testamentu Berriaren argitapen bat baino gehiago izan zirela, edo hala ez bada, argitalpena luzatu egin zela. Leizarraga 1673ra arte Rochellan geratu bait zen.

### Leizarragaren euskalkia

Leizarragaren beraren eguneroko hizketarako euskalkia zein zenik ezin argitu daiteke, ezin daitekeelako argitu zenbateraino islatatzen den bere idazkietan berea zuen euskakia. René Lafonek dio:

(9) LARRAMENDI, Manuel: *Diccionario Trilingüe, Castellano, Bascuence y Latín. Prólogo.* Donostia 1853. XXXII or.

*“Nous ne pouvons savoir dans quelle mesure la langue des écrits de Liçarrague reflète son parler propre, celui qui était en usage dans sa famille et celui qu'on employait à Briscous; ni dans quelle mesure ces parlers concordaient ou divergeaient, ni, par suite, à quoi il faut attribuer la présence dans ses écrits de telle ou telle forme souletine, bas-navarraise ou commune à ces deux groupes de parlers”*<sup>(10)</sup>.

Izan ere, **Testamentu Berria** itzultzeko kargua hartu eta luma paperaren gainean irristatzen jarri zuen une beretik agertu zitzaion garbi Leizarragari euskalkien arazoa: *Gaineracoaz den becembatean, batbederac daqui heuscal herriã quasi etche batetic bercera-ere minçatzeco manerán cer differentiá eta diuersitatea den; raçoin honegatic sensu eguiazcotic aldaratu gabe, lengoageaz den becembatean ahalic guehiena guciey adi eraciteari iarrei qui içan gatzaitza, eta ez choil edocein leku iaquineco lenhoage bereciri* —aitortzen du berak **Hevscalduney** sarrera hitzetan.

Leizarragaren testuak azertu dituzten guztiak bat datoz esanez haren euskalkiaren oinarria lapurtera dela, behenafarreratik eta zubereratik harturiko forma eta hitz askoz aberastua. J. Vinson euskalaria da horretan salbuespena. Harentzat, izan ere, behenafarrera bait da Leizarragaren hizkeraren oinarria.

Leizarragaren hizkeraren “arkaikotasuna” ere sarritan aipatzen da. Schuchardt-ek dio *“Leizarragaren hizkuntza gaurko lapurtar eta behenafarrentzat, Luteroren hizkuntza gaur egungo alemaniarrentzat bezain urruna badela behintzat”*<sup>(11)</sup>.

Ezaugarri horrekin batera, latin-zaletasuna aipatzen da. Leizarragak darabiltzan hitzetan, ordea, Etxeparen darabiltzanetan bezala, hizkuntza erromanikoetatik hartutako maileguzko hitz asko eta asko ageri da, bere garaian bertan mailegatuak askotan. Ez du aitzakia beharrik horretarako. Kanako ezteietako upelak *kubak* dira eta “maistre d’hostel” *mestedostal* deitzen da Leizarragarenean (Jn, 2, 6-9): *Eta ciraden han sey kuba harrizcoric eçarriac Iuduén purifica-*

(10) LAFON, René: Ibidem. 63. or.

(11) René LAFONek aipatua. Ibidem, 60. or.

*tionearen araura, çaducatenic batbederac birá edo irurá neurri. Dioste Iesusec, Bethaitzaçue kubác vrez. Eta bethe citzaten garairano. Orduan dioste, Eraitsaçue orain, eta ekarroçue mestedostalari. Eta ekar cieçoten: Eta dastatu çuenean mestedostalac ur matsarno eguin içan cena (eta etzakian nondic cen: baina vra karreatu çuten cerbitzariéc baçaquiten) deitzen du sposoa mestedostalac, eta diot-sa...*

Latinetiko hitzen maileguaz, itzulpen irizpideei dagokien alorrean hitzegingo da pausatuko.

Leizarragaren hizkuntzaren arkaikotasuna bere aditz sisteman ageri da batez ere.

Ezaugarri horiekin, eta oinarri horiek harturik, Leizarragak berri-tik definitu zuen hizkuntz eredu bat, bere itzulpenetarako erabilgarri, ez Etxeparek bezala bere euskalkia erabiliz soilik, koine baten entsegu bezala baizik, agian I. Sarasolak dioen bezala *“para lograr todo esto Leizarraga tomará como base el dialecto labortano y se servirá ampliamente de arcaísmos, con la finalidad de reducir las diferencias propias de toda fragmentación lingüística, que tienden a aumentar con el paso del tiempo, pero también con la finalidad de obtener el tipo de expresión reverencial y distanciada que corresponde a los textos sacros”*<sup>(12)</sup>.

Koine horren erabilera eremua, edo xedea, **Huskalduney** oharreko aipatu hitzak ezagunak diren arren, ez dago guztiz garbi zein jende mota, zein euskalkitako jenderentzat idatzi zuen, edo eraiki zen koine hori. Ez bait da ahaztu behar **Abc**-an dioena: *“Eta minçatzeco maneraz den becembatean, Heuscal-herrian realigionearen exercitioa den lekuco gendetara consideratione guehiago vukan dut, ecen ez bercetacoetara: eta haur, sperançaz ecen Instrucone hunec lehenic, eta orain behin guehienic, hetan cerbitzaturen duela”*. Horretan oinarriturik dio agian Jon Juaristi jaunak: *“Leizarraga no pretendía escribir para todos los vascos, sino solamente para los*

(12) SARASOLA, Ibón: *Historia social de la Literatura vasca*. Ed. Akal. Madrid, 1976. 40. or.

*súbditos de la reina de Navarra (es decir, para los de vertiente septentrional del Pirineo, lo que, en una cierta medida, simplicifaba el problema), y lo que requería no era, como alguna vez se ha dicho erróneamente, una lengua literaria, sino un grafolecto, una lengua escrita capaz de imponer una norma supra dialectal, de constituirse en Koiné de la Vasconia de ultrapuertos”<sup>(13)</sup>.*

Hala ere esan liteke Testamentu Berrian eta lagungarri dituen testuetan ageri den hizkera ez dela guztiz homoginoa. Arrazoi bat izan liteke, itzulpenezko jarrera ez delako hauetan hartan zen berbera. Baina horrez gainera, euskalki joera desberdinen arabera jokatzen da testu batzutan eta besteetan. Hala, adibidez, deklinabideko NORI kasu pluralerako, ABC-an *-er* atzizkia erabiltzen da, zubererantz bezala, Testamentu Berrian berriz, *-ey* agertzen da guztietan.

Agian, hizkuntz barreiamendu apur horretan, idazle bat berarengan normala den barreiamenduaz gainera, are gehiago izaten dena hala ere hizkuntzazko baterakuntza eklektiko bat egin nahi denean, agian zuzentzaile eta begirale izan zituenen eskua ere ikusi behar da.

### Testamentu Berriaren jatorrizko testua

Euskal literaturaren historiak irakurtzen direnean, batez ere Leizarragaren latinismoren aipamenak irakurtzen direnak, egiaztat hartzen da maiz Vulgatatik egin zuela Leizarragak bere itzulpena. Hala L. Villasantek dio: *“Como traductor bíblico, Leizarraga nos produce la impresión de ser sumamente servil y atado al texto latino”<sup>(14)</sup>.*

Hala ere R. Lafonek Leizarragaren testua kalbinistek erabili izan zituzten Bibliaren frantseserako hainbat itzulpenekin konparatuz argitu ahal izan zuenez, Pierre Robert, Olivetan deituak itzuli eta lehendabizikoz 1535ean argitaratu zen frantses bertsoari jarraitzen dio Leizarragak gehiengan; ez ordea haren lehen argitalpenari, ondotik egin zitzaizkion zuzenketak dakartzanen bati baizik. Itzulpen

(13) JUARISTI, Jon: *Literatura Vasca*. Ed. Taurus. Madrid, 1987. 42. or.

(14) VILLASANTE, L.: Op. cit. 58 or.

hori grekerazko testuari oso lotua da. Leizarragarena grekerazko testuarekin alderatuz pentsa liteke ez ote zuen hartatik itzuli zuzenean. Askotan, ordea, Olivetanen testua jatorrizko grekerazkotik urruntzen denean “bete lanetan”, Leizarragak frantsesezkoari jarraitzen dio; aldiz ia sistematikoki frantsesezko testua Vulgatako testutik urrunduz grekozkoari atxikitzen zaionean, Leizarragarena ere grekozkoari zaio atxikitzen. Hala ere zenbaitetan, Leizarragaren itzulpena Vulgatari estuagotik jarraitzen zaio, Vulgatak dakarrena grekoari atxikiagoa denean Olivetanen itzulpena baino.

Adibideak aztertu nahi dituenak, R. Lafonen aipatu liburuan aurki ditzake.

Esan liteke beraz, Leizarraga eta bere laguntzaileak Olivetanen frantses itzulpenari jarraitu zaizkiola batez ere, baina grekerazko testua eta Vulgatako itzulpena kontutan hartzen zituztela.

### Itzulpena gidatu zioten irizpideak

Leizarragak ahal duen estuenik jarraitzen dio bere itzulpenean jatorrizko testuari.

*Haur bay erranen dut* —dio Leizarragak Nafarroako Erreginari egin zion eskaintzan, Apokalipsiaren amaierako hitzez gogoraturik nonbait—, *ecen bethi orhoitic nola Iaincoaren manu expressa den haren hitzari deus edequi eztaquiõ ez erachequi: hala eguin ahal dudã fidelquiena eguin vkan dudala*.

L. Villasante jaunak, egin diogun aipamenaren ondoren, Leizarragak latinezko testuari zion atxikimenduaz dioenaren ondoren honela jarraitzen du: *“Pero sería un error creer que lo hacía así por ignorancia o torpeza. Era cuestión de criterio. El sumo respeto a la palabra de Dios es lo que le fuerza a traducir con una fidelidad y sujeción a texto que hoy nos parece excesiva, y sin duda lo es”*<sup>(15)</sup>.

L. Mitxelena, berriz, honela dio: *“Posiblemente no se han tenido en cuenta lo bastante las circunstancias que explican el*

(15) VILLASANTE, L.:Ibidem.

*carácter excesivamente literal de su versión que tanteas veces le ha sido echado en cara. Era, en primer lugar, un calvinista que no creía que la palabra de Dios debiera ser objeto de paráfrasis y de traducciones ad sensum, por lo mucho que con ello se ganase en sencillez y naturalidad: por eso la traducción de los textos no bíblicos es mucho menos ceñida”<sup>(16)</sup>.*

Bi aipamenotan laburbiltzen dan Leizarragaren itzulpen moduari buruz esan izan dena. Testamentu Berriaren itzulpenean hitzen aukeratarainokoan duen jatorrizko testuarekiko menpekotasun estua aipatu izan da.

Atxikimendu estu horren sentsazioa bi iturburutatik etorri lekioke Leizarragaren irakurleari: Lexikoan darabiltzan latinismoen ugaritasunetik, batetik, eta bestetik Leizarragaren periodoaren luzeragatik.

Ezin ukatuzkoa da, lexikoari dagokionean, hainbat hitz latinetik jasoak dituela Leizarragak, Vulgatatik hartuak balitu bezala. Gertakari hori berori ere aski harrigarria da, kontutan harturik ministro protestante batentzat Vulgatak ez zuela zertan izanik protestanteek egindako beste edozein bertsiok baino fidagarriagoa, berez. Latinezko testuak ez zuen “jatorrizkotasunik”, itzulpena zela jakin eta jatorrizko testuetara iristeko ahalmena bazutenentzat.

Hala ere, ez dira ahaztu behar, lehen aipatu ditugunez, Leizarragak Testamendu Berriaren itzulpenean eurrez darabiltzan hizkuntza erromanikoetatiko (frantses, eta agian biarnoeratiko) maileguak, mailegu berriak, artean morfologiako aldakuntzarik izan ez dutenak, pentsatzekoa denez Leizarragak berak mailegatuak, eta ez herri hizkeran hedatutako mailegutzat hartuak, euskarara artean itsatsi gaibeak beraz; eta alde horretatik latinismoekin konparagarriak gutziz.

Zalantzan jartzekoa da, beraz, Leizarragaren latinismoak jatorrizko testuari dion atxikimenduari zor zaizkion ala ez, jatorrizkoa,

---

(16) MITXELENA, L.: *Historia de la Literatura Vasca*. Ed. Minotauro. Madrid. 1960. 49. or.

ikusi denez, grekerari atxikitzen zaion frantsesezko itzulpen bat delarik gehiengan.

Latinismoen arazo honek ez du soluziobiderik izango Leizarragaren maileguzko hitzen azterketa konparatibo bat egiten ez den bitartean, garai hartan usatzen zen estilistikaren argitara.

Sintaksiari dagokionean bai zinez esan litekeela Leizarragak esututik jarraitzen diola jatorrizko testuari, eskura dauden argitalpenetan testu elebiduna agertzen den guztietan behintzat.

Mitxelana jaunak guzti-guztian arrazoa zuen Leizarragaren itzulpen joera testuen eduki semantikoari dagokion aldetik aztertzen bada. Gauza nabaria da alde handia dagoela Leizarraga Bibli-itultzaitzailearen eta Leizarraga bestelako testuen itultzaitzailearen artean, testuaren edukiaren trataerari dagokionez.

Leizarraga Bibli-itultzaitzailearen jarrera aipatu dugun eskaintzako pasarteetan erretratatu da. Bestelako testuen itultzaitzailea berriz, bere lanetan: Sarreraren beraren itzulpena, eta beste hainbat pasarteetan egiten dituen egokipenak. Hala adibidez *Sabbathoa*-ren deklarazioan honela dio: *errã nahi da reposa, eta berehala hitz bera eduqui vkan dugu, ceren Euangelistéc Grecquez scribatzean, lengoage hartaco ezpacen-ere, ezpaitute cambiatu vkan. Eta hura cen asteco çazpigarren eta azquen eguna, orain batéc larumbate, bercec eguia-coitz eta bercéc nesquen egun deitzen duguna*. Astegun horren euskal izenen zalantza eta aniztasuna, pentsatzekoa da, jatorrizko testutik Leizarragak ez duela itzulia.

Laburtzeko, beraz, Leizarraga Testamentu berriaren itzulpenean, edukiari dagokionean guztiz menpekotzen zaio jatorrizkoaren edukiari, baina bestelako ikuspegi bat du Jainkoaren errebelazioak argituak ez diren gainerako testuei dagokienez.

## J. Leizarragaren Testamentu Berriaren argitalpenak

Leizarragaren obrak beste zenbait argitalpen izan ditu 1571z geroztik:



1900ean Strasbourg-en, Th. Linschmann eta H. Schuchardt jaunek Alemanian ezagutzen ziren aleetatik argitara emana: **I. Leiza-rraga(s) Baskische Bücher von 1571 (Neues Testament, Kalender und Abc)**. Schuchard jaunaren sarrera luze batez hornitua.


Edizio horixe bera argitaratu zuen berriro Hordago argitaletxeak 1979an, H. Schuchardt-en sarrerarik gabe.

1903-1908 bitartean Londresen, The Trinitarian Bible Society-k argitaratua, Dogson esukalariaren ardurapean, itxura denez. Testamentu berria besterik ez.

Hiru horiek dira argitalpenik osoenak.

Horiez gainera zatika ere argitaratu izan da: Hala J. Vinsonek argitaratutako San Markosen Ebanjelioa (1874), San Mateoren Ebanjelioa, Van Eysek argitaratua (1877), San Joanen Ebanjelioa eta San Mateorena Dogsonek argitaratuak (1891-1896 eta 1902), Lischamn eta Schuchardtek argitaratutako **Kalandrera** (1900); edo **Euskal protestantismoa zer zen** (Lur, 1970).

Beste zenbait argitalpen ere izan zituzten, ordea, Leizarragak itzulitako Ebanjelioek XIX mendearen lehen laurdena burutzean:



1825ean eta 1828an, San Mateoren Ebanjelioa, eta Testamentu Berri osoa. P. Lafitte jaunaren iritzian Gaidor beraskoiztarrak moldatuak ziren, Leizarragaren testua ez ezik Haranederren itzulpena ere aurrean zuela. L. Akesolo jaunaren iritzian, berriz, hiru pertsona desberdinek eginak dira moldaera hauek. Nolanahi ere, argitalpen hauek, Leizarragaren argitalpenak ezagutu ez zuen arrakasta izan zuten Lapurdin batez ere.

### **Bonaparte printzea bitarteko Bibli egokipenak**

Leizarraga ondoren Biblia osorik edo pasarteak euskarara itzultzeko saio gehienak protestanteek eraginak izan ziren, 1856an L. L. Bonaparte printzeak E. Inchauspek zubererara eta Sallaberry Ibarlakoak behanafarrerara egindako San Mateoren ebanjelioaren itzulpenak argitaratuz, euskal literaturaren historian eskubide osoz "Bonaparteren aldia" dei litekeena inauguratu zuen arte.

Pierre d'Urte, J. Haraneder, aipatu Gaidorren moldapenak, J. Lizarraga Elkanokoa, B. Chaho, Oteiza sendagilea, Garibai izango dira garai honetako Bibli-itzultzaileak. Hauetako zenbaitek —gehienez zuten ezagutuko beren obra argitaraturik.

Horiekin batera, ordea, aipamena merezi dute Bibli-itzultzaileak zuzenean izan ez baziren ere, Bibliako pasarteen moldapenak edo puskakako itzulpenak egin zituzten beste zenbait idazle: B. Larregy, J. A. Ubillos, P. A. Añibarro, F. I. Lardizabal. Hauen moldaerek Bibliaren lekua bete zuen katolikoen artean. Hauetxan aipamenak egingo ditugu bakarrik, eta ez hurrengo aldietakoenak. Hain zuzen ere, aipatuko diren moldaera hauek irakurle euskaldunen eskuetan izan ziren garaian, edo moldatzaileak beren lanera bultzaturik aurkitu ziren garaian, Bibliarik ezean haren lekua beteko zuten ezagutza liburuak izan zitezten burutu bait zuten beren lana. Lan hori, ez da ahaztu behar, katolikoen eta protestateen artean Bibliaz zegoen lehia —katolikoen artean interpretazio segurua kleroaren esku gordetzea eta protestanteen artean irakurle bakoitzaren iritzira uztekoa— horren baitan kokatzen da.

Hala, B. Larreguyren **Testament çaharreco eta berrico historia**, 1775 eta 1776an argitaratu zen Baionan, bi tomotan, M. de Ro-yaumont-ek frantsesez idatzitik itzulia.

J. A. Ubillosek (1707-1789) agian Larreguyren liburua ezagutu-rik ekin zion bere **Christau dotriñ berri-ecarlea**, Fleury-ren *Caté-chisme historique*-ren itzulpen-moldaerari. Tolosan argitaratu zen 1785ean, eta geroztik 1897an eta 1909an ere bai.

Pedro Antonio Añibarroren (1748-1830) **Lau Evangelioac ba-tera alcarturic** obra ez da argitaratu oraindik. L. Villasante jaunak dioenez, lau ebanjelioen itzulpena da: "*Merece subrayarse esta traducción de los Evangelios, porque probablemente es la primera que se hizo en esta parte del país*"<sup>(17)</sup>. Gainerako historiek, ordea, Villasante jaunak dioena errepikatzen dute.

Francisko Inazio Lardizabalek (1806-1855), bere **Testamentu Zarreco eta Berrico Condaira** idatzi zuenean Larreguy eta Ubillo-sen lanak ezagutzen zituen. Historia santu hauetan guztietan zabal-pen eta arrakasta gehien izan duena da Lardizabalena. lehendabiziko aldiz 1855an Tolosan argitaratu zenetik beste hiru argitalpen ezagu-tu zituen, 1887an, 1908an eta 1957an (azken honetan Testamentu B-erriari dagokiona bakarrik).

### P. d'Urte: asmo handi bat

Leizarragaren ondoren ageri den lehenengo Bibli-itzultzailea P. d'Urte, apaiz katoliko protestantetara bihurtua da. Bere itzulpen lana argitaratzera iritsi ez bazen ere, harengan une batez gelditzea merezi du.

Hiru obra utzi zituen, hiruak eskuzkribuz:

I. Euskararen gramatika bat **Grammaire Cantabrique**, batez ere bertan dakarren aditzaren azterketagatik garrantzitsua dena: "*This M.S. is, philologically, the most important of the trio, for it*

(17) VILLASANTE, L.: Op. cit. 222. or.

contains the first independent treatise on the Verb, written many years before Larramendi published his Grammar"<sup>(18)</sup>.

II. Latin-euskara hiztegi bat: **Dictionarium Latino-cantabricum / Diccionario Latignescára**, *commotus* hitzeraino iritsi zena. Argitaratu gabea.

III. **Biblia Saindua. Testament çahárta eta berriä iduquitçen dituenta.**

Lehenengo bi liburuak bukatutzat emanak eta are argitaratzeko bezala txukun prestatuak ziruditen. Hirugarren hau, berriz, zuzenketaz bete eta bukatzeko astirik gabe utzia bezala dirudi: Jenesi osoa itzuli ondoren, Exodoaren XXII kapituluaren seigarren bertsoaren erdian eteten bait da kolpetik.

Badirudi, liburuaren izenburuagatik, P. d'Urtek Biblia osoa itzulitzekoa zuela asmoa. Frantziatik Nantesko ediktuaren errebokazioaren ondoren (1685) ihesi Ingalaterran babesa aurkitu zuten ministroetakoa izanik, agian bere babesleen enkargua hasia du itzulpen lan hau.

Idazkiok 1700 urte ingurukoak dira guztiak.

D'Urteren hizkerari dagokionez, lapurteraren testigantza bikainenetakoa dela irizten da. J. Vinsonek Llewelyn-i idatzitako gutunetan zionez "*the language of d'Urte is an excellent one, clear, nice, exact, grammatically correct, and most superior to Liçarrague's as a dialect-type*"<sup>(19)</sup>.

Azkar eta zuzentzeko astirik gabe egindako itzulpena dirudi. D'Urtek bere itzulpenerako erabili zuen jatorrizko testua Ginebrako frantses itzulpena da, bere azkarrean egin zituen akats edo hutsegite batzuek agerian jartzen dutenez: *femme* ordez *famine* ulertua, *belle fille* (erraina), *alaba ederra* itzulia, *cerf* ordez *serf* ulertua, etab.

(18) LLEWELYN THOMAS, M.A.: **The Earliest Translation of the Old Testament into the Basque Language. Introduction**, Oxford, 1894. 10. or.

(19) *Ibidem*. 18. or.

*Bagnan emaztebat ethorri içan çen herrira: Bainan gosete bat etorri zen herrira (Jen. 12,10). Tarec hartu içan çituen bere Seméa Abram, eta Lot bere seméaren semea çegna bâitçen Haranen semea eta Sarái bere alaba ederra... (Jen. 11, 31).*

## Joanes Haranederren Testament Berria

Pierre d'Urte bezala, Donibane Lohitzundarra. 1669 inguruan jaio zen. Haranederrek Testamentu Berri osoa itzuli zuen, nahiz izen buruan hala ez dioen: **Jesu-Christoren Evangelio Saindua jaun Haraneder aphez Donibane Lohitsukoac escoararat itçulia**. Katolikoaren artean egin zen lehendabiziko Bibli-itzulpena. **Aitcin-Solhasa** sarreran erakusten duenez, Leizarragaren itzulpena ezagutzen du, baina "guïçon etsai eta doacabe" hura "heresia poçoatuaz cutsatua" egonik, halaxe zegokeen bere itzulpena ere. 1740rako bukatu zuen, baina mendea pasa egon behar izan zuen, 1855ean Dassance eta Harriet apaizek argitara eman zuten aurretik. Argitalpen honek, hala ere, Haranederren beraren eskuzko eskribuarekiko alde handi samarra du.

Bien bitartean, itzultzailea artean bizi zelarik, 1749 eta 1750an San Franzisko Saleskoaren **Philotea** eta Scupoliren **Gudu izpirituala** itzulpenak argitaratu zituen, mende betez lehenago S. Pouvreaux itzuliak biak.

Haranederrek Testamentu Berri osoa itzuli arren, 1855eko argitalpenean lau ebanjelioak besterik ez ziren argitaratu. Jatorrizko testua latinezko **Vulgata** izan zuen eta hari jarraiki zitzaion "eguin ahal beçambat, letrari berari". Pasarte ilunen itzulpenerako, berak aitortzen zuenez, Maistre de Sacy eta D. Bouhours-en frantses itzulpenez baliatu zen. Itzulpenaren literaltasunaz ez du iritzi bera Ruiz Arzalluzek: "Se diría que Haraneder traduce los textos sagrados con cierta tranquilidad. Eso por lo que hace al contenido, es decir, a la información que el texto proporciona, ya que la fidelidad a la forma del original, como ha podido comprobarse, tiende a cero. Así es que, de seguir el texto de la Vulgata «parfois jusqu' au calque» (P. Lafitteren iritzia), poco. Menos aún de haberse pegado a ella «ez

*choilqui sensuari, baiñan oraino ahal beçambat lettrari berari (...)  
çorrotxqui eta urratsez urrats» (Haranederren beraren aitopena)<sup>20)</sup>.*

Harriet eta Dassancek egindako argitalpenari dagokionez, esanda dago euskuizkributik oso aldendua dela, Haranederren testua oinarritzat harturik beste bertsio bat egiteraino aldendu ere. Honela laburtzen du bere analisisa Ruiz Arzalluzek: *“En general, como queda dicho, Harriet parte del texto de Haraneder: éste es siempre el punto de referencia. Cuando discrepa por cuestiones de pureza léxica, recurre a Leizarraga: si éste le ofrece una solución aceptable, la adopta, y si no, da un texto propio enteramente, acorde con sus ideas lingüísticas. Una vez que se ha apartado de Haraneder ... los modelos son Leizarraga y la Vulgata”<sup>21)</sup>.*

### Lizarraga Elkanokoa

Joakin Lizarraga, Elkanokoak (1748-1835), bere obra oparo eta luze osotik bat ere argitara emanik ikusi gabe hil zen. Arandako kon-teak hizkuntza ofizialean idatzirik ez zeuden beste guztietarako jarri zuen zentsura estu eta zorrotzak ezinetara eraman zizkion bere asmo guztiak.

Bere garaiko idazle nafar bakarra da, eta goinafarrera mendebal-dekoan idatzi zuen obra guztia.

L. L. Bonaparte printzea euskal Bibli-itzulpenez interesatzen hasi zenean, ordea, Joakin Lizarragak San Juan eta San Mateoren ebanjelioetatik egindako itzulpenen eskuzkribuak iritsi zitzaizkion eskutara. Bietan lehenengoa eman zuen argitara: **Jesus-Cristoren evan-gelio sandua San Juanec dacarren guisara** (Londres, 1868). San Mateoren ebanjelioaren itzulpena ez zen argitaratu, eta halaxe dago oraindik ere.

20) RUIZ ARZALLUZ, I.: Op. cit. 713. or.

(21) Ibidem. 720. or.

## Beste itzulpen batzuk

1838an Madrilen **Evangelioa san Lucasen guissan** argitaratu zen, G. Borrow-ren eraginez, Oteiza izeneko sendagile batek itzulia. Oraintsu jakin da Juan Jose Vicente Oteiza, Albizturterra zela. B. Scioren gaztelerarako itzulpenetik euskarara egina da. Itzulpen erraz eta aski jatorra.

Oteizaren beraren itzulpentzat aipatzen J. Bilbaok bere **Bibliografia**-ren VI tomoan **Evangelio saindua San marken arabera**, Londresen 1887an argitaratua<sup>(22)</sup>.

## Bonaparte printzearen obra

L. L. Bonaparte printzea (1813-1891), lehendik ere hizkuntzalaritzara emana buru-belarri, 1956an iritsi zen lehendabiziko aldiz Euskal Herrira. A. d'Abbadie jaunaren bitartez iritsi zen, zalantzarik gabe, euskararen eta euskal munduaren ezagutzara. Geroztik bost bi-daia egin zituen Euskal Herrian zehar hortik eta hemendik, 1856 eta 1869 bitartean. 800 obratik gorako liburu zerrenda bildu zuen. Itzultzaile talde bat antolatu zuen bere hizkuntzalaritza lanetarako materiala sor ziezaion. Zortzi urtez arituko zen sortua zuen antolamendu ahaltu hark sortzen zizkion materialak aztertzen. Bere laguntzaile batzuk Londresan eramango ditu aldian behin, argitasuna egiteko.

Azkenerako bera ere, euskaraz ikasi, itzultzaile ere izan zen, eta esaera dago "*inork sekula euskara jakin duen eta jakingo duen baino hobeto*" ikasi zuela printzeak hizkuntza hau.

1856an M. Salaberryk San Mateoren ebanjelioaz Behenafarroako euskalkira egindako itzulpena argitaratu zuenetik hasita 31 edizio egin zituen L. L. Bonaparte printzeak euskaraz, Biblia osoaren edo zatirenak.

---

(22) BILBAO, Jon: **Eusko Bibliographia**. t. VI. Ed. Añamendi. Donostia, 1970, 344. or.

Oso ale gutxiko argitalpenak egin zituen ordea: zenbait ale bakarrekoak edo bizpahirukoak. Zortzi, bederatzi, hamabi ale argitaratu-tako obrak ez dira gutxi. Argitalpenik handienak 250 aletaraino iristen ziren.

Itzulpenok bere hizkuntzalari ikerketa asmotarako eragin zituen, euskaraz bezala beste hainbat hizkuntzatan ere. Bere garaiko hizkuntzalaritzari jarraituz, dialektologian kokatu zuen printzeak bere ikerketaren gunea: Hizkuntz formen aniztasuna eta banaketa aztertu nahi izan zituen.

Horra zergatik, alde batetik, hain ale kopuru txikia. Horrexe-gatik, bestetik, testuak konparagarri izan zitezten, jatorrizko testuari zegokionean printzeak beretzat ari ziren itzultzaileei jartzen zien baldintza: Kristau dotrinak, batetik, eta Biblia edo Bibli zatiak zirenean, Vulgatatik itzuli behar zituzten, eta hartatik ezina zenean, itzultzaileen latinak hartara iristen ez zirelako, gaztelera edo frantsesezko zenbait itzulpen erabili zituzten: Bouhours-ena frantsesez, eta Scio edo Torres Amat-enak gaztelaniaz.

Itzulpenon xedea ez zen, beraz, argitalpena. G. Lacombe dio: *“Il les faisait faire avant tout pour son usage personnel: il était, en effet, avide de comparaisons linguistiques. Toutefois, il en a publié une assez grande partie, les unes tirées à très petit nombre, dont deux ou trois à un seul exemplaire, les autres —et c’était le cas le plus fréquent— à deux cents cinquante exemplaires qu’il vendait des prix fabuleux, sans doute pour décourager les profanes”* (23).

Itzulpenak, gainera, Bonaparte printzearen helburuetarako, ahalik eta literalena behar zuen izan. Hortik iritsiko dira hainbat itzulzaileren kexuak, esanez beren itzulpenetan oso estu lotu behar izan zaizkiola jatorrizko testuari. Printzeak berak adierazten du honetaz duen iritzia, Antoine d’Abbadieri idatzitako gutun batean: *“Je vous remettrai alors ... la seconde édition de ma traduction guipuzcoanne littérale (telle que j’entends les traductions bibliques destinées à l’étude comparative des langues)”* (24).

(23) LACOMBE, George: *Les versions basques du Cantique des Cantiques*. R.I.E.V. XV, 2<sup>o</sup> (1924). 198. or.

(24) *Ibidem* jaso. 200. or.



Bere hizkuntzalaritza helburuetarako, eta argitaldari kontzientziarako, gainera, soberakoak eta are higuingarriak ditu orri-oineko edo ertzeko oharrak, helas, katolikoentzat Bibli-itzulpenean beharrezkoak direnak. Disgusto bat baino gehiago ekarriko zion horrek. E. Inchauspe kalonjearekin izan zuen etena da guztietan ezagunena. E. Inchauspe, zuberotarra, printzearentzat **San Mateoren ebanjelioa**, Iturriagaren **Jolasak**, eta **Apokalipsia** itzuli zituen. Azkeneko obra hau ohar teologikoz hornitua aurkeztu zion printzeari, argitaratzeko haiek sartu beharko zirelako baldintzarekin, Baionako apezpikuaren aginduz nonbait. Bonaparteren iritzia, A. d'Abbadieri idatzitako gutun batek pasarte batzuk atara ezagutu liteke: "*Mon amour-propre*

*d'éditeur ne se prête pas très volontiers à l'exigence des notes. Je reconnais au P. Inchauspe un grand talent comme écrivain basque, mais quant à ses notes, comme celles de l'Apocalypse, je ne pense pas qu'on puisse les considérer comme un bon spécimen de théologie chrétienne éclairée... Je suis donc décidé de ne plus entendre parler de notes, et j'espère qu'un jour ou l'autre je trouverai quelque souletin qui voudra bien se charger de cette traduction sans se mêler en rien de l'impression".* Edo hurrengo batean are sutuago, edo sutuago: "*Si vous pouviez déterminer le P. Inchauspe à laisser*

## EVANGELIOA

**San Lucasen Guissan.**

EL EVANGELIO SEGUN S. LUCAS.

traducido al bascuence.

M. DRID:

Imprenta de la COMPAÑIA TIPOGRAFICA.  
1838.

*entièrement sur ma conscience le crime immense de faire imprimer la parole de Dieu en basque, il y aurait manière de s'arranger... mais quant aux notes je suis tout-à-fait déterminé de ne pas même en entendre parler"* (25).

### **Printzearen laguntzaileak**

Euskal Herrira iritsi eta lehenengo gauza, laguntzaile talde bat antolatu zuen, esan dugun bezala:

1. **Jean Pierre Duvoisin** (1810-1891), Ainhoarra. Printzea eza-gutu aurretik ere itzulpenean aritua, hiztegi bat ari zen prestatzen. Berau izan zen Bonaparte printzeak Euskal Herrian izan zuen lehenengo laguntzailea.

2. **Jose Antonio Uriarte** (1812-1869), Arrigorriagarra. Printzearentzat itzulpen lanetan hasi aurretik eta bazituen itzulpen batzuk argitaratuak, bizkaieraz. Apaiz predikaria, Gipuzkoa eta Bizkaiko euskalkien ezagutzaile ona, euskalki horietara egin zituen itzulpenak printzearentzat.

3. **Klaudio Otaegi** (1836-1890), Zegamarra. Olerkaria, Lore Jokoetan sari askoren irabazlea. Dotrinak eta Biblia puskak itzuli zituen printzearentzat, Gipuzkoako zenbait euskalkitara: **San Markosen ebanjelioa**, **Kantuen Kantika** eta beste zenbait (1867).

4. **Emmanuel Inchauspe** (1815-1902), Zunharretakoa. Bonaparte printzearen euskarazko ikasketetan gidari. Printzearentzat zubererazko zenbait itzulpen egin zituen: **San Mateoren ebanjelioa** (1856), Iturriagaren **Jolasak** (1857) **Apoklipsia** (1858). Tirabira batzuren ondoren, ikusi den bezala, elkarlana utzi egin zuen.

5. **M. Salaberry** (1777- ), Ibarrolakoa. Printzeak euskaraz argitaratu zuen lehenengo itzulpenaren egilea.

6. **Etxenike, Bruno** (1820-1893), Urdaxtarra. **San Mateoren ebanjelioa**, **Apokalipsia**, **Ruten liburua** eta **Kantuen Kantika** itzuli zituen printzearentzat.

(25) *Ibidem*: 201. or.

7. Casenave apaiza, behenafarra. **San Mateoren ebanjelioa** eta **Jonasen profezia** itzuli zituen.

8. **Jose Antonio Azpiazu**, Segurarra. Itzultzaile ez baina itzulpen zuzentzaile lanean jardun zuen printzearentzat.

9. **Juan Eloi Udabe**, Tolosarra. **San Mateoren ebanjelioaren** zati bat itzuli zuen bakarrik.]

10. **Mariano Mendigatxa**, Bidangoztarra. Ez zuen Bibli itzulpenik egin.

11. **Prudentzio Hualde** (1823-1879), Bidangoztarra. **San Mateoren ebanjelioa** itzuli zuen erronkarierara.

12. **Pedro Jose Samper**, Jaurrietarra. **San Mateoren ebanjelioa** itzuli zuen saraitzuerara.

13. **Ibarnegarai** apaiza, **San Mateoren ebanjelioa** Baigorriko euskalkira itzuli zuen.

14. E. Inchauspe kalonjeak printzearentzako lanak utzi ondoren, **J. B. Archu** (1811-1881) Alzurukuarrak hartu zuen zubererarako itzulpenak egiteko kargua. Lehendik La Fontaineren zenbait **Fable** itzuli eta argitaratuak zituen 1848an, 1852an **Uscara eta Franzes Gramatika**, uskalherrietaco **haurrentzat** eguina. Printzearentzat **Ruten liburua**, **Kantuan Kantika**, eta **Jonasen liburua** itzuli zituen. Liburuok 1886an eman ziren argitara.

Printzeak bultzatzen zituen hizkuntz ikerketetarako egin ziren itzulpenetan saiatu ziren itzultzaileen artean ez da ahaztu behar Bonaparte printzea berak ere itzuli zituela Bibliako zenbait pasarte (**Salomonen Kantiken Kantika**, **Hiru haurren kantika labean**, etab.) euskarara, gipuzkoako euskalkira batez ere.

Bonaparte printzearen laguntzaile haueetatik aipamen berezia merezi dute bi lehenek: Duvoisinek eta Uriartek. Beste itzulpen arkoren artean, Bibliaren euskarazko lehenengo itzulpen osoak burutu zituztelako, lehenengoarena, lapurteraz, argitaratua, eta bigarre-narena ez.

## **J. U. Uriarteren Biblia argitara gabea**

L. L. Bonaparte printzeak bi euskalki hautatu zituen Biblia osoa itzultzeko, lapurtera eta gipuzkera. Bibliako pasarte eta liburu osoak hainbat euskalkitara itzul arazi bazituen ere, Biblia osoa ez.

Gipuzkerara itzultzeko J. A. Uriarte fraile bizkaitarra hautatu zuen, garai horretan Gipuzkoan Biblia osoaren itzulpenari heltzeko gai izango zen idazlerik topatzen ez zuelako. Bermeoko misiolari komentuko predikaria, bere misio ibilietan hango eta hemengo euskalkiak ezagutzera iritsia zen, geroko urtetan printzeari idatzi zizkion gutunetan aditzera ematen duenez: Nafarroako Valdorbako euskalkiaz, Deba bailarakoaz, Bizkaiko zenbait eskualdekoaz...

Horrekin eta, gipuzkeraz egiten zituen akatsak Jose Antonio Azpiazu jaunak zuzenduko zizkiolako promesarekin, Biblia osoaren itzultzeko lanari ekin zion 1859an. Ordurako zenbait liburu eta itzulpen egin eta argitaratuak zituen: **Marijaren illa edo maijatzeco illa** (1850), bizkaieraz. **Jesus Sacramentaduari eta Ama Doncella Mariari Visitac**, Alfonso Maria Ligoriorena (1856), bizkaieraz. Pio IX Aitasantuaren **Bula Ineffabilis**-en itzulpena argitaratu gabe geratu zen, Euskalerra aldizkariak argitara eman zuen arte.

Bonaparte printzearentzako lanetan hasi zenez geroztik: Iturriagaren **Jolasak** bizkaieraz (Londres 1857), **San Mateoren ebanjelioa** bizkaeraz (Londres 1857), **Apokalipsia** bizkaieraz (Londres 1857), **Kantuen Kantika** Bizkaiko bi euskalkiz eta gipuzkeraz (Londres 1858), **San Mateoren ebanjelioa** gipuzkeraz (Londres 1858) eta **Apokalipsia** gipuzkeraz (Londres 1858).

Biblia itzultzen ari zen bitartean, **La doctrina cristiana traducida al vascuence, dialecto vizcaíno, variedades de Marquina, Bermeo, Arratia, Centro y Ochandiano** ere itzuli zuen printzearentzat. Liburu honetatik ale bakarra argitaratu zen (Londres 1862).

Uriarteren obra nagusia ordea Bibliaren itzulpena izan zen: **Biblia edo testamentu zar eta berria Aita Fray José Antonio de Uriartec latíñezco Vulgatatik lembicico aldiz Guipuzcoacko**

euscarara itzulia Luis Luciano Bonaparte principeac eta don José Antonio de Azpiazu guipuzcoatarrac lagunduric (Londres 1859).

Duvoisinen Biblia, denbora berean egin eta argitaratzen ari zen bitartean Uriarterena Jenesia, Exodoa eta Lebitikoa argitaratuta aurrera gabe geratu zen. Itxura denez, Azpiazu jauna Uriarteren lanen zuzenketak egitez aspertu, eta ez zuen aurrera jarraitu; zuzenketak dituen eskuzkribu zatia bait da izan ere argitara eman zena, eta zuzenketarik ez duena argitaratu gabe dago oraindik. 1868 urte hasiera alderako bukaturik zeukan bere lana, eta handik urtebetera hil zen.

Bonaparte printzeak bere itzulpenetarako jartzen zituen baldintzak ezagunak dira.

Biblia honen euskalkiari dagokionean, J. A. Uriartek, bera Bizkaiko jaiotarra izanik, eta printzeak zehazki Gipuzkoako betteriko euskarazko itzulpena eskaturik, Lardizabal eta Agirre Asteasukoa hartu zituen eredutzat. Lardizabal lexiko-maisu, eta Agirre Asteasukoa aditzaren erabile-  
ran.

Itzultzeko irizpideei dagokienez, ahalik eta jatorrizko testuari atxikiena beharko du izan. Lino Akesolo jaunak ematen ditu horren argibideak: *“Bere itzulpena itzez itz egiña izango da, zeatza, Liburu Santuetako itzei urbilletik lotua. Bein eta herriz adierazten du Uriartek bere lanean darabilen jokabide au. Eta oiñarriok azaltzen ere, are xeetasunik geiago ematen digu. Esaterako, alegiñak egingo dituela latiñezko Vulgatako itzak eta euskerazkoak leku berean jartzen: latiñezko itzak zenbat, euskerazkoak ainbat; latiñezkoak non, euskerazkoak antxe. San Mateoren ebanjelioa bizkaierara itzuli zuanean, jokabide ori darabil; eta orain, gipuzkeraz Biblia osoa itzultzean, bide beretik ibilliko da. Adibidez, latiñezko dicunt illis ikusten duan lekuan, ez du*



*L. L. Bonaparte printzearen zigilua, bere argitalpen guztietan ageri dena.*

dirautse *esango*, esaten deutse *baizik: latinez zenbat itz, euskeraz ainbeste. Guipuzkerazko Mateo ematean, lege orri lotuago ibilli dala dio berak, Bizkaierazkoa eman zuenean baino. Ori egitean, izkuntzalariari zer egokiago zaion izan zuen gogoan*"<sup>136</sup>.

Bibliaren jatorrizko testutzat, izenburuak berak dio, latinezko Vulgata erabili zuen Uriartek. Haren argigarri, pasarte ilunetarako, Scioren gaztelaniarako itzulpena, eta hori ezean Torres Amatena.

### J. Duvoisin-en Bible Saindua

Duvoisinek itzuli eta Bonaparte printziak argitaratutako **Bible Saindua edo Testament Zahar eta Berria** berrehun eta berrogeitamabi aleak izan dira Euskal herrian mende honetara arte izan den Biblia osoaren itzulpen bakarra.

Bere lanbideak eramanik (mugazain), Ipar Euskal herriko hainbat tokitan bizitakoa zen Duvoisin, tokian tokiko euskalkien ezaugarriak eta hitzak fitxatan jasoz, aldi berean.

Horrez gainera, Bibliaren itzulpenari ekin aurretik edo bitartean ikasita, bazekien latina, grekera, gaztelera, italianoa eta Ekialdeko zenbait hizkuntza, euskararekin zituzten antz eta aldeak konparatzeko adina, Haristoy apezak Duvoisinez egindako erretratuan esaten duenez<sup>137</sup>.

Bibliaren itzulpenari ekin aurretik ere, Duvoisin itzulpenean ari-tua zen. Bere gaztaroan Felonon Telemakoren abenturen liburua, egunotan berriki argitaratua, itzultzen hasi eta utzia. Euskara-frantses hiztegi bat ere hasi zen egiten, 12.000 fitxatan, *Oiergi* hitzerainokoa.

(26) AKESOLO, Lino: **Katolikoaren euskerazko Bibli-itzulpenak** Jaunaren Deia, 1971. 92. or.

(27) HARISTOY, Pierre: "Le capitaine Duvoisin et ses travaux", in *Euskal Erria* XXXII, 1985, 401. or.

Argitara eman zuen lehendabiziko itzulpena A. Kardaberazen **Aita San Ignacioren Egercicioen gainean afectoac** liburuaren lapurterarakoa izan zen, 1856an argitaratua **Liburu ederra** izenarekin.

Urte horretan bertan ezagutu zuen Bonaparte printzea, hark Euskal Herrira egin zuen lehenengo bidaian.

Bonaparterentzako lanetan, Bibliaren itzulpenari ekin aurretik, Iturriagaren **Jolasak** itzuli zuen lapurterara.

Esanda dago argitalpen hauen xedea ez dela euskal publiko arrunta, hizkuntzalariak baizik, Duvoisinek berak gutun batean aitortzen duen bezala: "*Ce travail est destiné aux savants qui s'occupent auhourd' hui, en bon nombre et avec ardeur, de l'étude des langues*".

**Bible** honen jatorrizko testua, izenburuaren jarraian esaten den bezala, latinezko Vulgata izan zen, halaxe bait dio: *Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatatik lehembiziko aldiko Laphurdiko eskarara itzulia. Luis-Luziano Bonaparte printzeak argitara emana.*

Duvoisinen Bibli itzulpenean darabilen euskalkiari dagokionean, itzulpen horren xedea lapurterazko lagin fidagarri bat edukitzea zen printzearentzat, eta zentzu horretan euskalki horretara mugatzera beharturik dago itzultzailea, ez toki jakin bateko hizkerara ordea, euskalki osoaren sintesia egiten duen lagin bat ematera baizik. G. Lacombe dio: "*Duvoisin n'a écrit dans le labourdin d' aucune localité déterminée: sa langue et son style sont admirables en général; ils sont le produit d'un éclectisme d' ailleurs très cohérent, alors que souvent les écrivains basques usent d'un syncrétisme inter-dialectal assez fâcheux*"<sup>(28)</sup>.

Itzulpenerako irizpideei dagokienean, berriz, Uriartez hitzegin denean esan den berbera errepika daiteke hemen ere: Hitzez-hitz itzuli nahia: "*Traduire aussi simplement, aussi exactement que possible, en suivant partout le texte pied à pied, et en restant fidèle à la*

(28) LACOMBE, G.: Op cit. 200. or.

*lettre, autant que faire se peut. Comment, sans cela, comparer le mécanisme des deux langues?*” —dio Duvoisinek berak<sup>(29)</sup>.

Ruiz Arzalluz jaunak, ordea, aipatu artikuluan ez du horren iritzi abegikorra azaltzen, eta gogorki kontestatzen du Duvoisinek aipatzen duen hitzez-hitzekotasun eta literaltasun hori: “*Está claro, pues, cuál es la relación que Duvoisin mantiene con la Vulgata; completa y consciente libertad por cuanto hace a la forma, y notable relajación por cuanto al contenido se refiere*”<sup>(30)</sup>.

Jatorrizko testuaren zentzua argitzeko eta lagungarri frantses eta gaztelaniazko hainbat Bibli-itzulpen eta Bibli-ikerketako liburu erabili zituen Duvoisinek; bera baino lehen egindako euskal itzulpenak ere bai. Konparatu dituen Ruiz Arzalluzen hitzak aldatuko ditugu hona: “*Tenemos, por tanto, la Vulgata y sus sucedáneos franceses por un lado: Duvoisin, como se ha visto, los usa con cierta alegría, sobre todo por lo que se refiere al estilo, y prima la elegancia a costa de la fidelidad al original. Por otro lado tenemos los modelos vascos—Harriet y Leizarraga—sin demasiado ascendiente sobre Duvoisin: simples obras de consulta cuando la traducción ofrece alguna dificultad*”<sup>(31)</sup>.

Duvoisinen Bibleak, Bonaparterenaren ondotik ez du osoko argitalpenik izan 1972an La Gran Enciclopedia Vasca argialetxeak facsimilean eta osorik argitaratu zuen arte (Bonaparte printzeak bost zatitan argitaratu bait zuen 1859-1865 bitartean), eta printzearen argitalpenean guztira egin ziren 51 aleak, atzerrirako geratu zirenekin, ezin esan liteke euskaldungoaren artean eragin handia izateko kopurua direnik. Hala ere geroztik zenbait puskaren argitalpen laburrak izan ditu: Haristoy apezak 1998an argitara emandako **Ebanjelio Saindua eskuaraz** izan da ezagunena. Ohar bat darama argitalpen horrek: “*Ce livre es tiré d’un exemplaire de la traduction de M. Duvoisin, où l’auteur lui-même a fait plusieurs corrections. On remar-*

(29) RUIZ ARZALLUZek aipatua. Op. cit. 721. or.

(30) Ibidem. 722. or.

(31) Ibidem. 723. or.



*quera que le savant linguiste, ayant tenu à faire une traduction littérale du texte latin, n'a pas pu donner toujours à la phrase l'harmonie qui la caractérise. Enfin les observations qui nous ont été faites au point de vue de la clarté ou même de la doctrine nous ont fait ajouter ou remplacer quelques mots et modifier certains passages. Ces corrections ont été d'ailleurs rares"*<sup>(32)</sup>.

1868az geroztik, Bibli Elkartek egin zituzten Bibliako liburu batzuren edo besteren zenbait argitalpen Duvoisinenetik hartuak dira, eta halaxe dira 1964an argitara emen zen **Perlasco colier** bat liburuan ageri diren zatiak ere. Argitalpenok, ordea, protestanteek eginak izaki, ez zuten berebiziko arrakastarik izan zabalakundeari dagokionean.

## BIBLE SAINDUA,

edo Testament Zahar eta Berria,

Duvoisin kapitainak latinezko Bulgatik lehembiziko aldiko Laphurdiko

elkarara itzulia. Luis-Luziano

Bonaparte printzeak

argitara emana.

"*Jeunesse bretonne, les paroles de la Bible, par M. Abbot, traduites  
par M. J. Guéhenno, sous le patronage de M. de Lamoignon.*" — Pâris, 1870.



LONDRESIN

## XIX mendeko beste zenbait itzulpen

Bonaparteren lanak apaiz katolikoan artean izan zuen batez ere eragina, eta horrela, garaitsu horretan bertan egiten diren beste zenbait itzulpen eta lehendiko itzulpenen zenbait argitalpen protestanteen eraginez burutuak izan ziren batez ere.

(32) Murde DUVOISIN: **Ebanjelio Saindua** eskuaraz. P. Haristoy Ziburuko erretorak argitara emana. Pabe. 1898. Nota. vi or.

Hala F. Brunetek **Jesu Cristoren Evanjelioa Juanen araura** eta **Jesu Cristoren Evanjelioa Lucasen araura** itzuli zituen. lehendabizikoa Londresen argitaratu zuen 1870ean eta Buenos Airesen 1877an; bigarrena Londresen 1880an eta 1883an.

Urte beretsuetan Anna Urruthy zuberotarrak **Ebanjelio Saintia Jesus-Kristena**, **Jondane Johaneren arabera** (Baiona 1873, eta Orthez 1888) eta **Jondane Phetiriren epitriak** (Baiona 1873 eta 1887) itzuli eta argitaratu zituen bere euskalkian.

Leizarragaren itzulpenetik ere argitaratu ziren liburu batzuk urte beretsuetan.

## **XX mendeko itzulpenak Olabide arte**

Ia mende laurdena itxoin behar izango zen, mende honen hasieratik, lehenengo Bibli itzulpenak agertzen hasi zitezten.

Mende honetan euskarara egin Bibli-itzulpenen zenbait ezaugarri ulertu ahal izateko, XIX mendearen hondar urteetan euskara idatziaren ereduari zegokionean izan ziren gorabehera eta gatazkak hartu behar dira kontutan, bestela ezer ez ulertzeko arriskua bait dago. XIX mendearen azkeneko hamarkadan hiru eskolatan banatzen dira Euskal Herri penintsularreko euskal idazleak:

- Tradizioari eutsi nahi diotenak, behin baino gehiagotan garaikideen kontra Larramendi, Kardaberaz, Mendiburu edo Iztuetaren jarraitzaile ageri direnak.
- R. M. Azkue eta beronen eskolakoak, tradizioaren jarraitzaile bezala hartu ohi direnak, baina garaikide zituzten zenbaitek berrizale bezala arbuiaitzen zituztenak.
- S. Arana-Goiriren iritzien inguruan eratu zen eskola, modu askotako garbizalekeriatarako bidea emango duena.

1922an Erromal Galdos Bibli-jakitunaren **Ruthen liburuaren** itzulpena argitaratuko zen. Itzultzaile honek beronek 1936an **Dabiden eres-abestiak** liburua argitaratuko zuen Erroman, euskarazko

eta latinezko bertsioan, jatorrizko hebraierazko testutik itzulita, euskarazko itzulpena errazago ulertzeko ohar batzurekin. Idazkerari dagokionez, garbizalekeriazko ukitu bat du, ohar eta argibideetan -keriago, itzulpenean bertan baino.

1924an **Aste Gurena euskeraz eta lateraz** José Zabala Arana-ren (1894-1936) itzulpena argitaratu zen Tolosan. Izenburuak berak ageri duenez, ez da Bibli-itzulpen bat, zentzurik estuenean, liturgi-testuen itzulpena baizik. Hala ere, puska on bat Bibli-itzulpenez osatua delako alde batetik, eta bestetik, garbizalekeriazko hizkuntz jarreraren emaitza bat denez, hemen agertzea merezi du. Euzko Deya aldizkarian Dabiden Salmuen itzulpen eta argitalpena bukatu gabe utzi zuen. Beste zenbait liburu eta itzulpen ere argitaratu zituen autore honek, bere euskera mota berezian.

Garai berean itzulia, hizkuntzazko iritzi berberei jarraituz, nahiz askoz ere beranduago argitaratua (Zarautz, 1959) da Manuel Arriandiagaren (1876-1947), **Goizparraik eta beldubaik egiña** (Ebanjelioak eta Apostoluen eginak). Honen zati bat 1936an argitaratua zen: **Matai Deunak-legezko Josu Kisto'gazko Goizparra**. Arriandiaga jo izan da Arana-Goiriren jarraitzaile neologistetan neologismo sortzaile sutsuentzat. Halakoz beterik dago bere itzulpena ere, inork nekez ulertuko duen moduan.

1925ean **Argia** astekariak **Argi Donea** eliz-liburua argitaratu zuen. N. Balzola zen berorren egilea. Otoiz eta meza-liburu hone-tan, liturgi-testuen itzulpena denez Bibli-testuak ageri dira. Obra hau bera bizkaieraz ere argitaratu zen 1935ean J. Eguzkitza apaizak euskalki hartara itzulirik.

Zentzu berean aipatzekoak dira, Argia aldizkariak urte batzuk beranduago argitara emandako Arbelaitzen **Bezperak** edo P. Iraizozen **Urte guziko igande eta jaiegunetako Ebanjelioak**, biak Iruñean 1932an argitaratuak, edo P. Iraizoz beronen **Yesu-Kristo Gure Yaunaren Bizia, lau Ebanjelioetatik itzez-itz aterea** (Iruñea, 1934). Argia aldizkariak aparte, Jesusen Biotzaren Deya aldizkarian 1927-1931 bitartean Areitio jesuitak **Jesukristoren bizitza lau Ebanjelioetatik artu eta baten euskeralduta** argitaratu zuen. Ar-

girik ikusi ez badu ere, B. Garro, Otxoluak Gomá kardinalaren Ebanjelio konkordatu baten itzulpena utzi zuen. Baita, geroago, Luis Egiaren **Oraingo Aste Santua** (Tolosa 1957) ere.

Ildo honetan bertan, garrantzi handiagoa izan du gaur egun bizi-rik den belaunaldiarentzat N. Ormaetxea "Orixe"-ren **Urteko Meza-bezperak**, 1950ean argitaratuak. Gerra ostean Frantzian bizi behar izan zuen urteetan burutua. Latinez eta euskaraz, zutabe banatan, argitaratu zen Beljikan. Orixek bere itzulpen lan osoan ageri duen joera berbera ageri du, literaturan "euskal joera" bezala hartua zuena alegia, laburtasuna eta tinkotasuna "euskara lakonikoa"; euskarazko itzulpenaren zutabea latinekoarena baino bakanagoa, laburragoa izateraino, ia beti.

Orixe bera, 1925ean hasia zen Jesusen Biotzaren Deya aldizkarian **San Joanen Ebanjelioa** zatika itzuli eta argitaratzen. Lan hori ordean bukatu gabe geratu zen. Olabideren itzulpena argitaratu baino geroago, 1967an, hil ondoren, Orixe-Kerexeta-Zugastiren **Itun Berrria** gipuzkeraz argitaratu zenean, lau ebanjelioen itzulpena Orixek egina bezala agertu zen, eta gainerakoa J. Kerexetak bizkaierara egindakotik A. Zugastik gipuzkeratua. 1968an, **Salmudia** argitaratu zuen Orixek. Berorren hasiera oharrean (**Irakurleari**) Salmuen sailkapen eta estiloari buruzko ohar batzuk jartzen ditu, eta bertan airtortzen duenez, kanturako itzuli zituen Orixek salmuok, eta hala ahal izan duen neurrian puntuko edo erdi-puntuko rimaz jarri ditu. Irakurlearentzat ohar ugari jarri ditu testuaren argigarri, askotan itzulpenari dagozkionak zehazki, testuaren beraren ulerkera dotrinazkoari baino gehiago.

1947an L. Leon apaizak (1896-1962) **Jesu-Kristo Gure Jaunaren Ebanjelio Saindua** eman zuen argitara. Irakurkera atsegineko itzulpena osoa, oharrez hornitua, zenbaitetan ondo ohar erreparagarri hala ere, hala nola Jn IV, 7: "*Samariar emazteki bat harat ethorririk orduan ur-keta, Jesusek erran zion: «Emadazu edaterat»*" Eta oharra: "*Samariarra Juduarentzat, gu Eskualdunentzat Kaskoia baino miletan gutiago zen oraino*"<sup>(33)</sup>.

(33) LÉON, L.: **Jesu-Kristo Gure Jaunaren Ebanjelio Saindua**, Baiona, 1947. 293. or.

## R. Olabide: Itun Zâr eta Berria

Hauxe da, seguruenik, euskarara egin den Bibli-itzulpenik eztabaidatuena eta arbuiauena, eta hala ere urte batzutan Testamentu Zaharraren irakurketarako batez ere, irakurriena.

Raimundo Olabide (1869-1942), Gasteiztarra eta auskaldunberria zen, hogeitaka urte zituela euskara ikasten hasia. Bibliaren itzulpenaz gainera beste zenbait itzulpen (**Loyola-tar Eneko Deunaren Gogo-Iñarkunak**, Bilbo 1914, eta **Josu-Kistoren Antzibidea**, Donostia 1920), eta lexokografia lan batzuk (**Giza-soña**, Tolosa 1917, eta **Giza-gogoa** hasi eta bukatu gabe) osatzen dute R. Olabidoren euskarazko obra.

1931an Bilbon **Itun Berria** argitaratu zuen: Testamentu Berri osoa. Orixek esaten duenez, Itun Berriaren itzulpena 1924rako burutua omen zeukan<sup>(34)</sup>. Argitalpena zenbait urtez atzeratu egin zen itxura denez, sarrera 1928an datatua bait du argitalpenak.

Itzulpenerako Olabidek erabili zuen testua grekerazko jatorrizkoa izan zen, nahiz Vulgata lagungarri eta argigarri erabili.

Argitaratu bezain laster egin zitzaizkion gero Biblia osoa argitaratu zenean berriro azalduko ziren kritikak. Polemika gaitza izan



(34) AKESOLO, L.: **Mende ontako gure Bibli-itzulpenak**. Jaunaren Deia, 1971. 323. or.

zen P. Iraizoz eta Orixeren artean, hura salatari eta hau aldeko. Hark lexikoaren erabilera eta joskera baldarra egozten zizkion; Orixe hitzen aukerari zegokionean aldeko, baina sintaksiari dagokionean arrazoa aitortu zion Iraizozen salakuntzari.

Egoera hori berriro errepikatuko da 1958an Bilbon Olabideren **Itun Zâr eta Berria** argitaratzen denean. R. Olabide bera 1942an hilik, Fr. Etxebarria jesuitak hartu zuen haren itzulpena argitalpenearako prestatzeko kargua. Zenbait pasartetan zuzenketak egin zitzaizkion Olabidek utzitako testuari, bitartean testu kanonikoak aldatu egin zirelako: Dabiden Salmuak Pio XII Aitasantuak eragindako latin-itzulpen berriaren arabera moldaturik argitaratu ziren. Testuaren aurrean dihoazkion agerpenezko sarrerak eta ondotik dituen oharrek ere berriak dira, Testamentu Zaharrari dagokion gehienez.

Argitalpen honek berehalaxe ekarri zituen kritikak. Guztietan L. Mitxelena jaunak **Egan** aldizkarian 1959an egin ziona da aipagarriena, bertan aztertzen bait dira, eta biltzen, Olabideren alde eta kontrako merituak eta desmerituak<sup>(35)</sup>.

Lehenik eta behin Olabideren itzulpenaren merituen artean, jatorrizko testuetatik itzulia aitortzen dio Mitxelenak: "*Jatorrizko hizkuntzetatik hartua dago Olabiderena, ez latinetik, eta Biblia gaietan egungo egunean aurki daitekeen jakitearen laguntzarekin itzulia*"<sup>(36)</sup>. Eta itzulpenaren arreta eta zehaztasunaren goraiapamena egiten zio: "*Alde horretatik longe princeps da Olabiderena Bibliaren euskal itzulpenen artean*"<sup>(37)</sup>.

**Itun Zâr eta Berrian** ageri den euskara motaren oinarria gipuzkeratztat jotzen du Mitxelenak: "*Olabideren hizkera, hain nabarra izanik azalez, gipuzkera soila da mami mairaino joz gero, eta gi-*

---

(35) MITXELENA, Luis: **Olabide. Itun zar eta berria**. Egan, 1959) (1-4), 85-94. or. **Mitxelenaren idazlan hautatuak**-en bildua. Ed. Etor. Bilbo, 1972. 341-353. or.

(36) Ibidem. 342. or.

(37) Ibidem. 349. or.

*puzkera murriz hertsia gainera... Eta morfologia, hizkuntzaren muina, giputza dugu eta giputz baino giputzagoa batzuetan... Aditza batez ere gipuzkoarra dugu analogiaz zertxobait aldatua*"<sup>(38)</sup>.

Olabideren idazkera aztertzerakoan, ordea, zenbait urte lehenago P. Iraizoz bezala, lexikoaren erabilera eta jatorri aniztasuna aztertzeko du lehenik, orohar Olabideren hizkera "*saio hizkera*" kalifikatu ondoren, eta Urte, Duvoisin, Uriarte, Larregi eta Lardizabal, elkarren artean diren bezain desberdinak izanik, Olabideren parean "*bixkiak*" diruditela iritzi ondoren.

Hasieran aipatu diren lexikologiako lanek ematen dute hain zuzen Olabideren hizkuntz joera hainbeste bider eta hainbeste azterlarik arbuatuaren giltzarria agertuko duten abiapuntuetakoa bat. R. M. Azkuek berak esandakotzat diote, berak baino hobeto ezagutzen zuela Olabidek **Diccionario Vasco-Español-Francés**, haren obra. Behin eta berriro aztertua eta hustua zuen; handik atera zituen **Giza-Soina**-n jasotako hitzak. Lexikografiako baino lexiko-bilketa edo lexiko-metaketazkoago zirudien ihardun horren iturburua hizkuntzari buruzko ideologia garbizale batean oinarritzen da.

Olabideren garbizalekeria ez da ordea, lexikoari dagokionean, Zabala-Arana edo Arriandiagaren eskola berekoa, neologismo sortzaile sosegurik gabea, ezta gutxiagorik ere. Olabideren idaz tankera aztertu duen guztiak dio nekez dela aurkitzen harenean euskaraz guztiz berria den hitzik.

Mitxelenaren iritzian Olabidek ez du neurririk hitzen bilaketan, ez hitzen historiari dagokionez, ez hitzen geografiari dagokionez: "*Ehunka dira liburu honetan, milaka ez badira, hitz berriak, zahar-raren zaharrez ahaztuak edo bazterren batean ezagunak badira euskal literaturan inoiz sarrerarik izan ez dutenak*"<sup>(39)</sup>. Zenbaitetan, hala ere, gaurko irakurle euskaldunarentzat txokagarri diren moduan eta esanahiez erabiltzen ditu zenbait hitz Olabidek.

(38) Ibidem, 348-349. or.

(39) Ibidem, 346. or.

Olabideren idaz tankeraren beste ezaugarri bat aditz sintetikoaren erabilera neurrigabea da, garbizaleen joera hau ere, Eleizaldere-netik jasoa edo. Honela dio Mitxelenak, adibide bat ateraz: “Aditz sintetikoa hartu du batipat Olabidei enseiukarrean bezala, hemen metatu ditu ikatz-illintirik bizenak irakurlearen buru gainean: «Yainkoaren emaria ba’ zenezagu, ta «idazu ur» dasaizuna nor dan ba’ zeneki, ur bizia zerorrek zeneskayoke». Beste pasarte askotan bezalaxe elkarrekin daude hor, pilaturik, otsoak ardiekin iduri, erabiltzen diren adizkiak, erabili izanak eta sekula erabili ez direnak”<sup>(40)</sup>.

Guztien buruan, bi akats aurkitzen dizkio Mitxelenak Olabideren itzulpenari: lehendabizikoa “laboratorioko ontzien erdian jai” izana, eta bigarrena, hizkuntz batasuna, hizkuntz eredia, iraganean bilatu orde, etorkizunean bilatu izana. “Amets-euskaldunek, ordea, zernahi gauza entzun dezakete eta ez dute inoiz txintik aterako”. Ezin esan, Olabideri buruz, Lacombe Duvoisini buruz esana: “produit d’un électionisme d’ailleurs très cohérent...”

### Beste zenbait itzulpen

Lehenik aipatzekoa J. Kerexetak 1960an hasi eta geroztik bizkaierara egin dituen Bibli-itzulpenak aipatu behar dira: **Jesu Kristo Gure Jaunaren Barri Ona** (1960), **Apostoluen egiñak** (Donostia, 1961), **Alkartasun berria. Apostoluen egiñak eta idazkiak** (1965), **Salmutegia** (1967), **Lau ebanjelioak elkar artuta** (1973) eta azkenik **Euskal Biblia** (1976). Harrera eta zabalkunde handia izan zuten argitapenok, Bizkaiko partean batez ere.

Izan zuen zabalkundeagatik aipamena merezi duen beste itzulpen bat 1961an F. Mendizabalen itzulpenez eta J. Goitiaren oharrez argitaratu zen **Lau Ebanjelioak** da. Ohargarria da, jatorrizko testuarekiko leialtasun mota eta neurria aztertu gabean, beronen hizkuntz-taju bikaina.

---

(40) Ibidem, 349. or.



Itzulpen berezi ez-ohizkotzat jo litezke garai honetan Manuel Zelaia jaunak tzulitako **Apokalipsis** Torres Amaten gaztelerazko itzulpenetik egina, eta Toribio Etxerriak **Ibiltarixanak** liburuan argitara eman zituen Bibliako pasarteen itzulpenak.

Vaticano II Kontzilioaren ondoren, eta berorren eraginez, zenbait Bibli-itzulpen berriri ekiten zaio, Liturgiararako lehenik: Belokeko beneditarren Salmutegia, Orduen liburua, meza-liburuak.

Hauek guztiak, ordea, Vaticano II Kontzilioaren ondorioz sortu eta aldizkari honetan bertan komentatzen diren Euskal Elizbarruti Liturgi Batzordearen eta Elizen arteko Bibli-itzulpenenerako batzordearen lanetara bitarteko pausoak eta osagarriak dira.

Horien argibideak aldizkari honetan bertan aurki daitezkeenez, ordea, bidezkoa da irakurlea haietara bidaltzea.



#### SINTESIS

La Historia de las versiones bíblicas al euskara tiene su inicio con la publicación, el año 1571 de la traducción del Nuevo Testamento al dialecto labortano por el ministro calvinista Joanes Leizarraga.

Esto ocurría doce años después de que Juana de Albret, reina de Navarra y señora de Bearne abjurara públicamente del catolicismo y abrazara la reforma de

Calvino, la Pascua de 1559. La reina navarra se aplicó a imponer la reforma en sus estados, es decir en lo que le quedaba del reino de Navarra tras la anexión del Reino a Castilla, en la Merindad de Ultrapuertos, y en el Bearn.

Esta política obtuvo la adhesión del pueblo y la nobleza de Zuberoa, incluso de parte de la nobleza de la Baja Navarra, pero no así del pueblo, que opuso resistencia.

La traducción del Nuevo Testamento al euskara forma parte de los planes de establecimiento de la reforma en el país. Se basó fundamentalmente en la traducción al francés hecha por Pierre Robert, llamado también Olivetan (recuérdese que la Vulgata latina no tiene necesariamente ningún valor de «originalidad» desde el punto de vista de un ministro calvinista); este mismo texto sería adoptado, tras varias correcciones, como oficial para los calvinistas e impreso en 1688, posteriormente a la publicación del texto de Leizarraga.

Como en otras muchas lenguas, la traducción de la Biblia (en este caso solo el N. T.) al euskara, fué uno de los primeros libros que se publicó en esta lengua, el segundo. Teniendo en cuenta la falta de antecedentes a los que se pudiera referir el traductor, llama la atención la perfección alcanzada en esta primera traducción.

Sin embargo, al no prosperar la reforma emprendida en el Reino de Navarra, esta traducción no gozó de la difusión merecida, hasta que tres siglos más tarde se hicieron reediciones de algunos de los libros que la componen, a cargo de la sociedad bíblica de Londres principalmente.

Durante el siglo siguiente se llevarán a cabo otras odos traducciones bíblicas al euskara. La primera traducción del Antiguo Testamento, levada a cabo en Inglaterra por P. d'Urte ( $\pm$  1700), que no se publicará hasta finales del s. XIX, y cuyo uso se reducirá prácticamente a su valor filológico. Y la traducción del N. T. por Harander (1740), que no se publicará hasta 1855 en una versión revisada.

Tras algunas traducciones y publicaciones a cargo de los protestantes en el primer tercio del s. XIX, llegan las primeras traducciones completas de la Biblia, junto con multitud de traducciones partes de ella en el tercer cuarto del s. XIX. La iniciativa de toda esta gran producción y esfuerzo de traducción corresponde al príncipe Luis Luciano Bonaparte, eminente filólogo y lingüista. Su interés por la lengua vasca y particularmente por los aspectos dialectológicos lo indujeron a la creación de un grupo de colaboradores, traductores todos ellos, a los que en su afán de disponer de muestrarios dialectológicos, encargó diversas traducciones bíblicas y de otros diversos textos. Entre ellos cabe destacar a J. Duvoisin, que tradujo la Biblia al dialecto labortano (publicada en Londres entre 1859-1865). Asimismo debe destacarse la figura de J. A. Uriarte, religioso vizcaíno a quien Bonaparte encargó la traducción de la Biblia al dialecto guipuzcoano, y partes de la misma a otros dialectos. De esta traducción solamente se editaron los primeros libros del A. T. Más que las ediciones llevadas a cabo sobre los textos traducidos (ediciones muy pequeñas, entre uno y doscientos cincuenta ejemplares), tuvo grandes repercusiones la preparación del equipo de colaboradores.

La primera mitad del presente siglo ve pocas traducciones bíblicas al euskara, hasta que en 1.959 se publica la traducción completa de la Biblia llevada a cabo y dejada sin publicar por R. Olabide, muerto 17 años antes. La tendencia purista a ultranza que esta traducción presenta en su lenguaje, impide sin embargo en gran medida su comprensión y aceptación por parte del público, y su uso en la liturgia.

El Concilio Vaticano II supone un nuevo impulso a las traducciones bíblicas. El año 1.977 se crea una Comisión Intereclesial para la traducción de la Biblia, que tras la publicación del N. T. se halla en estos momentos dedicada a la traducción del A.T. Otro tanto puede decirse de la Comisión Litúrgica Interdiocesana para la traducción de la Biblia, que publicó su versión del N.T. el año 1.980.

### SUMMARY

*The history of the biblical versions into the basque language began with the publication, in the year of 1571, of the translation of the New Testament into the dialect of Lapurdi, by the calvinist minister Joanes Leizarraga.*

*This took place twelve years after Juana of Albret, Queen of Navarre, and Lady of Bearn, publicly abjured the catholic faith and embraced Calvin's Reformation in the Easter of 1559.*

*The Queen of Navarre tackled to imposed the Reformation all along her states, that is, in what remained of the Kingdom of Navarre after its annexation to the Kingdom of Castille, as well as in the province of Ultrapuertos and the Bearn.*

*This policy gained the adherence of the population and of the noblemen of Zuberoa and even of part of the noblemen from Basse-Navarre, but not of its population, who opposed to it.*

*The translation of the New Testament into the basque language is a part of the plans set to establish the Reformation in the country. It was basically based upon the translation into french made by Pierre Robert, also known as Olivetan (it should be remembered that the latin Vulgate has not necessarily got any value of "originality" from the point of view of a calvinist minister); this same text would be adopted, after several corrections, as the official one for the calvinists and was edited in 1688, after the publication of Leizarraga's text.*

*As it happens in many other languages, the translation of the Bible (in this case, only the N.T.) into basque, was one of the first books published in this language, in fact the second. Bearing in mind the lack of records to be used as reference, it is astonishing the degree of perfection attained on this first edition. Nevertheless, as the Reformation undertaken in the Kingdom of Navarre did not prospere, this*

*translation did not spread as it should have been expected for a work of such quality, until three centuries later, some of the books included were reedited mainly by the London Biblical Society.*

*During the next centuries two more biblical translations into basque were made. The first translation of the Old Testament, made in England by P. d'Urte (± 1700) was not published till the end of XIXth century, and its use was practically reduced to its filological value. And the translation of the New Testament, which was not published until 1855 in a corrected version.*

*After some translations and publicacions made by protestants, in the first third of XIXth century, the first complete translations of the Bible appear, together with many partial translations, at the end of the same century. The initiative of all this vaste production and effort of translating, was taken by Prince Lucien Bonaparte, eminent filologe and linguist. His interest for the basque language and particularly for its dialectological aspects induced him to the creation of a group of collaborators, all of them translators, to whom he asked several biblical translations and other texts, willing as he was to have dialectological samples of different dialects. It should be specially mentioned among them J. Duvoisin, who translated the Bible into the dialect of Lapurdi (published in London between 1859 and 1865). It should also be mentioned J. A. Uriarte, a monk from Biscay to whom Bonaparte commended the translation of the Bible into the dialect of Gipuzkoa, and parts of it into other dialects. Only the first books of this translation of the Old Testament were edited. More than the edition of the translated texts (very short editions, from one to two hundred and fifty copies sold) the preparation of the team of collaborators had a greater echo.*

*In the first half of the present century, very few biblical translations come into light, until in 1959 the complete translation of the Bible made by and left unpublished by R. Olabide, dead seventeen years earlier, is published. The utter purist tendency presented by this translation in its language style, makes its comprehension very hard and the approval by the public and its use in liyurgy hardly impossible.*

*The second Vatican Council promoted again the biblical translations. In 1977 an Interecclesial Commission is created for the translation of the Bible, which after having published the New Testament is now working on the translation of the Old Testament. So much can be said about the Interdiocesan Liturgical Commission for the translation of the Bible, which published its version of the New Testament in 1980.*

## CXXXII Salmua

קָלוּ                      קָלוּ

אֲעֲלֶנְתֶּהוּת | בְּכֹל שֵׁם יִשְׁבְּנוּ נִם־בְּכֵינֹ בְּזִכְרֵנוּ אֶת־צִיּוֹן׃  
 2 על־עַרְבִים בְּתוֹבָה תִּלְיֵנוּ בְּנֹרֹתֵינוּ׃ כִּי שֵׁם שְׂאֵלֵנוּ  
 3 שׁוֹבֵינוּ דְבַר־שִׁיר וְתוֹלְלֵנוּ שְׁמִיחָה שִׁירֹ לָנוּ מִשִּׁיר צִיּוֹן׃

### Duvoisin: Bible Saindua

1. Babiloniako hibayen bazterretan, han jarri garen eta nigarrari eman Sionez orhoitzean.
2. Haren erdian sahatsetarik dilindan ezarri ditugu gure musika-ko tresnak,
3. Zeren han, gu gatibu eraman daituztenek galdegin baitarozki-gute gure kantuetako hitzak

### Olabide: Itun Zar eta Berria

1. Babilon'go ibayen ezean eserita, Sion gogoraturik gu negarez.
2. Lurralde artan gure ereskiñak saratsetatik dilinga utzi genitun.
3. Atxillo giñuztenek eresia ta abestiak ta poz-lekayoak eskatzen zizkiguten:

### Orixe: Salmutegia

1. Babilon'go ibai-ertzetan negar egitera eseri giñan, Sion'ez oroitu baikiñan.
2. Lurralde artako saratsetatik dute kitarak zintzailik.
3. Atzilo eraman gindutenak otoi zegiguten abesteko, naigabetzen gindutenak, alai egoteko:

### Zugasti-Kerexeta: Salmudia

1. Babilonia'ko uide-ondoetan eseri giñan, Sion-errimiñez negar egiteko;
2. ango ibai-ertzeko saratsetan geneuzkan zintzilik gure zitarak.
3. Erbesteratu ginduztenak, kantatzeko esan ziguten, gure zapal-tzalleak josalasazteko:

4 אֵיךְ נָשִׂיר אֶת־שִׁיר־יְהוָה עַל אֲדָמַת נֶכֶר: אִם־אֲשַׁחֲדָה  
 6 יְרוּשָׁלַם תִּשְׁבַּח יְמִינִי: תִּדְבַּק לְשׁוֹנִי | לְחֶבְיִ אִם־לֹא  
 אֲזַכְּרֶנִּי אִם־לֹא אֲעֲלֶה אֶת־יְרוּשָׁלַם עַל רֹאשׁ שְׂמֹחָתִי:

Eta gu ekarri gaituztenek erran darokute: kanta dizaguzue Siongo kantiketarik himno bat.

4. Lur atzean nola kantatuko dugu Jaunaren kantika?

5. Ahanzten bazaitut, Oi Jerusalem, ene eskuina ahantzia izan bedi.

6. Ene mihia ene aho-gainari josia geldi bedi, zutaz ez banaiz orhoitzen, Ez balimbadut Jerusalem ezartzen ene bozkarioaren hastapentzat.

“Sion'go abesti bat abestu zaiguzute”.

4. Yaube'ren eresia atzerrian nola abestu?

5. Zutaz, Yerusalem, ântzi ba'nedi, nere eskuya ântzia izan bedi.

6. Nere mingaña ao-sapayari itsatsita geldi bedi, Zutaz oroituko ez ba'nitz, pozbiderik beñena Yerusalemn ez ba'zait.

“emaitzute Sion'go eresi batzuk guk entzuteko”.

4. Nola guk eman Jaunaren eresia, emen atzerrian?

5. Ierusalen, zutaz aztu ba'nendi, nere eskuina aztua bedi.

6. Nere mingaña sapaiean itsatsi bedi, zutaz oroitu ez ba'nendi

Neretzat pozbiderik bikañena Ierusalem ez ba-da.

“Kanta zaiguzute Sion'go kantaren bat”.

4. “Nola kantatu Jaunaren kanturik, atzerrian?”

5. Zurekin aztutzen ba'naiz ao-sapaiean mingaña, zu gogoan ez ba'zaitut;

6. Itsatsi dakidala ao-sapaiean mingaña, zu gogoan ez ba'zaitut;

nere pozen gallurrean, Jerusalem jartzen ez ba'det.

7 זָכַר יְהוָה | לְבָנַי אֲדוֹם אֵת יוֹם יְרוּשָׁלַם הָאֲמָרִים עָרֹו |  
8 עָרֹו עַד הַיָּסוֹד בָּהּ: בַּת-בְּכֹל הַשְּׂדוּדָה אֲשֶׁרִי שִׁישְׁלִם-  
9 לָךְ אֶת-זְמוֹלֶיךָ שְׁנֵמֶלֶת לָנוּ: אֲשֶׁרִי | שִׁי אַחֲזוּ וְנִפֵּץ אֶת-  
עַלְלֶיךָ אֶל-הַסַּלַּע:

7. Orhoit zaite, jauna, Edomen semeez, jerusalemen chahutzeko egunean.

Hekiek zioten: Ezezta, ezezta zazue hortan azken asenturaino.

8. Babiloniako alaba zorigaich-tokoa, dohatsu hiri bihurturen dainana hik guru egin gaizkiak!

9. Dohatsu hartuko dituen hire haur cheheak eta harriaren gainean phorroskatuko dituen!

7. Oroi zaitez, Yaube, Yerusalem'go itxesaldian Edom'darrek ziotenaz:

“Porrokatu! Porrokatu ezazute, Aren oiñarrietaraiñoko guztia, gero!”

8. Babilon'go alaba porrokatzaile!, Zoriontsua egin zenigunaren gaitz-ordaña lemaizkizukena!

9. Zoriontsua zure umeak, artu ta malloetan irion litukena.

7. Gogora zazu Edon'darren buruzki, Jauna, Ierusalengo eguna.

“Iraul, iraul”, esaten ari ziran “Oiñarrietaraiñoko guzia”.

8. Babiblon'go alaba porrokatzaile, zuk duri egin diguzuna, doatsu bedi zuri biurtuko dizuna.

9. Doatsu zure aurrak artuko dituna, ta arriari erauntsiko ditiona.

7. Arezaizkieru kontuak, Jauna, Idumeatarrai, Jerusalem'go egun artzaz:

“Ondatu, ondatu oiñarrietaraiño” esanaz, alkar berotzen zutenekoaz.

8. Babilonia'ko erri nagusi gaizkillea alena! Nork ordaindu al dezaizkitzuen egin dizkiguzun kalteak!

9. Nork artu al ditzaken zure umeak eta arkaitzetan txikitu!

2



## Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea

Dionisio Amundarain  
Lazkao, 1988ko Irailak 10

### Sarrera

Lehenik, itzulpen taldearen izenaren zergatikoa eta nondik norakoa adierazi behar.

Itzulpen hau protestante eta katolikoan arteko lan gisa gogoeman zen, eta halaxe burutu. Ezin eman, beraz, itzulpen ekumenikotzat: kristau eliza askok ez du eskuhartu lanean. Bestalde, antzeko lanean, erdarazkoetan erabili ohi den "*interkonfesional*" hitza ez zen egokitzat eman; hain zuzen ere, euskaraz "*konfesio*" hitzak inguruko hizkuntzetan duen esanahi zabalik ez zuelako.

Hala, kristau eliza diferenteren lana adierazteko erabili da **Elizen Arteko Biblia** izena.

Esan beharra dago, bestalde, lan honetan protestanteen ordezkaritza "Bibli Elkarte Batuak" delako erakundeak hezur-mamitzen duela; katolikoan aldetik, berriz, apaiz diozesiar eta fraile talde bat aritu dela.

Esan beharra, era berean, honelako elkar lanak ez direla jadanik noizbehinkako edo pasadizokoak kristau elizen artean. Hain zuzen

ere, Batikanoko Kristauen Batasunerako Idazkaritzak eta Bibli Elkarte Batuak hitzarmendua dute honelako lanetarako araudia. Eta egin ere, kasu eta hizkuntza askotan egin dira —eta ari dira eginen— antzeko itzulpenak. Gure hau bat gehiago, beraz.

## 1.

### Taldearen sorrera eta garapena

Biblia osoa euskaratzeko asmoa edo gogoia, talde honetan ari izandako zenbaiti dagokionez, frankismoaren garaikoa da. Euskal fraile eta serorek Loiolako Gogartetxean egin ohi zituzten bileretako batean JAKIN taldeko batek harrotu zuen jadanik arazoa. Une hartan ez zuen asmoak lur umoturik aurkitu. Halere, ez zen galdu hazia. Belarriz-belarri zebilen. Halako batean, 1977aren hasieran edo, protestanteak lan berean esku hartzeko prest zeudela agertu zen.

Hala, zenbait harat-honatan ondoren, mintegi bat antolatu zen Arantzazun urte bereko irailerako.

Protestanteek hartu zuten Mintegiaren ardura: bai gonbiteak egi-tea, bai Mintegiaren egitaraua planteatu eta burutzea, bai alderdi ekonomikoa.

Garai hartan Bibli Elkarte Batuak Madrilen zuen arduradunak, Ignacio Mendoza jaunak, honela adierazi zuen Mintegiaren xedea gonbitearekin bidalitako eskutitzean —laburtu egin da hemen Mendozaren eskutitza eta eratu:

- Bibli itzultzaileentzat Mintegia 1977ko irailaren 12tik 17ra egingo da Arantzazun;
- Xedea: Biblia hizkuntza modernoetara itzultzeak planteatzen dituen askotariko problemak zorrotasun zientifiko-ko aztertzea;
- Euskara batura itzultzea da asmoa, ahalik eta euskaldun gehienek esku jartzeko;

– Bide batez, 1968ko ekainean Kristauen Batasunerako Idazkaritzak eta Bibli Elkarte Batuak hitzarmendu zuten arautegiaren arabera, Elizen Arteko Biblia itzulpen hau eginez, euskal herriari kristau fedearen zinezko aitortpena eskaini nahi diogu;

– Itzultzaileentzako Mintegiaren Egitarauak, funtsean, honako hauek hartuko ditu: gaurregun mundu zabalean Bibli itzulpenarako erabili ohi diren metodo linguistikoak eta exegetikoak aztertzea, elizen arteko itzultzaile eta berrikusle taldea antolatzea, eta elizen arteko jendez osatutako talde mixtoak sorreraz ditzakeen problemak eztabaidatzeko eta erabakitzeko bideak aztertzea.

Honaino Mendozaren eskutzaren muina. Era berean, Paulo Agirrebaltzategik, Tolosatik, urte bereko ekainaren 11n, eskutitz bana bidali zigun zenbait jenderi, bertan esaten denez, 40ren bati, Ig. Mendozaren gonbitea berretsiz. Paulok zioenez, hilabete bat lehentxeago bilera bat egina zuten arazo honetaz, Donostian, lau lagunok: Ig. Mendoza, “Verbo Divino” argitaletxeko Gimeno, Eustasio Etxezarreta eta Paulok berak. Bertan erabaki bide zuten aipatu Mintegia antolatzea. Honetan parte hartzeak ez zekarren —Paulok berean dioskunez— itzulpen lanean aritu beharrik.

Geroxeago, Abuztuaren 21ean, Mendozak beste eskutitz bat bidali zigun Mintegiko gai erabilera gehiago zehaztuz: Itzulpenaren Teoriaz, Tubingako Unibertsitatean, Teologia Ebanjelikoaren Fakultatean, hebraierako eta Itun Zaharreko irakasle zen Peter Rürger arituko zen; Herri-Hizkuntzetarako Itzulpenez, berriz, Mendoza berak arituko zen.

Hala, irailaren 12tik 17ra talde handia bildu ginen Arantzazun Mintegirako. Esan behar da, giro ezin atseginago izan zela, bai jende giroa, bai eguraldi giroa. Baina, asmotan jendeak zerabilen lanari ekiteko orduan, lan talde zehatza eratzean alegia, arazoa ez zen hain erraza izan: albokoa zamatzeari ekiten bait zioten denek. Halere, zenbait bai-erdi eman zen.

Mintegia amaitu, eta jendea barreiatu, telefonoz, eskutitzez eta zenbait elkar-bisitez, bai-erdiak bai-oso bihurtzeari ekin zitzaion. Eta 1978ko urtarrilerako taldetxoa egin xamarturik zegoen. Egin xamarturik. Izan ere, taldea ez da behin ere itxia izan, gaurregun ez den bezalaxe. Batzuk hurbilago, besteak urrunago, irekia da taldea, guztiz.

Taldeak bildurik, lan prozedura aztertzea, zehaztea eta erabakitzea zen hurrengo arazoa. Hori ere 1978ko urtarrilaren azken alderako erabakirik gelditu zen. Itun Berria zen garai hartan helburu. Eta liburu bakoitzaren itzulpenak hiru aro edo etapa nagusi izango zituen:

### **Oinarrizko taldea**

Talde honek prestatuko zuen oinarrizko itzulpena. Honelako sei talde moldatu ziren, guztira 14 lagun inguru arituko zirelarik, baina talde bakoitzean 2 edo 3 lagun: exegeta bat gutxienez eta bat edo bi euskal idazle trebatu oinarrizko talde bakoitzean. Itun Berria osatzen duten 27 liburuak 6 talde horien artean banatu ziren. Ezin esan, talde horiek guztiek azkeneraino eutsi ziotenik; baina, funtsean, hasieran erabakiari aski iraunkorki eutsi zitzaion.

### **Berrikusketa taldea**

Oinarrizko taldeak egindako itzulpena berrikustea zen talde honen xedea. (Bide batez esan, Itun Zaharraren itzulpenean Berrikusleen egitekoa asko aldatu dela; lan prozedura, alegia, aski aldatu da Itun Zaharrekoan; hemen Itun Berrikoan izandako lan prozeduraz ari gara.) Lan honetarako, seiren bat lagunek osatutako taldea izendatu zen; sei lagun horiez gainera, aztertzeak zen liburuaren oinarrizko itzulpena egin zuen taldeko bat. Beraz, zazpi lagun.

Talde honen egitekoa guztiz astuna izan zen. Eta Itun Berriaren lana itxura gabe luzatu eta zaildu zuen: eztabaida luzeak, irtenbiderik gabeak askotan, antzuak mila bider. Esan bezala, berrikuste

lan hau asko arindu behar izan da Itun Zaharraren itzulpena planteatzerakoan.

### Bateratze-lana

Azkenik, Itun Berriko liburu guztiei batasuna emateko, sei laguneko taldea hautatu zen. Talde honek eman zion lan guztiari azken ukitua.

Horrenbestez, itzulpen taldea eta lan prozedura erabakirik zeuden. Baina, aurrez esan bezala, talde irekia izan da beti itzulpen talde hau. Hona segidan, lanean, gutxi-asko, ari izandakoak: Ig. Mendoza, protestanteen ordezkari; Dionisio Amundarain, koordinatzaile; Felipe Fuenterrabia, exegeta; Ramon Irizar, exegeta; Joan Apezetxea, exegeta; Joxe Goitia, exegeta; Periko Nuñez, exegeta; Joxe Luis Aperribai, itzultzaile; Jesus Mari Arrieta, Itzultzaile; Joxe Arregi, itzultzaile; Mikel Plaza, itzultzaile (zendua); Joxe Mari Aranalde, berrikusle; Joxe Mari Rementeria, berrikusle. Gutxiago arituak besteok: Pierre Andiazabal, Joxe Luis Elortza, Fernando Mendizabal, Joxe Antonio Pagola, Gandarias.

Aipamen berezia Joan Miren Olaizolak merezi du. Protestanteen izenean ari izanak. Lan izugarria egin zuenak, mila idarokizun eta zuzenketa proposatuz.

Aipatzekoa da, era berean, *irakurle* gisa ari izandako taldea. Izan ere, liburu bat erdi-bukatutzat eman orduko, hainbat laguni bidaltzen zitzaion hizkera aldetik azter zezan: herrikoitasuna, ulerkortasuna e.a. aztertzeko. Talde honetatik ere, gehiegi ez bazen ere, hainbat idarokizun jaso zen.

Itun Berria bukatzean, garapenari dagokionez, 1982tik 1986ra, lozorroan bezala geratu zen taldea. Halere, Itun Berriaren 2. argitalpena prestatzea zela eta, 86an berriro bildu ziren aurreko itzulpen lanean gehien aritu izandakoak: Felipe Fuenterrabia, J. M<sup>a</sup> Rementeria, Joxe Luis Aperribai, Joxe Mari Aranalde, Jesus Mari Arrieta, Dionisio Amundarain, Ramon Irizar eta Joxe Arregi katolikoan al-

detik, eta Jan de Waard eta Hartberg protestanteen aldetik. Eta Itun Zaharraren itzulpenari ekitea erabaki zuten. Lan honetan dihardu taldeak une unetan 1987az geroztik.

## 2.

### **Itun Berriaren itzulpenean helburu eta irizpideak hizkuntz ereduaren eta traduktologiaren aldetik**

#### **Itun Berria eta Zaharra**

Esana denez, hurbileko helburua, 1977an, Itun Berria euskaratzea izan zen. Gogoan izatekoa da, garai hartan ez zegoela, artean, Liturgi Batzordearenik. Ez zela barruntatzen Elizen Arteko Biblia-koen Itun Berria plazaratu baino zerbait lehentxeago argitara eman zena aterako zutenik; are gutxiago euskara batuan emango zutenik.

Dena den, hurbileko asmoak gorabehera, hondo-hondoan Biblia osoa euskaratzekoa zebilen tartean.

#### **Euskara batuan**

Esan beharrik ez, hasieratiko asmoa izan zen itzulpena euskara batuan ematea.

Bestalde, jende alfabetuari zuzendua zegoen lana. Gogoan zen, era berean, zenbait zentro teologikotan egiten hasiak ziren euskarazko ikasketa teologikoak: hasi-masiak orduan, gerora guztiz gainbehera etorriak.

Halakoei begira egindako itzulpenak ezin izan hizkera arruntegia, apur bat jaso baizik, baina jende arruntki alfabetatuarengandik ez urrunegia.

Bestalde, ikasketa unibertsitarioei begira, ez zen aski Bibliako testu hutsa ematea; aparailu kritiko gutxieneko bat eranstea ezinbestekotzat eman zen; hala, orri-oinetan erreferentziak eta oharrak eman ziren, eta liburuaren azken aldera hiztegi biblikoa.

## **Euskalkiak**

Euskara batua, taldearen asmotan, ez zen mugatzen zenbait arau ortografiko eta gramatikaletara. Aitzitik, edozein euskalkitako jende alfabetaturi zuzendua. Eta euskalki guztietako edo gehienetako hizkuntz ekarpen aberatsenez hornitua izatea.

Hala, taldea euskalki gehienetako jendez osatzeari ekin zitzaion haseratik: gipuzkoarrak, nafarrak, bizkaitarrak, lapurtarrak, baztandarrak. Irakurleen artean behenafarrik ere izan zen. Euskalki gehienak ordezkaturik zeuden, beraz.

Itzulpena burutzean, alabaina, erabaki zehatzak eta puntualak hartu behar: hitz hau ez, bestea baizik; esakera honen ordeztze beste hau, e.a. Lexiko edo zenbait flexio mailan bitasuna edo hirutasuna agertzean, bigarren edo/eta hirugarren aukera liburuaren bukaerako hiztegi arruntera pasa ohi zen. Jakina, Euskaltzaindiak erabakitako puntuetan aukerarik ez zegoen testurako zein hartu; halakoetan ere, ordea, hiztegi arruntera pasa ohi ziren zenbait aukera; beti ere, testua ahalik ulerkorren eta hedatuena egitekotan.

## **Ad quo hizkuntza**

Itzulpenerako, jatorrizko testutzat grekoa hartu zen, Bibli Elkarte Batuak argitarara emana: *The Greek New Testament*.

Baina, ezin bazterrerara utzi inguruko hizkuntzetako itzulpen modernoak: estuagoak batzuk, irekiagoak besteak. Itzulpenaren irizpide diferentetakoak.

Aipamen berezia merezi dute, alde honetatik, itzulpen herrikoi izenekoek. Gehienak Bibli Elkarte Batuak eraginda burutuak. Hauek, ad quo hizkuntzari edo bertsioari garrantzirik kendu gabe, ad quem hizkuntzari ematen diote lehentasuna: mezua jaso behar duenaren kodea da kontuan hartu beharrekoa itzulpena egiterakoan; irakurri behar duena da garrantzizkoa.

Euskarazko itzulpenen ekarpena oso eskasa izan zen. Batzuk exegesi maila eskasekoak direlako; besteak hizkera aldetik gure asmoetatik urrunegi zeudelako.

### “Baliokidetasun dinamikoa” delako printzipioa

Edozeinek daki, hizketan, hitz, esakera eta kontzeptu asko erabili ohi dela bakoitzaren esanahia gehiegi ulertu gabe, entzunaren entzunaz hots ezaguna, baina edukina ez: autonomia, askatasuna, sozialismoa, amnistia, eta Bibli hitzegiari gagozkiola, penitentzia, grazia, konbertsioa e.a. Nork ez ditu entzunak? Baina, nork du ezagutzen beroien esanahia?

Bestalde, alde edo diferentzia kulturalak direla eta, hitzez-hitzezko itzulpen asko ez da itzulpen, ez da ulergarri ad quem hizkuntzan: *larunbat* hitzak, esaterako, euskaldunarentzat ez duen esanahia du juduarentzat.

Horrelakoetan ordain-hitza bera erabiltzea baino garrantzizkoagotzat esanahia adieraztera jotzeari deritza “baliokidetasun dinamikoa”.

Bide horretatik joz, honelako itzulpenak egin izan dira:

- *ogia jan* ordez, *jan* hutsa (Lk 7,33)
- *ardoa edan* ordez, *edan* (ib.)
- *grazia* ordez, *onginahia* (askotan)
- *Jaunaren izenari dei egin* ordez, *Jaunari dei egin* (Eg 2,21)
- *Eliza* ordez, *Eliz Elkarte* (askotan)
- *baraua* ordez, *iraileko baraua* (Eg 27,9 ohar)

### 3.

#### Euskal Bibli itzulpenean tradizioarekiko jarrera

Esana dago, euskara batuan eman nahi izan dela gure kasuan. Horretarako, euskalki gehienetako ordezkariak tartekatu nahi izan dira taldean. Hain zuzen ere, euskararen barne-egitura jatorrenak erabili, eta hizkera jatorrenaz hornitzeko.



Bestetik, hizkera ahalik modernoena erabiltzen saiatu gara: euskaldun alfabetatua izan da kontutan.

Hirugarren, exegesi maila zorrotza eman nahi izan zaio itzulpenari.

Horiek horrela, ezin esan orain arteko euskal bibli itzulpenetan hiru alderdi horiek bateratu dituenik izan denik.

Esaterako, Leizarraga batek ere euskara batuaren problemarekin topo egin zuen. Bere garaiko eta bere gisako erantzuna eman zion. Herri hizkera, ordea, askotan utzi zuen bertan behera, forma kultoei atxikitzeko. Adibidez, baliokidetasun dinamikoaren printzipioa ez zuen usaindu ere. Gaurrengungo gizakiari ezer ez edo ezer gutxi esan nahi dioten hitzak edo esamoldeak mantentzeari muzin egin nahi izan diogu geurean. Ezin esan, noski, beti asmatu izan dugunik; taldean bati forma fosilizatua iruditzen zitzaiona mantendu beharrekoa iruditzen zitzaion beste bati. Joera, dena den, hor dago.

Halere, Leizarragarengandiko tradizioari atxiki gatzazkio, goitik behera, best seller den liburua Euskal Herri osoari bertsio bakaurrean eman nahi izatean.

Beste bertsioei ere ez diegu muzin egin ahal izan. Taldeko guztiok gatzazkio zordun euskaraz egin den erlijio hizkerari. Halere, aipatu burubideak kontutan izanik, pasarte askotan egin behar izan dugu geure bide propioa.

#### 4.

### Itzulpenaren harrera

Euskaraz, beste arlo askotan bezalaxe, itzulpenari buruzko kritika literarioa oso murrizta izan da; kritika literario idatzia, esan nahi da. Puntu xeheren batez Koldo Mitxelenak bota zuen bere iritzitxoak: jatorrizkoan "gizon" zekarren zenbait pasadizotan itzulpenean "gizon-emakume" jarri zela, esaterako. Baina, ezer gutxi gehiago idatzi izan da maila kritikoan.

Ahotik ahorakoak gehixeago izan dira. Alde batetik, goraipatuz batzuk. Bestetik, Liturgi Batzordearena bezain gozoa ez dela esanez beheren batek. Beti bezala, ahaztu xamarturik, konparazioak egitean, bataren eta bestearen xedeak.

Salmenta kopuruari bagagozkio, datu hauxe dago, aski esanguratsua: 1984eko martxoan 4.159 ale argitaratu zirela, eta 1987ko abenduan agorturik zela edizioa. Ezin esan, alderdi honi atxikiz, harrera txarra izan duenik; batipat, beste itzulpenik ere badagoela kontutan izanik.

Baina, errealista samar izan nahi eta, galdera hau dagiogu geure buruari: zenbateraino erabili da, ordea, liburua?

## 5.

### **Taldearen eskuarteko eta etorkizuneko proiektuak**

Biblia osoa euskaratzeko asmoz sortu zen taldea. Bidea egin ahala, asmo berririk ere erabili izan du: Bibliari buruzko liburu herrikoiak prestatu eta argitaratu, e.a. Baina, azaleratu bezala, ezkutatu egin ziren asmo horiek. Jendea lanpetuegi horrelako lanetan sartzeko.

Itun Berria euskaratu ondoren, esan bezala, zenbait urtez planto eginik egon zen taldea. Denboraldi horretan lankideetako bat ere zendu zen: Mikel Plaza, Arraiozko Erretorea. Halere, 1987an, berriro ekin zitzaion lanari. Oraingoan Itun Zaharra euskaratzeari. Taldeko batzuk zaharrak, besteak berriak; zahar batzuk atzera geldituak.

Asmoa, Itun Zaharra bukatu eta Itun Berriari ukituren emanaz, Biblia osoa euskaratzea da. Ez da esan nahi, bitarte horretan, eredu gisa edo, liburu bereziren bat plazaratuko ez denik. Baina, asmoa zazpi-zortzi urteren buruan Biblia osoa Euskal Herriaren esku jartzekoa da.

Oraingoan lan prozedura arindu egin da, funtsean lehengoa bera bada ere. Urtean bi bider, bakoitzean astebetetz, biltzen da talde osoa.

Bitartean, talde txikitan egiten da lan, eta postaz: idarokizunak eta zuzenketak batak besteari proposatuz.

## 6.

### **Bibliaren itzulpena testu sakratu nahiz testu literario gisa**

Lehenik, Bibliako liburuetan estilo literario diferentetako pasarteak daudela esan behar: prosa eta poesia; historia, didaktika, e.a.

Bibli itzultzailearen lehen egitekoa, pasarte literario desberdin horiek bereiztea da, eta ad quem hizkuntzan ad quo hizkuntzako mota literario ahalik berdintsuena ematea. Esaterako, otoitz pasarteei otoitz eitea ematea dateke itzultzailearen egitekoa. Jakina, berehala sortuko zaio problemarik: jatorrizkoan salterioaren laguntzarekin otoiztekoa zen pasartea ad quem hizkuntza beste musika tresna diferente batekin otoizteko denean, ezin joka justuegi; egokitu beharra, alegia.

Baina, arazoa ez da sakratu eta literario arteko bereizketa edo kontrajartzea. Ad quem hizkuntzan pasartea zertarako denak jar diezaioke, esan bezala, mugarik edo baldintzarik. Hala, liturgian erabiltzekoa den itzulpenak bere eitea izango du: entzuteko izatea gehienbat, egin-egindako esamoldeak gehiago erabili beharra, e.a.

Beraz, Bibliaren itzulpenean ez dago zertan eginik testu sakratu eta testu literario arteko bereizketarik; askoz gutxiago, biak kontrajartzerik.

Elizen Arteko Bibliaren itzulpenean nagusi izan den burubidea zera izan da: jatorrizkoari —formaren eta edukinaren aldetik— ahalik leialen izanik, ad quem hizkuntzako irakurleari, gaurrengongoari, egokituz, Bibliaren edukina edo mezua bizikien eta ahalik ulerko-rron aurkeztea. Jakina, horretan formak zerikusi handia duela jakinik. Forma fosilizatu eta jadanik esanahi gutxiko edo eskaseko edo indar gutxiko direnak bazterrera utzi nahi izanik, berriak asmatzen saiatu behar izan delarik.

## SINTESIS

### Grupo intereclesial para la traducción de la Biblia

Esta traducción se planteó y elaboró como trabajo conjunto entre católicos y protestantes. No es por tanto una traducción ecuménica: son muchas las iglesias cristianas que no han intervenido en ella. Por ello se ha empleado el término **Biblia intereclesiástica**, a fin de expresar la labor conjunta de diferentes iglesias cristianas.

La representación de los protestantes la ha llevado la "Asociación unificada de la Biblia"; por los católicos han tomado parte en el trabajo sacerdotes diocesanos y un grupo de frailes.

Estas colaboraciones ya no son raras o infrecuentes. El Secretariado Vaticano para la Unificación de los Cristianos tiene convenida una normativa para este tipo de trabajos. Ya se han hecho múltiples traducciones, y se siguen haciendo. Ésta es por lo tanto una más.

La idea de la creación de un grupo de estas características surgió ya durante el franquismo, en Loyola. No empieza a concretarse sin embargo hasta 1977, cuando los protestantes expresan su deseo de colaborar; se celebra un seminario en Aránzazu, y allí se plantean los siguientes objetivos: analizar científicamente los problemas que plantea la traducción de la Biblia a lenguas modernas; traducir a euskara batua, a fin de que llegue al sector más amplio posible. En el 78, comienza la traducción del Nuevo Testamento; se termina en 1982. En estos momentos se prepara una segunda edición.

Estos han sido los criterios de traducción: traducir a euskara batua, en un estilo actualizado; nivel exegético alto; utilización del texto griego como texto original. Por último, más que a la traducción literal, se tiende hacia una equivalencia dinámica. Por otro lado, hay que decir que, teniendo en cuenta los problemas específicos que plantea la traducción de la Biblia, no se puede separar la Biblia como texto sagrado por un lado y literario por otro.

La acogida de esta traducción ha sido buena: en 1987 se agotó la edición.

En cuanto a nuevos proyectos del grupo, diremos que en estos momentos, además de la segunda edición del Nuevo Testamento, está el de terminar la traducción del Antiguo Testamento, con lo cual en siete u ocho años estaría traducida la Biblia entera al euskara.

## SYNTHESIS

### *Interecclesial group for the translation of de Bible*

*This translation was planned and made as a combined work between catholics and protestants.*

*It is not therefore an ecumenical translation: many are the christian churches which have taken no part in this work. That is why the term **Interecclesial Bible** has been used, in order to express the combined work of different christian churches.*

*The protestants were represented by the "Unified Association for the Bible"; on the catholic side, diocesan priests and a group of friars have taken part in this job.*


*These collaborations are no more unusual or infrequent. The Vatican Secretariat for the Unification of Christians has established some rules for this kind of work. Many translations have already been done and are still being done. This is but another one.*

*The intention to set up one of these groups, came out in Loyola in 1977, in Franco's days. Nevertheless it doesn't take shape until 1977, when protestants express their wish to collaborate. A seminar was held in Aranzazu and the following aims were set forth: to analyse scientifically the problems raised by the translation of the Bible into modern languages; to translate it into "euskara batua" so that it can reach the widest range of people. In 1978, the translation of the New Testament begins; it is finished by 1982. A second edition is now in progress.*

*The translation criteria have been the following: to translate into "euskara batua" and in an up-to-dated style; high exegetic level; the use of the greek text as original text. Finally, more than to obtain literal translation, dynamic equivalence has rather been choosen. On the other hand, it must be said, that bearing in mind the specific problems raised by the translation of the Bible, the latter cannot be considered separately as a sacred text and a literary one.*

*The acceptance of this work has been good: in 1978 the edition was sold out.*

*As far as the new projects are concerned, we can say that at this moment the groups have the intention of translating the Old Testament and thus in seven or eight years the whole Bible will be translated into basque.*



# Liturgiako Itzulpen Batzordearen Itun Berria

Eustasio Etxezarreta  
Liturgi Itzulpen Taldeko Idazkaria

## 1. Taldearen sorrera

Oraintxe zortzi urte, 1980an, liturgiako itzulpen batzordeak Itun Berriaren argitalpen berri bat plazaratu zuen<sup>(1)</sup>. Baina berehala esan behar da, itzulpen taldea, berez, ez zela Itun Berria Euskaratzeko sortua izan. Historia labur bat egin dezagun, talde honen sorrera eta eskuartean izan dituen lanak zehazteko.

Vaticanoko II. Kontzilioaren ondorioz sortu zen liturgiako itzulpen taldea. Eliza batzar nagusiak onartutako lehen dokumentua liturgiari buruzkoa izan zen. 1963. go abenduaren 5ean finkatua eta erabakia geratu zen idazki hori. Delako dokumentu honetan, besteak beste, ordurarte gure artean latinez bakarrik ospatzen zen liturgia herri hizkuntzetan ospatu ahal izateko bideak zabaltzen ziren<sup>(2)</sup>.

Erabaki honen ondorioz eta elizbarruti bakoitzeko Gotzainaren ardurapean, itzulpen taldeak sortu ziren han eta hemen gure elizba-

---

(1) **Itun Berria**. Idatz Elizbarrutiko Argitaldaria. Donostia, 1980. 736 or. Bigarren argitarapena, 1984; hirugarrena, 1988

(2) Ik. Vatičanoko II Kontzilioa: **Sacrosanctum Concilium** Liturgia Santuari buruzko Konstituzioa, 36 z.

rrutietan. Euskal Iparraldekoak izan ziren lehenengoak; eta berehala Hegoaldekoak Gipuzkoan, Bizkaian eta Nafarroan. Erromatik erabakitako epe jakinetan eta mailaz-maila, latina utzi eta herri hizkuntzak sartzeari ekin behar izan zitzaion. Horretarako, ordea, itzulpenak prestatu behar ziren, tenerez prestatu ere.

Hörrela, bada, ahalegin guztian hasi ziren taldeak lanean. Hala ere, era desberdinean ekin zion hasiera hartan lanari gure elizbarrutietako talde bakoitzak. Izan ere, Bilboko Gotzainak, Jaime Kerexetak bizkaierara itzuli eta argitaratu berria zuen Meza liburuko irakurgaiak eta otoitzak erabil zitatzela agindu zien bere elizbarrutiko apaizei. Nafarroako Gotzaiburuak, berriz, "Orixe"ren Meza liburua onartu zuen bere elizbarrutiko euskal parroketan erabil zezaten. Baiona eta Donostiako elizbarrutietako taldeek, ordea, itzulpen berriak egin behar zituzten edota, gutxienean, eskura zeuden argitarapenak oinarri harturik, beren euskalkietara egokitu, liturgiako irakurgai eta otoitzak.

## **2. Taldearen jarduera eta urratsak**

Kontzilioaren aginduz, piskanaka-piskanaka, liturgi liburu guztiak eraberrituak izan ziren, sakonki berrizatuak, alegia; testu guztiak ez bada ere, gehienak behintzat berriak edota aldatuak izateraino. Eraberritutako liburuetan lehenengotakoa Meza eta sakramentuak ospatzeko irakurgaiena izan zen; geroxeago, Mezako otoitzak eta sakramentuen elizkizun liburu berriak argitaratu ziren. Eta guzti honekin, planteamendu berri bat zegoen egin beharra itzulpenei zegokienez.

Indarrak elkartu beharra ikusten zen, lanaren ugariari erantzun ahal izateko. Baina, gainera, gero eta garbiago azaltzen zen, liturgi testuen euskal itzulpen guztiak bateratu beharra. Ez zen, ordea, gauza erraza. Bizpahiru saio eginak zituzten itzultzaile guztiek talde bakarrean bildurik; eta lanaren jardunean konturatzen ziren, zenbait esalditan ez zegoela itzulpen batera etortzeko eragozpen haundirik; baina konturatzen ziren, baita ere, zailtasun haundiak zeudela askotan, denek itzulpen bat-bera onartzeko, euskalkien ezberdintasunak zirela medio.



1.967.go udazkenean, batzarrean bildu ziren Iruñean itzultzaile taldeko ordezkari batzuk. Erromako Liturgi Batzorde Nagusiko idazkaria zen A. Bugnini jaunarekin, itzulpen bakarra lortzeko aurkitzen zituzten eragozpenak aztertzeko eta nolabaiteko iretenbidea aurkitzeko.

Bi maila bereiztea erabaki zuten:

- a) Mezatan egunero erabili ohi diren zatietan, ahalik eta itzulpen batasunik haundiena lortzen saiatu behar zuten;
- b) baina irakurgai eta otoitzetan, euskarari buruz gure herriaren egoera kontutan harturik, askatasun haundiagoz joka zezaketen. Izan ere, euskalki bakoitzeko ordezkarien iritzian, ordukoz ezin zitekeen inola ere argitalpen bakarra egin, baldin eta gure herriak kristau mezua egoki jasotzea nahi bazen.

Ahalegin honek berekin ekarri zuen batasunerako joera, gogoan badugu, gainera, garai hartan gizarte maialan ere euskara baturantzako eragin izugarria sumatzen zela. Eta 1969 urtearen hasieratik aurrera, itzulpen talde bakarra eratu zen elizbarruti guztietako ordezkariekin. Ia bost urte behar izan ziren erabaki horretara iristeko. Geroztik elkarrekin egin izan dira, bai liturgi testu berrien itzulpenak, bai lehen talde bakoitzak bere aldetik itzulitakoen berrikusketa.

### **3. Liturgiako Itzulpen Batzordearen Itun Berria**

Orain arte esandakotik ikus daitekeenez, liturgiako itzulpen taldea ez zen zuzenean Itun Berria itzultzeko sortu, liturgi liburu berriak euskaratzeko baizik. Baina liturgi testuen artean, zati handi bat irakurgaiak dira: Itun Zahar eta Berriko irakurgaiak.

Itun Berria argitaratu aurretik, hainbat eta hainbat itzulpen eta argitarapen egin zituen. Hasiera batean, behin-behineko argitarapenak egiten ziren; lanak prestatu ahala, liburuskatan eskuratzen zitzaizkien apaizei, iganderoko beren liturgi jardukizunerako berehala behar zituzten gaiak: irakurgaiak eta otoitzak. Gero, ordea, argitara-

pen trinkoak eta epe luzeagorako balio behar zutenak egin ziren: **Orduen Liturgia** (1977) eta **Irakurgaiak** izeneko liburu gotorra (1978). Lehenengoan, gehienbat, Itun Zaharreko Salmoak erabiltzen dira, eta Itun Zahar eta Berriko irakurgai laburrak. Bigarrenean, berriz, badira Itun Zaharreko pasarteak ere eta Salmo zatiak, baina gehienbat Itun Berriko zatiak dira ematen direnak.

Irakurgaien liburua argitaratu aurretik, bi lan egin behar izan ziren:

- a) Pasarte paraleloen berdinketa. Badira, batez ere Itun Berrian, paraleloak deritzaten zatiak, bereziki hiru Ebanjelio sinoptikoetan eta Itun Zaharreko Salmo edota beste liburu-etatik hartutako esaldien aipamena egiten deneko esaldietan. Begirada batera, harrigarria badirudi ere, ez da harritzekoa, lehenengo lanaldian horrelako zertzelada asko kontuan ez izana. Liturgi liburuetan nahasian azaltzen bait dira Bibliako pasarteak.
- b) Paraleloen berdinketa edo azterketa egin ondoren, azken lan bat egin beharra ikusten zen: itzultitako irakurgai guztien segidako irakurketa. Eta hori ez bakarrik idazkera berdintzeko, baita sintaxia eta hiztegia bera ere aztertzeko. Ez dugu ahaztu behar hamar-hamabi urteren buruan egindako lanak zirela, taldeko lankideak gutxi-asko aldatzen joan zirela, eta taldea bera prozesu baten barruan aurkitzen zela: lanak berak bide berriak erakusten zituelako, batetik; eta, bestetik, euskarak urte haietan ari zuen aldaketak bere eragina zuelako itzulpen taldean ere.

Liturgiako **Irakurgaien** liburuan Itun Berria oso-osorik sartzen ez bada ere, zatirik nagusia behintzat hartzen da. Hortik sortu zen Itun Berria argitaratzeko asmoa. Horretarako, itzuliak zeuden zatiak bildu, eta itzultzeko falta zena osatu zen.

Gainera argitarapen hau kristauen eskuetan jartzeko eta maila guztietako katekesi hezierarako pentsaturik zegoenez, hainbat sarre-  
ra eta lagungarri erantsi zitzaizkion, irakurketaren mesedetan eta

erabilpenaren aberasgarri: liburu bakoitzari egindako hitzaurreak, zenbait pasarte argitzeko oharrak, argibide batzuk Itun Berria irakurtzen laguntzeko, gogoetarako gai zerrenda pasarterik egokienak aukeratzeko laguntzeko, igande eta jaiegunetan liturgian hartzen diren irakurgaien aurkibidea, eta mapa bi: Palestina Jesukristoren garaian eta San Pauloren lau ibilaldiak. Itzulpenaz gainera, beste eraskin hauek direla, esango genuke. Itun Berri honen ezaugarriak aipagarriena, kontuan izanik, Kontzilioaz geroztik, Liburu Santuaren eta bereziki Itun Berriaren erabilkerak oinarritzko garrantzia duela kristauaren katekesi hezieran eta orokorki pastoraltza lanetan.

#### 4. Itun Berriaren itzulpenaren helburua eta irizpideak

Vaticanoko II. Kontzilioaren **Dei Verbum** izeneko idazkian, Elizak agintzen du, "*Liburu Santurako bideak zabal-zabalik egon behar duela fededunentzat*"<sup>(3)</sup>; eta, beraz, itzulpen egokiak egiteko agindua ematen du, fededunek eskura izan dezaten Liburu Santua. Itzulpen egokia esatean, bi alderdiri begiratzen zaio batipat: "*jatorrizko hizkuntzetatik*" eta "*kristau herriarentzat*" eginak izateari.

Baziren lehendik Itun Berriaren itzulpenak; baziren Meza liburuaren itzulpenak. Baina, hala ere, liturgiarako itzulpen berri bat egiteko erabakia hartu zen. Zer dela eta?

Itzulpen irizpideei buruz, aitortu beharra dago, aurrerapen handiak egin direla Bibli jakintzetan, gure mende honetan eta, batez ere, azken hogeitabost urteotan. Jakintza mota berria sortu dela esan beharko litzateke, Bibliaren itzulpenari buruz.

Gai hauetan jakintsu direnen esanera, idazlan batek alderdi eta maila desberdinak ditu: edukia, erabiltzen diren kontzeptuak eta hiztegia, esaldien formulaketa, estilistika, literatur alorreko nolokotasunak, etab.; eta ezinezkoa dela diote, itzulpenean alderdi eta aberastasun guzti horiek aldi berean jasotzea. Zenbat eta sakonago

---

(3) Ik. Vaticanoko II Kontzilioa: **Dei Verbum** Jainkoaren Agerpenari buruzko Dogma Konstituzioa, 22 z.

ezagutu jatorrizko hizkuntza, orduan eta zailago gertatzen dela, han esana dagoen guztia hizkuntza berri batean esatea<sup>4</sup>.

Honek esan nahi du, testu batek berak itzulpen bat baino gehiago egiteko egokiera ematen duela. Bibliari gagozkiolarik, ez da berdin "jakintzari laguntzeko... izkuntzak ikasten ari diren ainbat jakintsuentzat" itzulpena egitea, Duvoisini Luis Luzien Bonapartek agindu omen zion bezala, edota exegesi lan txukun eta zehatz baten zerbitzura egindakoa, kristau xeheak irakurtzeko egina, etab. Guztiak izan daitezke bidezkoak eta ongi eginak, baina helburu desberdinarekin eta maila desberdinetan eginak izango dira. Itzulpenak, bestalde, garaian garaikoa izan behar du.

Bibliari buruz egin daitezkeen era askotako itzulpenen artean, esan daiteke, liturgi ospakizunean jendaurrean irakurtzeko egindakoa dela, berez, egokiena. Liburu Santua elkarte baten barruan sortutako idazlana da, herri baten bihotzean sortua. Historian zehar egina izan den bilduma da. Jatorrian gune edo muin batzuk besterik ez zirenak, behin eta berriz elkarte barruan irakurritz, osatzen eta aberasten joan dira denborarekin. Zenbait pasartetan, ospakizunetan eta ospakizunetarako eratuia izan den ahozkotasanaren ezaugarriak nabari dira. Horregatik, "Bibliaren itzulpena egiterakoan liturgi ospakizunean eta, beraz, jendaurrean irakurria izan behar duela pentsatu behar da"<sup>5</sup>. Horregatik, eginkizun hori egokien betetzen duen itzulpena dela, esan beharko genuke, Liburu Santuaren itzulpenak onena.

Betidanik esan izan da, itzultzailearen lege nagusia "leialtasuna" dela. Baina leialtasunaren nolakotasunak ez dira orain lehen bezala ulertzen. Itzulpen irizpide berriak "formazko berdintasuna" alboratu, eta "baliokidetasuna" edo "berdintasun dinamikoa" hartu dute itzulpen eredutzat, hau da: balio berdineko indarra eta edertasuna duen itzulpena. Gauza jakina da, sistema bat dela hizkuntza eta ez dagoela berdintasun osorik hizkuntz sistema batetik bestera.

(4) Alonso-Schökel, L.: **La palabra inspirada. La biblia a la luz de la ciencia del lengüaje**. Ed. Cristiandad. Madrid 1986. 267-280 or.

(5) Ik. Alonso-Schökel: *Ibidem*. 278. or.

“*Formazko berdintasuna*” erabiltzen duen itzulpen sistemak jatorrizko testuari begiratzen dio, batez ere, eta harekiko leial jokatzeari. Bere helburu guztia, testu hori hizkuntza berri batean ematea da, jatorrizko hizkuntzaren formak errespetatuz. Alderantziz, itzulpen teknika berriak, jatorrizko testuari zor zaion leialtasunaz gainera, irakurlea du begien aurrean; irakurlearen hizkuntz sistemari ere leialtasuna zor zaiola ikusten du. Bi begirapuntu ditu, beraz, leialtasunak. Bikoitza da leialtasunaren arazoa.

Jatorrizko hizkuntzak irakurtzeko gauza ez den irakurleari hurbildu egiten dio idazkia, haren hizkuntzara itzuliz. Eta hori egiterakoan, gaurko irakurleari edota entzuleari ulergarri izan dakion lortu nahi du, jatorrizko irakurlearentzat ulergarri izan zitekeen neurrian; eta gainera, gaurko irakurlearengan sentipen eta jarrera berdintsuak sortu nahi lituzke.

Euskal Elizbarruti arteko Itun Berriaren itzulpenean, batez ere azken aldera eta gehiago, itzulpenaren berdintasun dinamikoaren bigarren jarraitu nahi izan zaio. Hala ere, ez du horrek esan nahi, teknika berri hau oso-osorik eta jakintsuen mailan erabilia izan denik. Are gutxiago esan nahi da, Itun Berriaren itzulpen honekin azken hitza esana geratu denik.

Itzulpen teknika berriak zabaldu dituen bideetan abiatu izan arren —batzutan senaren edo intuizioaren eraginez, beste askotan gaurregun gure inguruko hizkuntzatan eskura dauden zenbait itzulpenen laguntzaz—, edonork ikus dezake bide luzea dagoela oraindik. Lan guztiek, eginak izan diren garaiko ezaugarriak izan ohi dituzte; eta Itun Berri hau ere hala izango da, bere alderdi on, akats eta guzti.

Hitz gutxitan laburbilduz esango genuke, hauek direla Itun Berri honen bereizgarriak aipagarrienak:

- Itzulpen gaurkotua dugu, herriarentzat egina —hau da: herri mailako euskara erabiliz— eta jendaurrean irakurtzeko. Bi alderdi hauek mugatzen dute, nolabait, Itun Berriaren liburu honetan darabilen euskararen duintasuna,

alde batetik, eta herrikoitasuna, bestetik. Izan ere, ez dugu ahaztu behar, Itun Berria, berez, idatzia izanik ere, askotan norberak irakurri ez, baizik eta entzun egiten duela, eta ahozkotasanaren eite berezia hartzen dutela. Eta batzarrean bildurik dagoen kristau herriak entzun hutsez jaso behar badu Jainko hitzaren mamia eta mezua, honek maila eta egokitasun bereziak dituen euskara eskatzen du.

- Jatorrizko hizkuntzatik egina izan da —grekotik—. Baina ez hori bakarrik; taldean egindako lana dugu eta, hain zuzen, euskalki desberdinetako ordezkari ziren lankideez osatutako taldean. Hasieratik azkenera liturgi eta Bibli itzulpenetan gutxi-asko aritu direnak hogeitamar lagunetik gora izan dira, nahiz eta talderik finkoena sei-zortziren bat lankide izan: euskalkirik nagusienak —bizkaiera, gipuzkera, goi- eta behenafarrera eta lapurtera— ordezkatzan ziztuzten lankideek. Eta azken testua euskara batuan emana dago.
- Bestalde, Elizaren aginduz egindako itzulpen lana izan da, ofizialki Elizan erabiltzeko. Euskal Herriko Eliza katolikoaren historian lehenengo aldiz gertatzen da hori. Gorago esan dugunez, eliz pastoraltzan badu bere garrantzia itzulpen bat-bera erabiltzeak liturgi ospakizunetan, kristau hezieran eta norberak gogoetarako eta otoitzerako hartzen duenean.
- Eta azkenik, argitarapen hau kristau heziera lanetan erabiltzeko asmoz egina izanik, sarrera haundia eman zaie testuari buruzko argibide, ohar eta bestelako eraskinei.

## **5. Euskal Bibli itzulpenaren tradizioarekiko jarrera**

Kontzilio aurretik egindako Itun Berriko pasarteen itzulpenak ez ziren, zeuden-zeudenean, liturgiarako hain erabilgarriak. Lehenengo mendeetako itzulpenak aztertzen baditugu, batetik, latinezko Vulgatatik egindako itzulpenak ziren; eta, bestetik, hizkuntza gauza bizia

eta aldakorra izanik, zahartua eta atzera geratua zegoen itzulpen haietako euskara.

Lehenengoa Joannes Leizarraga kalbinistaren **Iesvs Christ gyre Iavnaren Testamentv Berria** izan zen, Nafarroako erreginarene la-guntzarekin 1571ean argitara emana, lapurteraz.

Katolikoan artean, Joanes Haraneder dugu lehenengoa, Doniba-ne Lohizuneko semea eta apaiza. Bere **Testament Berria** lapurtera-ko euskaraz 1740an burutu zuen; baina ehun urte igaro ziren, beste bi apaizek —M. Harriet eta P.N. Dassancek— berrikusi eta, zenbait zuzenketa egin ondoren, 1855ean argitaratu arte.

Duvoisin kapitainak 1865ean argitaratu zuen bere **Bible Sain-dua**, hau ere lapurteraz itzulia, Itun Berria beronen azken zati duena. Baina argitarapen hau hizkuntzalarien zerbitzura egina izanik, Erro-mako baimenik gabe egina izan zen, eta ez zuten kristauen fede he-zieran erabili. Geroago, ordea, joan den mendearen azken aldera, Haristoy apaizak **Ebanjelio Saindua** euskaraz argitara eman zuen Duvoisinen itzulpena oinarri harturik eta “*behar diren baimen eta chehetasun guztiekin*”.

Bada, azkenik, joan den mendean itzulitako beste Testamentu Berri bat, Fray Jose Antonio de Uriartek gipuzkeraz itzulia eta orain-dik argirik ikusi ez duena.

Gure mende honetan egindako itzulpenak jatorrizko grekotik egi-nak izan dira, baina goi mailako hizkuntza zerabilten edota Ebanje-lio hutsa ematen zuten eta ez Itun Berri osoa. Hauetan lehenengoa Olabideren **Testamentu Berria** daukagu, 1931n argitara emana eta gero, “*aldaketa aundirik gabe*”, haren **Idazteuna, Itun Zar eta Be-rria** argitarapenean sartua (1958).

Arantzazuko fraile talde batek **Lau Ebanjelioak** argitaratu zi-tuen, gipuzkeraz, 1961ean.

Hauek ziren, liturgiako itzulpen taldea lanean hasi zenean, esku-ra zeuden itzulpenak. Eta aurreko puntuan adierazi diren arrazoi-en-gatik, itzulpen berria egitea erabaki zuten: jatorrizko hizkuntzetatik

egindako itzulpena, kristau herriarentzat, euskara errazean eta jendaurrean irakurtzeko egina. Baina hori ez zen euskal itzulpenekin bakarrik gertatu. Hain zuzen, beste hizkuntzetan ere itzulpen berriak egin beharrean gertatu ziren.

Hala ere, itzulpen berri bat egiteak ez du esan nahi, lehen egindako guztiak baztertera utzi eta itzulpen lana hutsetik hasi zenik. Bidezkoa denez, eskura eduki izan dira orain arteko argitarapenak. Baina eskurago eduki dira gure kultur inguruko azken itzulpenak: itzulpen irizpide berriekin beste hizkuntzetan eta gure garai berean egin izan diren itzulpenak, alegia, eta arreta haundiagoz begiratu zaie hauei.

Baina gauza bat da itzulpen berria egitea, itzulpen hori liturgi liburuetan argitaratzeko; eta besterik da, pasarte horiek bildu, falta ziren zatiak osatu eta guzti horrekin beste Itun Berri bat argitaratzea, 1980ko honetan egin zen bezala. Izan ere, Kontzilio ondoren hainbat itzulpen eta argitarapen berri egin izan dira Itun Berriarenak.

J. Kerexetaren Jesukristoren **Barri Ona**, 1966an bizkaieraz argitaratua, izan zen lehenengoa; bigarrenez Alkartasun Barria tituluarekin 1972an argitara emana eta, azkenik, 1976an bere **Euskal Biblia**-n sartu zuena.

Gipuzkeraz, 1967an argitaratu zen itzulpen hau bera, **Itun Berria** izenarekin eta Ebanjelioen itzulpena "Orixe"rena harturik. Hiru autore azaltzen dira, "Orixe"-Kerexeta-Zugazti. Gero 1974ean ikusi zuen honek bigarren argitarapena.

Lapurteraz, Belokeko Beneditarrek argitaratu zuten **Jesukristoren Berri Ona**, lau Ebanjelioak eta Apostoluen Egintzak emanaz liturgiarako egindako itzulpenean.

Bada oraindik beste **Itun Berria** F. Olariaga Jesusen Lagundikoak itzulua eta 1978an argitaratua.

Eta azkenik, **Elizen Arteko Biblia** izeneko taldeak bere aldetik beste **Itun Berria** argitara emana du, euskara batuan, 1983an, gero 1987an bigarren argitarapena ikusi duena.



Itun Berriaren hainbesteko aukera izanik, zer dela eta beste argitarapen bat gehiago egin?

Liturgiarako Itun Berriko pasarteen itzulpen berri bat egiteko lehenago eman ditugun arrazoiez gainera, bazen beste arrazoi bat berorien argitarapena ere egitera eragiten zuena: Liburu Santuak eta, kasu honetan, Itun Berriak kristauaren fede bizitzarako duen garrantzia. Biblia Jainkoaren hitza bait da eta, beraz, Elizaren oinarrizko alderdia. Jesukristoren Eliza ulertezina litzateke Bibliarik gabe. Eliza fede elkarte da: Jainkoaren hitza entzun, ospatu eta bizi egiten duen fede elkarte. Elizarentzat fede eta maitasun bizitzaren utziezinezko alderdia da, Jainkoaren hitza liturgi batzarrean eta otoitz giroan entzutea eta berorretaz, elkartean nahiz bakardadean, gogoeta egitea.

Jainkoaren hitza da, bestalde, katekesi heziera guztiaren iturri bizia, kristaugintza egokia eta sendoa lortzeko. Hortik uler daiteke San Jeronimoren esaldi hura: "*Liburu Santua ezagutzen ez duenak ez du Kristo ezagutzen*". Herri baten historia barruan eta bizitzan zehar sortutako idazkia dela esan dugu Liburu Santua, eta gaurregun ere idazki honek duen baliorik nagusienetakoa Jainko herriaren fede iturri izatea da. Eskuarki, ordea, ez da —beste liburu asko bezala, hasi eta buka— jarraian irakurtzen. Bakarka eta batez ere batzarrean, pasarteka irakurtzen da, eta otoitz giroan.

Baina guzti hori egia izanik, ez al zuten horretarako balio orduarte argitara emandako Itun Berriek?

Garrantzi berezia eman izan zaio Elizan, liturgiako ospakizunetan eta katekesi hezieran nahiz norberaren otoitzaldietan itzulpen bat-bera erabiltzeari. Hori gertatu izan da, LXX —Septuaginta Viorum— deitutako itzulpenarekin eta gero Vulgatarekin ere. Beraz, Elizaren aspaldiko tradizioetik datorren gauza da. Liburu Santuak itzulpen berean behin eta berriz entzun eta irakurri izanak, esaldi horietako asko, hizkera bizitik hartuak izan direnez, piskanaka buruz jasotzea dakar eta beti ere errazago ulertzea entzuten eta irakurtzen diren pasarteak. Hau izan da, beraz, Itun Berriaren beste argitarapen bat egiteko arrazoi nagusia.

## 6. Itun Berri honek izan duen harrera

Euskarazko beste idazlan askorekin gertatu izan denez, Itun Berri honek ere ez du aparteko azterketa kritikorik jaso izan. Alderantziz, pastoral eta katekesi lanetarako garrantzi haundiko tresna izanik, zain-zain zegoen aspaldidanik eliz jendea Itun Berri hau noiz argitaratuko, eta oso harrera ona egin zitzaion kaleratua izan zenean.

Garai hartan, euskararen inguruko eztabaidak, askotan, euskararen bikaintasunari baino gehiago, euskara batua eta, zehatzago, euskara baturako proposatutako ortografia onartzen zen ala ez, horri begiratzen zitzaion. Zenbait jende arazo honekin itsututa eta tope eginda geratzen zen. Giro honetan, aipatzekoa iruditzen zaigu Koldo Mitxelena zenaren iritzia, liturgiako itzulpen taldeak argitara eman berria zuen **Orduen Liturgia**-ri buruz.

Euskaltzaindiaren VIII. Biltzarra ospatzekoa zen Bergaran 1978an, Arantzazun egindako VII. Biltzarraren hamargarren urteburuan eta Koldo Eleizalderen jaiotzako mendeurrenean. Euskararen batasuna lortu ahal izateko, Arantzazuko Biltzarrean emandako arauiek zer-nolako harrera eta itsaspena izan zuten aztertu nahi zen, hamar urte igaro ondoren. Bestalde, Eleizaldek Oñatin, Eusko Ikaskuntzaren 1918ko Batzarrean, euskararen batasunaren arazoa "*ausarki eta ozenki planteatu*" zuenez gero, euskararen batasuna izan zuen "*gai nagusi eta bakarra*" Eleizalderen mendeurrenean Bergaran egindako Biltzarrak<sup>(6)</sup>.

Irailaren 4tik 8ra egin zen Biltzarra, eta aurretik giro egokia eta interesa sortu nahirik, beren iritziak eskatu zitzaizkien hamabi euskaltzaini. Euskararen ortografia bateratzeari buruz, zer itxaro zitezkeen Bergarako Biltzarretik, hori zen egiten zitzaien galdera. Eta Koldo Mitxelenaren erantzuna jasoko dugu: "*Euskararen batasuna ortografiaren arazoa baino askoz ere gehiago da. Hor dago Orduen Liturgia hatxerik gabe, eta erabat lan ona eta eredugarria da*"<sup>(7)</sup>.

(6) Ik. **Euskara**. (1978-2), 442-443. or.

(7) Ik. **Deia**. (1978, Abuztuak 31), 17.. or.

Mitxelenak ez zuen Itun Berria aipatu, ezin zezakeen aipatu ere, oraindik argitaratzeko zegoenez. Baina **Orduen Liturgia** egin zuen talde beraren lana izan zen Itun Berria ere.

Liturgiako itzulpen taldeak izan zituen, lehen aldi hartan, bere borrokak eta kezak euskara batuari buruz; hobeto esateko, euskara batuaren alderdi batzuri buruz, azken batean kanpoko jazkera den ortografiari buruz. Baina Itun Berriaren argitarapena erabat euskara batuan egin zen. Itzulpen taldeak, batez ere, euskararen bikaintasunari begiratu nahi izan zion bere lanetan, hizkuntzaren joskera egokiari, euskararen gorputza bera jotzen bait zuen gauzarik garrantzitsuena. Eta itzulpenetan erabili duen euskara maila nolabait adierazteko, zera esango genuke: eliz lanetan eta jendaurrean erabili ohi den euskara izan dela eredu hartua, hau da: euskara landua, maila batean arautua eta duina eta, aldi beran, entzulegoarentzat ulertteraza.

Eta idatzizko kritikarik izan ez bada ere, hitzez eta egitez oso harriera ona izan du. Besteak beste, izan duen zabalkundea da hori pentsatzeko bide ematen diguna. Zortzi urteren buruan hirugarren argitarapena egina izan da eta 18.000 ale dira orain arte zabaldu direnak.

Itzulpenaren teknikari buruz, lehen 4. puntuan egin dugun azalpenaren adierazgarri, bada azterketa labur bat, Euskaltzaindiko sarrera hitzaldi gisa nik neuk egina, "**Euskal Elizbarruti arteko Itun Berria: Itzulpenaren xehetasunak historiaren argira**" titulupean<sup>(6)</sup>. Zenbait pasarte aztertzen dira bertan, itzulpen irizpide berriak nola erabiliak izan diren aditzera emateko. Hemen orokorki esanda geratu diren hainbat puntu, han xeheki aztertzen dira. Beraz, interesgarria jotzen dugu lan hori, hemen esandakoak baieztatzeko eta Itun Berriaren ordurarteko euskal itzulpenen eta gure Itun Berri honen artean dagoen alde berezia ikusteko.

## **7. Etorkizunerako asmoak**

Gure itzulpen taldea liturgi liburuen itzulpenerako sortua izan zela esana dugu hasieratik. Eta liturgi liburu beharrezkoenean itzul-

(6) Ik. Euskara. (1981), 199-217. or.

pena burutu zuelarik, orain lanari utzia dago talde bezala. Azken urteotan taldeko lau lagun hil ere egin dira.

Orain eskura daukagun lanik premiazkoena itzulpen horien argitarapena egitea da: eskuko Meza liburua herriarentzat, eta sakramentuak ospatzeko elizkizun liburuak batipat.

Erabili izan dugu Biblia bere osoan itzuli eta argitaratzeko asmoa, baina asmo honi ez diogu oraindaino bere erantzuna eman ahal izan. Hala ere ez dugu bazterrera utzia. Hartarako egokiera eta lan-kideak biltzea lortuko bagenu, gogoz ekingo genioke lanari.

## SINTESIS

### El Nuevo Testamento de la Comisión Traductora de la Liturgia

Este grupo surgió a raíz del Vaticano II, cuando se abre la posibilidad de celebrar la liturgia no en latín, sino en lengua vernácula. Surgen así grupos dedicados a la traducción: en plazos fijos dictados desde Roma y paso a paso, había que dejar el latín e introducir las nuevas versiones. Para ello, era necesario preparar las correspondientes traducciones. Algunas de las diócesis vascas empezaron a utilizar textos ya existentes (Orixe, etc); otras son sin embargo partidarias de elaborar un texto nuevo. Con la profunda renovación litúrgica que supone el Vaticano II, es evidente la necesidad de unificar las diferentes versiones existentes en euskara.

En 1969 se forma un grupo de traducción, no sólo para traducir el Nuevo Testamento, también con la finalidad de traducir los nuevos textos litúrgicos. El grupo comenzó publicando textos breves y provisionales. Al Nuevo Testamento se le concede especial atención porque su uso es de básica importancia en la catequesis cristiana y, en general, en la labor pastoral. Esto responde también a una pregunta que más de una vez se ha planteado, el por qué de una nueva traducción habiendo traducciones anteriores al euskara.

Estos han sido los criterios de traducción: ha de ser adecuada, es decir, "*a partir del texto original*" y "*para el pueblo cristiano*". Hay que tener en cuenta que entre las múltiples posibilidades de traducción de la Biblia la más adecuada es la destinada a ser leída en celebraciones litúrgicas. En efecto, el Santo Libro surgió en comunidad. Por ello, dada la importancia del receptor, más que a una fidelidad literal al texto original se ha tendido a lo que se llama "*equivalencia dinámica*" en la traducción.

Estas son las principales características de nuestra traducción: es una traducción actualizada, hecha para el pueblo y para ser leída en público; está por lo tanto escrita en euskara batua; se ha hecho a partir de la lengua original, es decir, el griego; es la traducción oficial, hecha por expreso encargo de Roma, por primera vez en Euskadi.

Hemos de decir que en ocho años se han publicado tres ediciones, y ya se han vendido dieciocho mil ejemplares.

Una vez terminada la labor más urgente, el grupo ha dejado de trabajar. Tiene sin embargo varios proyectos entre manos: la traducción del Misal de los Fieles y la de los Libros para la liturgia de los Sacramentos. Además, y aunque por ahora no parece muy factible, no se ha abandonado la idea de traducir la Biblia entera.

## SINTESES

### *The New Testament of the Commission for the Translation of Liturgy*

*This group came out after the second Vatican Council, when it was made possible to celebrate liturgy not in Latin, but in vernacular languages. For this reason, several groups were created for the translation of the new liturgy. Latin should be abandoned, within fixed terms established by Rome, in order to introduce the new versions, becoming necessary to have the corresponding translations ready.*

*Some of the basque dioceses began to use texts already existing; however, others advocated the preparation of a new text. With the profound liturgical renovation brought about by Second Vatican, it was made clear the need to unify the different versions already existing in basque.*

*A group of translators was formed in 1969, not only to translate the New Testament, but to do the same with the new liturgical texts. The group started by publishing short and provisory texts. Special attention was given to the New Testament, because of its magnitude in christian catechesis and in general in pastoral work. This also comes to answer a question more than once arised -why a new translation when there exist already translations into basque.*

*thes have been the translation criteria: it must be appropriate, i.e., "from the original text" and "for christian people". It must be borne in mind that among the many possibilities to translate the Bible, the most appropriate one is the version to be read in liturgical celebrations. The Holy Book came out in community and the receiver being so important, it was preferred to reach to a dynamic equivalence in the translation rather than sticking to a literal loyalty to the original text.*

*The main features of the translation are: it is an up-to-dated translation, made for the people and meant to be read in public; it is therefore written in unified basque; it was done starting from the original language, that is, greek; it is the official translation made by assignment from Rome, for the first time in Euskadi.*

*It must be said that three editions have been published in eight years and 18000 copies have already been sold.*

*Once the most urgent job has been finished, the group has ceased to work; however, they have some projects in mind: the translation of the Missal for christians and that of the books for the liturgy of Sacraments. And the project of translating the whole Bible has not been left aside, even if it does not seem very likely to be carried out.*

## Jenesia, III, 1-6

א וְהַנְחֵשׁ הָיָה עֵרוֹם מִכֹּל חַיַּת הַשָּׂדֶה אֲשֶׁר עָשָׂה יְהוָה  
אֱלֹהִים וַיֹּאמֶר אֶל־הָאִשָּׁה אַף כִּי־אָמַר אֱלֹהִים לֹא תֹאכְלוּ  
מִכֹּל עֵץ הַגָּן: וַתֹּאמֶר הָאִשָּׁה אֶל־הַנְחֵשׁ מִפֶּה עֵץ הַגָּן  
נֹאכֵל:

### P. d'Urte: Biblia Saindua

1. Eta suguea, Iaincoac eguin çituen lurreco bestia guçiac bag-no fignago çen: horrec erran çioen Emázteari, Eguia da, erran duela Iaincoac, eztuçue Ianen baratçeco arbola guçietaric?

2. eta Emázteac ihardetssi çioen sugueari, Iaten dugu baratçeco arboletaco fuitutic;

### Duvoisin: Bible Saindua

1. Bada sugea zen Jainko Jau-nak egin izan zituen lurreko abe-re guziak baino maltzurragoa. Hunek erran zioen emaztekiari: Zergatik manatu darotzu Jaunak jan ez dezazun pharabisuko zu-haitz guzietarik?

2. Emaztekiak ihardetsi zioen: Pharabisuan diren zuhaitzetako fruituetarik jaten dugu;

### J.A. Uriarte: Biblia

1. Baña suguea zan Jaun Jaun-goicoac eguin ctuen lurreco abe-re guztiac baño marrajoagoa. Onec esan cion emacumeari: ¿Cergatic aguindu dizute Jaun-goicoac ez dezazutela jan paradi-suco zuaitz gucietatic?

2. Ceñi erantzun zion emacu-meac: Paradisuan dauden zuai-tzetaco frututic, jaten degu:

### Olabide: Itun Zar eta Berria

1. Suguea zan, Yainko Yaube'k egindako landa-piztirik maltzu-rrena; eta emakumeari ark esan zion: "Yainkoak esan ote dizue: Ez yan baratzako zugatz guzieta-tik?"

2. Emakumeak sugeari erantzun zion: "Baratzako zugatzen arna-riak yaten ditugu.

3 וּמִפְּרֵי הָעֵץ אֲשֶׁר בְּתוֹרְהֶנּוּ אָמַר אֱלֹהִים לֹא  
 4 הַתֹּאכְלוּ מִמֶּנּוּ וְלֹא תִנְעֻוּ בּוֹ פֶּה-תְּמַתּוֹן: וַיֹּאמֶר הַנְּחָשׁ  
 הַאֱלֹהֵי-אֲשֶׁה לְאַרְמוֹת תְּמַתּוֹן: בִּי יָדַע אֱלֹהִים כִּי בַיּוֹם  
 אֲכַלְכֶּם מִמֶּנּוּ וְנִפְקַחוּ עֵינֵיכֶם וְהִייתֶם כְּאֱלֹהִים יָדְעֵי טוֹב  
 וָרָע:

3. bagnan baratçearen erdian den arbolaco fruituaz denaz beçambatean, Iaincoac erran içan du, eztuçue handic Ianen, eta ez-tuçuehunvquituco, hill etçaitetzen beldurrez.

4. sugueac bada erran çioen Emazteari etçarete hillen nihole-re.

5. bagnan Iaincoac badaqui handic Ianen duçuen egunean idequico direla çuen beguiac, eta içanen çaretela Iaincoac beçala, Iaquietssun onaz eta gaitçaz.

3. Bainan pharabisuaren erdian den zuhaitzeko fruitutik jan ez dezagun manatu daroku Jainkoak, eta ez dezagun uki ere, hil gaitezen beldurrez.

4. Eta sugeak erran zioen emaztekiari: Etzarete segur heriotzez hilen

5. Jainkoak ezen badaki hartarik janen duzuen egunean idekiko direla zuen begiak; eta izanen zaretela jainkoak iduri, ongi az eta gaizkiaz jakintsun.

3. Baña paradisuaren erdian dagoen zuaitzeko frututic, aguin-du zigun Jaungoicoac ez jateco, eta uquituric ere berari ez eguiteco, ill ez gaitecen.

4. Esan cion orduan sugueac emacumeari: Iñolaere etzerate illco.

5. Badaqui ecen Jaungoicoac artatic jaten dezuten edoceñ egunean, idi quico diradela zuen beguiac; eta izango cerate jaungoicoak becelacoac, daquizutela ona eta gaitza.

3. Baratzaren erdiko zugatzaren arnarietaz, ordea, Yainkoak esan digu: "Ez yan ortatik, ez ikuttu ere; il ez zaitezten".

4. Sugeak emakumeari esan zion: "Ez zerate ilko, ez;

5. ba-daki, izan ere, Yainkoak, artatik zuek yanda berealaxe zuen begiok irikiko dirala, eta Yainkoa bezainbatekoak izango zeratela, on eta gaitzaren yakitun".



וַתֵּרָא הָאִשָּׁה כִּי מִזֶּבַח הָעֶלְזִים לְמֵאֲכָל יְהוָה תֵּאָוֶה הָיָא 6  
לְעֵינַיִם וְנִחַדְדָה הָעֶלְזִים לְהַשְׁכִּיל וְהִקְנַח מִפְּרִיָו וְהֵאֱכַל וְהִתְנַן  
7 וּבִלְאִישׁוּהָ עִמָּהּ וַיֹּאכַל:

6. Emazteac beraz ikhussiric arbola ona çela, agradagárria Iateco, eta...

...çela Ikhusteco gutiçiarria eta arbola...

... çientçia emateco, handic hartu çuen fruitua, eta handic Ian çuen, eta eman ere çioën handic bere senharrari cegna baitçen harequign, cegnac handic Ian baitçüën.

6. Dohatsu hartuko dituen hire Emztekiak ikhusi zuen beraz zuhaitz haren fruitua jateko ona zela, ederra begiko eta itchuraz tirriagarria: eta hartu zuen fruitu hartarik eta jan: eta eman zioen bere senharrari, zeinak ere jan izan baitzuen.

6. Icusi zuen bada emacumeac zuaiza ona zala jateco, eta beguientzat ederra, eta irudiz gozagarria: eta artu zuen bere frututic, eta jan zuen: eta eman cion bere senarrari, ceñac ere jan zuen.

6. Orduan emakumea oartu zan, zugatza yateko on, begien betegari, ta ezaguera iristeko opagarria zala; eta, aren arnaritik artu ta yandakoan, senarrarekin egokitu zanean, eman zion ari ere; eta, senarrak ere yan egin zun.



## **Traduire sans trahir. Itzulpenaren teoria testu biblikoiei egokitua.**

Lurdes Auzmendi

### **Sarrera**

Jean-Claude Margoten liburu honen balioaz zera dio Georges Mouninenek, eduki linguistiko handikoa dela eta eduki hau kalitate linguistiko handikoa, kalitate pedagogiko handikoa. Bibliaren testuetan oinarritutako arazoen bidez, itzulpengintzak denboran eta espazioan aurre egin beharreko zailtasunen azterketarako eredu bat da.

Liburu honetan eskeintzen zaigunak galdera bati erantzun nahi dio, ez oraindik askok zalantzan jartzen duten galdera bati, alegia itzuli ote daitekeen galderari. Hori Margoten iritziz historikoki gaindituta dago, nola itzuli behar den galderari erantzuten dio liburuak.

1977 urtearen amaierarako 1631 hizkuntzatara itzulita zegoen Biblia (266 hizkuntzatara Biblia osoa, 420tara Itun Berria eta 945tara Bibliaren liburuetakoren bat). Milaka itzultzaile mundu osoan Biblia hizkuntza berri batzutara itzultzen edota dauden itzulpenak berriztatzen ari dira.

Beti dago Bibliaren itzulpengintzan zer aztertu eta berriturik. Bibliaren itzulpenak historia oso bat duen herrialdeetan, espezialistek

diotenez itzulpenak sarritan aztertu behar dira, edizio kritikoak egin behar dira eta hau arrazoi desberdinengatik:

1. Eskuizkribu hebreo edo grekoak aurkitzen direlako, hone-la oinarrizko testu ziurragoekin lana egin daitekeelako.
2. Hizkuntzen eboluzioa etengabea delako.
3. Gero eta ulergarriagoak izango diren itzulpenak argitaratu ahal izateko.
4. Bibliako hitzen definizioetan aurrerapausoak ematen direlako.
5. Pasarte batzuen interpretazioetan ematen diren aurrerapausoengatik.
6. Eta azkenik gero eta informazio linguistiko eta kultural hobe dagoelako.

Itzulpenari buruzko teorizazioaren hastapenak aurkitzeko historian atzeraka joan behar gara. Honela XVI mendean hau zion Luterok: “Testua errege da. Itzulpena, zerbitzari humil eta fidela baizik ez da, ausarta, bere maisuari zerbitzeko prest. Baina zerbitzari honek bere hizkuntzan hitzegiteko joera du”.

Mende berean Étienne Doletek hizkuntza batetik beste batera ongi itzultzeko bost gomendio ematen ditu:

1. Itzultzaileak itzuli behar duen autorearen “zentzua eta gaia” ongi ulertu behar ditu.
2. Itzultzaileak sorburu hizkuntza eta xede hizkuntza erabat menderatu behar ditu.
3. Ez da hitzez-hitz itzuli behar. Hitzez-hitz itzultzen dutenek autorearen zentzua okertzen dute.
4. Itzultzaileak xede hizkuntzaren formak erabili behar ditu, itzulpenean sorburu hizkuntzaren formak ez dira isuri behar.

5. Itzultzaileak esaldiaren oreka, testuaren osaketa eta armonia gorde behar du.

Ikus daitekeenez funtsean ez da ezer askorik aurreratu XVI mendean geroztik.

1667an Belgikako Mons hirian argitaratu zen Itun Berriaren itzulpenak, Lemaistre de Sacik egin baina sinatu gabea, kritika gogorak izan zituen zehaztasun ezarengatik, itzultzaileari bere industria gehigekeria isurtzea leporatu zitzaion. Alderantziz, XIX mendean Lausanneko bertsiok ezagutzen dena argitaratu zen eta honi berriz guztiz alderantzizkoa gaineratu zitzaion, literaltasun handiegia, hebreo eta grekera asko eta frantses gutxi ageri omen zen itzulpenean. Eraso hauen aurrean itzulpen honen autoreek, hauen artean L. Burnièrek zera zioten: *“Egiaz uste bada Biblia Jainkoaren hitza dela, gizonen liburu bat itzultzeko erabiltzen ez diren arauak behar dira Biblia itzultzeko” eta aurrerago hau dio: “Bibliaren hizkuntza... ez da erabat giza hizkuntza, Jesukristo ere gizaki hutsa ez den bezala”*.

XX. mendean Bibliaren itzulpen ugalketa handi bat gertatzen da eta teorizatzaileak teoria eta kritikarako elementu berrietaz baliatzen hasten dira. Chouraqui, Itun Zaharraren itzultzaile juduak dio fidelitasun osoa izan behar zaiola Bibliaren itzulpenean sorburu eta xede hizkuntzari eta honek ezintasunera garamatzala, hizkuntza hebraikotik frantsesera itzultzerakoan: *“Hizkuntz erabat analitikora itzuli behar da eta honen izaera argitasuna, neurria, zehaztasuna dira, eta zentzuaren eta soinua lotura estua duen testua, ikusmenaren erritmo eta erresonantzietan adierazten da, ideietan baino gehiago...”* Arrazoi honengatik hizkuntza berri bat sortzera bideratzeko premia azaltzen du.

Beste alde batean Henri Meschonnic linguistika eta poetikaren espezialista daukagu eta frantsesari dagokionez hau dio: *“Frantsesa ez da iadanik surrealismo garaiaren aurretik zena. Baudelairek sumatutako malgutasun metafisiko eta erritmikoa garatu ditu... Agian hizkuntz poetiko modernoak frantsesaren arloari eman ahal izango*

*dio Biblia bere hizkuntza konsonantikoaren indar guztiarekin, bere parataktiko osoekin, hauek prosodia eta erritmo paradigmatik direlarik...*". Meschonnicek "Cinq Rouleaux"en itzulpenean azentuak eta etenaldiak itzuli nahi izan ditu, hauen ierarkia konplexuak osatzen bait du Bibliako pasartea, bere erritmoa eta batzutan baita zentzua ere. "*Hebraieran azentu sistemaz adierazitako dikzioa bersortu nahi izan dut zuriz utzitako tarteen bidez (ierarkia ez arbitrario batean), testuaren isiluneak, orrialde erritmoa bersortu nahi izan dut...*" (Meschonnic).

Meschonnicek, zentzuaren eta formaren arteko lotura kontuan eduki eta aldi berean alferrikako barbarismo edo arkaismoei ihes egin nahi izatea interes handiko lana da. Baina bere itzulpena pertsona bakan batzuentzako ez ote den izango galdetzen du Margotek

## **Itzulpenaren teoria eta disziplina desberdinekiko duen erlazioa**

Testu bat itzultzeko, lehenik testua ongi ulertu behar da, honek sorburu hizkuntza ongi menderatzeaz gain, hizkuntza horren kultur egoera ezagutzea suposatzen du, kultur egoera historikoa, geografikoa, intelektuala, eta abar, testuaren erroak non sartuta dauden ulertzeko. Honek garrantzia du edozein testutan eta garrantzi berezia testu sakratuetan, testu hoiek idatzi zireneko garaien urruntasunagatik.

Testua ulertzeko prozesua, exegesia egitea izan behar da lehen pausoa eta hemen E. Caryk gomendatzen dituen pausoetaz aparte, alegia, zer itzultzen duzu? Non eta noiz itzultzen duzu? eta Noren-tzat itzultzen duzu? galderei erantzun behar izateaz gain, talde lana inposatzen da. Itzultzaile batek ezin ditu testua ulertzeko behar diren maila guztiak menderatu, exegeta izan behar da, baita linguista ere, psikologoa, etabar. Itzultzaileak gaur abantaila bat du, bakarrik ez dagoela eta talde lana egin daitekeela. Itzultzailea ezin da bere intuizio hutsaz fidatu. Soluzioak, argitasunak arlo desberdinetan bilatu behar dira eta gaur egun itzulpengintzari aportazio berezia egiten dion disziplina bat linguistika orokorra edo linguistika aplikatua da.

## **Linguistika eta itzulpena**

Mouninek dio 1950 urtean hasi zela linguistika zuzenki itzulpen arazoetaz arduratzen. Honen iritziz American Bible Society Elkarte Bibliaren itzulpengintza ia industrializatzen hasten da eta linguista kualifikatuengana jotzen du bere itzulpen departamentua zuzentzeko. Honela Nida eta Ameriketako Elkarte Biblikoaren itzulpen saileko bere kolaboratzaileak etengabe aztertzen ari dira itzulpenaren arazoak eta hauek modurik egokienean konpontzeko metodoak aztertzen.

Linguistika arloan ordea dotrina kontrajarriak daude. Halere, linguista gehienek iritziz, hizkuntzaren hiru arlo nagusi hartu behar dira aintzakotzat:

- a) Fonologia
- b) Gramatika
- c) Semantika

### **a) Fonologia**

Fonologia hizkuntzaren soinuek, komunikazio linguistikokoan jotzen duten funtzioa aztertzen duen zientzia da. Hizkuntza berean zentzu desberdindun bi mezu bereizten dituen elementu fonikoak aztertzen ditu... eta errealizazio indibidual desberdinen bidez mezu bera antzemarazten dituzten elementu fonikoak aztertzen ditu fonologiak.

Fonologia eta fonetika ez dira nahastu behar, fonetikak elementu fonikoak komunikazioan betetzen duten funtziotik aparte aztertzen bait ditu. Azken finean, soinu berbera duten hitzak bereizteko erabiltzen da fonologia. Bibliaren itzulpenean garrantzi txikikotzat jo daiteke puntu hau, baina itzultzaileak inoiz ezin du ahaztu.

### **b) Gramatika**

Denbora luzez aldarrikatu da gramatika ideal bat bazegoela eta hori mendebaldeko tradizioan kokatu izan da, gainontzeko gramati-

kak balio gutxiagokotzat jo direlarik. Azken urteetan halere, “primitiboak” deituriko hizkuntzen gramatiken zehaztasunaren eta argitasunaren aurrean burua makurtu dute jakitunek. Funtsezkoa, hizkuntza bakoitzaren errekurtsoetaz baliatzea da, eta ez dira forma ez naturalak edo ezezagunak inposatu behar. Nidak zera dio puntu honetan, hizkuntza batetik bestera edozer gauza itzuli daitekeela, isuri adierazpen moduak ongi ezagutzen eta hauek estruktura gramatikal berrira ongi isurtzen jakiten bada. Literatura eta edertasunaren aukerak hizkuntza guztietan daude. Hau lortzen ez bada, ez da hizkuntzen arazoa, itzultzailearen ezjakintasunaren baizik.

Hizkuntzen arabera, mezuaren zatien kopurua desberdina da, hizkuntza batzuek hiru zati dituzten bitartean, beste batzuek bederlatzi dituzte. Baina hizkuntzen arteko aldea ez dago mezuaren zatiei dagokionean bakarrik, ideia bat nola adierazten den da garrantzitsua eta Bibliaren itzultzaileek sarritan aurkitzen duten arazoa sorburu hizkuntzako sustantiboak xede hizkuntzan ez aurkitzearena izaten dute: damua, barkamena, maitasuna-amodioa, salbazioa, etabar, aditz adierazpenetan bihurtu behar izaten dira.

Sarritan baita ere kategoria gramatikaletan (izena, moldea, aho-  
tsa, aspektua, generoa) desberdintasun ugari daude hizkuntzen artean. Nidak arazo hauei buruz zera dio, hizkuntza batetik bestera pasatzean hitzez hitzezko itzulpena egin nahi bada, zentzugabeko konbinaketak egitera behartuta dagoela.

Garbi dago beraz, bi hizkuntza desberdinen arteko parekotasun osorik ezin dela aurkitu eta ondorioz hizkuntza guztietan berrestrukturaketak egin behar dira. Hauei linguistek “interferentziak” deitzen diete eta hauen konponketarako linguistika deskribatzailea beharrezkoa da, zailtasun hauek gainditzeko itzultzailearen eta exegetaren arteko harreman estua beharrezkoa da.

Gaur egun oraindik askok uste dute itzultzailearen arazorik handiena hiztegiarena dela. Baina, sorburu hizkuntzaren gramatika sistema eta xede hizkuntzarena ongi ezagutzen ez badira, hobe du uztea, bestela kontraesanak isuriko bait ditu eta zentzugabeko gauza ugari esango. Noski hiztegiak ere garrantzi handia du.



### c) Semantika

Semantikak hitzen zentzua edo edukia eta hitzek osatzen dituzten unitateen esanahia deskribatzen du. Azken hogeita hamar urteetan linguistika arloan egin diren azterketek halere arazo hau oso baztertuta eduki dute.

Mouninek dio hizkuntza baten semantika deskribatzea, hizkuntza baten esanahi guztiak aztertzea, hizkuntzak biltzen duen zibilizazio osoa aztertzea dela.

Gaur egungo Biblia itzultzaile gehienek (itzulpen konkordanteak deituak egiten dituztenek salbu) errespetatzen dute hitz hebreo edo grekoen polisemia. Garbi dago halere sorburu hizkuntzako hitz bakoitza xede hizkuntzara hitz berdinarekin ezin dela itzuli.

Bestetik, hiztegi tradizionalak duten lexikografia sistemaren ondorioz, arazo gehigarriak sortzen dira itzultzaileentzat:

- 1.- Hitzaren zentzuari buruz emandako lehen definizioa gordetzeko arriskua da eta hau testuinguru guztietan ezartzea.
- 2.- Hitz berak eduki ditzakeen zentzu desberdinez ez jabetzea. Historikoki eduki dituen aldaketaz ez ohartzea. Esate baterako "profeta" hitza "Jainkoak bidalia" edo "etorkizunaren predikaria" bezala itzultzeak aldaketa nabariak suposa ditzake. Horregatik, arlo semantikoaren arabera hitzak biltzen dituzten hiztegiek zerbitzu ikaragarriak egingo dizkiete itzultzaileei. Metodo hau erabili da Itun Berrian oinarritutako grekera-ingelesa hiztegian, 20.000 hitz biltzen dituen hiztegian.

Itzultzaileak arreta berezia jarri behar du baita ere hiztegiari dagokion beste puntu batean, unitate semantikoa ez dela presezki hitz baten bidez adierazi behar, hitz multzo bat agian beharrezkoa izango dela, adierazpen idiomatikoetan eta metaforetan bezala. Adierazpen horien zentzu osoa hartu behar da (zentzu exozentrikoa) eta ez da lotu behar unitatea osatzen duten hitzen zentzura (zentzu endozentrikoa).

Eta hiztegi oso pobrea duten hizkuntzetara nola itzuli osotasunean Bibliaren mezua? "Primitiboak" deituriko gizarteen hiztegi ahuleziari buruzko prejuizio honen ondorioetako bat hau da, hizkuntza horiek beste hizkuntza batzuen hitzak hartu dituztela eta kasu gehienetan soluziobide arriskutsua gertatu da, jendeak uste duen zentzua eman bait dio hitzei. Leku askotan esate baterako "gracia" eta "Espiritu Santo" hitzak ez itzultzeko tradizioa egon da; katolikoek latinezko gratia eta Spiritus hitzak hartu dituzte oinarri bezala, protestanteek berriz kharis eta pneuma, honela Biblia katolikoak eta Biblia protestanteak gauza desberdinetaz hitzegiten dutenaren susmoak indartu zaizkie jendeei. Protestanteak eta katolikoak gauza batek elkartzen ditu, hitz hauen ulertze ezak.

Guzti hau laburbilduz, bi puntu azpimarratzen ditu Margotek:

- 1.- Hitzez-hitzezko parekotasuna duten bi hizkuntza ez dela mundu osoan.
- 2.- Itzulpengintzan hitz bat ez dela isolaturik itzuli behar, alderantziz, testuinguruan duen zentzua eta semantika maila bereko hitzekin duen erlazioa aztertu behar dela itzuli aurretik, honela aurkituko bait da besteengandik bereizten duen edukia.

### **Desberdintasunak eta berdintasunak**

J. Duboisen dio, hizkuntza bakoitza osotasun bat dela, besteengandik desberdina eta estrukturalismoak sistema bakoitzaren izaera espezifikoa, autonomoa eta neurtezina aldarrikatzen du. Hitz bakoitzaren besteekiko lekua definitzerakoan, hizkuntzen artean ez dago hitzez-hitzezko parekotasunik, mundu erreala sare arbitrario eta desberdinetan banatzen da: honela, hizkuntza bakoitzak margoak era desberdinez deskribatzen ditu, deitura bakoitzaren mugak sistema batetik bestera desberdinak dira.

Duboisen zita horren ondorioz esan daiteke, itzultzea ez dela ezinezkoa, baizik eta itzulpen literala, parekotasun formalduna, uste edo esan izan den guztiaren kontra, fideltasun ezera kondenatuta

dagoela. Literalismoaren bidez beti sortuko dira zentzu distorsioak (zehaztasun ezak eta kontraesanak) eta estilo distorsioak (pisutasuna, barbarismoak, etab.); hitz batean, hizkuntza hartzailearen estrukturak bortxatuko dira. Baina hau ez da izan behar aurkako joeran erortzeko aitzakia, oinarritzko testuarekiko askatasun gehiegia edo zentzu txarreko parafrasia egiteko joera ere ez da hartu behar.

Bestalde, sorburu hizkuntzatik xede hizkuntzara zuzenki pasatzeko eredu multzo bat ezartzen ahalegintzeak ere arazo handiak eta etengabeak sortuko ditu hizkuntzen egiazko izaerari dagokionean. Honen lekuko Vinay eta Darbelneten lana dago, frantsesaren eta ingelesaren estilistiken arteko konparaketaren bidez itzulpen metodo bat sortu nahi dute. Zentzu honetan Taberek dio hizkuntzen azaleko estrukturen arteko parekotasun algoritmikoetan oinarritzen den edozein itzulpen metodo porrot egitera kondenatuta dagoa.

Itzultzaileentzat hizkuntzen arteko desberdintasunak ezagutzea inportantea den bezalaxe, inportantea zaie baita ere hizkuntza guztietan dauden berdintasunak antzematen jakitea, itzulpenaren sus-traia hori bait da, alegia unibertsal linguistikoak antzematen jakin behar da. Puntu honi dagokionez Mounin, Dubois eta Kraften teoriak oso inportanteak dira.

Honela bada, itzultzaileak estruktura superfizial batetik beste batera sistematikoki pasatzearen ordez, ondorengo hiru pausoak jarraitu behar ditu:

- a) Sorburu testua aztertu, eraldaketa aurkako bidez, hau da azaleko estrukturatik estruktura sakonera pasatuz, aztertutako esaldiaren barneko oinarritzko esaldiak horrela lortzen bait dira.
- b) Esaldi oinarritzko hauek sorburu hizkuntzatik xede hizkuntzara pasatzea, estruktura sakonak itzultzea beraz, hauek itzultzea gainera errezagoa bait da.
- c) Xede hizkuntzaren azaleko estrukturara iristeko errestrukturaketa trasformazioen bidez jokatu behar da, eta estruk-

turaketa hau sorburu hizkuntzarekin parekotasuna duen es-tilo funtzionalean behar da egin.

Hiru puntu hauek aparte, beste bi ere oso gogoan izan behar dira, alegia diskurtsoaren mezu osoa aztertu behar da, esaldiaren zentzua ez bait dago bakarrik hitz bakoitzaren arteko zentzu elkarketa-  
ren baitan, sarritan gertatzen bait da esaldi bat testuingurutik aterata zentzurik gabe geratzea.

Bestalde, hizkuntzaren funtzio desberdinengan ere arreta jarri behar da. R. Jakobsonek sei funtzio bereizten ditu: erreferentziala, emotiboa, konatiboa, fatikoa, metalinguistikoa eta poetikoa. W. Smalleyk bestalde zerrenda zabalagoa eskeintzen du, nahiz eta berak dionez osatu gabea izan: informatiboa, engainagarria, espresiboa, ebokatiboa, inperatiboa, fatikoa, interpretatiboa, etab. Taber eta Nidak beren aldetik hiru bakarrik aipatzen dituzte: informatiboa, espresiboa eta inperatiboa.

## **Mezu osoa itzultzea**

Linguistikak itzulpengintzan jokatu behar duen funtzio nagusia ikusi dugu orain arte, baina orain bide berean planteamendua areagotu egiten du autoreak, galdetuz ia linguistika aski al den itzulpenaren teoria ziur bat finkatzeko.

Galdera honi baiezkorekin erantzun zion A.V. Fedorovek, 1953 urtean, baieztatu zuenean itzulpenaren teoria linguistikaren baitan zegoela, linguistika delarik ikasketa horri zutabe zientifiko objektiboak eskeini diezaiokeena. E. Caryk berriz estuegitzat jotzen du Fedoroven teoria, itzulpenaren sui generis izaera azpimarratuz. Azkenik, Mouninek uste du Caryren ikuspuntuak Fedorovena osatu egiten duela eta linguistika zentzu zabalagoan ulertu behar dela dio, barne linguistikarekin (estruktura lexikal, morfologiko eta sintaktikoa) psikolinguistika eta soziolinguistika bereizi behar dira arrazoi metodologikoengatik. Linguistika eta estilistika ere bereizi behar dira esan ondoren, Mouninek ateratzen duen ondorioa hau da: "itzul-

*tzea, gaur ez da testuaren zentzu estrukturala edo linguistikoa (eduki lexikal eta sintaktikoa) errespetatzea bakarrik, mezuaren zentzu osoa ere errespetatu behar da (bere inguru, mende, kultura eta behar izanez gero, zein zibilizazio erabat desberdinetatik datorren ere bai)".*

Aurreko puntuek Bibliaren itzulpenean duten garrantzia ikusiko dugun orain.

### **Itzulpena eta kultura**

Edozein mezu idatzi duen autorearen kulturarekin estuki lotuta dago. Mezu hau beste hizkuntza batera itzultzen denean kontuan izan behar dira sorburu kulturaren eta xede kulturaren arteko desberdintasunak. Hau argi egon beharko litzateke, baina sarritan itzultzaileek (batez ere biblikoek) huts egin dute puntu honetan (ezjakintasunagatik edo prejuizioengatik). Hutsegiterik nagusia etnozentrismoa da. J.J. Rousseauk hau zioen: *"Gizonak aztertu nahi direnean norberaren ingurura begiratu behar da; baina gizona aztertzeke begirada urrutiratzen ikasi behar da; lehenik desberdintasunak ikusi behar dira berdintasunetara iristeko"*.

Normalki onartzen da interpretatze arazoak gehitu egiten direla ezberdintasun kulturalen arabera. Italianotik frantsesera itzultzea errazagoa da, gutxienez lehen begiradan, bi hizkuntza berdintsu bait dira, gertu dauden kulturekin lotuak. Alderantziz arazoak latzagoak izango dira frantsesa eta tsonga antzeko hizkuntza afrikar baten artean, bi familia linguistiko eta bi kultura desberdinetakoak bait dira. Halere esan behar da kultura baten gertuko beste kultura batera pasatzerakoan ere gaizkiulertzeak gerta daitezkeela, Mouninek dion bezala "lagun faltsu" kulturalak ere bait daude.

Zentzu honetan itzultzaile biblikoek topatzen dituzten arazoak Nidak nola klasifikatu zituen gogoratu behar da: ekologia, kultura materiala, kultura soziala, kultura erlijioso eta kultura linguistikoa.

Duela denbora gutxi W. Reyburnek argitaratutako artikuluko batek hau dio:

- 1) Kulturak medio desberdinetaz baliatzen dira berdinak edo antzekoak diren helburuak lortzeko (zenbait herrialdetan lapurrak dira atea jotzen dutenak etxe barruan inor dagoen ala ez ziurtatzeko; pertsona hondratuek beren presentzia ozenki adierazten dute; honek garrantzia du Mt 7,7; cf. Ap 3 bezalako testu bat itzultzeko).
- 2) Objeto edo gertakari berdinek zentzu erabat desberdin edo kontrajarriak izan ditzakete, kontestu kulturalen arabera. Adibide bezala zirkunzisia ematen du, aliantzaren erritua, Jesusen herriko partaidetza adierazten du interpretazio biblikoaren arabera; gaur egun gizarte askotan pubertaroaren erritua da edo mendebaldean garbitasun edo higiene neurri arrunta.
- 3) Kultura bateko objektu edo gertakariak beste batean erabat ezezagunak izan daitezke ("*elurra bezain zuria*" konparaketa, Is 1,18. Honek ez du ezer adierazten elurra ezagutzen ez duten lurraldeetan).

Puntu hauek eta bide bereko beste batzuk Nidak oso zehazki azaltzen ditu. Halere, ierarkia semantikoen estudioa baliagarria bada giza talde baten munduarekiko ikuspegia ezagutzeko, hau ez da nahastu behar hizkuntza-kultura erlazioaren kontzepzio erabakitzailearekin, Sapir-Whorf deituriko hipotesiak adierazten duen eran. Whorfentzat hizkuntza bakoitzak munduaren ikuspegi espezifikoak suposatzen du. Praktikan honek esan nahiko luke, hizkuntza baten estruktura aztertzetik, hizkuntza hori hitzegiten duen herriaren mentalitatearen ezaugarriak atera daitezkeela. Uste honek eragin handia izan du Europako biblisten artean, adibide asko aipa daitezke hebraieraren sintaxi eta morfologian oinarritutako pentsamendu hebraieraren esplikazioetat. Honi dagokion obrarik nagusia Th. Bomanen *Das hebräische Denken im Vergleich mit dem griechischen* (1952) da, non zera dioen: pentsamendu hebraieraren ezaugarri tipikotzat jotako guztiak hizkuntzaren estrukturak erabakitakoak dira.

Askok kritikatu dute Bomanen ikuspuntu hau eta argudio ugari eman dira, J. Barr izan delarik kritikarik zorrotzena egin diona. Mouninek berriz adibide garbi batzuk ere ematen ditu: frantsesek "*le soleil se lève*" esaten jarraitzen dute eta honek ez du esan nahi eguzki sistemaren kontzeptzio kopernikanoarekin jarraitzen dutenik; aleman guztiek dakite berriz gaur egun balea ez dela arraina, baina "*der Walfisch*" deitzen diote oraindik.

Kultura biblikoa eta xede kultura konparatzen dituen itzultzaileari lehen begiradan irudituko zaio ezberdintasun handiak daudela bien artean, baina piskanaka gero eta berdintasun handiagoak aurkituko ditu, gero eta kulturaren unibertsal gehiagorekin topatuko da azaleko ezberdintasunen gainetik. Inportanteena zera da, arazoak sor ditzaketen puntuetaz haseratik ohartzea, alegia, adierazpen idiomatikoak, zentzu figuratuak, xede kulturaren ezezagunak diren objektuak, hartzaileei arraroak gertatuko zaizkien ohiturak, sentimenduen gordelekutzat jotako organuak, giro linguistiko bereziak, eitura poetikoen helburu eta formak, etab. ahaztu gabe kontestu historiko eta geografikoa kontutan hartzea.

Guzti honetaz aurrez ohartzeaz gainera, Bibliaren itzultzaileak, kultura hartzailearen ezaugarri kulturalak ere oso ondo ezagutu behar ditu eta guzti honetarako erabiltzen diren informazio iturriak, asko izan arren, beraien kalitateaz ziurtatzea ere inportantea da.

Arao ugari aurkituko ditu beraz Bibliaren itzultzaileak eta hauek kontuan izanda askoren galdera hau da: ez ote da hobe Bibliaren mezua, itzulpenean, kultura hartzailearen arabera moldatzea? Galdera honek gaurkotasan osoa du mundu guzian. Honi erantzuteko aurrez gauza batzuk argitu behar dira.

Lehenik, xede kulturaren ezezagunak diren kultura biblikoen elementuak. Kasu batzutan elementu ezezaguna itzulpenean hitz klasifikatzaile batez lagun daiteke: Jordan ibaia, sikomoro deituriko zuhaitz bat, etabar. Beste kasu batzutan Biblian ageri den elementu ezezaguna kultura hartzaileko elementu baliakide batez ordezkatu daiteke. Taber eta Nidak adierazpen bibliko bat ordezkatzera kontutan eduki beharreko puntuak honela banatzen dituzte: a) ordezk-

katzeko elementuaren garrantzi sinboliko eta teologikoa, b) elementua Biblian zein maiztasunekin azaltzen den, c) beste sinbolo batzuekin duen erlazio semantikoa, d) elementuen arteko funtzio eta forma berdintasuna eta e) hartzaileen erreakzio emotiboa.

Bigarrenik, Bibliak historian duen sustraietari dagokio. Biblia ez da teologiako, filosofia erlijiosoko edo etikako tratatu abstraktu bat; Jainkoak giza historian egin zuenaren testigantza multzo bat da batez ere.

Eta azkenik, itzulpenaren eta komentarioaren edo testuaren gaurkotzearen artean bereizi behar da. Bibliaren itzulpen on bat kristau komunitate handi baten mantenimendurako beharrezkoa da, baina hemen prozesu hermeneutiko oso bat dago, predikatzailerik osatu behar dutena eta zentzu honetan itzultzaileak prozesu horrek irekitzen dituen galderei ezin die erabateko erantzun bat eman.

Kapitulu hau osatzeko, oharren puntua ere aipatu behar da. Nida eta Reyburnek itzulitako testuari dagokion informazio osagarria noiz den beharrezkoa azaltzen dute: 1) testu aldaketa inportanteak daudenean; 2) testuarekiko interpretazio arazoak sortu direnean; 3) gaizki ulertu daitezkeen edo kultura hartzailean erabat ezezagunak diren gertakari historikoak daudenean; 4) hizkuntza figuratiboa edo metaforikoa dagoenean, eta 5) zentzurik gabeko adierazpenak ageri direnean, batez ere xede kulturalan ezezagunak diren objektuak direnean.

Klasifikazio zehatzago bat eskeintzen da **Directives concernant la coopération interconfessionnelle dans la traduction de la Bible** liburuan.

### **Itzulpena eta komunikazioa**

G. Millerek dio besteez esaten dituztenekiko hutsegiterik handienak ez direla sortzen zuzen aztertzen edo erabilitako hitzen zentzua ulertzen ez dugulako, nahiz eta zailtasun hauek egon. Komunikazio zailtasunak, hizkeraren zentzuak ez ulertzetik sortzen dira. Itzultzailea beti kezkatzen da interpretatu beharreko testua ongi



ulertzeaz, baina itzulitako mezua irakurle potentzialek jaso ahal izango dutenaz ez gaitu hainbat kezkatzen.

Komunikazioaren fenomenoarekiko kezka ez da gaurkoa. Komunikazioaren pedagogiaren sustraiak aspaldi txertatu ziren baina diziplina bezala 1950 urtean sartu zen indarrean Claude Shannon telekomunikazioetako ingeniari amerikarraren ikerketekin, eta komunikazioaren teoriak hizkuntzaren zientziarekin zuen zerikusia lantzeari C. Cherryk ekin zion. Honen azterketetan oinarrituta, itzulpenaren teorian jakitun direnek komunikazio ereduari tarte berezia eskeini diote.

Eredu honetako hiru elementurik inportanteenak hauek dira: igorlea edo emititzailea (edo iturria), mezua eta hartzailea. Hauei gehitzen zaizkie kodifikazio eta deskodifikazio nozioak, kanal nozioa, erreakzioa (edo feedback), soinuak eta errepikapenak. Hizkuntza berdineko komunikazioan, mezua iturriak emititzen du kode baten arabera eta hau berdina da igorlearentzat eta hartzailearentzat. Hizkuntzen arteko komunikazioan, eta honek itzulpena behar du, bi edo hiru kodek dute eragina: sorburu eta xede hizkuntzen kodeak eta batzutan itzultzailearenak. Kasu honetan itzultzaileak lehenik deskodifikatu egin behar du mezua gero berriro kodifikatzeko.

Prozesu honetan eragin zuzena dute zenbait puntuk itzultzailearentzat, hala nola zaratak, errepikapenak eta hartzailearen mezua hartzeko gaitasunak. Zarata edo soinutzat ulertzen da mezu bat transmititzeko orduan nahasten duen guztia. Honen ondorioz, prozesu historikoan informazioa galtzeraino iritsi da. Itzultzailearentzat kasu guzti hauetan gerta daitezkeen distorsioetatik ohartu eta zuzenduko dizkion kolaboratzaileen laguntza ezinbestekoa da.

Zaratak konpentsatzeko modu egokia den errepikazioaz hitzegin aurretik, hartzailearen erreakzioaz eta mezua jasotzeko gaitasunaz hitz batzuk.

Feedback edo erreakzioari dagokionez, eta honetatik Duboisk dio ekintza erretroaktiboaren printzipioa dela, hizkuntza batek honen bidez eta berez zenbait disfuntzio eliminatzen dituela dirudi.

Ikuspuntu honetatik berdintasun dinamikoaz hitzeging da: itzulpen baten balioa ez dago kritiko elebidun baten baitan, irakurle elebakarrak mezu itzulia ulertzeko moduaren baitan baizik. Itzulpenaren kalitatea ziurra izango da irakurleak testu originala irakurri duenak bezala erreakzionatzen badu eta itzultzailea erreakzio honetaz ez da itzulpena bukatu ondoren bakarrik kezkatu behar, itzultzen ari den bitartean ere hori gogoan izan behar du.

Hartzailearen ulertzeko gaitasuna ere baldintzatua dago noski, hartzailearen ezaugarri indibidualak, bere inguru soziokulturalak eta duen informazioak asko baldintzatuko du. Halere, nahiz eta aurreko puntu hoiek bete, Bibliaren kasuan eta espezialista bat ez bada irakurlea, gaur egungo irakurleak informazio datu askoren falta du bere mezua lehen irakurleek bezala ulertzeko eta hemen sartzen da errepikatzearen nozioa.

Erredundantziak ez dugu ulertzen iadanik testuan dagoen elementu bat arrazoirik gabe errepikatzea. Adierazi nahi dugun kasuan erredundantziak ez du informazio berririk ematen, baina mezua komunikazio osoa errazten du. Eta azpimarratu behar da lehenik erredundantzia edozein hizkuntzaren koderi lotua dagoela.

Honela ulerturik errepikatzea fenomeno linguistiko etengabe eta beharrezkoa izateaz gain, nahi izan edo ez, honetaz jabetu edo ez, errepikatzea gure hizkuntz ohituren zati bat da. Baina, kode linguistikoaren barneko zerbaitetzat jotzen den arren, zein paper jokatzen du edo joka dezake itzulpengintzan? Itzulpen literalaren aldekoek erredundantzia erabat baztertuko dute, pentsatuko dute itzulpen "fidelak" jatorrizkoak hainbat hitz izan behar dituela eta planteamendu hau erabat okerra da, erizpide horrekin egindako itzulpenak txarrak izateko aukera guztiak bait ditu, bai arrazoi linguistikoengatik eta baita komunikazio mailan sortuko dituen arazoengatik ere.

Beraz, erredundantzia printzipio bezala onartu beharrezkoa da, baina egia da bere erabilerak arazoak sortzen dituela. Jatorrizko testuko mezua zenbaiteraino zehaztu behar da. Bide honetan sartu eta gero, erreza gerta daiteke urrutiegi joatea.

Oharrak erabili behar dira, hauek dira planteatzen diren zenbait gauza. Ikusi dugu ohar gehiegi erabiltzea ez dela ona irakurleari osotasuna lortzeko bidea apurtzen zaiolako. Beraz, muga non dago? Jatorrizko testuan adierazten dena zehaztea parafraasiaren arazoarekin lotuta dago. Parafraasiaren haritik, oharrei buruz berriro ere hitzegingo dugu.

### **Itzulpena eta psikologia**

Nidak dioenez, itzultzaileek egindako hutsegite asko, hizkuntza-aren eta prozesu psikologikoen arteko harremanak behar hainbat ez ezagutzetik sortzen dira.

Psikolinguistika mende honen berrogeitamarkadan sortutako zientzia, gizabanakoaren portaeretatik sortzen diren hitz ekintzetaz arduratzen da. E. Nida izan da gai hau gehien landu duen ikertzaile eta teorizatzailea eta bere iritziak beste artikulu batean sakonago irakurri ditzakezue.

Esan behar da itzultzailea maila honetan bi arazokin aurkitzen dela: alde batetik sorburu testuaren konnotazioak aurkitu behar ditu eta, bestalde, itzulpenean erabilitako hitzei lotutako konnotazioetatik konziente izan behar da. Sorburu testuari dagokion arazoan, kasu batzuk erraz aurki daitezke komentario onen laguntzarekin: zerriaren, arkumearen eta txakurraren kasua tipikoa da. Jesusek bere amari "anderea" esanaz hitzegiten dio, eta beste adibide asko eta asko aurkitu daitezke Biblian.

Sorburu testuaren konnotazioei arreta berezia jarri behar zaie ulerketa okerrei aurre egin eta ahal den neurrian mezua bere adierazpen indar guztiaren transmititzeko. Arreta berbera jarri behar da itzulpenean erabiltzen diren hitzen eta espresioen konnotazioetan, hartzaileengan harridurarik, farregurerik ez sortzeko. Honi dagokionez zera dio B. Malmbergek: "Bigarren mailako adierazpenak (konnotazioak) erabakiorrak izan daitezke zeinuaren funtziorako". Bestalde, itzultzaileari, bere ideologiak edo politikak ere konpontzea zailak zaizkion arazoak sortzen dizkio.

Azkenik, itzulpenean erabili beharreko hizkuntz maila aztertzen da. Testu biblikoari dagokion hizkuntz mailan bi hutsegiteri aurre egin behar zaie; hizkuntza utziari edo alderantzizko jarrerari, alegia hizkuntza espezialduegia erabiltzeari. Lehen hutsegitea irakurlego multzo handiari errazago iristeko itxaropenarekin egiten da. Hau ez da zuzena. Bigarren joera, hizkuntza espezialduegia erabiltzea ere ez da zuzena, gutxiengo batek bakarrik irakurri ahal izango bait du.

Honek ez du esan nahi ordea itzultzaileak Biblia osoa estilo berdinean itzuli behar duenik. Literatur genero desberdinak hartu beharko ditu kontuan eta bakoitzari estilo berezi bat eman, hartzaileak ez dezan pentsa, esate baterako salmoak eta liburu historikoak era berean idatziak izan zirenik. Hitz batean, itzulpenaren hizkera testu biblikoa eta irakurleeta moldatu beharko da.

Itzulpenaren epaiketari dagokionez, lehenik itzulpen batzordeko partaideen iritziak jaso behar dira eta gero zirkulu zabalago bateko partaideenak, hau batzorde kontsultiboa izan daiteke, honela epaiketara orekatuetara irits daitekeelarik, itzultzailearen hankasartze posibleak aurkitzeko ahalik eta aukerarik gehienak emanaz. Itzulpenaren kalitatea neurtzeko beste teknika batzuk ere badaude, hala nola Osgood, Suce eta Tannenbaumenak, baina hauek hitzen konnotazioak neurtu nahi dituzte huts hutsik.

### **Itzulpen automatikoa**

Lehenik esan behar da oraindik oso urruti ikusten dela Bibliaren itzultzaileak bere orde z lana egingo duen konputagailu baten laguntza izateko aukera duenik. Haserako ikerketek poza sortu zuten, baina traba handiak, ia gainditu ezinak aurkitu ziren berehala. Halere esan behar da itzulpen automatikoa teorikoki egin daitekeen gauzat zat jotzen bada, urte asko eta askotako lana dagoela aurrean.

## **Itzulpena eta parafrasia**

### **Parafrasi legitimoa eta parafrasi ez legitimoa**

Literaltasunetik edo hizkuntza tradizioaletik piska bat alden-tzen diren Bibliaren itzultzaileei sarritan hau leporatzen zaie: "hau ez da itzulpena, parafrasia da" (Nida).

Rabbi Yehudahrena dela esaten den antzinako esaera judutar batek honela dio: "Atal bat hitzez-hitz, erabat literalki itzultzen duenak gezurra dio; birao egiten du zerbait gehitzen dionak". Itzultzailea, noski, arrisku erreal honetaz ohartu behar da, baina arrisku horretan ez erortzeko bideak badaude eta bide horietaz ere ohartu behar da. Bide hauetako bat parafrasi legitimoa eta ez legitimoa bereiztea da.

Parafrasi legitimoaz, hitz honek linguistikari duen zentzu tekniko ulertzen da. M. Coynauk hau dio: "Parafrasia" ez da esaldi baten esplikazio edo formulazio garbiago bat". Nolane bere aldetik esaldi deklaratiobetara mugatzen da eta parafrasizat a esaldi batetik b esaldi baterako erlazioa ulertzen du, eta erlazio hori dago bakarrik a-k b-ren gauza bera adierazten badu. Parafrasi mota hau "hizkuntza bakoitzak gauza bera esateko dituen aukerak" printzipioan sustatzen da, eta honi gehitzen zaio, itzulpenaren ikuspegitik, hizkuntzek gauza bera adierazteko modu ezberdinak eta originalak dituztela.

Itzulpenaren arloan, hizkuntzen estruktura desberdinek sortzen dituzten arazoak konpontzeko etengabe baliatzen gara parafrasi mota honetaz. Sorburu hizkuntzako giro idiomatiko bat xede hizkuntzako giro idiomatiko baliakide batera itzultzen deno egiten da parafrasi legitimo bat. Edo forma pasiborik ez dagoenean edo konnotazio berezi batekin bakarrik erabiltzen denean, egin beharreko transformazio aktiboa ere parafrasi legitimoa da.

Parafrasi ez legitimotzat itzulpengintzaren arloan hau ulertzen da: "1) testu baten garapen esplikatzailea..., 2) Garapen luzea eta ihuna..." (Robert hiztegia, 1967). Testu baten garapen esplikatzailea

pertsona kompetente batek egiten badu, laguntza handia eskein diezaioke erdi mailako irakurleari, honek aprobeitxamendu handiagoo atera bait dezake testutik. Baina hau ez da itzultzailearen zeregina; honek testua fidelki itzuli behar du, sorburu hizkuntzaren maila berean uler dadila xede hizkuntzan, ez du esplikazio edo iritzi subjeti-boekin osatu behar, eta Bibliaren beste zati batzuetako elementuekin edo Bibliaz kanpoko testuekin ez du osatu behar.

Bibliaren itzultzaile gehienek ez dute parafrasia egiterik onar-tzen. Gure bertsio tradizioaletan alderantzizkoa egin ohi izan da, litalalismora jo da. Baina NEB (New English Bible) eko Itun Berriaren arduradunek gauza interesgarriak azaltzen dituzte puntu honi da-gokionez. Beren ahalegina hitzak adierazten duen zentzuan, itzul-tzen ahalegindu direla diote eta ez parafrasia egiten, halere, diote, itzulpen ona beti da nolabait parafrasia. Baina, beste irtenbiderik ez zuten kasuetan bakarrik baliatu dira parafrasiaz. Margotek dionez, Itun Berriaren bertsio honen kalitatea beste itzulpen askorena baina hobea da.

IB/NEBkoen irizpidea baina zehatzagoa bilatu behar da ordea. Non hasten da parafrasi legitimoa eta non ez legitimoa itzulpenaren ikuspuntutik? Nida eta Taber eta Reyburnek sakondu dute aspektu hau eta beste artikuluan zehaztua dago.

Amaitzeko esan behar da itzulpen batean parafrasia egin delako eta ondorioz sorburu testuak baino luzaro handiagoo duelako ez dela txarra, datu linguistikoak kontuan izan behar bait dira. Itzulpen fi-delak sorburu testuak hainbat osakin semantiko izan behar ditu.

Autoreak ondoren nahita eta nahi gabe egindako parafrasien adi-bide ugari ematen ditu, beti Bibliaren sorburu hizkuntzak eta inge-lesa, frantsesa eta alemanaren arteko konparaketetaz baliatuz.

Zehaztasun ezaren arazoa ere aipatzekoa da. Itzultzaileei sarritan leporatzen zaie espezielisten ustez testu biblikoan gehiegi zehaztu gabe dauden zenbait pasarte parafrasi bidez zehaztu nahi izatea, be-raz bi zehaztasun falta mota daudela esan behar da: sorburu testuaren autoreak nahita eta nahi gabe egindakoak. Garbi dago anbiguetate

errealak daudenean itzuli behar direla edo ohar bidez adierazi. Nahi gabeko zehaztasun faltei berriz, ahal den neurrian soluzioak eman behar zaizkie.

Bibliaren pasarte askotan giro poetikoak erabiltzen dira, baina ziur da Bibliaren autoreek ez zituztela irakurleak harriduran eta argitasun faltan murgildu nahi. Gauza bat dira botere ebokatzalea, balio sugestiboa eta beste bat zehaztasun eza.

### **Parafraasiari ihes egiteko neurriak**

Baliokidetasun dinamikoa deituriko itzulpenaren arloan burutu-tako esperientzien arabera hauek dira parafraasiaren arriskuari aurre egiteko neurri nagusiak:

- a) Sorburu testuan batzutan inplizitoki dagoena zehazteko eskatzen zaienean itzultzaileei, garbi utzi behar da zer ulertzen den honetaz. Sorburu iturrian informazio inportantea inplizitoki utzi denean, lehen irakurleentzat garbi zegoelako, gaur egungo irakurleentzat zehaztu egin behar da, alde linguistiko eta kulturalaren ondorioz ezin izango bait dute ulertu. Itzulpenean informazio inportante hori ezin da galdu. Bigarren mailako informazioa zehaztea ordea, ez du merezi.
- b) Hitz edo esaldi bat isolatuki aztertzearen ondorioz akats asko egiten dira. Askotan esaldi labur batean zehaztasun faltatzat jo dezakeguna, pasarteak argitzen digu. Berrero diogu, pasarte baten puntutxoak itzuli aurretik, osotasunean irakurri eta aztertu behar da.
- c) Testu hartzailean sorburu testuko zerbait zehaztu ala ez zalantza sortzen denean, bi bide jarraitu behar dira. Alde batetik, sorburu testuaren estruktura sakona aurkitu behar da esaldi nukleoaren azterketaren bidez. Testuaren estruktura sakon hau aurkitutakoan, xede hizkuntzara itzuli beharreko eta berrestrukturatu beharreko elementuak erraza-go aurkitzen dira. Bestalde, testu batean hitzek adierazitako elementu errealak zein diren aztertu behar da.

- d) Nidak dio testu baten zentzuaren estudioa egiteko aldi berean aztertu behar direla: berehalako testuingurua (esaldia, multzo motza), testuinguru zabalagoa (parrafoa, saila, kapitulua edo liburua), komunikazioaren haserako egoeraren azterketa (garaia, lekua, autorea, ingurua, autorearen asmoa eta mezua nola errezipitua izan zitekeen) eta sorburu hizkuntzaren kontestu kulturala.

Testuinguru zabalak testu bat kokatzeko beharrezkoa den informazioa eskeintzen digu, baina apriorismo iturria ez dadila izan, pasarte zehatz baten analisisa faltseatu bait dezake.

- e) Azkenik parafrasiari ihes egiteko, itzultzailea arriskuaz ohartu behar da beti. Parafraasia egiten duela esaten zaion bakoitzean, aukera izango du hori frogatzeko.

Liburuaren bigarren zati osoa itzulpen teoriaren aplikazioari eskainita dago eta bertan kasu zehatzak aztertzen dira, beti ere bereziki frantsera, ingelesera edo alemanera egin diren Bibliaren itzulpenetan oinarrituta. Dударik gabe, interesgarria litzateke noizpait hizkuntza horietara itzultzerakoan planteatu diren maila ezberdinetako arazoak euskarara itzultzerakoan nola konpondu diren aztertzea. Baina honek beste lan bat eskatzen du.

## SINTESIS

### **“Traduire sans trahir”: Teoría de la traducción aplicada a textos bíblicos**

Este libro, escrito por J.C. Margot es, según Georges Mounin, de gran contenido lingüístico, de alta calidad y valor pedagógico. Basándose en los problemas planteados por la traducción de textos bíblicos, constituye un modelo para el análisis de las dificultades a las que la traducción habrá de enfrentarse en el espacio y en el tiempo.



El libro considera superada la pregunta de si es posible la traducción; por lo tanto, pretende responder a otra, cómo hay que traducir.

La Biblia se ha traducido a casi 1800 idiomas. Hoy en día hay miles de traductores trabajando en ella, traduciéndola a nuevas lenguas o revisando traducciones ya existentes: siempre hay algo que estudiar o renovar, por múltiples causas; una de ellas, el hecho de que nuestro saber lingüístico y cultural se está ampliando constantemente. De hecho, en el siglo XX se amplían enormemente las traducciones y los teóricos empiezan a valerse de nuevos elementos para la teoría y crítica de la traducción.

Hoy se sabe que para traducir un texto, además de la comprensión de la lengua, es necesario conocer su contexto cultural, histórico, geográfico, intelectual, etc.; esto es especialmente importante en los textos sagrados. Así pues, el traductor tendrá que trabajar en equipo, buscando ayuda en otros campos, sobre todo en la aportaciones de la lingüística teórica y aplicada.

Así, hablando de la relación entre lingüística y traducción, el autor señala que: no hay nunca equivalencia literal entre dos lenguas; no se pueden traducir palabras aisladas, pues es el contexto el que les da sentido. Desde este punto de vista, el traductor deberá esforzarse en traducir todo el mensaje, es decir, no sólo el contenido léxico de las expresiones, sino todo su sentido. Por ello, diferentes disciplinas prestarán ayuda al traductor.

La teoría de la comunicación, que resalta la importancia de la redundancia, no como repetición vacía, sino como algo que facilita y asegura la comprensión del mensaje.

La psicolingüística, que ayudará a comprender las connotaciones, las cuales definen estilos distintos, como son los diversos géneros que aparecen en la Biblia.

Por último, el autor habla de las paráfrasis, concediéndoles especial importancia. Distingue dos tipos de paráfrasis, la legítima y la no legítima. La primera se refiere a los distintos modos existentes dentro de una lengua para expresar la misma idea; la segunda es un desarrollo explicativo de un texto, desarrollo largo y oscuro.

Los traductores bíblicos, en su mayoría, no aceptan las paráfrasis. En la Biblia, donde existe continuamente el riesgo de recurrir a ellas, se pueden evitar a través de lo que se ha llamado equivalencia dinámica.

El libro tiene una segunda parte dedicada a la aplicación de la teoría; se analizan casos concretos, basados en la traducción de la Biblia al inglés, francés y alemán. Pero aquí nos hemos limitado a la primera parte.

## SYNTHESIS

### *"Traduire sans trahir": The theory of translation applied to biblical texts*

As Georges Mounin says, this book, written by J.C. Margot, has a great linguistic and pedagogical value. Based upon the problems arising by the translation of biblical texts, it represents a model for the analysis of the difficulties which translation will have to face, both in space and time.

The book considers that the question whether or not it is possible to translate has already been answered; therefore, it pretends to answer another one: how to translate.

The Bible is translated into 1800 languages. There are nowadays hundreds of translators still working at it, translating the Bible into new languages or correcting the already existing translations: there is always something new to study or to reconsider, for one reason or another, as for example the fact that our linguistic and cultural knowledge keeps growing all the time.

As a matter of fact, in the XXth century the number of translations has greatly increased and the theoreticians are now using new elements for the theory and criticism of translation.

It is known today that to be able to translate, apart from the understanding of a language it is necessary to be acquainted with its cultural, historical, geographical and intellectual background; this is particularly important for the sacred texts. Therefore, the translator will have to work within a team, searching for assistance from other fields, mainly concerning the contribution of theoretical and applied linguistics.

Thus, speaking of the relationship between linguistics and translation, the author points out: there is never a literal equivalence between two languages; single words cannot be translated, as it is within a context where they get their sense. From this point of view, the translator ought to translate the whole message, that is, not only the lexical meaning of an expression, but its whole sense. That is why different subjects will come to help the translator:

The theory of communication, which underlines the importance of redundancy, not as mere repetition but as something that assures the understanding of the message.

The psycholinguistics, which will help him to understand the connotations defining different styles, as for instance those that can be found in the Bible.

*Finally, the author deals with the paraphrases, giving them a special consideration. He distinguishes two different types of paraphrases: legitimate and not legitimate ones. The former mean the different ways of expressing an idea which one given language possesses; the latter is an explanatory development of a text, which could result in a long and obscure text.*

*Most of the biblical translators do not accept paraphrases. In the Bible, where there is a continuous risk of having recourse to paraphrase, it can be avoided by using what it is called dynamic equivalence.*

*The book has a second part, dealing with the application of the theory; specific cases are analysed based upon the translation of the bible into English, French and German. But in this article only the first part has been developed.*



RUIZ ARZALLUZ, Iñigo: **Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento.** ANUARIO del Seminario de Filología Vasca "JULIO DE URQUIJO" XXI-3 1987. Excma. Diputación Foral de Guipúzcoa. Donostia.

Beatriz Zabalondo

SENEZek Bibliaren itzulpenari eskeintzen dion ale monografiko honetan, eta gaia berdina duenez, bidezkoa iritzi diogu, Arzalluzek, goian aipaturiko aldizkarian argitaratu duen lanaren berri emateari.

Sarrera labur batean, Bibliaz egin diren itzulpenetaz hitzegiten digu, eta baita literalismo kontzeptuaz ere; hau, aipatu besterik ez du egiten eta James Barr filologoaren iritzia hartzen du oinarritzat.

Bibliaren itzulpenean, arau berezi eta apartekoak jarraituz egin beharreko generoa bihurtu zuten itzultzaileek, beren asmo proselitista eta batez ere afan literarioek bultzatuta. Euskaraz egin ziren itzulpenek ere bide berdina jarraitu zuten.

Orainsu arte, Jeronimoren bertsioa zen hitz sakratu eta aldaezintzat zegoena, eta horregatik itzultzaileek, hitzaurre zein izenburutan, honela idazten zuten: "*Vulgatatik itzulia*".

Maila linguistiko eta estilistikoari dagokionean, garrantzizkoa da azpimarratzea gure ereduak beste eredu baten itzulpenak direla, eta Jeronimoren bertsioa aldrebestu xamarra izaki, hartatik egin diren itzulpenak ere hala moduzkoak izango direla.

Arzalluzen asmoa da, alde batetik, zenbait itzulpen eta beren ereduaren arteko dependentsia aztertzea, eta beste euskal itzulpen zaharagoetikoak bestetik.

Haraneder, Harriet eta Duvoisin itzultzaileak aukeratu ditu lan honetarako, eta Korpusa osatzen duten testuak, Mateoren Ebanjelioa, Sapientzialen zati batzuk eta Apokalipsiko zenbait bertsikulu,

Joanes de Haraneder (1669-1750tik atzera), Francisco de Sales eta Scupoliren itzultzailea, oraindik argitaratu ez den Testamentu Berriaren itzulpen baten autorea ere bada. Eskuizkribua, oraintsu artean behintzat Ustaritzeko Seminarioan zegoena, izenburu honekin dator azalean: **Jesu Christoren/Evangelio/Saindua/jaun Haraneder aphez/Donibane Lohitsucoac/escoararat itçulia.**

Haranederrek 1740. urtean bukatu zuen itzulpena, eta aipatutako eskuizkribua, 30 urte geroago Joanes Robin kaligrafoak kopiatutako apogrifoak dugu.

Bere “Aitcin-Solhasean” Haranederrek, Frantziako elizako buruek hartu zuten erabakiaz dihardu; Jainkoaren Hitza euskal elizbarrutiar guztien eskura eta ama hizkuntzan eman nahi izateaz.

Leizarraga ezagutzen du baina, “*guiçon etsai eta dohavabe*” tzat dauka, “*Calviñen (...) heresia poçoatuaz cutsatua*” bait dago. Ondoren, Vulgataren eredia jarraituta egin duela itzulpena diosku, eta “*Eliça ama sainduaz beragainqui aprobatua*” denez Jeronimoren bertsiotik hau, ez bakarrik testuaren esanahiari, baizik eta “*eguin ahal beçambat, lettrari berari*” ere lotu zaio. Testua lehenengo kolpean ulertu ezin eta bere kabuz interpretatzera ausartzen ez denetan, “*bi autor aprobatu*” rengana joko du: Lemaistre de Sacy eta Dominique Bouhours.

Haranederrek Vulgatako testuarekiko duen loturari buruz mintzatu den bakarra, Arzalluzek dioenez, P. Lafitte da, eta 1964an honetarako argitaratutako artikuluko bateko zita hau ematen zaigu: “*Dans l'ensemble, Haraneder suit le texte latin le plus prés et parfois jusqu'au calque*”.

Argitasun guzti hauek eman eta gero, Arzalluzek arestian aipatu-tako Barren literalismo sailkapenean oinarrituta, Haranederren testua aztertzeari ekiten dio eta ondorio gisa esaten digu Haranederrek lasai asko itzultzen dituela testu sakratuak, bai esanahiari eta baita originalaren formari dagokionean ere (Lafittek zioena, eta Haranederrek berak azaldutako asmoaren aurka).

Idazkerari dagokionean, eta Bibliaren estiloa berezia dela ez da ahaztu behar, beste eredu batera jo zuen: Leizarragarenera, hau "*etsai eta dohacabetzat*" edukiagatik ere.

1855ean Baionan, Laserreren etxean, liburu bat azaldu zen izenburu honekin: **Jesu-Christo gure...laphurtar bi iaun aphecec.**

Izan, lau Ebanjelioak baino ez dira. Eta izenburuan aipatzen diren bi apaizak, Maurice Harriet eta Pierre N. Dassance. Bertsio hau izan zen beharrezko baimenekin azaldu zen Testamentu berriaren lehenengo euskal itzulpena.

Behin baino gehiagotan, 1855eko testu hau, Haranederrena gaitetik zuzendutako bertsioztat hartu izan da. Egia esan, izenburuak ere horixe pentsa erazten du; nolana ere, ez zaio antzematen gauza berri bat denik.

Haranederren testua erreferentzia puntua besterik ez da Harrirentzat. Lexiko garbizalekeriagatik harekin ados ez dagoenetan, Leizarragaren testura joko du, baldin eta honek irtenbide onargarria ematen badio. Bestela bere gisakoa asmatuko du. Baina ez bakarrik garbizalekeriagatik: Harrietek Haranederren forma edo mamia atsegin ez baditu, Vulgata edota Leizarragaren bertsioetara joko du.

Eta azkenik, Arzalluzek, Duvoisinin itzulpena aztertzen du. Dudarik ez, Bonaparte printzeak eragin zuela Duvoisinin bertsioa gauzatu eta argitaratzea, baina horregatik ez da pentsatu behar testu hau, guztiz printzearen asmo zientifikoak baldintzatutakoa denik. Berdin-berdin itzuliko zukeen Duvoisinekin bestela ere.

Duvoisinekin, jatorrizkoarekiko fideltasuna gorde nahi izan zuen (garai hartan idatzitako gutunetan irakur diezaiogegunez). Inoiz,

Vulgataren letrarekiko lotura estuegiuz justifikatzen da. Eta, P. Lafittek, akats horixe leporatzen dio: *"Ikusiko duzue nola bere jitezko eskuara erretx, malgu, zaloin eta gozoa, gogortu eta bihurtikatu zitzaion latinaren uztarpenean"*.

Arzalluzek halere dio, ezin dela literalismoaz hitzegun, batez ere, (beste bi itzultzaileekin bezala eta adibideak ildo beretik aztertu ondoren), aurki daitezkeen literalismo adibideak, koherentzia gabe-koak direlako; zeren Vulgata, askatasun osoz erabiltzen du, bai formari eta baita esanahiari dagokionean ere.

Duvoisinek, Bibliaren zenbait itzulpen frantses erabili zituen, eta aurretik zeuden beste euskal eredueta ere baliatu zen.

Harrietek Haranederrekin egin zuen bezala, Duvoisinek, Harrieten erdua jarraituko du, honek itzulpen jator eta gustokoa eskaintzen dionean. Leizarragaren testua ere ezagutzen omen zuen, baina apenas erabili zuen. Dena dela, itzulpena zaila gertatzen zaionetan bakarrik joko du euskal eredueta; ostean, Vulgata eta frantses bertsiorekin maneiatu zen.

Eta honela bukatzen du Arzalluzek:

*"Resultaría interesante (...), estudiar y sopesar el papel de las traducciones bíblicas en el desarrollo de la lengua literaria. De momento se puede señalar que (...): hay modelos que se aceptan o se rechazan, actitudes que se secundan o se repudian, etc. Los traductores se preocupan, más que por la ortodoxia de sus textos, por frivolidades como que si el estilo es o no es elegante, que si tal o cual palabra es más o menos castiza, que si la traducción tiene o no un regusto arcaizante. O sea, Leizarraga, Haraneder, Duvoisin, quizá también Harriet, son literatos de raza (...)"*



אִיכָה | יִשָּׁבֶה בְּרֹד הָעִיר רַבְתִּי עִם הָיְתָה בְּאַלְמֹנָה \*  
רַבְתִּי בְּנָוִים שָׂרְתִי בְּמִדְיָנוֹת הָיְתָה לְמָס: בְּכֹ תִבְכֶּה \*  
בְּלִילָה וְדַמְעָתָהּ עַל לְחֹהֵה אִידָלָה מִנַּחֵם מִפְּלִיאֵהָ  
כְּלִדְעִיהָ בְּגֵרָה בָּהּ הָיָה לָהּ לְאִיכָים:

### Duvoisin:

1. Nolaz dago baxharrik jarria populuz betea zen hiria? jendayeta-ko erregina alhargun bat iduri egin da; herrialdeen burua zergaren azpian da.

Nigarrez urthu da gauaz, eta nigarrak dihoazko mathelak behera; maite zituen guzietarik batek ez dio ematen dozakaririk; bere adiskide guziek eskarniatu dute, eta etsai egin zaizkio.

### Zabala-Arana:

Uri gizatsua bakar-bakarra gelditu bai dala! Atzerri-yabea alargundua lez geratu da: erki-burua, iñoren menpeko egin da.

2. Gabaz negar-ta-negar iñarduten dau, negar-malkoak masalletaz bera dariozalarik; adizkide yakazan orotaik iñortxok eztau pozten: len maite ebenak ezetsi egin dabe, etsai biurtu yakoz.

### Olabide:

1. Ikusten? Orren bakarrik datza gizatsua zan erria! Erritartean aundi zana, orain alargun egiña, Erkietan gurena, orain zergapetua!

2. gaua negarrez dama, aupegian malkoak darizkiola; maite zutene-tan ez da urgaitzen dunik; aren adiskide guziak nardatu dute, eta etsai biurtu zazkio.

3 נִלְתָה יְהוּדָה מֵעֵנִי  
וּמֶרֶב עֲבֹדָהּ הִיא יֹשְׁבֵיהּ בְּנֵי יִשְׂרָאֵל לֹא מִצָּאָה מְנוּחַ כָּל־  
4 דְּרַפְיָהּ הַשְׂיִנְיָה בֵּין הַמְצָרִים: דְּרַבִּי צִיּוֹן אֲבֹלוֹת מִבְּלִי  
כָּאִי מוֹעֵד כָּל־שְׁעָרֶיהָ שׁוֹמְמִין כְּדִנְיָה נֹאנְתִים בְּתוֹלְתֶיהָ  
נוֹגֵת וְהִיא מִרְלָה:

### Duvoisin:

3. Juda bertzetara goan da atsekabearen handiz, hesturaren gaitzez; jarri da jendayen artean eta ez du phausirik aurkhitu; bere jazarle guziak lothu zaizko bere oinhazeen erdian.
4. Nigarrez daude Siongo bideak, zeren nihor ez den heldu haren bestetara; haren athe guziak urratuak daude, aphezak auhenetan, neskatchak hautsez estaliak, eta bera uhertasun minean.

### Zabala-Arana:

3. Yuda, amaika larrialdi ta yoputza yasan bearra ebala-ta, erbeste-ratu egin zan; atzerrian bizi izan da; baña, atsedetik eztau aurkitu; bere yazarleak estutu egin dabe.
4. Yaikunetara iñor yoaten ez dala-ta, Sion'erako bideak negar-dagie; bere ate guziak apurtuta dagoz, bere yaupariak adiaz, bere neskutzak goibel, ta beraxe samintasunak gainduta.

### Olabide:

3. Neke ta yoputza gogorreko erbestera eramana izan da Yuda, ta an dago atzerrian atsedeen idoro ezifnik, arroil estuan etsayek ertsita.
4. Siong'go bideak negarrez daude yayetara datorkenik ez da-ta; aren ate guziak irauliak dira, aren apaizak adiaka dabiltz, aren neskak atsekabe dira, ta bera samilez okittuta datza.

הָיָה צְרִיבָה לְרֹאשׁ אִיבָה שְׁלוֹ פֶּה ה  
יְהוָה הוֹנֵה עַל־רֹב פְּשָׁעֵיהָ עוֹלָלֶיהָ הִלְכּוּ שָׁבִי לִפְנֵי צָר:  
וַיֵּצֵא מִן־בֵּית־צִיּוֹן כָּל־הַדְּרֹגָה הָיוּ שׂוֹרֵיהָ כְּאֵילִים לֹא־מֵצְאוּ 6  
מִרְעָה וַיִּלְכּוּ בְּלֹא־כֶחַ לִפְנֵי רֹחָב:

### Duvoisin:

5. Bere etsayak buruaren gainean jarri zaizko; hari jazartzen zioetenak aberastu dire; zeren Jauna baita haren kontra mintzatu haren tzarkerien elementia gatik; haren haurttoak gathibu eramanak izan dire hertsatzailearen aitzinean.
6. Siongo alabari goan zaio bere edertasun guzia; haren buruzagiak bilhakatu dire alhapiderik khausitzen ez duten ahariak bezala, eta haituak goan dire eragilearen aitzinean.

### Zabala-Arana:

5. Etsayak beraz yabetu egin dira, ta bere areyoak aberastu; bere gaiztakeri ugariakaitik Yaunk bere kaltez itzegin dau-ta; bere umeak zigordunaren aurrez erbesteratu ziran.
6. Sion-alabeak bere edertasun osoa galdu dau; bere aurrenak larrarik idoroten eztaben ariak letxe geratu dira; guztiz aunatuta yoyazan atzelari-aurrez.

### Olabide:

5. Aren etsayak garai daude, orrilloan aren arerioak, aren ogen ugariengatik Yaube'k gogorki yo dulako; aren umeak atxillo eramanak bait-dira aren ertsalearen aurrean.
6. Sion'go alabaren aintza osorik itzali da; aren aundizkiak larrerik gabeko oreñak bezala dabilta indarrik gabe yazarlearen aurrean igeska.

וְכָרַתָּ יְרוּשָׁלַם יָמֵי 7  
עֲנִיָּה וּמְרוֹתֶיהָ כָּל מַחְמֵדֶיהָ אֲשֶׁר הָיוּ מֵימֵי קֶדֶם בְּנֶפֶל  
עַמָּה בְּדוֹפָר וְאֵין עֹזֵר לָהּ רְאוּתָה צָרִים שָׁחֲקוּ עַל-  
8 מִשְׁבֵּתָהּ: חָמָא חָמָא יְרוּשָׁלַם עַל-כֵּן לְגִירָה הִתְהַה כָּל-  
מִבְּנֵי הַיְלִוִּה בִּירְאֵי עֲרוֹתָה נִסְדִּיָּא נְאֻחָה וְתִשָּׁב  
אֲדוּר:

### Duvoisin:

7. Jerusaleme orhoitu da bere atsekabesko egunez eta behialako egunetarik zituen ontasun duzien narriapenez, haren populua etsayaren eskuaren azpian erortzen zenean eta nihork etzuenean laguntzen: ikhusi dute etsayek, eta haren larumbatez irriz egotu dire.

8. Bekatu beltzaz hobendun egin da jerusaleme, hargatik erorkor bilhakatu da: espantatzen zuten guziek arbuyatu dute, zeren ikhusi baitute haren laidoa; berak aldiz, auhenetan gibelerat egin du.

### Zabala-Arana:

7. Yerosolima, bere biztanleak iñor launtzalle izateke areyo-eskuz ilten zirala, bere zoritxar-aldiaz ta aspaldi-aspalditik izandako amaika gauza opagarri galtzeaz gomutatu zan; etsayak ikusi eben, eta bere yaregunetaz ixeka-egien.

8. Yerosolima'ak oben-egin eban; orregaitik aldakor biurtu da; goersten eben orok, bere laidoa ikusita, ezetsi egin dabe; eta beraxek, be, intzirika arpegia atzera egin dau.

### Olabide:

7. Yerusalem'i gogora datozkio lengo bere atsekabezko egun beltzak: etsayen eskuetan urgazlerik gabe bere erria erori zaneakoak, arerio zitalek ori zekustelarik aren ausiabantzaz parrez bait-zebiltzan.

8. Yerusalem'ek ogen egin du; ta orregatik nausagarri itzuli da; goratzen zuten guziek haren gerena ikusita, ezesten dute, ta, aurpegia atzera du adiaka.

## **Euskarazko Bibli-itzulpenak**

J. M. Zabaleta

Bibliaren edo zati baten euskarazko itzulpenen zerrenda bat egin nahi izan dugu Bibliaren itzulpenari buruz prestatu den ale berezi honetarako. Era horretako zerrenda era askotara sistematizatu daiteke, eta sistematizazio mota bakitzak ditu bere zailtasunak eta abantailak.

Liburuz liburu sistematizatuz gero, itzulpenak bilatu eta konparatu ahal izateko errazagoa da. Dataz sialkatuz gero, eboluzioa hobeto ikusten da eta une bakoitzean Bibliak euskaldunen artean izan duen zabalkundea agerian azaltzen da; baina arazoak daude horretarako, zenbait itzulpen egin zirenetik argitaratu zirenera arte alde handia bait dago, beste batzutan ezin daiteke ziur jakin noiz itzuli ziren, beste zenbait ez dira inoiz argitaratu, eta eskuzkribua besterik ez dago; itzulpen askorantzat, gainera, argitalpen datak esanahi gutxi du, oso argitalpen laburrak egin zirelako, eta erabilera erlijiosoa ez zelako, hain zuzen, argitalpenaren helburua (Bonaparte printzearen argitalpenen kasua batez ere).

Hala ere, dataz ordenatzea erabaki dugu. Itzulpen ala argitalpen dataz, ordea? Abiapuntu bezala argitalpen data da sailkapen honen oinarria. Itzulpenaren eta argitalpenaren artean alde handia egon de-

nean, berriz, itzulpen data hartu da oinarritzat, ohar bat jarritz. Argitaratu gabe dauden itzulpenak direnean ere itzulpen data hartu da oinarri bezala. Zenbait kasutan, ordea, ez da erraza jakiten noiz egin zen itzulpen hau edo hura, eta kasu horietan itzulpen data hipotetikoa izan litekeen bat hartu da oinarritzat.

Oso pasarte laburren itzulpenak direnean (salmu bat, parabola bat...) ez ditugu aipatu.

### **Bibliaren euskal itzulpenak**

- 1564 Leizarraga: **Testamentu Berria**, Rochelan, 1671
- 1700 (?) Urte, Pierre: **Biblia Saindua** (Jenesia eta Exodoaren zati bat) 1898an argitaratu zen Londresen.
- 1740 Haraneder, J.: **Iesu-Christo gure Jaunaren testament berria** (1855an argitaratua Harrietek zuzenketa asko eginik, dirudienez).
- 1755 Larregy, B: **Testament çaharreco eta berrico historia** (1775-1777).
- 1785 Ubillos, Juan Antonio: **Cristau dotriñ berri ecarlea** (Ebanjelioak elkartuta)
- 1825(?) Añibarro, P. A.: **Lau Evangelioac batera alcarturic**. (Lamyk egindako lau ebanjelioen bateratze baten itzulpena da, bizkaierara egin zen lehendabiziko Bibli itzulpena agian).
- 1825 Gaidor - Leizarraga, J.: **Jesus-Christoren evanyelio saindua S. Mathiuren arabera. Lápurdco lenguayaz**. (1825).

**Jesus-Christo gure Jaunaren Ebanyelio saindua S.**

**Mathieuren arabera. Lapurdico escuara (1828).**

**Laur Enbanyelioak eta Apostoluen egintzen liburua eta Testament berria osorik**

1830 (?) Lizarraga, Joakin: **Jesukristoren ebanjelio saildua San Juanek dakarren gisan** (1866an Bonaparte printzeak argitaratua).

**Jesukristoren ebanjelio saildua San Mateok dakarren gisan** (argitaratu gabea. Nafarroako diputazioan dago eskuzkribua).

1835 (?) Chaho, J. B.: **Joben liburua**

1838 Oteiza, J. J. V.: **Evangelioa san Lucasen gissan** (1838, G. Borrowek eragina).

**Apostoluen egiñak** (argitaratu gabea).

**Evangelio sailduba San Marken gisan** (1887).

1850 Garibai: **San Mateoren Ebanjelio Santua** (argitaratu gabea).

1855 Lardizabal, Fr. I.: **Testamendu zarreco eta berrico condaira.**

1856-62 Archu, J. B.: **Ruthen libria. Salomonen kantiken kanti-ka, Jonasen libria, (1888an argitaratu ziren).**

**Genesisia eta Salmoak.**

1856 Salaberri, M.: **San Mateoren ebanjelioa**

1856... Hualde Mayo, P.: **Evangelio se san Mateo traducido al vascuance roncalés de Vidangoz** (1935ean argitaratua R.I.E.V.en).

1856... Samper, P. J.: **San Mateoren ebanjelioa** eta Bibliako beste zenbait pasarte (argitaratu gabeak)

1857 Etxenike, B: **El Evangelio según San Mateo**

**La profecía de Jonás (1862).**

- 1857 Bonaparte, L. L.: **El Evangelio según San Mateo, traducido al vascuence, dialecto guipuzcoano.**

**Salomonen kantika**

- 1857 Udabe, J. A.: **El evangelio según San Mateo, traducido al vascuence, dialecto gipuzcoano.**

1857. Uriarte, J.A.: **El Apocalipsis del apóstol San Juan traducido al ... vizcaino (1857).**

**El Evangelio según San Mateo, traducido al.... guipuzcoano (1857).**

**El Evangelio según San Mateo, traducido al,... vizcaíno (1857). El Apocalipsis del apóstol San Juan traducido al ... guipuzcoano (1858).**

**Biblia edo testamentu zar eta berria (1859-1868 bitartean burutua. Testamentu Zaharraren lehen hiru liburuak beterik ez ziren argitaratu: Jenesia, Exodoa eta Lebitikoa).**

**El cantico de los canticos (1862)**

- 1858 Inchauspe, E.: **L'Apocalypse de l'Apôtre Saint Jean.**

**Le saint Evangile de Jésus-Christ selon Saint Mathieu en basque suletin**

- 1859-1864 Duvoisin, J.: **Bible Saindua**

- 1862 Etxenike, B.: **La profecía de Jonás**

- 1863 Casenave, A.: **La prophétie de Jonas**

- 1865 Otaegi, Klaudio: **San Mateoren ebanjelioa, Ruten liburua, Apokalipsia. (Argitaratu gabeak).**

- 1868 Ezezaguna: **Evanyelio saindua san Luken arabera. Lapurdico escuara**

- 1870 Brunet, F: **Jesu Cristoren ebanjelioa Lucasen araura (1870).**



- Jesu Cristoren Ebanjelioa Juanen araura (1880).**
- 1873 Urruty, A.: **Ebangelio saintia Jesus-Kristena jondone Johaneren arabera. Baiona, (1873).**  
**Jondane Phetirenen epitriak. Baiona, (1887).**
- 1922 Galdos, Erromal: **Ruten liburua (1922).**  
**Dabiden abestiak (1936).**
- 1924 Zabala-Arana, J: **Aste gurena**
- 1925 Balzola, Fr.: **Argi Donea. Argia aldizkariak argitaratua. (Meza-liburua: Salmuak, ebanjelioak, etab.)**
- 1925 Ormaetxea, N.: **San Joanen ebanjelioa (16 kapitulu, Jesusen Biotzaren Deya aldizkarian) (1925).**
- 1927 Areitio: **Jesukristoren bizitza lau Ebanjelioetatik artu eta baten euskeralduta. Jesusen Biotzaren Deya aldizkarian (1927-1931),**
- 1930 Garro, B "Otxolua": **Ebanjelioen bateraketa bat (argitaratu gabea).**
- 1931 Olabide, R.: **Itun berria (1931).**  
**Itun zar eta berria (1958).**
- 1932 Arbelaitz: **Erriarentzako liturgia. Bezperak.**
- 1932 Iraizoz, P: **Erriarentzako liturgia. Urte guziko igande eta jaiegunetako Ebangelioak (1932).**  
**Yesukristo gure Yaunaren Bizia (1934).**
- 1936 Arriandiaga, M.: **Matai Deunak- legezko Josu Kisto'-gazko Goizparra. Euzko Gogoan, 1951**  
**Goizparraik eta beldubaik egiña. Zarautz, 1957**
- 1947 Leon, L: **Jesukristo gure Jaunaren Ebanjelio Saindua**
- 1950 Ormaetxea, N.: **Urte Guziko Meza-Bezperak (1950).**

- Salmutegia (1967).**
- 1957 Egia, Luis: **Aste Santu berria**
- 1960 Kerexeta, J.: **Jesu-Kristo Gure Jaunaren Berri Ona, Lau ebanjeliotatik itzez-itx atera eta laurak alkartuta (1960).**
- Apostoluen egiñak (1961).**
- Alkartasun Berria. Apostoluen egiñak eta idazkiak (1965).**
- Salmutegia (1967).**
- Ebanjelio alkartua (1973).**
- Euskal Biblia (1976).**
- 1961 Mendizabal F.-Goitia, J.: **Lau ebanjelioak**
- 1964 Diharce, X. Lertxundi, G. **Salmoak**
- 1964 Zelaia, M.: **Apokalipsis**
- 1965 Kerexeta, J.-Zugasti, A: **Jesukristo gure jaunaren berri ona (elkarartua).**
- 1967 Etxebarria, T.: **Tamar, Rut, Betsabe, (Ibiltarixanak liburuan Bibliako emakumezko pertsonaiei dagozkien pasarteak)**
- Job, Tobias, Daniel (argitara gabeak).**
- 1967 Ormaetxea, N.-Kerexeta, J.-Zugasti, A: **Itun Berria**
- Loperena: San Mateoren ebanjelioa (argitaratu gabea).**
- 1977 Agirre, J. A.: **Biblia denentzat**
- 1980 Euskal Herriko Liturgi Batzordea: **Orduen Liturgia**
- 1984 Elizen arteko Biblia: **Itun berria**

## **BIBLIOGRAFIA**

Bibliaren esegesia eta ikasketari, eta orrenbestez itzulpenari, buruz diharduten aldizkari eta liburu garrantzitsuenen aipameha egi-ten saiatu gara laburpen honen lehendabiziko partean. Bigarrenean berriz, euskarara egin diren Bibli-itzulpenei buruz idatzi direnak biltzen ahalegindu gara.

### **Aldizkariak**

**Afrique et Parole**, Dakar.

**Assamblées du Seigneur**, Paris.

**La Bible dans le Monde**, Paris.

**The Bible Translator**, London.

**Bulletin des éditions Rencontre**, Lausanne.

**Cahiers de l'Alliance biblique universelle**, Stuttgart.

**Cahiers Évangile**, Paris.

**Cahiers protestants**, Lausanne.

**Cahiers universitaires catholiques**, Paris.

**Études théologiques et religieuses**, Montpellier.

**Foi et Vie**, Paris.

**Ichthus**, Carouge-Genève.

**Interpretation**, Richmond, Virginia, USA.

**Journal of Biblical Literature**, Missoula, Montana, USA.

**Langages**, Paris.

**Language**, Baltimore, USA.

**Missiology**, Pasadena, California, USA.

**New Testament Studies**, London-New York.

**Nouvelles bibliques de l'Alliance Biblique Universelle**, Stuttgart.

**Practical Anthropology**, Tarytown, N.Y. USA (Missiologyren barruan 1973az geroztik).

**Les quatre fleuves**, Paris.

**Revue d'histoire et de philosophie religieuses**, Strasbourg.

**Revue de théologie et de philosophie**, Lausanne.

**TRANSST, an International Newsletter of Translation Studies**, Amsterdam.

**United Bible Societies Bulletin**, Stuttgart.

**Vetus Testamentum**, Leiden.

### **Bibliografia orokorra.**

ALONSO SCHÖKEL, L.: **La Palabra Inspirada. La Biblia a la luz de la ciencia del lenguaje**. Ed. Cristiandad. Madrid 1986.

— **La traducción bíblica: lingüística y estilística**. Ed. Cristianidad. Madrid 1977.

BARR, J.: **The Semantics of Biblical Language**. Oxford University Press 1961; frantsesera itzulia: *Sémantique du langage biblique*. Paris 1971.

BLACK, M./SMALLEY, W.A.: **On Language, Culture and Religion: Eugène A. Nidari omenaldia**. Mouton. La Haya-Paris 1974.

BONNARD, P.: **La justice de Dieu et l'histoire**: ETR 1-2 (1968) 61- 68.

BRUCE, F.F.: **The English Bible**, Oxford University Press. New York 1970.

BURNIER, L.: *Bere historia eta kritikak*, G. Bridel. Lausanne 1866.

CHOURAQUI, A.: **Le cantique des cantiques y Psalms**. Presses Universitaires de France. Paris 1970.

**Dictionnaire encyclopédique de la Bible**. Brepols. Turnhout- Paris 1960.

**Directives concernant la coopération interconfessionnelle dans la traduction de la Bible.** Alliance Biblique Universelle. Londres 1968.

JEREMIAS, J.: **Die Gleichnisse Jesu.** Vandenhoeck u. Ruprecht. Göttinga 1958 (1962); gaztelerara itzulia: Estella 1971.

— **Paroles de Jesus.** Le Cerf. Paris (1963) 1967; gaztelerara itzulia: **La Ultima Cena.** Palabras de Jesus? Ed. Cristiandad. Madrid 1980.

— **Le message central du Nouveau Testament,** Le Cerf, Paris 1966, gaztelerara itzulia: Sígueme, Salamanca 1966.

— **Théologie du Nouveau Testament .** Le Cerf. Paris 1973; gaztelerara itzulia: Sígueme. Salamanca 1973.

LUTHER, M.: **Epître sur l'art de traduire** (1530). Martin Luther. **Oeuvres VI.** Labor et Fides. Genève, 1964, 190-204.

MARGOT, J. CL.: **Les épîtres de Pierre.** Labor et Fides. Genève 1960.

— **L'indissolubilité du mariage selon le Nouveau Testament:** Rthph VI (1967) 391-403.

— **Langage d'hier et langage d'aujourd'hui:** TBT 20/3 (1969) 7- 12.

— **And His Love Is Eternal (Psalm 136):** TBT 25/2 (1974) 212-217.

— **Traduire sans trahir.** Éditions l'Age d'Homme. Lausanne 1979. gaztelerara itzulia: Ed. Cristiandad. Madrid 1987.

Meschonnic, H: **Les cinq rouleaux.** Gallimard. Paris 1970.

— **Pour la poétique II.** Gallimard. Paris 1973.

— **Esprit,** zenbaki berezia: Henri Meschonnic. uztaila-abuztua (1977).

— **Traduire la Bible, de Jonas Jona.** Langue française. 51 zkia (1981).

- **“Le rythme et la traduction”**. H. Meschonnicekin elkarrizketa. *Esprit*, iraila (1982)

MOUNIN, G.: **Les belles infidèles**. Cahiers du Sud. Paris 1955.

NEWMAN, B.M.: **Greek-English Dictionary of the New Testament**. UBS. London 1971.

NEWMAN/NIDA: **A Translator's Handbook on the Acts of the Apostles**. UBS. London 1972.

- **A new Testament Wordbook for Translators**. American Bible Society. New York 1966.

E.A. Nida (liburuak):

- **Linguistic Interludes**. Summer Institute of Linguistic. Santa Ana. California 1960.

- **Toward a Science of Translating**. Brill. Leiden 1964; gaztelarera A. de la Fuentek itzulia. Ed. Cristiandad. Madrid 1986.

- **Comment traduire la Bible**. ABU. London 1967.

- **Translator's Notes on Literacy Selections**. UBS. London 1972- 1974.

- **Exploring Semantic Structures**. W. Fink. Munich 1975 (a).

- **Componential Analysis of Meaning**. Mouton. La Haya-Paris 1975 (b).

- **Customs and Cultures (Anthropology for Christian Missions)**. W. Carey. South Pasadena, Calif. 1954 (c).

E.A. Nida (artikuluak):

- **“Translation or Paraphrase”**: TBT 1/3 (1950) 97-106.

- **“A New Methodology in Biblical Exegesis”**: TBT 3/3 (1952) 97-111.

- **“Principles of Translation as Exemplified by Bible Translating”**. R.A. Brower (1959) 11-31.

- **“Practical Limitations to a Phonemic Alphabet”**. Smalley (1964) 22-30.

- **“Formal Correspondance in Translation”**: TBT 21/3 (1970) 105-113.
  - **“Linguistics and Translators”**: TBT 23/2 (1972) 225-233.
  - **“Linguistic Theories and Bible Translating, Communication and Translation”**. TBT 23/3 (1972) 301-308, 309-316, 316-322.
  - **“Translation”**. T.A. Sebeok, **“Current Trends in Linguistics”**. 12 (1974) 1045-1068. Mouton. Paris.
  - **“What Are Literacy Selections?”**: TBT 25/2 (1974) 201-206.
  - **“Words and Thoughts”**: TBT 25/3 (1974) 339-343.
  - **“Semantic Structure and Translating”**: TBT 26/1 (1975) 120-132.
  - **“Language and Psychology”**: TBT 26/3 (1975) 308-313.
  - **“Scientific Insights to be Gained from Bible Translating”**: TBT 27/1 (1976) 142-144.
- PARTRIDGE, A.C.: **English Biblical Translation**. London 1973.
- RABIN, Ch.: **Cultural Aspects of Biblical Translation**. London 1973.
- RICOEUR, P.: **Reflexión sobre el lenguaje. Hacia una teología de la palabra**, X. Léon-Dufour, **Exégesis y hermeneútica**, Ed. Cristiandad. Madrid 1976, 237-253.
- TABER, Ch.R. **The Identification of Participants in a Narrative**: TBT 20/3 (1969) 1-6.
- **Exegesis and Linguistics**: TBT 20/4 (1969) 150-153.
  - **“Traduire le sens, traduire le style”**: *Langages* 28 (1972) 55-63.
- TABER/NIDA: **La Traduction: théorie et méthode**. ABU. London 1971.
- SCHWARZ, W.: **Principles and Problems of Biblical Translation. Some Reformation Controversies and their Background**. Cambridge 1955.
- STACEY, D.: **Interpreting the Bible**. Sheldon Press. London 1976.

## **Bibliaren euskal itzulpenei buruzko bibliografia**

AKESOLO, L.: **“Joannes Leizarraga. Testamentu Berriaren leenengo euskeratzailea”** Jaunaren Deia 33 (1970) 271-285.

— **“Protestanteen euskerazko Bibli-itzulpenak”** Jaunaren Deia 34 (1971) 18-29.

— **“Katolikoek euskerazko Bibli-itzulpenak”** Jaunaren Deia 35 (1971) 85-102.

— **“Mende ontako gure Bibli-itzulpenak”** Jaunaren Deia 41 (1972) 305-337.

— **“Joannes Leizarragaren garaia”**. (Leizarragaren 4. mendeurrenean Beskoitzen egindako hitzaldia) Euskera, XVII, 1972.

ALZOLA, N.: **“Bonaparteren Eunurte-muga dela-ta”(1857-1957. El Bidasoa, 1957 uztaila-urria.**

DARANATZ, J. B.: **“Le Testament Berria de Haraneder et ses éditeurs les abbés Dassance et Harriet”**. RIEV, 2 (1908) 151-177.

— **“Traductions basques de la Philothée”**. RIEV, 16 (1925) 56-64.

**Dictionnaire de la Bible**. Paris 1895, i, 1496-1499.

DODGSON, E.S.: **“List of Translations of the Bible or of Parts of It into Basque”**. Ll. Thomas-en liburuaren “Appendix B” da.

DUBARAT: **Le protestantisme en Béarn et au Pays Basque**. Pau, 1895.

ETXEZBERRIA Franzisko (Abelegi'ko P, Ibiltari): **“Batasunera”**, Euzko Gogo. 1958, 5-6 (Olabide'ren goratarrez).

— **“Osokerak”**. Euzko Gogo. 1958, 5-6 (Olabide'ren goratarrez).



- **“Iesulagundiko euskal-idazleak”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- ETXEZARRETA, EUSTASIO: **“Euskal Elibarrutiarteko ‘Itun Berria’”**, Euskera - XXVI (2. aldia).
- IGARGUTXI: **“Olabide ta Azkue”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- GONZÁLEZ-ECHEGARAY, C.: **“Catálogo de los manuscritos reunidos por el Príncipe L. L. Bonaparte que se hallan en el País Vasco”**. Euskera, XXIX, (1984).
- Jaurgain: **“Le Nouveau testament de Liçarrague”**. R.I.E.V., I, 1907.
- **“Liçarraga, Prêtre”**. R.I.E.V., II, 1908.
- LACOMBE, G.: **“Les traductions basques de St. Mathieu”**. Euzko Jakintza, 1, (1947) 289-294.
- LAFITTE, P.: **“Autour de la Bible traduite en basque par le père R. Olabide”**. Herria. Bayona 1947.
- **“Deux traductions de l’Enfant Prodigue ou Jean Harander revu par Maurice Harriet”**. Bulletin du Musée Basque, 23, (1964) 8-16.
- **“Biblea Eskual Herrian”**. Euzko Gogoia, 9 (1958) 495-501.
- LAFON, R.: **“Joannes Leizarraga, itzularia eta idazlea”**. Euskera, XVI, (1972).
- LARRAKOETXEA, B.: **“Olabidek apaizeri ekarritako laguntza”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- LEKUONA, M.: **“Olabide lexikolari”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- LLEWELYN THOMAS: **“The Earliest Translation of the Old Testament into the Basque Language (A Fragment) by Pierre d’Urte of St. Jean de Luz...”**. Oxford University Press. 1894, 158-163.

- MITXELENA, Luis: **Historia de la Literatura Vasca**. Madrid, 1960.
- **“Olabide. Itun zar eta berria”**. EGAN, 1959. Mitxelenaren idazlan hautatuak. Ed. Etor. Bilbo, 1972.
- ONAINDIA, S.: **Euskal Literatura**. Bilbo, 11972-1977.
- ORMAETXEA, N. ORIXE: **“Paul Gurenaren eskutitzak”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- **“Itun Berria”**. Euzko Gogoia, 1959. 3-6.
- RUIZ ARZALLUZ, Iñigo: **“Notas sobre algunas traducciones del Nuevo testamento”**. Anuario del Seminario de Filología Vasca “Julio de Urquijo”. Donostia, 1987.
- SAN MARTÍN, J.: **Literaturaren inguruan**. Donostia, 1980.
- URQUIJO, J. de: **“Cartas escritas por el príncipe L. L. Bonaparte a sus colaboradores”**. R.I.E.V. II eta IV, 1908 eta 1910.
- VIGOUROUX, F.: **“Basques (versions) de la Bible”**. Ll. Thomas-en liburuan hau ere.
- VILLASANTE, L.: **Historia de la Literatura Vasca**. Arantzazu, 1979.
- **“Euskaltzainburu jaunaren hitzaldia”**. (Leizarragaren 4. mendeurrenean Beskoitzen egindako hitzaldia). Euskera, XVII, 1972.
- VINSON, J.: **“Essai d’une bibliographie de la langue basque”**. 2 tomo 1891 urtean argitaratua. Caja de Ahorros Vizcaina 1983.
- ZAITEGI, J.: **“Adizki berenkoiak Olabideren Itun Berria‘n”**. Euzko Gogoia. 1958, 5-6 (Olabide‘ren goratarrez).
- **“Itun Berria‘n txordoketan”**. Euzko Gogoia, 1959. 3-6.

## **Itzultzaile eta interpretarien ikasketen berrikuntzari buruzko kontsiderazioak**

Gasteiz, 1988ko Urtarrilak 15.— HAEE

Itzulpena: Andoni Sarriegi Eskisabel

Itzultzaile eta Interpretarien ikasketen berrikuntz proposamenari eta Itzulpeneko Lizentziatu titulua sortzeari buruz 13 zk.dun Lantaldeak egin eta aztertua izateko Unibertsitate Kontseiluari bidalitako Txosten Teknikoari dagokionez, ondorengo adierazi behar dugu:

Aipatutako Txosten horrek, era guztietako nazioarteko harremanen ugaldenetik sortzen diren geroz eta beharrian handiagoei erantzun behar dieten itzultzaileentzat desiragarria den profila eta prestakuntza egoki jaso eta deskribatzen dituela uste dugu eta zentzu honekin, proiektu egokia izan litekeela irizten dugu, berorrenzat finkatu diren helburuen barruan. Proposatutako titulazioak eta ikasketen iraupenak ere, egokiak dirudite; era berean, hasierako gaitasun frogak, karrera amaierako ikerkuntz lanak eta Epaimahai batek berori neurtzeak nahiz Konferentzi Interpretariak prestatzera bideratutako graduatu ondorengo ikasketak ere.

Ez gatoz ordea bat amahizkuntzaren definizioarekin, zeren eta Ahizkuntzaz hitz egitean, espainieraren kasua bakarrik onartzen bait da, zentzu horretan, errealitate soziolinguistikoak bienbitartean, Estatu espainiareko hiritar guztien kasu hori ez dela azaltzen digularik eta hauek, espainiera ez den beste ama hizkuntza bat izan dezakete-

larik, Konstituzio Espainiarrak guztiei exigitutako gaztelaniaren ezagutzarekin batera.

Kontzeptu hau egoki definitu beharko litzatekeela uste dugu eta ez dugu uste interpretazio behartuagorik ere egin daitekeenik, izan ere, berorren arabera, Konstituzioak “gaztelania” estatuaren hizkuntza ofizial bezala definitzen bait du, proiektuan “A” hizkuntza (amahizkuntza)” identifikatzean eta “espainiera garaikidea” bertako biztanleentzako amahizkuntza izan daitekeen Estatu espainiarreko hizkuntzetako edozeini bait dagokio. Zentzu honetan, desiragarria litzateke, Estatu espainiarrean hizkuntza ofizial maila daukaten amahizkuntza guztiak, itzultzaile eta interpretariprestakuntzarako “A Hizkuntzak” izatea, baina ulertzen dugu hori landu den proiektuaren funtsezko helburu den itzultzaile eta interpretarien nazioarteko parridiketzaren kaltetan izango litzatekeela.

### **Hizkuntz ofizialkidetasuna eta itzulpena Estatu espainiarrean**

Deskribatutako helburuei egokitze honen alboan ordea, landutako proiektuak, benetan dauden beharrak ez dituela estaltzen uste dugu eta badaudela halaber erantzun behar litekeen beste helburu batzuk ere; Estatu espainiarrean dagoen hizkuntz aniztasuna konstatazetik abiatzean sortzen diren beharizan eta helburuak hain zuzen ere. Horrela bada, Konstituzio Espainiarraren eta Erkidego Autonomo anitzeko Autonomi Estatutuen arabera, gaztelaniarekin batera, beste hizkuntza ofizial batzuk ere badaude Estatu espainiarrean: gaztelania Estatuaren arlo osoan eta hurrenez hurreneko Estatutuek finkatuak berriz, hainbat Erkidego Autonomotan (Konstituzio Espainiarreko 3. Artikulua).

Horregatik, itzultzaile eta interpretariak hartu behar duten prestakuntza eta irudia murratzen hastean, nazioarteko harremanetatik sortutako beharizanei erantzuteaz gainera, Estatu espainiarrean izaera ofizialarekin dagoen errealitate eleaniztun honetatik ondorio-tutako inplikazioei ere, aurre egin beharra dago.

Erkidego Autonomo batzutako hizkuntz ofizialkidetasun honek, nahiz bere erabilpena arlo pertsonal eta gizarte arlo guztietan normaltzeko borondateak eta afektatutako Erkidego Autonomoetako gehienetan diktatutako Hizkuntz Normalizazioko Legeetan adierazitako administrazio publikoentzako ondorioztzen diren jarraiko obligazioek, beharrezkoa egiten dute itzultzaile eta interpretari kualifikatuak izatea. Itzultzaile eta interpretari hauen funtsezko gaitasuna, gaztelania eta Erkidego Autonomo bertoko hizkuntza ofizialaren arteko eta alderantzizko itzulpen lanak garatzeko adinakoa izango da, gaitasun honek, beste nazioarteko hizkuntzekiko prestakuntza osagarria kanpoan utzi gabe noski. Ikuspegi hau ez da inondik inora ere agertzen Unibertsitateetako Kontseiluak igorritako proiektuan. Harelere arlo une honetan ezin baztertua dela uste dugu. Ez da inondik inora ere aholkagarria, hirikide ugariren hizkuntz eskubideen jarduna bermatu behar duten itzultzaile eta interpretariak, proiektu honetan aurrikusitakoa baino prestakuntz maila apalagoa izatea. Estatu espainiarrean gaztelania ez den beste hizkuntza ofizialen hitzunik direnak elebidun izateak, ez du adierazi nahi aldezturik berorien itzultzaile gaitasuna errazki eta orokorki irits litekeen zerbait denik.

Itzulpen lanetarako eskatutako funtzio eta espezializazioak eta Estatu espainiarrean gaztelania ez diren beste hizkuntzek historikoki jasan duten gutxiespen egoerak -eta horrek ekarri dien atzerapena, baina orain ofizialtasun osoak eskatzen duen bezala, gaztelaniarekiko ondorio guztietarako parekidetu ahal izateko berreskuratu behar dutena- hiritarren hizkuntz eskubideen bermatzaile eta bere garapen eta normalizazioaren motore izan behar duten etorkizuneko itzultzaile eta interpretarien prestakuntzari garrantzi izugarria eman behar izatea dakarte.

Puntu honetan, Kanada bezalako herrialde elebidun baten esperientzia ekar liteke, non gizarte bizitzako arlo guztietan eta era berean zientzi arloan ere goreneko mailan araututako bi hizkuntza ofizial izan arren eta biak ere biztanle kopuru handiek jakin arren, elebitasun ofizial horrek dituen inplikazioetatik abiatuturik, bulkada izugarria eman dion herrialde hartako Unibertsitate askok landutako itzultzaile prestakuntzari. Prestakuntza honek, hiru ziklo unibertsitariak

hartzen ditu eta berorretan zehar, garrantzi berezia ematen zaio ingelesaren eta frantsesaren arteko itzulpenari eta alderantzizkoari, nazioarteko hirugarren hizkuntza baten ikasketa bigarren mailan utziz.

Gure herrialdean ere, elebitasun ofizial honetatik sortzen diren beharrei aurre egin behar dieten itzultzaile eta interpretariak, unibertsital mailako prestakuntza behar dute, hizkuntza ofizial bat baino gehiago dituen Erkidego Autonomoko beharrizan bereziei erantzuteko itzultzaile izateko gaitasunerantz zuzendua batez ere, nahiz eta txosten teknikoan aurrikusitakoak bezalako gai erantsiak jakitea ere beharrezkoa izan eta beste hizkuntza atzerritar batzu menperatzea ere desiragarria gertatu.

Prestakuntza hau ezin daiteke albora utzi, hizkuntza ofizial desberdinen parekidetzarako borondatea eta hiritarrek Administrazio Publikoen aldetik berek aukeratutako hizkuntzan zerbituak izatea, hiritar kopuru handia afektatzen duten gaiak direnean eta Konstituzioak berak bere hirugarren artikuluan jasotako eskubidea denean, hirugarren atalean ondorengoa adieraziz: *"Espainiako hizkuntz arlo desberdinen aberastasuna, errespeto eta babes berezia izango duen kultur ondarea da"*. Horrela bada, itzultzaileek garatu behar dituzten funtzioen eta lan merkatuan izan ditzaketen alternatiba edo hautabide ahalen artean, ondorengo bi arlo hauek berezi behar ditugu argi eta garbi:

Nazioarteko harremanena, itzultzaile eta interpretariak nazioarteko erabilpeneko hizkuntzetan lan egitera eta beren funtzioak arlo nazionaleko nahiz nazioarteko arloko organismo eta enpresetan gartzera eramango dituen.

Erkidego Autonomo beraren hizkuntz beharrizanena, bere hizkuntza ofizialak bere laneko hizkuntza nagusi izango dituen, eta bereziki Erkidego bereko organismo, enpresa eta erakundeetarako sarrera izango duena.

Bi funtzio eta beharrizan hauek ez dira jasotzen proiektuan, berorek lehen arloa baino ez du hartzen eta. Horregatik, jarraian, geure

Erkidego Autonomoko egoera zirriborratuko dugu laburki, zuzenen ere berau dagokigunez eta ondoren, proiektuan gure beharrianak sartzeko ahalbidea aztertuko dugu, horrela, itzultzaile eta interpreta-rien ikasketen berrikuntzarako geure proposamena azalduz.

## **Euskararen kasua**

Atal honetan, geure Erkidegoko hizkuntz egoeraz arituko gara eta itzultzaile eta interpretarien prestakuntza zuzenki gehiena afektatzen duten gaiez aritu ere.

### **1. Egoera juridikoa.**

Euskara, espainierarekin batera, Euskal Erkidego Autonomoko hizkuntza ofiziala da, Euskal Herriko Erkidego Autonomoko Autonomi Estatutuko 6. artikulua xedatzen duenez. Azaroaren 24eko Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko 10/1982 Legeak, hiritarrek hizkuntz gaietan dituzten eskubideak eta gai honetan bertan botere publikoek dituzten betebeharrak garatzen ditu, botere publikoek beren betebeharrak betetzerat eta gizarte bizitzako arlo desberdinetan euskara sustatzera zuzendutako ihardunak definituz.

Bi hizkuntza ofizialen erabilpena espreski exigitzen den arlo desberdinen artean, arreta berezia merezi du zortzigarren artikulua, hitzez hitz honela dioelarik:

- 1.- *“Euskal Herriko Erkidego Autonomoan kokatutako botere publikoetatik ateratzen den arau-xedapen edo ebazpen ofizial oro, bi hizkuntzetan idatzita egon beharko du ofizialki argitaratzeko”.*
- 2.- *“Euskal Herriko Erkidego Autonomoan kokatutako botere publikoek eskuhartzen duten egitate oro eta jakinerazpen eta komunikazio administratiboak ere, bi hizkuntzetan idatzirik joan beharko dute, nola ez eta interesatu pribatuek, Erkidego Autonomoko hizkuntza ofizialetako bat erabiltzea espreski hautatzen ez duten”.*

Azpimarragarriak dira baita ere, irakaskuntzan, komunikabideetan, erakunde publikoen sarea, etab., bi hizkuntza ofizialak parekidetzeko joera duten xedapenak.

Honek, Administrazio Publikoak itzultzaile kontrataketak egitea ekarri du. Berorietako gehiengo nagusiak, ez du egin itzulpen ikasketarik eta bere gaitasuna, Euskal Herriko Erkidego Autonomoko bi hizkuntza ofizialen ezagutzatik datorkio, berau, bai pertsonalki eta baita itzultzaile bezala hartu duen esperientzian zehar lantzetik eta garatzetik datorkiolarik.

Une honetan, administrazio desberdinetan egun osoz diharduten laurogei itzultzaile baino gehiago dago eta beren kopurua erregulariki haziz doa.

## **2.- Egoera soziolinguistikoa.**

Euskararen ezagutza eta erabilpena, aldatu egiten da leku batzutatik bestetara. 1981eko Populazio Zentsuaren arabera, Erkidego Autonomoko biztanlegoaren %33 inguruk daki euskaraz mintzatzeko, proportzio hori eskualdeen arabera aldakorra izanik eskualdeen (zenbait eskualde arabarretako %2-3 euskal hiztunetatik, Bizkaiko Markina-Ondarroako %86raino edo eta Gipuzkoako Urola-Kostako %80raino) eta probintzien arabera (%53 Gipuzkoan, %25 Bizkaian eta %11 Araban).

Hala ere, inolako zalantzarik gabe esan daiteke, euskara berreskuratzeko eta bere erabilpena gizarte-bizitzako arlo guztietan normaltzeko gogoia, Euskal Herriko herritarren gehiengo nagusiak duen helburu amankomuna dela. Horrek, eremu desberdinetan euskara geroz eta gehiago erabiltzea ekarri du azken urteotan, orain arte berorietara ia sarbiderik izan ez arren: irakaskuntzan bere maila guztietan, Administrazio Publikoan, komunikabideetan, lanbidekoetan, merkataritzakoetan, etab.

Honek, goi mailako kualifikazioa duten itzultzaileak eduki beharra dakar, hizkuntza, oraindik euskaraz garatu gabeko alorren beharretara egokitzekeo gai izango direnak eta beren lana, beste hizkuntza



batzuen eta bereziki gaztelaniaren nagusigoak eragindako interfe-  
rentzi giroan egin behar dutenak.

### **3.- Hizkuntz batasun eta modernotze prozesua.**

Euskara, mendeetan zehar euskalki anitzetan desberdindua izan arren, batasun prozesua bizitzen ari da azken urte hauetan eta euskal hiztun guztientzat standard bakarra lortzea du helburu. Oraindik amaitu ez den prozesu hau, garapen aldian dago egun eta aurrerakada handia ezagutuko du euskalki desberdinen ekarpenak eta ahozko nahiz idatzizko usadiozko euskararenak eta sarbidea lortuz doan arlo berrietako beharizan bereziak bereganatuz. Era berean, lengoai maila desberdinak eta hizkuntz erregistroak ez daude beste hizkuntza batzuetan bezala zehaztuta, une honetan, birdefinizio eta sor-kuntz prozesuan aurkitzen dira eta.

Prozesu honen ondorioz, itzultzaileak, espainiera eta beste hizkuntza eta gai batzuk menperatzeaz gainera, euskara oso ondo menperatu behar du, baita euskalki nagusiak eta bere ahozko eta literaturako usadioak ere, beste hizkuntza normalizatu eta standarizatuagoe-tan eskatzen dena baino gehiago agian. Itzultzailea, euskal hizkuntza beraren normalizazio, garapen eta standarizatze prozesu honen fak-tore oso garrantzitsu bilakatzen da, hizkuntza giro berriei egokituz, hitz eta esamolde berriak sortuz, etab.

Gainera, azpimarratu beharra dago hemen, itzulpenak bereak di-tuen komunikazio funtzioez gainera, gure kasuan itzulpenak, funtzio pedagogikoak ere bete egiten ditu, ezen hizkuntzaren batasun egoera honetan alde batetik eta berreskurapen prozesuan bestetik, itzulpe-naren mailak, garrantzi nagusia bereganatzen bait du, izan ere euskal hiztun askorentzat, erabilpen zuzenaren eredu eta arlo berrietarako aplikazio eredu bihurtzen da eta.

### **4.- Egoera akademikoa.**

Itzulpenak duen garrantziaren eta administrazioko itzultzaile kopuruaren ugaldaren aurrean, Eusko Jaurilaritzak, 203/1986 De-kretuaren bitartez, Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile-Esko-

la sortu zuen, berau, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakundearen barnean kokaturik.

Bere izenak berak adierazten duenez, Eskola hau, Euskal Administrazio Publikoak Euskararen Arauzkotze eta Erabilpenerako Legetik sortzen zaizkion betebeharrak eta beharrezkoak aurre egiteko behar dituen administrazio-ikuntzako itzultzaileak sortzera zuzenduta dago. Eskola honetan sartzeko eskatutako baldintzengatik (Unibertsitateko Bideratzeko Ikasturtea gainditu izana eta Euskarako Gaitasun Agiria edukitzea, ikasle-ikuntzako asko unibertsitateko tituludunak direlarik), duen hiru ikasturteko ikasketak egitasmoa izateagatik, irakasten diren gaiengatik eta bertan dagoen irakasle-ikuntzaren titulazio eta espezializazioengatik, Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile-Eskolak, itzultzaileak prestatzeko nahi den unibertsitate maila argi eta garbi erakusten du.

Eskolak jarri duen helburuetako bat hain zuzen ere, irakaskuntza hauen homologazio akademikoa da. Gure borondatea da noski, egun Eskola honek emandako prestakuntza hau, etorkizunean unibertsitate mailakotzat eta homologatutzat aitortua izatea.

Unibertsitateak Euskal Herrian, oraindik behintzat ez du bere gain hartu itzultzaile prestakuntza eta zera uste dugu, alegia, itzultzailetza eta interpretaritzako ikasketen berrikuntzaren prozesu honen bidez, orain dela garaia eta unea, herrialde honek behar dituen itzultzaile eta interpretarien prestakuntza unibertsitariorako bide berriak irekitzeko, bai bere kanpoko harremanetarako eta baita Erkidego beraren barnerako ere.

Aipatutako Eskolaz gainera, badago beste pribatu bat ere, hiru ikasturteetan zehar itzultzaileei oinarrizko prestakuntza emateaz arduratzen dena. Euskaltzaindiaren eraginez sortua izan zen Eskola hau eta aurreko atalean azaldutako kokapen eta marko egokiaren gabeziak sortutako arazoak direla bide, une honetan iraupen arazoak ditu.

## **Ikasketa hauen unibertsital izaera eta aurkezten den proposamena**

Guzti horregatik, ezinbestekoa erizten dugu, euskara/gaztelaniazko itzulpen eta interpretari ikasketak, gure herrialdean unibertsital izaerakoak izatea. Beharrezkoa da gainera ikasketa hauek, gure herrialdean eta beste Erkidego Autonomo batzutan hizkuntza bat baino gehiagoren ofizialkidetasunetik eta euskararen erabilpena gizarte bizitzaren arlo guztietan normaltzeko borondateetik sortzen diren beharriaz erantzuna emateko adinako mailgutasuna dutenak izatea.

Ikasketa hauentzat desigarri litzatekeen homologazio mailari dagokionez esan beharra dago, puntu honetan, Euskararen erabilpena Arauzkotzeko Oinarrizko Legeak (Azaroaren 24eko 10/1982 Legeak), bere 12.1 artikuluan, zera ezartzen zuela, alegia, "*Eusko Jaurlaritzak, bi hizkuntza ofizialen arteko itzultzaile zinegin titulua lortu eta luzatzeko baldintzak erregulatuko ditu*" eta artikulua hori Auzitegi Konstituzionalaren aurrean Estatuko Gobernuak helegina izan zuela.

Arautegi Konstituzionalak, ez-konstituzionaltzat aitortu zuen artikulua hau, aurkeztu zen ez-konstituzionaltasun-helegitea kontutan hartuz eta beronek, Konstituzio Espainiarreko 149.1.30a. artikulua-aren aurkako izatean oinarritzen zuen bere alegazioa zeinak Estatuari esleitzen dion titulu akademiko eta profesionalen lorpen eta luzatze edo emate baldintzen erregulazioa.

Ondorioz, itzultzaile eta interpretarien prestakuntza unibertsital mailakoa izan behar duela estimatzen dugunez, hau une egokia dela uste dugu, Estatuko Gobernuak berak, Unibertsitateetako Kontseilua-aren bidez, hizkuntz ofizialkidetasunak beharrezko egiten dituen itzultzaile eta interpretarien prestakuntza eta titulazio baldintzak erregula ditzan, prestakuntza hori, balio ofizialarekin beharrezko mailetan luzatutako edo emandako ziurtagiri edo diploma soil bat baino izan ez dadin.

Kontsiderazio guzti hauek eginda, gure proposamena ez da ager-  
tzen igorritako iradokizun orrietan, ezen proposatutako ikasketen  
antolamenduarekin orokorki ados baldin bagaude ere, ez gatoz bat  
ikasketa horiei emandako orientazio bakarrarekin eta itzulpen lizen-  
tziaturan bi bide ahal edo titulazio desberdin izatea defendatzen du-  
gu.

Hasieran deskribatutako merkatu bikoitza kontutan harturik,  
proiektuari egoki irizten diogu helburuetako lehenengoa betetzeko,  
baina gure ustez nekez batera daitezkeen bi arlo direla uste dugu eta  
izangaiaren prestakuntza egokiarentzat komenigarria dela ikasleak  
hasieratik hautatu nahi duen arloa aukeratzea eta ondorioz presta-  
tzea, nahiz eta, aurrerago esango dugun legez, lotura bide bat ezar-  
tzea ere posible izan.

Horretarako, bi prestakuntz eta titulazio mota ezar litezke, gutziz  
homogeno eta homolagarriak, etorkizuneko itzultzaile edo interpre-  
tariak lortu nahi lukeen lan merkatuko postuaren arabera:

a) A aukera:

13 zk.dun aldearen txosten teknikoan garatua.

b) B aukera:

Non A hizkuntza ikastetxea kokatuta dagoen Erkidego Au-  
tonomo bertako hizkuntza ofiziala izango litzatekeen eta B  
hizkuntza berriz gaztelania.

Hauek izango lirateke itzultzailearen ohizko lan hizkun-  
tzak eta bere prestakuntza beharrian hauek betetzera zu-  
zendua izango litzateke. C hizkuntza berriz, nazioarteko  
hizkuntza bat izango litzateke eta laugarren hizkuntza ba-  
ten sarrerarentzat ere lekurik izango litzateke, nazioarteko  
izaera duen bigarrena, hautapenezko gaien artean. Ardatz  
diren gaiei dagokionez, nazioarteko harremani eskeinita-  
ko arloa zerbait murriztu ahal izango litzateke, murrizta-  
pen hori, Erkidego Autonomo bertoko gizartearen azterke-  
taz ordezkatuz.

c) Azkenik, posible litzateke aukera batetik bestera iragateko bide bat jartzea ere eta graduatu ondorengo izaera lukeen ikasketen bosgarren ikasturte bat eginez, pretauntza bi-koitza lortuko litzateke, hau da, bi ikaslerroen baterakun-tza, horrela ikasleak, bi tituluak eskuratuz eta bere ezauga-riak ondorengoak izanez:

- A hizkuntza: euskara edo eta gaztelania.
- B eta C hizkuntzak: atzerrikoak.
- Eta laugarren hizkuntza, gaztelania edo euskara li-tzatekeena, A hizkuntza bezala hautatutako hizkun-tzaren arabera litzatekeena.

Agian pentsa liteke, hemen lortu nahi den prestakuntza alternati-boa, hautapeneko gai edo ardatz ez direnen probetxamendu zuzena-ren bidez lor litekeela. Guk ordea, bide hori ez dela nahikoa uste dugu.

Ardatz ez diren gaien artean, izaera hautagarria duen laugarren hizkuntza sartzea aholkagarria den arren, aipatutako arazorik ez da konpontzen. Ziuraski, laugarren hizkuntza honen garapenak, ez luke A, B eta C hizkuntzez lortutako ezagupiderik iritsiko. Izaera hauta-garriko laugarren hizkuntza honi ikasketa egitasmoan aitortutako garrantzia hizkuntza ofizial bati eman behar litzaiokeena baino as-koz ere txikiagoa izan beharko luke. Geure proposamenean aurkez-ten dugun alternatiban, laneko funtsezko hizkuntzak, gaztelania eta al-dian aldiko Erkidego Autonomoko hizkuntza ofizialkidea lirateke, bietatik bat ere, laugarren hizkuntza hautagarriari emandako katego-ria eta garrantziaren mailara murriztuta gelditu ezingo litzatekeela-rik.

Areago oraindik, gai hautagarrien bide honetatik joko balitz ere euskarari behar lukeen garrantzia emanez, euskararekin batera, zu-zeneko eta alderantzizko itzulpen ikastaroei dagozkien gaiak, termi-nologia, etab. sartu beharko lirateke eta euskararen egoera berezia-ren aipamena egitean, jadanik ikusia dugu bere ezagutza eta prakti-kari zernolako garrantzia ematen diogun. Horrekin, ikasketa egita-

raua hainbeste gainkargutako litzateke, ezen ezinezko bilakatuko litzatekeela itzultzaile eta interpretarien prestakuntza profil egokia lortzeko eman beharreko gai osagarrientzat beharrezko diren kredituak zuzenki sartzea, horrek bestalde, proiektu horrekin lortu nahi den nazioarteko homologazioari onik egingo ez liokeelarik, kalte baizik.

Beste bide bat agian, Itzultzaile eta Interpretarien Eskolara sartu aurretik gaztelaniaren ofizialkidea den hizkuntzaren ezagutza maila ona exigitzea litzateke. Baina bide horri ere ez diogu behar adinakotzat irizten, zeren eta eskolara sartu aurretik maila hori exigitu arren, gero, gaztelaniarekin batera egindako ikasketa erkatuaren bidez asko ondua eta osatua izan beharko luke eta era berean hurrenez-hurreneko itzulpen gaiez, terminologiaz, etab., eta bi hizkuntzen oinarriko izaerak, ikasketa egitasmo guztia desorekatu beharko luke B hizkuntzaren kaltetan.

Euskara/gaztelaniako itzultzaile eta interpretarien prestakuntzak, beren ikasketetan A eta B hizkuntza euskara eta gaztelania izatea eskatzen du eta bi hizkuntzak oinarrikoak izatea, ikasgaiak ere hizkuntza horietan jasoz. Euskara ama hizkuntza bezala sartzek, lehenengo atzerriko hizkuntza edo B hizkuntza gaztelaniaz ordezkatzera garamatza derrigorrez.

Bestalde, egitarauan euskara —edo eta Estatu espainiarreko beste hizkuntza ofizialkide bat— oinarriko izaerarekin sartzek, atzerriko hizkuntzen garrantzia edo eta agian kopurua murriztera garamatza eta horrek aldi berean, berrikuntzarekin lortu nahi den nazioarteko parekidetzaren galera dakar.

Guzti horregatik, proposatutako egitarauetan itzultzaile edo interpretariaren prestakuntzan oinarriko hizkuntza legez euskara sartzek dakartzan zailtasunen aurrean, hobe dela uste dugu, Estatu espainiarrak, ofizialki anitzeleduna den egoera soziolinguistikotik abiatuta behar duen itzultzaileen prestakuntza bereziarentzat bide alternatibo bat irekitzeko hautapena egitea, prestakuntza malguzko egitaraua ezarriz eta beronetan, bide bakoitzari bere titulazio berezia emanaz, gure proposamenean adierazitako aukerak jasoz.

## SINTESIS

### **Algunas consideraciones acerca de la renovación de los estudios de traducción e interpretación**

Acerca del informe técnico sobre la renovación de los estudios de traducción e interpretación elaborado por el grupo 13 y enviado al Consejo de Universidades, diremos que, en general, el perfil del traductor e intérprete presentado por el informe nos parece correcto, así como la duración y titulación de los estudios, lo que respecta a las pruebas de acceso, el trabajo de investigación de fin de carrera, etc. Discrepamos en cambio en la definición de la lengua materna o lengua A, pues en el informe sólo se contempla como tal el español, cuando deberían ser lengua A todas las lenguas oficiales del Estado. Es decir, al definir la función del traductor y su preparación, habría que tomar en cuenta por un lado las relaciones internacionales del Estado, y por otro su realidad multilingüe. Estas dos funciones diferentes, sobre todo la que surge de las necesidades específicas de las Comunidades Autónomas que poseen lengua propia, no están recogidas en el proyecto.

En lo que respecta al País Vasco, a fin de responder a las necesidades impuestas por el Estatuto de Autonomía, hay unos ochenta traductores trabajando en la Administración, que no poseen estudios específicos de traducción.

En nuestro caso, al tratar de elaborar el perfil del traductor y de su preparación, hay que considerar la situación sociolingüística del euskara, es decir, proceso de normalización del uso de la lengua, así como el proceso de unificación y modernización del euskara.

Por todo ello, el traductor euskaldun, enfrentado a una lengua en situación muy delicada, tiene que estar incluso mejor preparado que otros. Hay que subrayar también que en nuestro caso la traducción, además de la función comunicativa que le es propia, cumple también una función pedagógica por la especial situación del idioma.

En lo que respecta a la situación académica del traductor en la Administración vasca, diremos que el Gobierno Vasco, enfrentándose a las nuevas necesidades, creó una Escuela de Traducción Administrativa, dentro de IVAP (Instituto Vasco de Administración Pública). Dada su estructura y funcionamiento, esta Escuela ha mostrado siempre su vocación universitaria, y uno de sus objetivos es de hecho el paso a la Universidad.

Además de esta Escuela, existe otra de carácter privado, creada por Euskaltzaindia, y que debido a la falta de marco adecuado está hoy en riesgo de desaparición.

Así, éste nos parece momento apropiado para pedir al Gobierno del Estado que a través del Consejo de Universidades, regule lo concerniente a la preparación y titulación de los traductores que la cooficialidad lingüística hace necesarios.

Nosotros proponemos la creación de un título doble, o dos títulos, totalmente homogéneos y homologables, a fin de responder a las diferentes necesidades más arriba nombradas -las derivadas de las relaciones de ámbito internacional y las necesidades específicas dentro de las Comunidades bilingües-, y por las razones sociolingüísticas ya señaladas; y estructuradas de tal modo que el estudiante pudiera optar desde un principio por el título que más le interesara. En esta propuesta, la lengua A sería la propia de cada Comunidad Autónoma, y lengua B el español. Proponemos también la creación de un quinto curso que sirviera de puente entre las dos.

## SYNTHESIS

### *Some arguments on the renovation of the studies of translation and interpretation*

*With regard to the technical report about the renovation of the studies of translation and interpretation, prepared by the group 13 and presented to the University Council, we shall say that in general, the profile of the translator and interpreter designed by the report seems accurate enough, as well as the length and degree of the studies, as far as the entry tests are concerned, the end of studies research work, etc.*

*However, we cannot agree with the definition of mother tongue or A language, as in the report it is considered as such only the Spanish language, when A language should be any of the official languages of the State. That is, when defining the translator function and his/her preparation, it should be taken into account, on one hand the interanational relationships of the State and on the other hand its multilingual nature. This two different functions, above all the one that comes out from the specific needs of the Autonomous Communities which have a language of their own, are not mentioned in the report.*

*With regard to the Basque Country, and in order to answer to the needs imposed by the Autonomous Statute, there are about 80 translators working at the Administration, which do not have specific studies on translation.*



*In our case, when trying to design the profile of a translator and his/her preparation, it must be considered the sociolinguistical situation of the basque language, that is, the processus of normalization of the use of the language as well as that of unification and updating of the "euskara"*


*For that reason, the basque translator, having to face a language which founds itself in delicate position, must be even better prepared than others. It should also be stressed that in our specific case, translation besides its usual communicative function, fulfills a pedagogical function due to the special situation of the language.*

*As far as the academic situation of the translator in the Basque Administration, we shall say that the Basque Government, facing the new needs, established a School of administrative translation, within the IVAP (Basque Institute of Public Administration). Due to its structure and performance, this school has always shown its university vocation, and one of their aims is in fact to become a part of the University.*

*Apart from this school, there is another private one, established by Euskaltzindia and that due to a lack of an appropriate frame, risks its extinction.*

*In this sense, we find this a suitable moment to ask the Government of the State that through the University Council, regulates all matters concerning the degree and preparation of translators which linguistic co-officiality makes necessary.*

*We propose the establishment of a double degree, or two degrees, both homogeneous and with a similar value at the same time, in order to respond to the above mentioned needs and for the sociolinguistical reasons already pointed out; and structured in such a way that the students could choose between one degree or another. In this proposal, A language would be the specific one for each Autonomous Community, and B language would be Spanish. We also propose the establishment of a fifth course which would work as a bridge between the two of them.*



## **Etorkizuneko Itzulpen Lizentziatura: zenbait ohar kritiko**

Xabier Mendiguren

Unibertsitate irakaskuntzen Eraberrikuntz Ponentziak, 1987ko apirilaren 9an, eta 13. taldearen txosten tekniko gisa, Itzulpenean Lizentziatu Titulua ateratzeko karreraren zuzenki orokorrak argitaratu zituen. Sarreran esaten denez, dokumentu honek balio informatibo soilu du eta debatea aberastea eta egituratzea beste helbururik ez duela aitortzen dute egileek. Gainera, Unibertsitateen Kontseiluak jakin egin nahi omen du Instituzio eta osatzen duten talde eta kolektiboen iritzia zein den. Argitaratu zen egunetik arrazoizko epe bat irekita geratzen zela esaten da aipaturiko sarreran ekarpenak egin nahi dituzten pertsona eta erakundeen iritzia jasotzeko. Informazio guzti hori bildu ondoren sistematizatu, editatu eta berriro erakunde guztietara bidaliko da bigarrenez aztertua eta hausnartua izan dadin, ondorengo erabaki hartzea errazteko. Edozein zalantza argitzeko edo azalpen eskatzeko Unibertsitateen Kontseiluaren Koordinakuntza Akademikorako Idazkariordetzak honako telefono zenbaki hau eskaintzen zuen: (91) 244.49.74.

Dakigunez, lanean ari diren itzultzaile elkarte eta kolektibo batek baino gehiagok egin dizkio kritikak lehen-zirriborro honi eta guk hemen eskaintzen dugun iritzia APETI itzultzaile elkartearen baitan

mamitu dena izango da. Kritikara pasa aurretik, Unibertsitateen Kontseiluak argitara eman duen txosten teknikoa agertuko dugu aurrena eta ondoren ekingo diogu proiektuaren kritika egiteari.

**Unibertsitateen Kontseilua. 13. lantaldearen txosten teknikoa.**  
**Titulua: Lizentziatua Itzulpenean**

- Irakaskuntzen egitura 1. zikloa (titulu terminalik gabe) eta 2. zikloa
- Bidalketa-data 1987ko apirilaren 24.

**Irakatsien profila**

Itzulpenean Lizentziatu titulua lortzera zuzenduriko ikasplanak eratuko dituzten irakatsiek berezko izatez disziplinar-tekoak izan beharko lukete, eta hiru bloke handitan taldekaturik egon:

- a) izaera tresnazko hizkuntzazkoa duten gaiak;
- b) itzulpena eta interpretaritzari buruzko izaera teorikozko gaiak; eta
- c) "edukinezko" gaiak: Artea eta Humanidadeak, Zuzenbidea eta Herri Administrazioa, Ekonomia eta Merkatalgoa, Politika eta Soziologia, Zientzia eta Teknologia, eta abar.

Irakatsiek organismo, enpresa eta erakundeetan beren lana garatu ahal izateko erako profesionalak formatzeko aukera eman beharko lukete, eta horretarako ezinbestekoa da Zuzenbide, Ekonomia, Soziologia, Politika, Zientzia eta Teknologiarri buruzko ezaguera orokorren jabe izatea, baita unibertsitate mailako kultura orokorrarena ere, bi hizkuntza atzerritarren domeinua gutxienez izateaz gainera. Itzulpenean Lizentziatu direnen lan eremu izango dira, halaber, nazioarteko organismoak ( esaterako, Europar Komunitateen Batzordea, Europar Parlamentua, F.A.O., Nazio Batuak, eta abar.) prestakuntza mota hau eta titulazio baliokidea eskatzen dutenak.

Irakaskuntzen iraupen estimatua: 4 urte

Gutzizko zama lektiboa: Gutxienez 240 kreditu. Gehienez 300 kreditu

Gai enborrak

Gutzizko zama lektiboa enbor gaitan: 96 kreditu

%a gutzizko zamaren gehienaren gain: 40

Gai enborren zerrenda (alfabetoaren arabera):

**A Hizkuntza (ama hizkuntza).** Espainiera garaikidearen deskribapen xehetu eta zehazkiro zientifikoa, beronen erabilera tresnazko komunikatiboa eta ezaugarri diferentzialak bereziki azpimarratuz.

**B Hizkuntza (1.go hizkuntza atzerritarra).** Alemaniera/frantsesa/ingeleza...hizkuntzen deskribapen xehetu eta zehazkiro zientifikoa, beraren erabilera tresnazko komunikatiboa eta ezaugarri diferentzialak bereziki azpimarratuz.

**C Hizkuntza (2. hizkuntza atzerritarra).** Alemaniera/frantsesa/ingeleza/arabiera, italiara, errusiera, portugesa eta abarren ikasketa trinkoa, harik eta B hizkuntzaren pareko ezaguera maila lortu arte.

**Harreman nazioartekoak.** Zuzenbide Nazioartekoaren sorburuak; Organismo Nazioartekoak; politika eta ekonomia nazioarteko garai-kideak.

**Itzulpen-teoria.** Hizkuntzalaritza itzulpenari aplikatua. Itzultzailearen ekintza profesionalaren deskribapena. Itzulpen teoria eta praktikaren joera eta "eskola" desberdinen ikasketa.

**Terminologia eta dokumentazioa.** Lexikologia eta Terminologia-rako sarrera itzulpenarekiko erlazioan; ikerketa dokumentalerako teknikak eta iturburuaren erabilera (datibaseak, liburutegiak, dokumentazio zentruak eta abar.)

**Itzulpen orokorra (zuzenekoa) B hizkuntzatik B hizkuntzara.** Testu ez-espezialduen analisisa. Itzulpen prozesuaren eta tekniken eta estrategien ikasketa, hizkuntza atzerritarreko testuak norbere

hizkuntzara itzuli eta berauen gainean egindako ariketa praktikoez ilustratua. Itzulpenen ebaluaketa eta kritika.

**Itzulpen orokorra (zuzenekoa) C hizkuntzatik A hizkuntzara.** Testu ez-espezialduen analisia; itzulpen prozesuaren eta tekniken eta estrategien ikasketa, hizkuntza atzerritarreko testuak norbere hizkuntzara itzuli eta berauen gainean egindako ariketa praktikoez ilustratua; itzulpenen ebaluaketa eta kritika.


Kredituak		
Teorikoak	Praktikoak	Guztira
3	9	12
3	9	12
6	21	27
9	—	9
9	—	9
9	—	9
—	9	9
—	9	9

### **Ezaguera-eremuak**

- Filologia espainiarra
- Hizkuntzalaritza Orokorra
- Aldian aldiko hizkuntzari dagokion filologia.
- Aldian aldiko hizkuntzari dagokion filologia
- Zuzenbide Nazioarteko Publikoa eta Harreman Nazioartekoak.

Itzultzaileen eta interpretarien formazioa Unibertsitate Eskolen zuin barruan burutu da orain arte. Itzulpenaren eta interpretaritzaren alorrean, zuin barru hau ez dela egokia ikusi da, zeren, alde batetik, ikasprograma hiru urtetara laburbiltzera behartu bait du, ikaslearentzat horrek dakarren gehiegizko zama lektiboarekin eta, bestetik, zailtasunak planteiatu eta eragozpenak sortu ditu nazioarte mailan titulu horiek onartuak eta parekidetuak izan daitezen eta, zehazkiago, Europar Komunitateen mailan.

Itzulpen eta interpretaritzaren alorrean, gaur egun Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko eta Granadako Unibertsitateko Itzultzaile eta Interpretarien Unibertsitate Eskoletan ematen den formazio profesional unibertsitarioak duen helburua profesionalak prestatzea da, beren lana organismo, enpresa eta erakundeetan egin dezaten, non ezinbestekoa izaten baita Zuzenbide, Ekonomia, Soziologia, Politika, Zientziak eta Teknologiazko ezaguera orokorrak izatea, baita unibertsitate mailako kultura orokorra ere. Gure titulatuen lan eremuak bere barruan hartzen ditu, halaber, organismo nazioartekoak, zeinek eskatzen duten gisa honetako prestakuntza eta titulazioa (esaterako, Europar Komunitateen Batzordea, Europar Parlamentua, FAO, eta abarrek.). Formazio maila hau Alemaniako Errepublikan Federala, Belgika, Frantzia eta Suitzan dauden Itzulpen eta Interpretaritzako Unibertsitate-Institutuenen parekoa da. Berauetan titulazioak lizentziatura balioa du eta ikasketek 4 urtetako iraupena dute. Egitura hau merkatuaren premia errealei eta eskari sozial eta laboral jakin bati erantzuteko pentsaturik dago. Hau nabarmen geratzen da 1981ean Europako 12 herrialdeetan burutu den inkesta baten emaitzetan, non isladatzen baita portzentaiaetan burutzen diren itzulpen mota desberdinen banaketa:



*Itzulpen eskariaren banakera*

– Itzulpen komertziala .....	(%35,4)
– Itzulpen industrialia .....	(% 21)
– Itzulpen zientifiko-teknikoa .....	(% 20)
– Itzulpen juridikoa .....	(% 9,3)
– Egungotasuna/prentsa-itzulpena ...	(%3,5)
– Itzulpen audio-bisuala .....	(% 2,1)
– Irakaskuntz itzulpena .....	(% 1,5)
– Literatur itzulpena .....	(% 0,3)
– Beste batzuk .....	(% 6,9)

Ikusten denez, itzulpen eta interpretaritzako zentruetako irakas-kuntza eskari hau asetzera orientatzen da.

Europar Ekonomi Elkartek hezkuntz gaietan hartu duen politika osatzen duten herrialdeetako unibertsitate programa amankomunak sustatzera orientatzen da funtsean, eta horretarako dirulaguntzak izendatzen dizkiete Unibertsitateei, zeinek, Europako beste Unibertsitate batzuekiko lankidetzan ikasprograma amankomunak garatzen bait dituzte, ikasleen elkartruke librerako aukera emanez eta baita jatorrizko herrialdean homologagarriak diren titulazio atzerri-tarrak lortzea ere. Gertaera honek garrantzi berezia du itzultzaileen eta interpretarien formazioaren kasuan, izan ere nabaria baita atzerriko zentruetan ikasketa-egonaldiak egitearen premia, berauekin zerikusia duten hizkuntz, zibilizazio eta kultur ezaguerak hobetzeko.

Nazioarte mailan onarturiko itzultzaile eta interpretarien formazioarako unibertsitate zentruetako ikasprograma gehienetan (besteak beste, Heidelbergeko Unibertsitateko Itzultzaile eta Interpretarien Institutuan eta Monseko Unibertsitatean) nahitaezkoa da “stage” bat zentro atzerriar batean burutzea titulazioa lortu ahal izateko. Baldintza hau ere ezinbestekoa izango litzateke espainiar Itzultzaile eta Interpretarien Formazio Zentruetan, baina ezingo litzateke praktikan jarri, baldin eta ikasplana eta karreraren iraupena ez badira moldatzen Europar Ekonomi Elkarteko herrialdeen araura.

Besteak beste, hau beste arrazoi bat gehiago da Itzulpen eta Interpretaritzako ikasketa unibertsitarioak 4 urtetako karrera batean anto-



latzeko, alor honetan erantzumen aitortua eta esperientzia luzea duten europar zentroak eredutzat harturik.

### **OHARRAK:**

- 1) Itzulpen/interpretaritzaren eremu profesionalean onarturiko terminologian, A hizkuntza ama hizkuntza da, zeinetara itzultzen bait da; B hizkuntza, zeinetatik itzultzen eta interpretatzen bait da; eta C Hizkuntza ezaguera pasibozko mailan menperatzen dena da.
- 2) "Itzulpen Lizentziatura" rako zuzenkietan honako hauek kontutan hartu beharoko lirateke:
  - a) Sarrerako gaitasun proba bat.
  - b) Karrera amaierako ikerketa lan bat (ezinbestekoa EEEaren eremuan ikasketak baliokidatu eta homologatzeko.)
  - c) Lan hau Tribunal batek ebaluatuko luke, zeinaren partaide izan bailitezke eremu profesionaleko espezialistak (elkarte profesionaletako kideak) eta CIUTI (Conférence Internationale des Instituts de Traducteurs et d'Interprets)ren kide diren beste unibertsitate zentroetako irakasleak.
  - d) Postgraduatu ikasketak, Master erakoak, Konferentzi/Kongresuetako Interpretaritzan espezialista titulu bat lortzeko pentsatua.
- 3) Halaber, sortu beharrekoa litzateke "Itzulpen eta Interpretaritzari aplikaturiko Hizkuntzalaritza" izeneko ezaguera eremua.

### **APETI-Kahane txosten kritikoa**

APETI elkartearen eskariz E. Kahane jaunak txosten kritiko bat idatzi du Itzulpen lizentziaturako ikasketak planari buruz. Hona hemen laburki dokumentuak funtsean esaten duena:

Itzultzaile eta interpretari lanbideak orain arte ez dute izan formaziobide egituratu eta formalik, ezta irizpide kontsentsuatu eta onarturik ere praktika profesionalerako. Horregatik are garrantzikoagoa da helburu horiek praktikan jarriko dituzten tresna eta bitartekoak distortsio gabeak izan daitezen, presio korporatiborik gabe, eta irizpide akademiko eta profesionalen arabera, Unibertsitatea gaur eguneko Komunitate Unibertsitarioko kideen ondare delako ideia burutik kenduz.

Espania EEEn sartzean eta herrialde industrialduekin elkartzean, ekonomi jardueraren ugaltze bat gertatu da. Honen ondorioz itzultzaileen zerbitzu profesionalen eskariaren ugaltze bat gertatu da, nahiz eta parez pare, eskaintza erregelatu eta praktika profesionalak onarturiko irizpidez abalaturiko bat sortu ez den. Gauza bat dago argi, itzultzaileok gure formazioaren ordenamenduan lankidetzak eskaintzen ez badugu, jarduerarako irizpideak eskainiz, orduan agintariak, edo merkatuak berak egin beharko dute guk egiten ez duguna. Ez badugu laguntzen profesioan sartzeko eta aritzeko irizpideak sortzen, kalitate mailak jaitsi egingo dira, lan-baldintzak endekatuz eta gure eginkizunari duintasuna kenduz.

### **Erreforma egutegiaren gaurko egoera**

1983ko Unibertsitate Erreformako Legeak Unibertsitate Kontseiluaren figura sortu zuen ikasketa espezialitate bakoitzari dagokion titulua arautzeko. Marko arautzaileak lantzea eta proposatzea egiten du Unibertsitate Kontseiluak, baina Unibertsitate bakoitzak egin beharko du marko arautzaile horien arabera, bere ikasketa planen lantze eta onartzea.

Gaur eguneko fasea onartzearen aurrekoa da, beraz ageriko eztabaida aldiari gaude, hain zuzen Elkarte eta Kolegio Profesionalei dagokien eztabaidazkoan.

### **Erreformaren edukinak**

Itzulpenaren kasuan LRU-ren 30. artikuluan oinarriturik, Irakas-kuntza Unibertsitatearen Erreforma ponentziak, lizentziatu titulua proposatzen du (lau urteko karrera herrialde komunitarioetan ikasketa horiek duten iraupenaren parean jartzeko.)

### **Sarrera baldintzak.**

13. Lantaldeak egin duen txosten teknikoan kezagarria gertatzen da ikasketa unibertsitarioetara zer baldintzatan irits daitekeen aipatu ere ez egitea, nahiz eta hau lehen elementu funtsezkoa izan ikasketa maila jaso eta profesional bat segurtatzeko. Ez da egia, Txosten Teknikoaren IV orrialdean esaten denez, orain arte Uniber-

tsitate Eskoletan garatu den Espainiako Itzultzaile eta Interpretarien formazioa desegokia izan dela zama lektiboa hiru urtetara mugaturik egon delako. Desegokitasuna suposamendu kontzeptual erratu bate-tik abiatzen delako izan da hein batean. Itzultzaileen eta interpreta-rien prestakuntza hizkuntz irakaskuntzatik funtsez berezten den zer-bait da. EUTIak hizkuntz eskolak izan dira baina ez itzultzaile-pres-takuntza batek eskatzen dituen baldintza guztiak betetzeko diseina-turiko unibertsitate zentroak. Itzulpen teoria eta praktikaren irakas-kuntzan hizkuntzak bitarteko dira, eta ez egitarau akademikoaren helburu. Beraz funtsezkoa eta erabakiorra da (Paris, Ginebra eta Hei-delbergeko beste unibertsitateetan bezala) ikasleek aurretik dakarten ezaguera maila gutxienez Hizkuntz Lizentziatura baten, bigarren ama hizkuntza baten edota atzerrian egonaldi luzeak egin ondoren lortzen denaren baliokidea izatea.

### **Bertsio hizkuntza**

Txosten Teknikoan kurtsoaren barruan ikasleari eman behar zaion orientazioaren aipamenik ere ez da egiten, baizik eta eginda-kotzat ematen da ikasleek B eta C hizkuntzetatik espainierara itzul-tzeko jarraituko lituzketela kurtsuak. Edozein europar unibertsitate-tan, espezialitate honetako kurtsuak dituztenetan, hau ez da inoiz ho-nela gertatzen. Ikasleria kultur jatorri desberdinetakoa izaten da eta espainiera bertsio hizkuntza ez duten ikasleen premiak asetzeko eran egituratzen eta orientatzen dira kurtsuak. Hasiara batean frantsesa eta ingelesa ere eskain litezke aukerazko bertsio hizkuntzatat, baina hau unibertsitateek ageriki aitortu behar dute beren eskaintzetan, be-ren oinagiturazko baliabideen, irakas ahalmenaren eta urte lektibo bakoitzean egon litekeen profesional eskariaren arabera, izan ere atzerriko unibertsitateek irizpide hauek kontutan hartzen bait dituzte.

### **Irakaslegoa**

Lehenago esan dugu EUTIen porrota hizkuntz eskola bezala eta ez itzulpen espezialistak sortzeko pentsatuak egotetik datorrela eta horregatik, laugarren urte lektibo bat eransteak ez luke ezer aldatuko funtsean, proiektu berria porrotera kondentatuz. Itzulpena eta inter-pretaritza bezalako espezialitate baten irakaskuntzak aurre-baldintza

batzuk eskatzen ditu (ikasleen sarrera maila), ikasketa edukin jakin batzuk eta irakasle espezialistazko ekipo bat, disziplina espezifiko horietan formatuak. Itzulpen eta interpretaritzako profesionalik gabe eginkizun honetan aritu izan diren bost erakunde atzeritarrek erabat porrot egin dute. Aldiz, premia hau ezagutu eta onartu duten erakundeek bakarrik lortu dute kalitate oneko graduatuak ateratzea.

Itzulpenaren irakaskuntza bere izaeraz disziplinanitza da, baina disziplina lagungarrietako bakar bat ere ez da berez erabakiorra. Disziplina lagungarrietako irakasleak (arte, zuzenbidea, filologia, ekonomia eta abarrekoak) espezialdua izan behar du nork bere sailean eta zuzenki orokorren eta ikasketa planen arabera aritu behar du.

Era berean, derrigorrezkoa da irakasleak ama hizkuntzatzat edukitzea ematen den kurtsua orientatzen deneko bertsio hizkuntza, batez ere asignatura teoriko-praktiko eta lan praktikoen ardura duten irakasleek.

### **Edukinak**

Enbor gaiei dagokienez, eta lizentziatura hizkuntzen ikasketa aurreratu bezala hartzen duen kontzepzio erratu batekiko leialtasunean, karga lektiboaren % 61 baino gehiago filologiako ikasketei eskaintzen zaie eta % 18 eskas itzulpen lizentziatura bati legozkiokeen ikasketei. Ikaskurteetarako sarrera mailak eta hizkuntz ezaguerak egokiak badira, filologiari dagozkion asignaturek lagungarrikoak soilik izan behar dute. Era berean, ekonomiazko nozioak ere lagungarrikoak dira ekonomiari buruzko testu bat itzultzeko. Itzultzaile eta interpretariak ez dira filologoak. Badira zenbait arazo filologiko ikasketen barruan tratatuak izan daitezkeenak, baina egitura eta helburu oso ezberdinei dagozkien arazoak dira.

Itzulpenean ezaguera idiometrikoak beti testuingururatuak izan behar du eta itzultzaile/interpretariaren formazioak lanean erabiltzen dituen hizkuntzen unibertso kultural, humanistiko, zientifiko eta teknikoan ahalik eta ezaguera zabalena eskuratzen saiatu behar du.

Hutsune batzuk nabarmenak dira: enbor gaietako disziplina formatzaile orokorrak; irakasle espezialduen gonbidatuen posibilitatea; atzerrian egiten diren formazioaldiak, Europako beste unibertsitate batzurekin trukean.

Tituluak, dagoen bezala, itzultzaile generalistak prestatzea du helburu. Ez da ezer aipatzen konferentzietako interpretarien prestakuntzaz: itzultzaileen prestakuntza orokorrerako ematen diren disziplina asko baliagarri izan daitezke interpretaritzako ikasleentzat ere. Dena den, Interpretaritzako Lizentzia batek aparteko gogoeta bat eskatuko luke.

### **Titulu Ofizialaren helmenari buruzko goetak**

Konstituzioaren 36. artikulua profesio titulatuaren arauketaz dihardu. Legeak oraindik ez ditu definitu aurretiazko titulazioa beharrezko dituzten profesioak. LRU-ak, bere 28.1 artikuluan zalantza piska bat sortzen du Titulu Ofizialek nazio barruti osoan balioa izango dutela aitortzen duenean, baina ez dago garbi baliozkotasun hau eskusiboa izango den ala ez. Nolanahi ere, legegileak defini ditzake profesio konpetentziak, zeren eta titulu akademikoak ez bait du berekin konpetentzi esparru espezifikorik, baldin eta Legeak ez badu erabakitzen ihardueraren arauketa.

Hutsaldi honetan, oraingoz, merkatuak definitzen ditu jarduera profesionalerako konpetentziak.

Badirudi egoera honek ez lukeela luzatu behar eta aurrea hartu beharko geniokeela legegileari itzultzaileok profesio konpetentziak zedarrituz, kalitatea, LRU-k sortzen dituen baldintza berriak eta eskubide historikoekiko arreta kontutan hartuz, baina irizpideak bateratuz. Beharrezko izango da formazio profesionalerako konpetentzia guztiak Hezkuntza Ministraritzara ekarraztea eta jarduera profesionalerako eskubidearen homologazioarekin zerikusia duten auziak Elkarte profesionalen eta Gobernuaren artean bien adostasunez itunduriko irizpideen arabera konpondu beharko dira, titulazio eta homologazioen ugaritasun eta bikoiztasuna eragozteko. Aurrekoaren kasu partikularretako bat Zinpeko Interpretariena da.

P.D. Txosten Teknikoak eskaintzen duen B Hizkuntzaren definizioa erratua da. Ez da hizkuntza, zeinetatik itzultzen den. B hizkuntza, nazioarteko irizpideen arabera hizkuntza aktibo, ez amagandikoa da, zeinetara interpretariak interpreta dezakeen.

## SINTESIS

### **Proyecto de licenciatura en traducción: Exposición y crítica**

La Ponencia de Renovación de estudios universitarios, en abril de 1987, y como informe técnico del grupo 13, publicó las enmiendas generales para acceder al título de Licenciado en Traducción. Este documento tiene únicamente valor informativo, con la finalidad de estructurar y enriquecer el debate. Además, abre un plazo para recoger criterios y opiniones de instituciones y personas interesadas en el tema.

Tras hacer una presentación del proyecto, el autor pasa a exponer las críticas que ha recibido por parte de algunos colectivos, APETI principalmente.

#### **Proyecto del Grupo 13**

El documento diseña claramente el carácter de los conocimientos que se habrían de impartir; serían fundamentalmente interdisciplinarios y se dividirían en tres áreas: lenguas auxiliares, teorías de la traducción e interpretación y asignaturas de 'contenido' (Arte y Humanidades, Derecho, Administración Pública, Economía, Política, etc.)

En lo que respecta a la duración de los estudios, teniendo en cuenta que hoy en día se imparten en escuelas universitarias, lo que supone una duración de tres años, y está claro que es insuficiente, se tendería a igualarlos con otros países europeos, donde duran cuatro años. Desde este punto de vista, hay que decir también que la CEE trata de homologar los estudios a todos los niveles dentro de los países de la Comunidad; por otro lado, en estos países es siempre necesario un 'stage' del alumnado fuera de su país, lo que por el momento no es posible dentro del actual plan de estudios del Estado español.

Se contemplan también en el proyecto otros aspectos, como puede la necesidad de hacer un trabajo de investigación como fin de carrera, imprescindible para la equiparación del título, etc.

### **Informe crítico de Kahane-APETI.**

El señor Kahane, por encargo de APETI, ha elaborado un informe crítico acerca del mencionado proyecto.

En primer lugar, sería necesario que en la elaboración de estos informes tomaran parte los traductores, a fin de preservar la calidad y dignidad de la profesión.

Según Kahane, el problema —y el fracaso— de las EUTI no se debe a la duración de los estudios, ni se solucionaría por lo tanto alargándolos. El problema es que más que escuelas de traducción son escuelas de idiomas. Esto supone que habría que prestar especial atención a que el alumno entrara ya bien preparado en este aspecto, exigiéndole un buen conocimiento de una o más lenguas.

Por otro lado, en el informe se da por supuesto que todas las traducciones se harían al español, lo cual difiere totalmente del sistema seguido por otras universidades europeas, donde existen varias lenguas-versión entre las que puede elegir el alumno.

En lo que respecta a los contenidos, se ve en la propuesta una sobrecarga de las asignaturas relacionadas con la Filología (61%); hay que tener en cuenta que la Filología es una disciplina auxiliar para el traductor, y que el saber de éste ha de ser básicamente interdisciplinario; por lo tanto, se trata de procurar al alumno el universo cultural, científico, etc. más amplio posible, es decir, el contexto amplio en el que se sumergen las lenguas. Esto nos lleva también a la cuestión del profesorado, cuya calidad y profesionalidad habría que tener muy en cuenta.

Habría que definir bien —se ven ciertas contradicciones entre la Constitución y la LRU— el alcance del título, posibles casos de competencias problemáticas, etc..

## **SYNTHESIS**

### ***A project for a Degree in Translation: Exposition and Criticism***

*The Board for the renewal of high level studies published a technical report done by the group 13 in 1987, in which the general corrections to get a degree in translation were presented. This document only has an informative value and its purpose is to structure and to enrich the debate. Besides, it offers a delay to gather criterias and opinions from institutions and persons interested in the subjects.*

*After introducing the project, the author informs about the criticisms received on the side of some groups, mainly APETI.*

### ***The project of de Group 13***

*The document clearly designs the character of the subjects to be taught: they should basically be of a general nature, and divided into three areas: auxiliary languages; translation and interpretation theory; and other subjects, such as economics, politics, arts, law, public administration etc.*

*Nowadays translation studies are being taught in universital schools and that means a three year term, clearly insufficient; the objectif would be to equal other Europeans countries, where they last four years.*

*From this point of view, it must also be said that the EEC is trying to equal studies at all levels within the countries of the EEC; on the other hand, it always comes necessary for students in these countries to stay abroad for a while. This is not yet possible in Spain, given its present system of education.*

*Other aspects are being taken into account too, such as the need to carry out a research work at the end of the studies, something essential to make the titles equivalent.*

### ***Critical repport of Kahane-APETI***

*Mr Kahane, by assignment from APETI, has written a critical repport about the said project.*

*First of all, he considers that it would be necessary for the elaboration of this kind of repports, that translators took part, in order to maintain the quality and dignity of the proffesion.*

*As Kahane says, the problem and failure of the EUTIs is not due to the length of the studies, neither would it be solved by assigning them more time. The problem is that they are more a kind of language schools than translation schools. This means that special attention should be given to the admittance of students, who should have a solid preparation mainly in other languages.*

*On the other side, it is taken for granted in the repport that all translation should be made into Spanish, which absolutely differs from the system followed in other European universities.*

*Regarding the contents, there are too many subjects related to linguistics (61%) in the proposal; it must not be forgotten that linguistics is an auxiliary tool for the translator and that his/her knowledege should be of a general kind; that is why the purpose ought to be to procure the student with a cultural and scientific background, as wide as possible.*

*It should be well defined—as there are contradictions between the Constitution and the LRU—the scope of the degree, the problems with the competitions, and so on.*



Steinbeck, John: **The pearl**. Itzulpena: R. Ordorika: **Perla**

Beatriz Zabalondo

“Que si yo me llevo a ver  
una vez desesperado,  
o me meto a traductor  
o me degüello o me caso.”

Liburuaren azalean dioenez, “*Inoiz idatzi den nobela labur, indartsu eta hunkigarrietako bat da*”. Liburu hau, literatura unibertsaleko Perla klasiko bat omen da, baina gure hizkuntzan ez beste guztietan beharko du.

Itzultzailea: Ruper Ordorika. Joño, ezaguna!

Musika arloan bagenuen haren berririk, baina harrিতa geratu ginen liburu azalean izena irakurri genionean.

Diska berri bat erosi eta entzuteko izaten den irrika berdinarekin heldu genion liburuari, belarriak eta barrena poztu asmoz, aurkezpenean zekarrenak bultzatuta.

Eseri gara bada eta prestatu egundoko arte obraz gozatuko genuelakoan eta horra non antzematen diogun, lehenengo orrialdean bertan, diska, raiatua dagoela: ...eta...eta...eta...

*“Hirian perla haundiaren istorioa kondatzen da - nola izan zen aurkitua eta nola galdu zen atzera. Kino arrantzaleaz aritzen dira, eta bere emazteaz, Juana, eta haurraz, Kioitito. Eta istorioa horrenbestetan kondatu denez, guztien buruetan errotu da. Eta herriaren bihotzean dauden errepikaturiko istorio guztietan bezala, gauza onak eta txarrak daude soilik, eta gauza zuriak eta beltzak, eta parte onekoak eta parte txarrekoak, eta erdibiderik inon ere ez.*

*Istorio hau parabola baldin bada, akaso nork bere zentzua aterako dio eta bere bizitza propioa irakurriko du bertan. Dena den, hirian esaten duenez...” (7. or.).*

Raiatuarena sarrerako lau lerroetakoa izango zela eta agian gero-  
nen hutsunea era izan zitekeela pentsatuz, aurrera jarraitu genuen;  
baina belarriak zikinak nonbait, edota gu, ez ginen gauza han ze-  
torrena ulertzeko:

*“Atetik kanpo makurtu eta mantaren muturrak belaunetan bildu zituen. Goiko hodeien makulak pizten ikusi zituen aidean. Ahuntz bat inguratu zitzaion eta usain egin zion begi hotz eta beilegiekin” . (10. or.)*

*“...Juanaren sua garretan zegoen eta argi lantzak jaurtikitzen zituen adarrezko etxabolaren hormetako zirrikituetatik eta argi errektangulo kulunkari bat igortzen zuen atetik kanpo” . (10-11. or.)*

*“Oso gizena jartzen ari zen eta ahotsa erlatsa zuen, eztarrian presioa egiten zion haragiagatik” . (19. or.).*

*“Eta lastimazko zafalada batek jo zuen prozesio guztia” (20. or.).*

*“Geldiro, kapela arrenkaria jantzi zuen. Gero, kezkatu gabe, atea jo zuen ukaldi bortitzez. Behekalde-  
ra begiratu zien harriturik bere hatz-kosko zurituei eta hatzartetik zerion odolari” . (20. or.).*

*"Akzidente bat gerta dakieke ostra horiei. Hondar ale bat muskuluaren tolesturetan erori eta mamia urratuz gero, autoprotekzioan, alea zementu geruza leun batekin estaliko litzateke"* (24. or.).

*"Aukera eskasa zen baina zoriona eduki ahal zen eta izpirituak alde"* (25. or.).

Adibide hauek garbi erakusten digute, Ordorikak ondoen jakin behar zukeen hizkuntza (euskara) ez duela menderatzen; zenbatean ote daki sorburu hizkuntza (ingelesa)?

Sorburu hizkuntza ezagutzen ez denean, itzulpena, baliakizun bat da literatur obrak irakurtzeko, zeren itzuli, obra konkretu bakoitza idatzita dagoen hizkuntza ulertzen ez dutenentzat bakarrik itzultzen da. Eskuaratean daukagun liburuaren aurrean ordea, zer pentsatu ez dakigula gaude. Ingelesa ez dakitenentzat itzulia izango bada, baina guk geuk, ez diogu euskararen aztarrenik, inondik inora ere aurkitzen (eta ahalegintxo batzuk egin ditugu).

Ez dakigu zenbat denbora eta zein kondiziotan egin duena itzulpena Ordorikak, eta jakina, hau ere kontutan hartzekoa da kritika egiteko orduan. Hala eta guztiz ere, lotsa piska bat behar da edonoren lanak alferrik galdu aurretik...

*"In Kino's head there was a song now, clear and soft, and if he had been able to speak of it, he would have called it the Song of the Family".*

*"En la cabeza de Kino había una melodía, clara y suave, y si hubiese podido hablar de ella, la habría llamado la Canción Familiar".*

*"Kinoren buruan kantu bat bazegoen orduan, argi eta goxo, eta hartaz mintzatzeko gai izanez gero, Familiaren Kantua deituko zion"* (10. or.)

Aposizioa (argi eta goxo) ez du mugatu eta erreferentzia galdu egin du; originalean kantua da eta euskarazkoan, aditza.

**"It was Juana arising, almost soundlessly. On her hard bare feet she went to the hanging box where Coyotito slept, and she leaned over and said a little reassuring word".**

"Era Juana levantándose casi sin ruido. Descalza se acercó a la cuna de Coyotito, se inclinó sobre él y pronunció unas palabras de cariño".

*"Juana ari zen ia soinurik gabe jaikitzen. Oin indartsuak ortozik, Coyotito lo zegoen eskegitako kaxaraino joan zen, haren gainera alderatu eta hitz adoretu bat esan zion"* (10. or.).

Nola aldera daiteke norbaiten gainera? Berdinak al dira *reassuring word*, palabra de cariño eta hitz adoretua !!

**"Kino squatted by the fire pit and rolled a hot corncake and dipped it in sauce and ate it".**

"Kino se agachó junto al hogar, extrajo una tortilla caliente, la mojó en salsa y se la comió".

*"Kino sutondoan makurturik, taloa bildu eta tomatea saltsan gantzatu eta jan egin zuen"* (12. or.).

Sorburu testuan Kinok taloa saltsatan bustita jaten duen bitartean, Ordorikak, taloa gutxitxo nonbait eta tomatea eman dio, eta gramatika konkordantziei jaramonik egin gabe, -k kendu dio.

**"...the curved thorn on the tail's end..."**.

"...la garra curva de su extremo..."

*"...puntako atzapar kurbatua..."*

Orain arte ez dugu jakin eskorpioiek hatzaparrak zituztenik.

**"Then, snarling, Kino had it, had it in his fingers, rubbing it to a paste in his hands".**

"Al momento Kino lo había cogido entre sus manos, aplastándolo".

*“Kinok harrapatuta egin zuen orduan, marmarka. Hatzekin harrapatu eta eskuarekin zanpatu”*. (14. or.).

**“And Kino saw her determination and the music of the family sounded in his head with a steely tone”**.

*“Eta Kinok haren erabakia jakin eta Familiaren Musikak altzairuaren doinuz jo zion buruan”*. (15-16. or.).

Etabar, etabar, etab... Barkatu norbaiti hitz gogorrekiak iruditzen baldin bazaizkio, baina liburu hau irakurriko duenik ez dago. Esaldi jator eta egokirik apenas duen, eta militante gogorra izateaz gain, masokista xamarra ere izan behar da liburuak hasi eta bukatzeko. Nola eman liteke baimenik horrelakoak argitaratzeko? Non daude argitaletxeko hizkuntz arduradunak?

*“...quien esto escribe no comprende cómo las cárceles y juzgados de este país (a pesar de indultos y amnistías) no están llenos de traductores... Cierta y demostrable es asimismo, el lecho de que el lector español (euskaldunon kasuan ere berdin-berdin) está siendo sistemáticamente engañado, robado, estafado e inducido a error, cuando lee un libro traducido por el que ha pagado 500 o 1.000 pts.”* (J.C. Santoyo).

Gure lan hau, ez da irakurketa mailatik pasa zeren alferrikakoa deritzogu kritika serio sakonagoetan sartzea, **Perla** honek ez bait du hainbesteko nekeak hartzerik merezi. Itzulpenetan egin behar ez diren guztiak bertan dauzkagu: aditz pobrezia, lexiko aukeraketa desegokia, antolamendu aldrebasa, interpretazio kaxkarrak...

Erakutsi izan zaigu, itzultzeko ez dela nahikoa gramatika aplikatu eta hiztegia erabiltzen jakitea. Itzultzeko gai edonor ez dela begibistakoa da, eta zoritxarrez adibide askotxo daukagu inguruan; Perlarena ez da kasualitatea. Liburuak ez dira egun batetik besterako lanaren fruitu, argitaratu aurretik esku askotatik pasa behar izaten dute.

Balorea behar da holako perlak itzuli, ergitaratu eta gainera izen propioez sinatzeko!!!



**IRUZKINAK**





## **Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea**

**META.** Journal des traducteur. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol.32, N. 3, septembre 1987.

La fertilisation terminologique dans les langues romanes.  
Actes du colloque de Paris, octobre 1986.

### **Sommaire-Contents**

Avant-propos. *F. Algardy.*

Le statut de la formation des mots savants en français et en anglais.  
*W.Zwanenburg.*

Phonétisation automatique du français et aménagement phonético-graphique des emprunts à l'anglais. *P.Trescases.*

Traduction, fertilisation et interprétationalisation: les calques en espagnol. *J.C. Santoyo.*

Les résistances à la néologie terminologique. Système lexical et facteurs socio-culturels. *M.F. Mortureux.*

- Les noms d'action en tant que termes. *I. Beszterda et J. Sypnicki.*
- Les syntagmes nominaux complexes en anglais et en français: éléments de réflexion. *M.J. Jastrab de Saint Robert.*
- Néologismes et contact des langues. *A. Caputo, E. Enrico et F. Mascucci.*
- Les anglicismes dans la presse d'information économique espagnole. *M. Meunier-Crespo.*
- Fertilisation ou intégration. *A. Mdibeh.*
- De l'image au mot. Les procédés de lexicalisation dans et par la radio-totitoir. *P. Ngandu Nkashama.*
- Terminologies scientifiques et techniques en langue portugaise: projet de recherche. *J. de Azevedo Ferreira.*
- L'atelier de vocabulaire de Bruxelles. *M. Lenoble-Pinson.*
- Le cinéma américain et la langue française. *G. Petiot.*
- Vers une terminologie musicale afro-américaine: problèmes, techniques, solutions. *A. Prevos.*
- Problèmes terminologiques des "pluies acides": pour une socio-terminologie. *Y. Gambier.*
- L'emprunt sémantique dans la terminologie de l'informatique. *J. Humbley.*
- Le miroir aux alouettes en intelligence artificielle. *J. C. Boulanger.*
- Le statut de l'emprunt dans le domaine de l'enseignement assisté par ordinateur. *D. Don.*
- Le trait d'union parasite dans la terminologie de l'informatique. *P. di Virgilio.*
- Comment rendre en français les termes anglais dérivés et composés à la fois? *Ch. Schapira.*
- Une matrice terminologique universelle: la brachygraphie gigogne. *A. Clas.*
- Fertilisation terminologique ou insémination terminologique artificielle. *Ch. Portelance.*
- De la nécessité des enquêtes linguistiques pour le travail des commissions de terminologie. *J. P. Goudaillier.*
- Liste de membres du colloque.

**META.** Journal des traducteur. Translators' Journal. Organe d'information et de recherche dans les domaines de la traduction, de la terminologie et de l'interprétation. Vol. 32, N. 4, décembre 1987.

### **Sommaire-Contents**

#### **In Memoriam**

Memorandum. Bundesverband der Dolmetscher und Übersetzer E.V. (BDÜ).- Joint University and Industry Committee.

L'équivalence en traduction. *R. P. Roberts e M. Pergnier.*

Translation Theory: Where Are We Going? *R. T. Bell.*

The Semantic and the Cognitive in the Text: A Problem in Equivalence. *V. Komissarov.*

Les exercices d'interprétation et la dégradation du français: un étude de cas. *D. Gile.*

Délivrer la Bible: la théorie d'E. Nida. *S. Simon.*

#### **Études terminologiques et linguistiques**

Étude de l'emprunt boxer dans le domaine vestimentaire. *G. Marschal.*

Introduction de la notation phonologique pour la description du système notionnel. *A. Topulos.*

Réglons donc ce cas! *P. C. Abinakle.*

Le Québec produit-il de l'amiante ou de l'asbeste? *M. C. Cormier et P. E. Menassa.*

La répudiation de contrat, terme acceptable ou à proscrire? *J. C. Gemar.*

#### **Documentation**

Bibliografie

Comptes rendus.

### **Bloc-Notes**

Un regard sur le passé. *L. Bertone.*

Pour un enseignement de l'expression orale dans les écoles d'interprétation. *J. D. Katz.*

Dictionnaire universel des traducteurs. *H. van Hoof.*

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXIII. N.2/1987.

### **Sommaire-Contents**

Editorial

#### **Articles**

On promoting Literary Translation from Dutch. *Joost de Wit*

The Literary Translator as a Tightrope Walker. *Cora Polet.*

The Dissemination of Foreign Literature in the Netherlands. *Cora Polet.*

More about the Translatability of Metaphor. *Menachem Dagut.*

Metaphor across Language and Culture. *Mary M. Y. Fung - K. L. Kiu.*

## **Le monde de la traduction -The World of Translation**

La vie de la FIT - The Life of FIT.

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT

Revues et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT members societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

BELGIQUE: Littérature et traduction en Belgique, une approche.

Collection UNESCO d'oeuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

## **Informations bibliographiques et lexicographiques**

### **Bibliographical and Lexicographical Information.**

E. BURGER, G. KORZAK: Dictionary of Robot Technology

LEXICOGRAPHICA. International Annual for Lexicography. - Revue Internationale de Lexicographie - Internationales Jahrbuch für Lexikographie. Edited by A. KUCERA, A. REY, H. ERNST WIEGAND and L. GUSTA.

## **Forum**

GYÖRGY RADÓ: Niederländische Literatur in ungarischer Sprache. Kapitel aus einer historischen Übersicht.

## **Nos auteurs -Ours authors**

Ale honetan, Nederlandeko itzulpengintza eta itzultzaileen egoera (iraganean eta gaur egin) aztertzen dituen hiru artikulua aurkitzen ditugu.

Joost de Witek, Holanda eta Flandriako literatura kanpoan promozionatzeko egiten diren ahaleginez dihardu. Neerlandera, hedadura txikiko hizkuntza.

tza izaki, bere literatura atzerrian eza-gutarazteko, itzulpena bultzatzeko beharra ikusi dute. Helburu horrekin sortu zen 1954 urtean, "Foundation for de Promotion of the Translation of Dutch Literary Works in Amsterdam" izeneko erakunde priobatu eta independentea, Holanda eta Belgikako kultur Ministeritzen babespean. Urtean, eta itzulpenetara mugatuz, 50etik 80 titulu bitartean argitaratzeko diru laguntzak ematen ditu, eta ahaleginik handiena egiten du, argitalpen kostuak gutxitu eta itzultzaileei erraztasunak emateko.

Beste ikuspegi bat dakar Cora Poletek bere bi artikuluetan: "The Literary Translator as a Tightrope Walker" eta "The Dissemination of Foreign Literature in the Netherlands". Datu zehatzetan ondo jantzia dago eta aurreko artikulua panorama oparoa, goibelago ikusiko dugu. Lehenengoan, hasi itzulpenak azken mendeotan izan duen rola aztertze eta gaur egungo Niderlandeko itzultzaileen finantza egoera errukariaren berri emateraino doa ("Foundation"-ak ematen dituen diru laguntzak barne!).

Bigarren artikuluan esaten digu, nederlanderara itzultzen diren testu literarioek (%90eta, ingelesa, alemaniera eta frantsesetik), ez dutela arrakasta handia. Polet andrearen ustez ditu laguntzak ez dira asko itzulpena bultzatzeko, eta egoera aldatuko bada, argitaletxe eta itzultzaileek bat eginik, kritikaren interresa piztu eta propaganda zabaldu be-

harko dute komunikabideetan, liburuak publikoki ezagutarazteko.

Itzulpen teoria eta praktikaren oinarriko arazoetako bat, metaforaren tratamendua da. Gai honi loturiko zenbait alderdiri heltzen diote, M. Dagutek eta M. Y. Fungek artikulua banatan.

Dagutek aspalditxo ekin zion lan honi (BABEL 1976, 1. zkia.), Harregero Newmark jaunak eta Mason andreak ere idatzi izan dute aldizkari honetan bertan gai honi beroni buruz (1980, 2. zkia eta 1982, 3. zkia.).

Oraingoan Dagutek, bere lehen lanean aurkeztu zituen adibideetatik abiatu eta aipatutako bi autoreen iritziak jasoz, beste jorratu bat egiten du metaforaren inguruan.

Fung andreak txinotik ingelesera eta ingelesetik txinorako itzulpenetan aztertu du metaforaren arazoa. Adibide ugari (ulertezinak gehientsuontzat) azaltzne ditu, eta ondorio gisa dio: "Metaforen itzulgarritasuna ez datza soilik kultur esperientzien amankomunitasuna eta bi hizkuntzen arteko asoziazio semantikoetan, Dagutek bere artikuluan dioen bezala". Areago arazoak ere aipatzen ditu: "We find that abstractions and states of mind, the spiritual realm and the supernatural world are most at variance between SL and TL culture, resulting in untranslatability. But (...) when the metaphorical concept of SL and TL communities correspond, the translation process is normally most efficient".

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the diield of translation. Vol. XXXIII. N.3/1987.

### Sommaire-Contents

Editorial

#### Articles

Influence de la localisation du sentiment de contrôle et de l'attitude religieuse sur la manière de traduire – expériences pilotes. *Bogna Opolska-Kokoszka.*

Cultural problems of Arabic-English Political Translation. *Leon Y Barkho.*

Polysémie et traduction spécialisée (anglais-français). *Dorothy Nakos.*

Translating "The Other": Nabokov and Theories of Translation. *Rodney Giblett.*

#### Le monde de la traduction -The World of Translation.

La vie de la FIT - The Life of FIT.

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT

Revues et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and Newsletters of FIT members societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation: facts and figures.

BELGIQUE: Littérature et traduction en Belgique, une approche II.

Collection UNESCO d'oeuvres représentatives - UNESCO Collection of Representative Works.

**Informations bibliographiques et lexicographiques**

**Bibliographical and Lexicographical Information.**

M. MEERENDONK. Basic Gurkhali Dictionary

LEXeter '83 Proceedings. papers from the International Conference on Lexicography at Exeter:

URSULA KÜHL DE MOSES. LOS inicios de la lexocografía del español del Uruguay.

T. R. ONISSI. Elsevier's Dictionary of the Cement Industry. English, Franch, German, Spanish, Japanese.

R. FREJWILLING, K. MACEK, K. PROCHÁZKA, I. SAXL. Dictionary of Physical metallurgy. English, German, French, Russian, Spanish.

OTTO VOOLLNHALLS. ELSEVIER'S Dictionary of Word Processing. English, Franch, German.

G. C. KING. ELSEVIER'S Dictionary of Electronics. English, French.

MIKHAIL GRIGORYEVICH KOTIK. Dictionary of Aerospace Engineering.

Übersetzer - Kuriere des Geistes. Vom Übersetzen ins Deutsche.

Traduction / Textualité — Text / Translatability.

Terminologie - Terminology

JERZY PIENKOS, ZYGMUNT STOBERSKI, ANIELA YOPULOS. Concept - Term - Definition and Their Significance in International Communication.

**Forum**

Subsidies for the translation and publication in foreign languages of works forming part of Spanish literary and scientific heritage.

KLAUS GOMMLICH. IV Internationale Konferenz «Gründgragen der Übersetzungswissenschaft»

Nos auteurs -Ours authors



FITek argitaratzen duen aldizkariaren 1987ko hirugarren zenbaki honetan irakurgai ditugun artikulua, munduko lau ertzetatik datoz: Europa (B. Opolska-Kokoszka); Asia (L. Y. Barkho); Amerika (D. Nakos) eta Australiatik (R. Giblett).

BOGNA OPOLSKA-KOKOSZKAK, XHan hitzak eta espresioak auke-ratzeko itzultzailearen ideologiak zerikusirik ote duen begiratzen du. Krakoviako Unibertsitatearen filologia erromanikoko irakaslea den honek, esperimendu modu bat egin du: 32 ikasleri testu frantses berbera banatu, eta ondoren, haiek polakora egindako itzulpenak aztertutitu.

Faktore psikologikoak, itzulpeko orduan eraginik badutela frogatu nahian ekin zion ikerketa honi. Horretarako, jarrera erlijiosoa eta sentimenduen kontrola aztertu ditu bere ikasleen itzulpenetan (itzulpenaren beste baloraziotan sartu gabe). Argi uzten du, esperimendu honetan parte hartu duten ikasle kopurua, urriegia dela lortutako emaitzei metodo estatistikoak aplikatzeko. Hala ere hauek dira emaitzak:

- Norberaren jarrera erlijiosoa, itzultzen den testuan isladatzen da: Erlijioarekiko jarrera "positiboa" dutenek, esanahi erlijioso garbia eranstean diote, erlijio eremua ukitu besterik egiten ez duten espresioei (ez zuzenean ukitu, beti ere). "Ezezko" jarrera dutenek, hitzaren aspektu erlijiosoa neutralizatu edo inoiz gaitzetsi ere, egiten dute.
- Sentimen mailan, "contrôle extérieur" azaltzen dutenek, hi-

itez-hitzezko itzulpenak egiten dituzte gehienbat; "contrôle intérieur" dutenek ordea, interpretaziorako joera azaltzen dute.

Ondorio hauek ikusita, C. Roy eta H. Rosnerowaren iritziekin ados azaltzen da B. Opolska-Kokoszka, eta honela diosku: "*Il semble que la projection de ces attitudes dans le processus de la traduction se passe souvent dans l'inconscient, d'est pourquoi il est très difficile de l'éviter. (...) le traducteur devrait traduire les textes dont le contenu est conforme à ses propres convictions*".

Leon Y. Barkho profesoreak, testu politikoak arabieratik ingelesera itzultzerakoan sortzen diren arazoez dihardu, bere artikuluan: hizkuntz arazok eta kulturalak, hain zuzen ere (hizkuntza-artekeoz gain kultura-arteke arazok). Barkho, Mosul unibertsitateko irakaslea da, Iraken; eta bere artikuluan ematen dituen adibide gehientsuenak, herri artako erakunde izenen itzulpenari buruzkoak dira. Halere, ez ditu ahazten beste herri arabiarrik; batetik sistema politiko desberdinekoak direna eta bestetik berdintsukoak izanarren, beste izen batzu erabiltzen dituztenak beren erakundeak izendatzekoñ. Izen era espresiook eguneroko nazioarteko prentsan azaltzen direnez, artikulua interesgarria dateke maila honetan edozein hizkuntzetara itzultzen duten itzultzaile zein interpretarientzat. Irtenbide gisa, autorea hitzez-hitzezko itzulpenaren ondoan, parafrase motz bat edo erabiltzearen alde azaltzen da.

Dorothy Nakosek, hitzaren polise-mikotasuna du bere gaiaren ardatza. Sarritan gertatzen da, itzultzaile elebidu-

nak hitzaren esanahi guztiak jakinda ere, ez dakiela zein aukeratu behar duen testuinguru konkretu batean. Kasu hau larriagoa da zientzia eta teknika gaiak itzultzen ari garenean. Autoreak dioen bezala, "hiztegi espezializatuen" mailan, hizkuntzak zerbait izan behar badu, zehatza eta anbiguotasun bakoia behar du izan, et ahonela dio: "*dans l'indication systématique du domaine d'emploi, aussi précis que possible, dans les dictionnaires et texiques (...) peut contribuer à faciliter la compréhension de la notion à l'étude et éviter les erreurs de la traduction*".

Nabokov ez zen soilik beste idazle batzuren (Pushkin eta Lermontov) itzultzaile komentzionala; itzulpen teoriarria eta bere lehenengo lanen itzultzaile ere bazen (errusieratik ingelesera itzuli bait zituen). Bere "magnum opusa" **Ada or Ardor. A Family Chronicle** da, eta hiru hizkuntzatan idatzia izateagatik (ingeleza, errusiera eta frantsesa), obra honen itzulpena desafioa da. **Ada** frantsesera itzuli beharko balitz (edo errusierara), ingelesez dagoena frantsesez eman beharko litzateke (edo

errusieraz), frantsesezkoa errusieraz (edo errusiera frantsesez) edo beste hizkuntza batean (ingeleza ere igual). Baina frantsesa (edo errusiera) beste hizkuntza batera itzuliko balitz, errusiera (edo frantsesa) itzuli gabe utzi liteke. Orduan, itzulpena ote modu hau? Gisa honetako arazoei egin beharko dio itzultzaileak **Ada** itzultzerakoan.

Honela heltzen dio bere gaiari R. Giblettek, "Translating "The Other": Nabokov and Theories of Translation" artikuluan. Bertan Nabokoven itzulpen printzipio eta metodoak aztertzen dituelarik.

Azkenik, **Collection UNESCO d'oeuvres représentatives** sailean, eta **Babelek** egin ohi duenez, UNESCOk argitaratzen dituen literatur ondare unibertsaleko obren berri ematen zaigu. Obra bilduma honen 40. urteurrenean, Edouard J. Maunicken artikulua dugu irakurgai. UNESCOko Kultur Hedakuntzarako sailaren arduradun eta Obra Adierazgarrien UNESCO bildumaren zuzendaria den Maunick jaunak, obrak aukeratzeko zein prozedura jarraitzen duten azaltzen du.

**BABEL.** Revue Internationale de la Traduction. Organe Officiel de la Fédération Internationale des Traducteurs. Publié avec le concours de l'UNESCO. Organe trimestriel d'information et de recherche dans le domaine de la traduction. International Journal of Translation. Official Organ of the International Federation of Translator. Published with the Assistance of UNESCO. Quarterly Journal devoted to information and research in the field of translation. Vol. XXXIII. N.4/1987.

## Sommaire-Contents

Editorial

### Articles

Translation: interlingual, intercultural, and ... *György Radó.*

Putting Translation Theory Into Practice. *Karla Déjean Le Féal.*

Text connectors - a reading aid *Monika Doherty.*

### Le monde de la traduction -The World of Translation.

La vie de la FIT - The Life of FIT.

Les Organes de la FIT - The Organs of FIT

Revue et bulletins des sociétés membres de la FIT - Reviews and  
Newsletters of FIT members societies.

Climats de la traduction: faits et chiffres - Climates of Translation:  
facts and figures.

### TANZANIA

Collection UNESCO d'oeuvres représentatives - UNESCO Collec-  
tion of Representative Works.

### Informations bibliographiques et lexicographiques

#### Bibliographical and Lexicographical Information.

Dictionary of Metallurgy and Foundry Technology, ed: KARL  
STOLZEL

A.F. DORIAN: Elsevier's Encyclopaedic Dictionary of Medicine.  
Part a: General Medicine.

J.D.VAN DER TUIN: Elsevier's Dictionary of Water and Hydraul-  
lic Engineering.

Dictionary of High-Energy Physics, ed: R. SUBA.

JULIO-CESAR SANTOYO: Traducción, Traducciones, Traductores.

Translation Excellence: Assessment, Achievement, Maintenance.  
ed: MARILYN GADDIS ROSE.

JEAN DELISLE: La traduction au Canada. Translation in Canada.

Preklad vcera a dnes, ed: JAN VILIKOVSKY.

MILAN HRALA: Soucasnost umeleckého prekladu.

HEMRI VAN HOOFF: Précis pratique de traduction médicale.

Terminologie -Terminology

Ile Congrès de l'OIUNT (ZYGMENT STOBERSKI)

## Forum

JIDE TIMOTHY ASOBELE: Problèmes d'adaptation et de traduction de Langbodo par Wale Ogunyemi.

## Nos auteurs -Ours authors

G. RADOK dioenez, normalean, editorialetan, aldiazkarian datozen artikuluen berri zehatza ematen zaigu edo ale bereziren bat baldin bada, bertarako aukeraturako gaiari buruzko hurbilpena egiten da. Hamairu urte daramatza erredakzio batzordeko zuzendari lanetan eta, bi printzipiotan oinarritzen omen da bere eginkizuna:

- Aldian behin, bere eskutik idatzitako artikuluren bat argitaratzea. (Aldizkaria editoreen lanekin saturatzea komeni ez den arren, inoiz bere ahotsa ere entzun erazi behar du, inork pentsa ez dezan dena beste batzuk egiten dutela).

- Bere ideiekin bat ez datozen artikulua ere argitaratzea noizean behin, interesgarriak baldin badira behintzat.

Ale honetan datorren bere artikulua lehenengo arrazoi horrekin justifikatu du.

Ezer bada, itzulpena hizkuntza arteko arazoa da. SH eta XH kultura eremu desberdinetakoak baldin badira, orduan itzulpena kultura arteko arazoa ere bada (itzultzaileak, desberdintasun linguistikoek gain, kulturalak ere hartu behar bait ditu kontutan).

1986ko Urrian, Eliza Katolikoaren ordezkariak alde batetik eta, hungariar,

sobietar eta beste filosofo marxistekin bestetik, nazioarteko konferentzia batean bildu ziren Budapesten. Giza harremanak eta erantzukizunak, lan arazoak eta beste zenbait arazo moral eta sozial ez ihardun zuten. Bi alderdientzat interesa zuten gaiak aztertu zituzten soilik, inolako ideologia kontutan sartu gabe (ikuspuntu zeharo desberdinak bait dituzte honetan). Baina bi alderdiatakoek, benetan elkar ulertu eta elkar lanetan aritu nahi badute, RADOK, itzulzaile eta traduktologo ikuspuntutik begiratuta, elkarrizketa osoago bat burutzeraz bultzatu nahi ditu. *"If two equally honest parties do not understand each other it is because they speak different languages -whether the difference be lingual or cultural or ideological - and therefore it is the translator's task to mediate between them"*. Hau da, itzulpenak, horretarako borondaterik balego, bi alderdi ideologiaz desberdinak direnak, elkar ulertzeko izan behar du.

Bigarren artikulua, K. DEJEAN LE FEALen eskutik dator. STko autorearen esanahia ongi ulertu, eta ulertutako hori autoreak berak (egin izan/ahal balu) bigarren hizkuntza (XH) horretan idatziko zukeen legez jartzea da, itzul-

penaren helburua.

RADOK dio, ideia hau berak azaldutakoarekin bat datorrela, baina DEJEAN LE FEALek aipatzen dizkigun desberdintasun linguistikoez gain, ideologikoak ere ikusten ditu SH eta XH-aren artean.

Hirugarren eta azken artikuluan, MONIKA DOHERTYk itzulpenaren beste alor bat ezartzen du: lotura elementuak SH eta XHetan: ingelesa eta alemanari dagokionean, hain zuzen ere.

Loturako elementu horiek, hitzak, hitz multzoak zein ortografiako markak izan daitezke, eta idazleak berak aukeratu eta jartzen ditu, bere testua irakurterrezagoa izan dadin (besteak beste).

Loturazko elementuak, ingelesezko eta alemanezko testuetan jotkatzen duten rola aztertzen du M. DOHERTYk (hizkuntza bakoitzean desberdina), eta itzulpenaren ere kontuan hartu beharrekoak dira diferentzia horiek, estilistikoki, xede testu koherentea lortu nahi bada.

**Cuadernos de Traducción e Interpretación. Quaderns de Traducció i Interpretació.** E.U.T.I. Escuela Universitaria de Traductores e Intérpretes. Universidad Autónoma de Barcelona. Bellaterra. 8/9.

Aldizkaria oraingo honetan ale bikoitza da. Poesia eta itzulpen poetikoari buruzkoa. Hain liburu txikia izateko aberatsa deritzogu, hizkuntza oso desberdin eta ugarietako

poesien itzulpenak bait dakarzkigu, hala nola: frantsesa, ingelesa, italianoa, suediera, portugesa eta arabieratik gaztelarazkoak. Euskarara itzulitako Pessoren lau poesia

ere badatoz baina akats asko aurkitu dizkiegula esan behar.

Autoreek beren itzulpenak egi-terakoan aurkitu dituzten oztopo eta zailtasunak azaltzen dizkigute eta era berean eginkizun honi buruz duten teoria eta esperientzien berri erakusten:

- "El traductor de una obra poética ha de ser un cultivador de la poesía" (8-9. or.).

- "To change nothing, to omit nothing and above all, to add nothing" (9. or.).

- "... el arte de la traducción poética requiere "tiempo" (86. or.).

- "Hay que elegir. Y, puestos en la disyuntiva de sacrificar algo, saber qué se puede inmolar y qué no, sin destruir el efecto global del poema" (89. or.).

## Indice

**Informe:** Poesía y traducción poética.

La traducción de la "Commedia" de Dante: "terza rima" o nada. *Anjel Crespo.*

El Elliot de aquella adolescencia nuestra. *M. L. Rosenthal.*

Versiones inglesas de José Angel Valente. *Derek Harris.*

Para traducir a Mallarmé: la imitación de las estructuras. *Pilar Gómez Bedate.*

"El soneto en ix" de Mallarmé: ensayo de traducción y comentario. *M. Arranz.*

Fernando Pessoa Euskaraz. *Joseba Uribelarrea.*

Traducción poética: traducción ceñida, ejemplificada en tres cantos de Leopardi (XII, XIV y XXVIII). *Miguel Requena Marco.*

Poemas de "Passeig d'aniversari" (Paseo de aniversario) de Joan Vinyoli. (*Versiones de Lourdes Güell y Fernando Valls.*)

Sobre traducciones, traiciones y selecciones. *Emilio Barón y Maria Luisa Baron.*

Doce poemas de Werner Aspenström. (*Versión de Lasse Söderberg y José Luis Giménez-Frontín.*)

Algunos poemas de Sulafa Hiyawi. *Ingrid Bejarano Escanilla.*

Sandro Penna o la "Tragedia oscura della bellezza". *Pedro Gandía Buleo.*

Poetas canadienses en francés. *Emilio Barón y Maria Luisa Baron.*

La poesía canadiense y sus traductores al español. *Emilio Barón y Maria Luisa Baron.*

### Artículos

Dostoevsky and Cervantes in the theory of Bakhtin; the theory of Bakhtin in Cervantes and Dostoevsky. *Donald Fanger.*

La osadía de un tímido: una introducción al "Diario" de Samuel Pepys. *Bernd Dietz.*

Reflexiones para una traductología del texto literario. *Teodoro Sáez Hermosilla.*

"Gargantua i Pantagruel" al catalan per primera vegada: consideracions entor d'una traducció. *Miquel Angel Sánchez Pérriz.*

La llengua catalana dins el marc històric- social. *Phillip D. Rasico.*

Contribution a une pédagogie de l'interprétation. *Phillipe Curvers, Jean Klein, Nina Riva y Claude Wuilmart.*

Las traducciones de la obra de Balzac en la prensa periódica española del siglo XIX (I). *Lidia Anoll.*

Notas sobre Joubert en España. *Nuria Illas i Losa.*

Destouches en España. *Juan A. Rios Carratala.*

### Entrevista

Angel Crespo: *Enrique Badosa*

Entrevista con Angel Crespo: *Fernando Valls*

### Reseñas

“La osadía de un tímido: una introducción al “Diario” de Samuel Pepys” deritzaion artikuluan B. Doatz-ek, gure artean ezezaguna den Samuel Pepysen egunkariari buruzko erreflesioak egiten ditu.

Egunkaria 1660ko Urtarrilaren 1etik, 1669ko Maiatzaren 31 bitartekoa da, eta takigrafikoki idatzita dago; bate-tik, azkar idatzi asmoz eta bestetik, kurrusoan begietara ulerkaitza gerta zedin.

Pepysu ez zitzaion burutik pasa ere egin, bere egunkaria egunen batean argitaratua izango zenik, nahiz era bere liburutegi osoarekin batera Magdalene College-ri utzi zion.

Bernd Dietzek egunkariaren balio historikoa eta literarioa aztertzen ditu. Balio historikoa, Pepysek ematen dituen datu pila eta garaiko bizimoduaren argazki dokumentatu zehatza egiten duelako. literatur balioari dagokionean berriz, hona hemen saiakeran bertan aipatzen diren zenbait autoreren iritziak:

- Galamiel Bradford: *“Pepysek aparteko dohaina zuen ikusi eta sentitzen zuena, ikusi eta sentitzen zuen zehaztasunarekin adierazteko”*.
- Percival Hunt: *“Egunkariaren prosa miresgarria da. (...) Pepysek etorri ahala idazten zuen; eta modu horretan idazten bazuen zen, halaxe pentsatu eta sentitzen zuelako”*.

Guztien artean aipagarria da baita ere, artikulua azkenean datorren Stevensonen Pepysenganako iritziari buruzko ukitua.

Trinkoa eta mamitua irizten diogu Teodoro Sáez Hermosillaren artikuluari: **“Reflexiones para una traductología del texto literario”** Luzeegia gabekoa den honetan, hizketa eta idazkeraren bereizketatik hasi eta poesiaren itzulpena bitartean, jorratu ederra ematen zaio itzulpenaren teoriari.

Eta azkenik, aipatu besterik ez, interpretaritzari buruzkoa den lana: **“Contribution à une pédagogie de l’interprétation”**



## Bibliografía

**J.C. SANTOYO: Teoría y Crítica de la Traducción: Antología.**  
E.U.T.I. Universitat Autònoma de Barcelona, 1987.

Oraingoan Santoyo idazle joria, izenburuan ikus daitekeenez, itzulpen hispanoamerikarraren antologia batekin datorkigu.

Liburuaren sarreran, itzulpenaren historian garai desberdinak bereizten ditu lehendabizi:

- itzulpen ahozkoa
- itzulpen idatzizkoa
- erreflexio garaia
- teorizazio garaia

Ondoren, Espainia eta Hispanoameriketako tradizioaz ari zaigu, eta arestian aipatutako itzulpen garaietan kokatzen ditu lanak eta autoreak. Antologia osatzen duten autore eta hauen idatziak 1367tik hasi eta 1984 bitartekoak dira; sailkapena mendez-mende egina dauka eta Santoyok berak dioen bezala, izango da hemen egon beharko lukeenik baina ez dagoena. Idazle zenbaiten originalen atzetik ere ibilia da baina ez zaio posible izan eskuratzetik, eta Ortega y Gasseten kasuan, idazle eskubideekin izan ditu arazoak.

**Georges GARNIER: Linguistique et Traduction. Paradigme, Terre et Sociétés,** Caen, 1985.

Obra honen gaia Hizkuntzalaritzak itzulpenaren arazoetarako dituen eka-  
rriak dira. Lehendabiziko zatian Itzul-  
pengintzak gaur egun dituen arazoak  
aztertzen dira, azkeneko hogeitamar

urteotan —gutxi gora behera— burutu  
eta argitaratu diren lanetan ageri den  
bezala: traduktologiazko ikerketa oro-  
korrak, itzulpen automatikoa, itzulpe-  
nak xede hizkuntzaren testuinguru so-

zio-kulturalean duen funtzioa, ikerketa horien guztien alorra egiteratzen duten hainbat teoriako lan; eta adibide ugari-ekin... itzulpenaren konparaketa eta balioztapen prozeduren azterketa. Azkenik itzulpenaren beraren prozesuaren analisi bat ere proposatzen da, hizkuntzalaritzaren ikuspegitik begiratuta batez ere. Eta bukatzeko, sistematika konparatu bat eraiki beharra aldarrikatzen du autoreak.

Bigarren partean berriz errepresen-

tazioaren teria bat burutzen da, frantsesa eta ingelesaren konparaketaz prestatua: Aditzaren kategoria lehenik, gero modua, denbora, pertsona, aspektua eta boza.

Hirugarren zatian espresioaren teoria bat eskaintzen da, bertan besteren artean hiru baliokidetasin eskemazko hiru multzo proposatzen dira, literaturatik hartutako adibideak ekarriz... Frantsesezko orainaldia aztertzen da hasteko, subjuntiboa, "iragan" ingelesa...

**BERRI  
ETA  
ALBISTE**



## **Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte**

Lurdes Auzmendi

Euskal Itzultzaileen Elkarteak aurtengo urtarrilaren 30ean egin zuen I.go Biltzar Nagusia eta hau urte bete luze batean egindako lanaren ondorioa izan zen.

Bederatzi hilabetetako bidea egin dugunean 130 bazkide gara lau arlo nagusitan banatuak, administrazioa, komunikabideak, literatura eta interpretaritza.

Bizitza motza duen arren, itzulpengintzak edozein kultura garrantutan duen garrantzia izatera laister iritsiko garelakoan gaude, bai Euskal Herrian eta baita Euskal Herritik kanpo ere Euskal Itzultzaileen Elkartearen pisua nabaria bait da iadanik.

Elkartearen Estatutoetan adierazten den bezala, bere xedeak dira, euskal itzultzaileen babes juridikoa lortzea eta berauen lan baldintzak hobetzea; honetarako Elkarteak bere egiten ditu 1976ko azaroan UNESCOren Biltzar Nagusiak itzultzaileen babes juridikorako egindako gomendioak. Beste xede bat da euskarara edo euskaratik egiten diren itzulpenen kalitatea zaintzea, jatorrizko testuarekiko leialtasunez eta euskarazko kalitate minimo bat eskatuz burutuak izan daitezen.

Era guztietako obrak euskarara itzul daitezen ahalegintzea, euskal itzultzaileak prestatu eta hobe daitezen saiatzea eta euskal itzultzaileen interes ekonomiko eta sozialen sustapena eta defentsa dira Elkartearen beste helburu batzuk.

I.go Biltzar Nagusia egin zenean Elkartean eta ondorioz Estatu-toetan Zuzentzaile eta Interpretariei sarrera ematea erabaki zen eta honela Euskal Itzultzaileen Elkartea, Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte izatera pasatu zen. Elkartean sartzeko baldintzak hauek dira:

- a) Azken bost urteotan euskarara edo euskaratik bi liburu itzuli eta argitaratu izana; edo beste horrenbesteko itzulpen kopuru bat burutu izana; edo eta –hau interpretarientzat baldintza da–, 50 orduz kabinan aritu izana.
- b) edo Euskal Herriko nahiz Euskal Herritik kanpoko Itzultzaile edo Interpretari eskolaren bateko itzultzaile edo interpretari tituluaren jabe izatea.

Horiez gainera beharrezkoa izango da:

- c) Zuzendaritza Batzordearen onespena,
- d) eta Elkarteko hiru partaideren abala.

Elkartearen I.go Biltzar Nagusiak aukeratu zuen Zuzendaritza Batzordea bederatzi pertsonaz osatua dago: Lehendakaria, Juan Mari Lekuona; Lehendakariordea, Xabier Mendiguren; Idazkaria, Josu Zabaleta eta Diruzaina, Ramon Etxezarreta. Gainera itzulpen arlo bakoitzak bokal bat du Zuzendaritza Batzordean Administrazioa arloak salbu, honek bi bokal bait ditu itzultzaile kopuru handiari hobeto erantzuteko asmoz.

EIZIE Elkarte bezala eratu aurretik, zenbait euskal itzultzailek bazituzten harremanak beste Elkarte batzuekin. Elkartek harreman hauek duten garrantzia ahaztu gabe, harreman horiek sendotzea erabaki zuen eta pauso batzuk eman dira.

Beste Elkárteekiko harremani dagokionez ekintzarik inportantea Madrilen maiatzaren 6 eta 7an burututakoa da. Estatu-ko hizkuntzen arteko literatur itzulpenari buruzko jardunaldiak ospatu ziren APETI, APTC/LC, ATG eta gure partaidetzarekin, literatur itzulpen-gintzaren iragana, oraina eta etorkizuna aztertu zirelarik.

Jardunaldi hauen ondorio-rik nagusienak hauek izan ziren: Estatu-ko itzultzaile eta interpretarien egoera aztertu ondoren Estatuaren eta Autonomien Administrazioen aldetik behar adineko laguntzarik ez dagoela eta, ekimen pribatua ez dela aski itzulpenaren eta interpretatza-riaren mundua normaltzeko Estatu espainoleko hizkuntzetan. Ho-rreratik, hizkuntzen arteko normalkuntzara iristeko behar diren bi- tartekoak jartzea eskatzen zaie aipatutako erakundeei. Azkenik, lau itzultzaileen elkarteek beren arteko harremanak areagotzea erabaki zuten helburu amankomun batera iristeko, Estatu espainoleko Itzult-zaile eta Interpretarien Federakundea eratzearen bitartez.

Estatuko Itzultzaileen Elkarteekin dauden harremanetaz gain, Europako beste zenbait Itzultzaile Elkarteekin ere harremanetan gaude, batez ere Europako Itzultzaileen Etxeen bitartez.

Puntu honetan aipatu behar da baita ere FIT edo Itzultzaileen Nazioarteko Federazioa. Izenak adierazten duen bezala, munduko itzultzaileen elkarten federazioa da hau eta gaur arte Estatu espai- noletik ordezkari bat dago, APETI elkartekoa hain zuzen. Estatu es- painolari bi ordezkari dagozkio federakundean eta bertan hizkuntzen ordezkartzari buruzko planteamendu berri eta zabalago bat egiten ez den bitartean, birekin jarraituko da, beraz urte honen buruan kon- pondu beharko da Estatu Espainoletik zein Elkartetako ordezkariak joango diren FITera.

Edozein herrik bere hizkuntzaren eta kulturaren normalkuntza lortu nahi badu, ezinbestekoa da ondare unibertsala itzultzea. Zentzu honetan EIZIEk proiektu bat aurkeztu zion Eusko Jaurlaritzari onda- re hori itzultzeko eta argitaratzeko. Eusko Jaurlaritzak begi onez ikusi zuen proiektua eta denbora gutxian asko aurreratu dela esan behar da.

Elkartek bere aldetik 100 titulu itzultzea eta argitaratzea proposatu du eta itzuli beharreko liburuak aukeratuta daude. Orain Jaurlaritzaren eta Argitaletxeen Elkartearen akordioa lortzea falta da proiektuari ekiteko. Ziur gaudē askok eskertuko dutela pauso berri eta handi hau, eta ziur gaudē baita ere batez ere irakaskuntza arloan euskara normalizazio bidera eramateko ematen ari diren pausoen ondorioz Unibertsitateraino beren ikasketak euskaraz burutzen ari direnek material preziatua izango dutela beren eskuetan.

Lehenago esan dudan bezala, hilabete gutxitako bizitza du Elkarteak, baina gai ugari tratatu eta erabaki behar izan ditu denbora horretan.

Itzulpen arlo desberdinen arabera, eta Elkartearen xedeetako bat betetzen hasiz, itzultzaile eta interpretarien prestaketarako zenbait pauso eman dira. Interpretarien batzordeak eratuta hiru egunetako mintegi bat ospatu zen ekainaren azken egunetan interpretaritzaren teoriak eta teknikez. Hamabost interpretarik parte hartu zuten eta urte amaiera arteko mintegi programa bat ere osatu zuten, arlo honetan dauden hutsune nabariei Jaurlaritzak, Unibertsitateak edo beste instituzioek jaramonik ez dietela egiten ikusita.

Zentzu berean, literatur itzultzaileek urrian hasi eta urte amaiera arte sei mintegi egingo dituzte literatur itzulpenaren teoria eta joera ezberdinak aztertu eta beraien arteko kontrastaketa lanari ekiteko asmoz.

Komunikabideetarako eta bereziki Euskal Telebistarako itzulpenak egiten dituzten itzultzaileak medioaren garrantziaz eta honetarako hizkuntz eredurik ez egoteaz kezkatuak, Jaurlaritzan hizkuntz politikarekin erlazionatutako sailei eta Euskal Telebistari alde bategitik eta Euskaltzaindiari bestetik hizkuntz ereduak finkatzea eskatu diete, komunikabideetako hizkuntzak eta kasu honetan euskarak eragin zuzen-zuzena bait du herriarengan.

Hizkuntz ereduaren arazoaz kezkatu ageri dira administrazioko itzultzaileak ere. Azken urteotan itzultzaile asko kontratatu dira administrazio publikoko arlo ezberdinetan, baina itzultzaile hauek hiz-



kuntz eredu sendo eta bateratu bat gabe aurkitzen dira. Bestalde, itzultzaile asko eta asko itzultzaile lanak egiteaz gain interpretaritza, kultur animazio eta beste lan batzutara bideratzen dituzte. Guztien kasua zehazki ezagutu asmoz, inkesta bat egingo da administrazioko itzultzaileen artean planifikazio eta programazio serio bati ekiteko bidean.

Beste arazo batzuk:

- Zinpeko itzultzaile edo interpretarien plazak.

Estatu espainoleko zinpeko itzultzaile edo interpretarien (traductor jurado) plazak ateratzea gobernu zentraleko Atzerri Ministrariari dagokio. Honen ondorioz lurralde autonomoetan arazoak sortzen dira hain beharrezkoa den mota honetako itzultzailek ez dagoelako eta plazak konkurtsora ateratzeko, bertako gobernuak konpetentziarik ez dutelako.

Estatuko hizkuntzen arteko zinpeko itzulpenak egiteko plazak ateratzea Atzerri Ministeritzaren esku egotea zentzugabea da. Catalunya Parlamentoak eta Eusko Jaurlaritzak akordioak hartu dituzte beren lurraldeetan plaza hoiek sortzeko, baina ez zaizkie gobernu zentralaren aldetik onartu eta beraz, soluziorik gabe jarraitzen da.

EIZIEren I Biltzar Nagusian onartu zen 88rako egitasmoaren arabera, zortzi miloi pezetako defizita ateratzen zen. Elkarteak bere proiektuak burutzeko behar zuen dirua lehenik Eusko Jaurlaritzari eskatu zitzaion. Eusko Legebiltzarrean 88rako aurrekontuak onartu zirenean EIZIErentzat bi miloi pezetako laguntza onartu zen, Gobernuak Elkarte berria garelako eta zer egiteko gai garen ez dugula azaldu argudiatu zuelarik. Beraz, bazkideen kuotetatik ateratzen denaz gain, bi miloi pezeta izango ditugu.

Diru arazoei dagokionez Gipuzkoako Kutxak eskaini digun laguntza aipagarria da, Madrilgo itzulpen jardunaldietako gastuetarako laguntza eta interpretaritza mintegirako subentzio osoa eman bait digu.

Itzultzaile eta interpretarientzat titulazioa eta Tarazonako Itzultzailearen Etxea dira Elkartek eskuartean izan dituen beste bi gai. Halere hauei buruzko berri zabalagoak beste orrialde batzutan aurkituko dituzue.

Azkenik, berri hau eskeintzeko erabiltzen den SENEZ aldizkariak bi hitz. Dakizuenez, aldizkari hau orain arte Martuteneko Itzultzaile Eskolak argitaratzen zuen. Elkartea sortu zenean, itzulpen teoriak eta itzulpenaren inguruko berrietaz arduratzen den aldizkaria Elkartek bere eskuetan hartzea erabaki zuen.

Ikusten denez, EIZIE elkarteak gauza batzuk egin ditu, baina batez ere egin duena da, aspalditik erantzun zain dauden hainbat arazori irtenbideak emateko lanak martxan jartzea. Elkarteko bazkideen ahaleginarekin eta laguntza emateko interesaturik eta prest dauden guztiekin euskarari eta Euskal Herriari itzulpen eta interpretaritzaren bidez zor zaiona emango diolakoan dago EIZIE.

## SINTESIS

### **La Asociación de Traductores, Correctores e Intérpretes de Lengua Vasca**

Esta Asociación celebró el pasado enero su primera Asamblea General, fruto de la labor realizada durante todo un año. En estos momentos la Asociación reúne a 130 asociados, agrupados en cuatro campos: Administración, medios de comunicación, literatura e interpretación.

Estas son sus finalidades: conseguir protección jurídica para los traductores vascos, mejorar sus condiciones de trabajo así como la calidad de las traducciones hechas al o del euskara; tratar de que se traduzcan al euskara todo tipo de obras; preparar traductores así como mejorar los ya existentes, y, de un modo general, defender sus intereses económicos y sociales.

En la Asamblea se definieron las condiciones de acceso a la Asociación -tener una experiencia concreta y probada en la profesión, más la aprobación y aval de miembros de la Asociación -, y se eligió la Junta Directiva, cuyo presidente es Manuel Lekuona. En ella tomarán parte asimismo un vocal de cada uno de los

cuatro grupos, (dos por parte de los traductores administrativos, dado su elevado número).

EIZIE ha tratado de estrechar relaciones con otras Asociaciones semejantes, del Estado (APETI, APTC/LC, ATG) e internacionales (FIT). Así, en las Jornadas de Traducción entre lenguas del Estado celebradas en Madrid en mayo, una de las más importantes conclusiones a las que se llegó fue la necesidad de hacer que las Administraciones, tanto central como autonómicas, tomen medidas para llegar a una normalización entre estas lenguas, así como estrechar más las relaciones de las cuatro Asociaciones, creando una Federación Estatal de Traductores e Intérpretes.

Hay que señalar que la Asociación ya ha llevado a cabo diversas actividades, como un cursillo celebrado en junio sobre teorías y técnicas de la interpretación; y pronto se pondrán en marcha seis seminarios de traducción literaria. Hay que decir también que esta revista, Senez, ha pasado de manos de la Escuela de Traductores de Martutene a la Asociación.

En cuanto a los proyectos, nombraremos el presentado al Gobierno Vasco para la traducción de 100 títulos de la literatura universal. En estos momentos, falta por concretar el acuerdo entre Gobierno y editoriales. También existe el proyecto, teniendo en cuenta el problema que supone carecer de un modelo lingüístico acabado, de llevar a cabo una encuesta entre los traductores administrativos, con el fin de llegar a una planificación seria.

Nombraremos para terminar el problema económico de la Asociación; de un presupuesto anual de 8 millones, el Gobierno Vasco ha concedido 2, alegando que se trata de algo nuevo y cuya posible labor se desconoce. En este sentido, hemos de agradecer la ayuda de la Caja de Guipúzcoa, que ha subvencionado varias actividades de esta Asociación.

## SYNTHESIS

### *The Association of Basque Translators, Correctors and Interpreters*

*The association held last January its first general meeting, as a consequence of the work carried out all along the year. At present, the Association numbers one hundred and thirty members, divided into four sections: administration, media, literature and interpretation.*

*Its objectives are: to get the protection of the law for basque translators; to improve their working conditions, as well as the quality of translations from or into*

*basque; to try that any kind of work is translated into basque; to prepare translators and polish up those working at the moment; and, generally speaking, to defend their economic and social interests.*

*At the meeting the conditions to enter the Association were established: a proven professional experience must be had as well as the approval and guarantee of Association members; the Board of Directors was elected, Manuel Lekuona being its president. A member of each of the four groups will also take part -two in the case of public translators, given its high number.*

*EIZIE has tried to tighten the relationship with other Associations, spanish (APETI, APTC/LC, ATG) and foreign (FIT). This way, at the Translation Congress for the different languages of the state, held last May in Madrid, one of the most important conclusions was the need to achieve that the administrations, both central and autononomical, give their help to these Associations. Other conclusion was, in order to strengthen the relationship among the four Associations, to create a State Federation of Translators and Interpreters.*

*The Association has already carried out several activities, such as a brief course which took place in June on technics and theories of interpretation; and six seminars on literary translation will soon be set up. It should also be mentioned that this review, Senez, has passed from the hands of the Translators School of Martutene into those of the Association.*

*As for the projects, we can mention the one presented to the Basque Government for the translation of one hundred titles belonging to the universal literature. At present, it is still to be specified the agreement between the Government and the publishers. There is also the project, having in mind the special situation of the basque language, to make a survey among the administration translators, in order to set the basis for a planning.*

*Finally, we shall name the economic problems of the Association; of a yearly budget of eight million pesetas, the Basque Government has given only two, declaring that it is something new, whose benefits are unknown. In this sense, the "Gipuzkoako Kutxa" must be thanked for its collaboration in several activities of the Association.*

## **Interpretaritzari buruzko mintegia**

Iñaki Ibañez

Itzultzaileen Elkarteko Interpretaritz Batzordeak sortu zen une beretik zerabilen buruan interpretarien prestakuntzarako praktika saio jarraitu batzuk ezartzeko premia, aldian behin jardun horretan ibilitakoek nabaritako eskasiak bete eta ikusitako zailtasunak maiztasun bateko ariketen bitartez gainditzeko xedeaz eta aldi berean inoiz jardun gabe lanbideari ekiteko gogoz zeudenei inoiz benetazko lanean hasi aurretik ikasketa prozesu mailakatu bat eskaintzarren. Hasiera batean pentsatu zen ariketa intentsiboz osatutako ikastaro moduko bat astebetetz egitea eta egun horietan izandako esperientziaren ondorioz ariketa egutegi bat ezarriko zen praktikarekin haustura bat gerta ez zedin, baina guzti hori esperientziarik haundiena zutenek gidatua eta prozedura autodidaktikoa jarraituz. Geroago, ordea, Bartzelonako Unibertsitate Autonomoko Itzultzaile eta Interpretarien Eskolako irakasle eta interpretaritz ikasketen koordinatzailea den John Mathews ekartzeko aukera sortu zen eta batzordekide guztiok adostasuna eskeini genion eskola batean jarraitzen den programa batera hurbildu ahal izateko posibilitateari.

Astebeteko ikastaro hura, beraz, bi egunetako mintegi bihurtu zen, esperientziadun interpretari eta irakasle bat ekartzeak zeukan aliziente handiogoarekin, eta hirugarren egun bat utzi genuen konklusioak ateratzeko.

Interpretaritzea menperatzera iristeko eraman beharreko prestakuntza urrats progresiboak bi egun eskas horietan ematea proposatu zuen, horretarako lehenengo egunean esanostekoaz oinarritzko jakinbide teorikoak laburtuz eta bigarrenegun aldiberekoaren gainean praktikazko ariketa sail bat burutuz, baina bien arteko lotura estua eta derrigorrezkoa agertaraziz, egunen arabera banaketak bi modalitateen arteko bereizketa adierazi nahi gabe, alderantziz baizik, biak elkarren osagarri direla eta esanostekoa aldiberekoaren aurrepauso dela aldarrikatuz.

Bi egunetako esperientziaren ondoren irakaslearekin lehenik, laburki izan bazen ere, eta gure artean biharamunean, konklusio ateratze bat eta hemendik aurrerako bide markatze bati ekin genion. Gogoeta eta iritzien elkar trukaketa horren ondorioak azaltzen saiatuko naiz hurrengo leuroetan.

Lehenengo eguneko azalpen teorikoa, nahiz eta guztiontzat nahiko ezaguna izan, aberasgarri gertatu zitzaigun ondoren etorriko ziren ariketa praktikoen gogoan edukitzeko. Interpretazioaren prozesuan aurrera eraman beharreko urratsen sailkapena, horien zailtasun mailak eta lantzeko moduak aztertu zituen, guzti hori teoria hutsean gelditu gabe esperientzian oinarritutako adibide argigarri horniturik eta zailtasunak, oztupoak eta ezintasunei beren izenez deituz. Oso garbi azpimarratu zuen esanostekoa lantzeak aldiberekoari ekin aurretik duen garrantzia, nahiz eta gaurregun gutxi erabilia den eta askok beldurra diotelarik zuzenean aldiberekoarekin hasi nahi duten. Esanostekoa menderatu beharra dago testu bati funtsezko esanahiak ateratzea xedetzat duen aldiberekoan ondo ibili nahi bada, bestela idatzizko itzulpenetik batipat datozenak erori ohi diren hizkuntz osagaiekin geratzeko arriskua handia baita.

Bigarren eguneko ariketa praktikoa, berriak izateaz gain hemendik aurrera prestakuntza saioek jarraitu beharreko ildoak markatzeko baliagarri gertatu ziren. Talde txikitik eginez gero denon partaidetza eskatzen dute eta interpretaritzan aritzeko beharrezko diren zenbait gaitasunen lantze puntuala gauzatzeko bidea ematen dute, hala nola, hitzegin bitartean hizlariari entzun eta haren esanahia ulertzea, enuntziatuak segundu batzutan buruan gorde eta botatzerakoan

hizlariaren hurrengo mezua entzun eta ulertzea, hitzegin bitartean nork bere buruari entzutea, hitz jarioaren erritmoa kontrolatzea, mezuak birsortzerakoan zuzentasuna, garbitasuna eta doinu egokia lantzea, mezuaren zehaztasuna gordetzea, funtsari dagokionez lehenik eta datu osagarriei dagokionez gero, eta abar.

Aldibereko ariketa horietan nahikoa garbi geratu zen interpretaritzako prestakuntzan daukagun hutsuneaz gain, beste hizkuntzetatik euskarara itzultzean zehaztasuna galtzen zela. Arazo hori euskarak jasaten duen normalizatu gabeko egoeraren ondorio da zuzen-zuzenean, baina euskaldunok ere jakituriazko disziplinetan hizkuntza aldetik dugun eskasiaren islada ere bada. Hori dela eta, ariketak egiteko gaiak hautatzerakoan komenigarri ikusi zen O.H.O.ko testu liburutako gaiak erabiltzea, horietan biltzen bait da zientzia hizkuntza osatuko duen oinarritzko lexikologia.

Aurrerantzean prestakuntza aldetik urratu behar dugun bidean bi epe finkatu ziren: bat urte amaiera artekoa, batipat esanostekoa jorratuko litzatekeelarik, eta bestea, urte amaieran zehaztu beharko litzatekeelarik, datorren urte osorako plana tajutzea. Asmo horiek burutzeko orduan, ordea, traba askorekin topo egiten dugu, borondate hutsa besterik ez daukagulako oraingo, ez materialik, ez lokalik eta ez dirurik ere. Premiazko betebeharra materiala denez bilketa orokor bat egiteko partaideen artean banaketa bat egin zen, bakoitzak mota bateko materialea biltzeko ardura bereganatuz. Materiale horren sailkapena honela finkatu zen:

- idatzizkoa: O.H.O.ko testu bilduma batetik, eta prentsako artikulua bestetik, azken hauetan informatiboak, komentariozkoak eta iritzizkoak bereiziz.
- entzumenezkoa: irratietako estudioetan bertan grabatutako irratsaioen zintak, soinu aldetik kalitatea dutenak bakarrik aukeratuz, hots zaratak gehigarritzko eragozpena gerta ez daitezen.
- ikusentzutezkoak: ETBko bideoak eskuratzea.

Horrekin batera eta egun interpretaritzaren lanetan erabiltzaile diren edo izan daitezkeenek lanbidez duten ezjakintasuna nolabait kon-

pontzearren propaganda edo informazio kanpaina bati ekitea erabaki zen. Kanpaina horretan bezero izan daitezkeen guztiei lanbidearen ezaugarriak eta horretan aritzeko gutxieneko baldintzak azalduko litzaizkieke bi mailatan:

- pertsonalki: erakunde bakoitzera zuzenean gutunak bidaliz eta eskualdeka hitzaldi informatiboak eratuz.
- orokorki: gizarte guztiari zuzenduta komunikabideak erabiliz eta eraginkortasun haundiagoa izan dezan denak aste berean kontzentratuz: egunkari eta aldizkarietan artikulak edo elkarrizketak idatziz, irrati eta telebistan elkarrizketatuak izateko eskabidea eginez eta horretarako aproposagotzat hartzen da azaro aldera programazio berriak martxan jartzean eta ikasturtea martxan dagoenean eragin haundiagoa izan dezan.

Lanean aritzeko baldintza nagusiak hauek lirатеke:

- Kabina berean 2 pertsona elkarrekin aritu beharra.
- Bakoitzak gehienez 20 minututako saioak egitea.
- Elkarrekin ezarritako tarifak errespetatzea eta horiek baino txikiagoak ez kobratzea. Puntu honi buruz Mathews irakasleak lanean hasi berriekin eraman ohi duten promozio tarifa bat aipatu zuen. Promozio horren bidez bezeroari lanaren bermea erakusten zaio, horretarako lehenengo lanegun dohain eskainiz eta hurrengoak kobratu baina dagozkien tarifen arabera, inoiz ez haiek jaitsita.

Eskasia nabarmena ikusten da interpretarien artean, salbuespen bakar batzuk kenduta, kanpoko hizkuntzak jakiteari dagokionean. Gehienok euskaraz aparte gezteleraz besterik ez dakigu edo hizkuntza horretatik ez bestetik interpretatzeko gai sentitzen gara. Idatzizko itzulpengintzaren mailan gertatzen ari den euskararen eta gaztelaren arteko autoitzulketa gerta ez dadin, beharrezkotzat jotzen dugu estatu barruko beste hizkuntzak nahiz estatu kanpokoak ikastearren beka politika baten aukera izatea.



## **Itzultzaile Eskolen berri**

### **Martuteneko Itzultzaile Eskola: aro berri baten aurrean**

**SENEZ** aldizkari honen lehen zenbakian Itzultzaile Eskolaren historia hedatuki aztertzean esan genuenez, gaur egun Martuteneko Itzultzaile Eskola izenpean ezaguna den irakaskuntz erakunde hau 1980an Euskaltzaindiaren eskariz sortua da.

1980-81 ikasturtean, Miramonen dagoen Arbide Dorreetako batean beren lehen egoitza izan bazuen ere, harrez gero Martuteneko Lanbide Eskolaren egoitza ere baden etxean dago kokaturik eta eguneroko lanean hamarkada bat osatzetik hurbil dagoen une honetan, bere laugarren itzultzaile promozioa plazaratu du. Guztira 60 oinarrizko itzultzaile diplomadun prestatu ditu, zortzi urteko epean eta 300 bat ikasleri eman dizkie ikastaldiak asteburuko eta udako ikastaldietan.

Gaur egun komunikabide, administrazio eta argitaletxetan lanean ari diren itzultzaile kopuru garrantzizko hau prestatzeaz gainera, Martuteneko Eskolak euskal gizartean izan duen eragina zabalagoa izan dela aitortu beharra dago alde batetik, lotura eta harreman estuak ezarri ditu, Galizia, Katalunia eta Madrileko itzultzaile elkar-teenkin, eta zenbait urrats eman ere egin du atzerrikoekin gauza bera egiteko; eta guzti honen ondorioz eta atergabe gure artean goraka

joan den kontzientziaren eskariz, orain urte bete inguru EIZIE (Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte) sortzeko beharrezko oinegituren parterik handiena atondu du.

Bestalde, 1984eko abendutik hasita SENEZ itzulpen eta terminologiako Aldizkaria argitaratzen duelarik, ideien zabalkunde eta sentiberatasunaren garatze nabaria eragin du itzulpen profesioaren eta teorizazioaren inguruan, gaur arte argitara eman dituen zortzi zenbakietan.

Halaber, Eskolak argitaratu dituen zenbait liburu eta materialen garrantzia ere ez da gutxiestekoa, orain arte batere landu gabe zegoen euskal traduktologiarena bezalako alor batean.

Balantze bat egiteko orduan, fruitu guzti hauek ekipo lan eman-korrari zor zaizkiola aitortu behar da, zenbait unetan lanerako indarrak eta ilusioak moteldurik geratu badira ere bultzatzaile izan behar-zuketan arduradun eta politikarien ulermen gabeziaz eta zurrunkeriaz, nahiz eta gerora hazirik erein gabeko sorotik uzta biltzeko prest agertu izan diren. Baina nekeak neke eta oztopoak oztopo, Martuteneko Itzultzaile Eskolak aro historiko bat bete eta burutu du, Gasteizen administrazio eta lege arloko itzultzaile-eskola bat nola sortu den ikusi du eta hasieratik bertatik esaten zenaren arabera, itzultzaileen prestakuntza bere gain hartu beharko lukeen Unibertsitate ekimenaren erantzunaren zain geratzen den bitartean, urteroko birtziklai edo prestakuntzaldiak antolatzeari hobetsi dio.

### **Idazketa eta Itzulpen Ikastaldia (1988-89)**

Esan bezala, datorren ikasturtetik aurrera "Idazketa eta Itzulpen Ikastaldi" trinko bat antolatzea erabaki du Eskolak, inguruan nabari diren interes eta premiei erantzuna eman nahiz. Klaseak urritik ekainera arte emango dira eta astelehenetik ostegunera, ostiraletan frantses eta ingelesezko mintegiak zuzenduko direlarik. 700 bat orduko ikasketa hauen ondoren diploma-ziurtagiri bat luzatuko da.

Sarrera-baldintza gisa, COU eta EGA ikasketa mailak edo balio-kideak diren beste batzuk gaindituak edukitzea eskatzen da.

Ikastaldiaren helburua euskara sakontzea eta aberastea da lehenik, testu mota desberdinak idazteko erraztasuna lortzea eta gaztelaniazko testu pragmatiko eta literarioak itzultzen ikastea, horretarako beharrezkoa den hornidura teorikoa ere eskeiniz. Beraz, arreta bereziz landuko dira honako gai nagusi hauek: iraganeko eta gaur eguneko hizkuntz eredua, irakurmena eta idazmena, estilistika eta traduk-todologia.

Ikastaldi honetarako eskabidea egin dutenak hirurogei inguru izan dira, baina muga fisiko eta didaktikoengatik 45 ikasle bakarrik hartu dira.

## **Administrazio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolako 1988-89ko Ikasturtea**

Datorren urrian bere hirugarren ikasturtea hasiko du Administra-zio eta Lege-Arloko Itzultzaile Eskolak. 1986ko urrian Eusko Jaur-laritzak sortua eta Gasteizen, Herri-Arduralaritzaren Euskal Erakun-dearen baitan kokatua, bi lehendabiziko ikasmilak eman zituen azkenengo ikasturtean eta aurtengo honetan iritsiko da, beraz, hiru-garrena ere eman eta ikasketa egitarau osoa eskaintzera.

Aurreko ikasturteetatik datozen ikasleez gainera, aurtengoan ere, aurrekoetan bezala, 20 ikasleko talde berria aukeratu da eskolan sartunahaiia agertu zuten guztien artean. Izena emateko epea ekaine-an izan zen eta uztailean egin ziren sarrerako azterketak. Euskara eta gaztelera nola menderatzen duten eta ahoz nahiz idatziz erabiltzeko duten trebetasuna eta ingelesean nahiz frantsesean zernolako maila duten ikustea izan da azterketon helburua. Horrez gain, kontutan

izan dira esperientzia eta ikasketa maila, azterketan erakutsitako kultura maila eta idatziak tajutzeko gaitasuna ere; eta beti ere, eskolan sartzeko lehentasun osoa eman zaie jadanik administrazioan itzulpengintzan dabiltzenei.

Lehen biziko bi ikasmaitan oinarri sendoak hartu ondoren, hizkuntzaren erabilpena eta administrazio eta lege munduko itzulpengintza landuko dira bete-betean hirugarrenean. Administrazio hizkera, euskarazko idazketa, soziolinguistika, hizkuntz politika aztertuko dira batetik, bestetik berriz, itzulpengintzaren inguruko hainbat mintegi berezi: administrazio eta lege arlokoa, ekonomiakoa, hirigintzakoa, epailaritzakoa, gaztelerarakoa, ingelesetik nahiz frantsetikoa; baita interpretaritzako sarreratxo bat ere. Horrez gain Terminologia, Zuzenbideko hainbat gai ... Ikasturtea betea beraz, zalan-tzarik gabe.

Bestalde, aurtengo udan praktika-aldi bat egin ari dira bigarren ikasmaita egin duten ikasleek. Gutxienez, sei hilabeteko itzultzaile-esperientziarik ez duten ikasle guztiek egin behar dute praktika-aldia bigarren ikasmaitaren amaieran, eta administrazioen bateko euskara nahiz itzulpen zerbitzuan burutzen da hiru hilabeteko iraupenez. Oraindik ikusteko gaude beraz fruituak, baina jaso ditugun iritzien arabera, guztiz ongarri gertatzen ari zaie horretan dabiltzan ikasleei.

Azkenik, jadanik administrazioan itzultzaile direnei zuzendutako zenbait ikastaro berezi ere antolatzeke asmoa badago. Hitz elkar-keta, nominalizazioak eta sustantibo abstraktoak euskarazko itzulpenetan, esanosteko interpretaritzak... izan dira orain arte egindako ikastaroetan jorrotutako gai batzuk.

Oraingoan ere bide beretik jarraituko da eta hiru hiriburuetan izango dira ikastaroak. Erlatibozko esaldiak, galdegaia eta hitz ordena, perifrasiak... dira oraingoz ikastaroetarako begiz jotako zenbait gai. Interpretaritzari dagokionez berriz, urrian hasiko da esanostekoari buruzko ikastaro bat Gasteizen eta, hori amaitutakoan, beste bat ere izango da aldiberekoari buruzkoa, aurrez esanostekoa egin dutenek egin ahal izango dutena.

## **Idazketa eta itzulpen ikastaroa**

Donostia, 1987 Azaroa-1988 Maiatza

Martutenen kokatua dagoen Itzultzaile Eskolak, Euskarazko Idazketa eta Itzulpen Ikastaroa antolatu zuen 1987ko Azaroan hasi eta 1988ko Maiatza bitartean. Ikastaro hau astean bitan bina orduko klasetan banatua zegoen. Irakasleak Xabier Mendiguren eta Josu Zabaleta izan genituen, guztira ehun ordu inguru osatuz.

Matrikulatzeko eskatzen zen baldintza bakarra EGA edukitzea zen. Uste baino jende gehiagok eman zuen izena eta 30en bat ikasleko bi talde osatu ziren. Ikaslegoaren gehiengoa, ia osoa ez esateagatik, filologia edo magisteritza titulodunak ziren.

X. Mendiguren Itzulpenaren teoria, Itzulpen Literarioa eta euskal komunikabideetako hizkuntz ereduaz aritu zen nagusiki; J. Zabaleta berriz, itzulpen pragmatikoaz, hasi klasikoetatik eta antolamendua oinarritzat hartuta, gaur egun egiten den itzulpenetaraino.

### **Programak**

**J. Zabaleta:** Itzulpen azterketa.

Mezuaren antolamenduaren azterketarako oinarri teorikoak:

- |   |                                 |
|---|---------------------------------|
| 1.-Mezua eta antolamendua.              | 6.-Transposizioa antolamenduan. |
| 2.-Koordinazioa eta subordina-<br>zioa. | 7.-Modulazioa antolamenduan.    |
| 3.-Subordinazio motak.                  | 8.-Hizkuntza mailak.            |
| 4.-Baliokidetasun sintaktikoa.          | 9.-Hizkuntza nola aberastu.     |
| 5.-Hitzez-hitzeko itzulpena.            |                                 |

X. Mendiguren: Itzulpen teoria.

- 1.—Itzulpen teoria: Sarrera; itzulpen prozesuaren azterketa; korrespondentziak; itzulpen prozesuan eragina duten faktoreak; itzulpeneko baliokidetasunen ikerketa (Komissaroven teoria).
- 2.—Itzulpen literarioa: Estilistika teoria eta figura literarioak:
- 3.—Euskal kazetaritzaren azterketa bat (F. Ibargutxi).
- 4.—Itzulpen konparaketa eta kritika.

Oso adierazgarria izan zen J. Zabaletak bere klasetan egin zuen esperimentu modua: testu zaharrak ekarri zizkigun eta ozenki irakur erazi. Nabarmena izan zen ikasleone artean gehiengoaren hizkuntza-  
rekiko (euskara) musikaltasun falta. Irakurtzen zuenak berak ere ez  
zuen ulertzen zer irakurtzen zuen; gainontzekoek zer esanik ez. Han  
ikusi genuen zeinen maila kaskarra daukagun irakurtzeko orduan.  
Ondorio gisa atera dezakegu, irakurketa saio (ozenki) gehiago egin  
beharko litzatekeela euskarazko edozein gaitasun ikastarotan.  
*“Gure haurren belarriak behar bezala hezitzen ez baditugu, jai  
daukagu”* (X. Mendiguren).

Eta azkenik, bi helburu zituen ikastaro honek: gaur egungo eta  
iraganeko euskalkietako testuak aztertu eta genero desberdinetan  
trabatzea, eta, oinarritzko itzulpenetarako gaitasuna lantzea.

Beatriz Zabalondo

## **Itzultzaileentzako laguntzak?**

“Nondik etorriko ote da laguntza?”, galdegiten da Biblian, orrialderen batean, itzultzaile bat laguntza eske ari balitz bezala. Eta erantzunak ez dio noski askorik argitzen: “Zerutik”.

Beharbada, itzuli beharko lioke itzultzaileak galdera Bibliari. Eta non da zero hori?

Zerurik ez, azken batean, itzultzailearentzat. Baina, badirudi ari dela aldatzen zerbait nonbaiten. Erakundeetan adibidez. Eta hasiak daude bat edo beste, itzulpen lanei laguntzak ematen.

Eusko Jaurlaritzak urteoro deitu ohi ditu itzultzaileentzako bekak, eta partitu ere partitzen ditu laguntzak. Bostehun mila pezeta itzulpen bakoitzerako. Aurtengo epea igaro baldin bada ere, etorriko da datorren urtean zero zatiren bat norbaitentzat, hala baderizkio behintzat adituen batzarreak. Eusko Jaurlaritzaren laguntzak literaturara mugatzen dira, itzulpenari dagokionez, beste generoetan sailak bestela zaindurik badauzka ere. Baina itzulpena, literaturara dauka mugatua.

Laguntzaile berri bat azaldu da, halere. Berri ezin esan guztiz, iazkoan ere deitu bait zien itzultzaileei laguntzak banatzeko asmotan. GIPUZKOAKO AURREZKI KUTXA (azken boladan, GK bezala dabilena) da laguntzaile berri hori. ORIXE SARIAK dira, nahi duenak jakin.

GK genero guztien -edo da laguntzaile. Eta aurtengoan, adibidez, elaberria, olerkia, saiakera eta antzerkia onartzen ditu. Milioi terdi dauka agertzen direnen artean banatzeko. Eta epea ere bai, jarrita: irailaren 30ean. Dirudienez, urteoro deituko ditu sari hauek, eta lanen zailtasunaren, kalitatearen, eta beste zenbait abureren arabera izendatuko du aldi bakoitzean zenbatekoa izango den diru kopurua zehaztuz. Beraz, kasu honetan ez da dirutza bat eta bera obra bakoitzera emango, Eusko Jaurlaritzak ematen duen bezala. Edozein mo-

dutan, bada batzorde bat guzti hau neurtzen duena, idaztien eta itzulpenen kalitatea neurtzen duen bera, alegia.

**BIZKAIKO FORU ALDUNDIAK** ere badu sari bat jarria. Milioi erdikoa, eta bakarra bestalde. Ehun orrialdekoa izan behar du itzulpenak, eta prosazkoa. Baina bada zerbait guztiz ulertzen ez dena sari horretan: honela dio oinarrietan, eta datorren bezala aldatuko dut hona: **ITZULPENGINTZA**: Gai askea. Makinaz lekune bitan idatziak diren 100 orrialdetako gutxienezko edukina duten prosazko testuei buruzko itzulkinak, direla argitaratuak direla argitaragabeak eman beharko dira. Argitaratu-argitaragabe, hori da guztiz garbi ulertzen ez dena. Argitara emaniko liburuak ere aurkez daitezke? Edozein modutan, 12. oinarriak esaten duenez, zalantzarik-edo denean, Bizkaiako Foru Aldundiko Kultur Zabalkunderako Zuzendari Orokorrak ebatziko du. Halere, 4. oinarrian argitzen den bezala, Bizkaiko euskararen erabilpena modalitate guztietan balioztatuko da bereziki. Azkenik, ordea, hona lanak entregatzeko epea: Azaroaren 2a.

Beste sariketa bat, oraindik: **ARRASATE EUSKALDUN DEZAGUN** talde arrasatearrak antolatua. Bigarren aldia du erakunde edo elkarte honek, itzulpen sariketa deitzen duena. Kasu honetan, itzulpen laburren saria da: 12 eta 25 orrialdeetara mugatua. Eta gaia ere zehazturik dator oinarrietan: **BIOGENETIKA**, eta jatorrizko testuak bestalde, 1986, 87 eta 88 urteetan argitaratua izan behar du. Liburu baten zati koherente bat, edo artikulua bilduma bat izan daiteke. Iazko itzulpenak, dagoeneko, argitaratuak ditu AEDk. Lanak bidaltzeko epea Azaroaren lehenean bukatzen da. Eta gainerakoak erakundeak izaki, eta hau elkarte bat, hona beronen helbidea ere. **AED ELKARTEA**. "Jokin Zaitegi" sariketa. Pablo Uranga 4, **ARRASATE**. Eta saria: Irabazlearentzat, 250.000 pezeta, eta finalera heltzen direnentzat, 50.000 pezetatako akzesitak.

Eta azkenik, beste lehiaketa bat. **EUSKAL ANTZERKI TALDEEN BILTZARREA** deitu erakundeak antolatua. "Larabal Saria" da. Itzulpenari dagokionez, Antzerki itzulpena da saritzen dena, "Oren batez goitikakoa", eta saria 2.000 liberatakoa. Lana entrega-



tzeko epea, Irailaren 30ean bukatzen da. Eta helbidea, hona: EATB, Herriko etxea-Heleta. 64640 IHOLDI.

Hona beraz nondik datorren laguntza. Gisa honetakoa, askoren-tzat ez da guztiz desiratua izango. Baina, oraingoz hauxe dagoena, eta gainera zehazki gisa honetakoa da: Lehian sartu behar, itzulpena-  
rentzat itxurazko laguntza lortuko bada.

Noski, besterik ere izan daiteke bazterretan, eta Mezenas batzu-  
ren sorrera ere aldarrikatzen zen egunkari batetan duela auskalo zen-  
bat denbora. Baina, Mezenas horiek apenas inon azaltzen diren. Poe-  
sia edo ipuin lehiaketa arruntenak, dirudienez, ospe eta itzal handia-  
goa eman bide die askori.

Betiere, itzulpena da literatura munduan sariketetako eskekoa, ate bazterrean disimuluan jaten ematen zaiona.

Pello Zabaleta

## **Estatu Espainoleko hizkuntzen arteko itzulpen-jardunaldiak**

1988ko Maiatzaren 6 eta 7an Espainiako Estatuko lau itzultzaile elkarteetako ordezkariekin, Nazioarteko Itzultzaileen Federazioko ordezkariekin bilera batzuk ospatu ziren Madrilgo Liburutegi Nazio-nalean, lau hizkuntzetako itzultzaileen arazoak eta kezkek aztertu eta horiei irtenbidea eman ahal izateko behar den elkarrekiko antola-mendua bideratzen hasteko. Jardunaldien antolatzaileak Espainiko Estatuko lau itzultzaile elkarteak izan ziren: APETI, APTIC/LE, EIZIE eta ATG.

Bilera hau urte eta erdi lehenago, Compostelan ospatu zen **I Encontro de Traductores Peninsulares** jardunaldien jarraipena

zen, hartako azkeneko erabakia (beste jardunaldi batzuk antolatzeko gomendioa) betez. Euskaldunen artetik, elkarterik artean ez zegoe-  
nez, pertsona pribatuak joan ziren Compostelara. Itzultzaile Elkarte-  
en lehenengo bilera horretatik hasita, katea batean bezala, Espainia-  
ko Estatuan diharduten itzultzaileek, era askotara antolatuta, elkarre-  
kin dituzten arazo amankomunak konpontzeko eta irtenbidea emate-  
ko elkartu beharra aipatzen da.

Madrilgo jardunaldiek hiru parte izan zituzten, aski bereziak. Lehenengoa, ofizialena, ponentziak; bigarrena deklarazio publiko-  
ak; eta hirugarrena, lau elkarteen arteko antolamenduari buruz izan-  
dako eztabaidak.

Zortzi ponentzia aurkeztu ziren:

- 1.- "Presente y Futuro de las Lenguas minoritarias". Vicente Romano
- 2.- "Traduccions entre llengües de l'Estat Espanyol". Joaquim Romaguera.
- 3.- "Ergonomia de la Traducció i de la Interpretació als Països Catalans". Lluís Urpinell i Jovani.
- 4.- "Passat, present i futur de la traducció al catalá". Jaume Medina.
- 5.- "Euskal itzulpenaren iragana eta oraina". Josu Zabaleta.
- 6.- "Espainiko Estatuko hizkuntzetatik euskararako itzulpena. Oraina eta etorkizuna". Koldo Izagirre.
- 7.- "A traducción e os traductores galegos". Valentín Arias.
- 8.- "Traducción entre as llenguas castelá, catalana, galega e vasca". Xulián Maure.

Ponentzia horiez gainera, aranes hizkuntzarako itzulpenaz ere aurkeztu zen ponentzia bat, programaz kanpo, azken mahai inguruan leku eginda.

Saio hauetan hizkuntza bakoitzeko itzultzaileen egoera deskribatu zen (liburu itzultzaileena batez ere, gaia ez bait zegoen guztiz zehaztuta, eta alderdi horretatik gaiaren barreiamendu apur bat antze-man zen ponenteen artean).

Ponentzia hauek guztiek erakutsi zutena hitz gutxitan laburtzea ez da erreza. Atera daitekeen lehendabiziko ondorioak erakusten duen bezala, eta aurreko beste hainbat bileratan ere ikusi ahal izan den bezala, oso egoera desberdinetan daude gaztelera, katalanera, euskara eta galegorako itzultzaileak; oso garapen momentu desberdinetan daude; arazo desberdinei erantzun behar diete.

Katalanerako itzultzaileak heldutasun maila handi batera ari dira iristen, ponentzietan aitortzen zuten bezala. Tradizio zaharra dute itzulpenean, Erdi Aroan hasi eta gaurko egunetara arte, bitartean zenbait mendetako dekadentzia izan badute ere. Mende honen hasieratik batez ere, ahalegin handia egin da Katalunian, Noucentisme mugimenduko partaideek kontzientzia osoa bait zuten mendetako hutsunea bete beharko zutela denbora laburrean Kataluniako kulturarako, beste hizkuntza batzuetako kulturek beren hizkuntzan mendetan sortutako emaitzak urte laburretan beretu beharko zituztela, "nostrar", "geuretu" katalanez esaten duten bezala. 1936ko gerrak eta gerra osteak, apaldu eta moteldu bai baina eten, ezin izan zuten eten itzulpen mugimendu hori, eta gaur egun, hizkuntz normalizazioaren eguna oraindik urruti badute ere, heldutasun sendoa eta etorkizun zabal oparoa ageri zaie katalanera eta katalanetik ari diren itzultzaileei.

Galizari dagokionez, itzulpen tradizio laburra dute oraindik, eta egoera aski larria, euskaldunon antzekoa puntu askotan. Itzultzaile galegoak ezin du itzultzaile profesionala izan (liburu itzultzaileak behinik behin), ez du horretarako baldintzarik, Administraziorik eta komunikabideetan ari diren itzultzaile banaka batzuek besterik. Itzultzaile galegoa irakaslea da gehienez ofizioz, euskal liburu itzultzaile ofizioz beste zerbait izan ohi den bezala, irakasle edo beste era bateko itzultzaile (Administrazio edo Komunikabideetako itzultzaile). Galegoz literatur itzulpen gutxi argitaratu izan da orain arte; irakaskuntzan galegoa sartzen hasi denetik ordea, haurrentzako lite-

raturaren itzulpena ugalduz doa. Alor horrez kanpoko literaturari dagokionez, hala ere, berrogeitaka obra itzuli ahal izan dituzte ATGek Galizako Xuntarekin burututako akordio baten bitartez. Orohar kalitate oneko itzulpenak egiten dira galegora, presio editorialik ez dagoenez “mimatu” egiten dira itzulpenak, astiz eta denboraz burutzen, eta itzultzaileen selekzio estua dago argitaletxeen aldetik.

Euskal itzultzaileei dagokienez, lehenengo ponentzian gaur egungo egoerara ekarri gaituen historia aurkeztu ondoren, Koldo Izagirre ponenteak, bigarren saioan gaur egungo egoera determinatzen duten faktoreak eta etorkizunerako baldintzak, mugak eta esperantzak agertu zituen.

Ponentzia hauek, zehazkiago aztertu nahi dituenak, EIZIERen bulegoan ditu guztiak.

Agiri publikoan, eskaera bat egiten zitzaien Espainiako Estatuko Instituzio publiko zentral nahiz autonomiko guztiei Estatuko hizkuntzen arteko harremanak normalizatzeko eginik dituen deklarazioak eta izenpeturik dituen itun guztiek betetzeko behar diren baliapideak jarri ditzaten. Eta Elkarteok bere aldetik, beren bileretan lau hizkuntzak erabiltzea, eta elkarrekiko antolamenduan aurrera egitea erabaki zuten.

Bilera honek zuen hirugarren helburua, lau itzultzaile elkarteon arteko harremanak arautzeko urratsak ematea zen. Lehendabiziko gaia, zentzu honetan, APETIz gainerako hiru elkarteok (Katalunioak, Euskal Herrikoak eta Galizakoak) FIT, Nazioarteko Itzultzaileen Federakundean nola sartu, zeren arabera eta nola antolatu izan zen. Hain zuzen ere, Estatu bakoitzetik bi ordezkari izenda daitezke erakunde horren Zuzendaritza Batzorderako. Espainiako Estatutik APETIren izenean partaide bat dago. Bigarrena ez dago izendatuta.

Ana Lilovarekin bilera luze bat izan zuten Katalunia, Euskal Herria eta Galizako itzultzaileek, ordezkariak Estatuz ez baina hizkuntzaz izenda zitzaten eskatuz. FITek erabakia du ordea, bere estatutuetan, Estatuz izendatu behar direla ordezkariak, Estatu bakoitzeko bi;

hasieran nonbait literatur itzultzaileen aldetik izendatzekoa zen bat, eta testu pragmatikoen itzultzaileen aldetik beste. Gaur egun itzulpengintza bi alor horietan banatzeak berebiziko zentzurik ez duela azaldu zen, egoera askoz ere konplexuagoa zela alegia. Arazoa FIT-en hurrengo Kongresuan eztabaidatuko zela agindu zuen FITeko lehendakariak. Bitartean, ordea, elkarrekin antolatzeko moduren bat bilatu beharra dute, helburu honetarako besteren artean, APTIC/LC, ATG eta EIZIEk.

### **Donostiako bilera**

Horixe izan zan hain zuzen APETI, APTIC/LC, ATG eta EIZIEk 1988 azaroan Donostian ospatu zuten bileraren gaia: Nola, zein helburutarako eta zein mailatan antolatu lau erakundeok.

Bilera horretan erakundeon xedeak, leku bakoitzeko itzulpen egoerak, bazkidetza maila eta kopuruak azterturik, bi antolamendu maila erabaki ziren erakundeok elkarlana burutzeko.

Badira zenbait gai Espainiko Estatuko lau hizkuntza ofizialetako itzultzaileoi dagozkigunak: Kolejio profesionalaren gaia, itzultzaile eta interpretaritzak ikasketak, zinpeko itzultzaile eta interpretariena, itzulpen eskubideak, balio erantsiaren zerga, lehen unetik ikusten direnak, eta gerora gauzak martxan doazen ahala azalduz joango direnak. Gai hauetan argia egiteko lanetan koordinatu ahal izateko, lau erakundeon artean konfederakunde bat sortu zen.

Beste maila batean, ordea, galego, katalan eta euskarazko itzultzaileok baditugu zenbait arazo, aipatu FITeko ordezkarietaz gainera, elkarrekin konpontzekoak: elkarren arteko itzulpen proiektuak, zinpeko itzultzaileak hizkuntza hauen artean. Maila honetan lan egiteko, interes amankomun asko ditugula kontutan harturik, APTIC/LC, ATG eta EIZIEren artean federakunde bat sortzea erabaki zen.

Erabakiok ez dira finkoak harik eta elkarte bakoitzeko zuzendaritzak onespena ematen dien arte.

## Ondorio bidez

Bilera hauetatik guztietatik, esandakoaz gainera, beste ondorio batzuk ere ateratzen dira. Bat garrantzitsuena: Euskal itzultzaileak irten-nekezak dira, paradoja handi batean —harreman ofizioa bait da, behar luke izan, itzultzailearena—. Adibide bat emateko: AP-TIC/LC eta ATG elkarteetako bazkideetatik, %20 pasatxo beste itzultzaile elkarteren bateko bazkideak ere badira, aparte idazle el-karte, Pen klub eta bestelako elkartetakoak izatez, edonork eskubide duen bezala. EIZIEn gaur egun bazkide direnetatik %3 da beste itzultzaile elkarteren bateko bazkide. Handia da proportzio alde hori, eta esanguratsua, zalantzarik gabe.

Zerk eragiten duen horren kanpora-bide laburra, ez da erraza asmatzen. Aztertu beharko litzateke. Agian euskal itzultzailegoaren egiturak berak: Herri honetako itzultzailetza neurri handi batean auto-itzultzailetza izateak (Administrazioa eta beste instantzia askotan bertan gaztelaniaz sortutako testua da euskarara itzultzen dena). Itzulpenari dagokionean orohar dagoen kalitate eskari laburra: kritika sosegatu baina oinarri sendoko eta erruki gutxiko baten falta, argialetxeen zurkoiztasuna, bikoizketa etxe batzuren xurkeria, era-kunde publikoetatik itzulpenaren politika zuhur bat eratu ahal izateko intelijentzia falta, beraietatik euskararen erabilera heraldikoa saritu izanaren ondorioak direnak askotan.

Euskal itzultzaileak irten egin behar du eskilarape zurrun lizun-usaineko horretatik. Harremanak behar ditu besterrietako itzultzaileekin, haien elkarteekin, eta itzulpenaren alorrean ezereen onurarik ekar lezakeen ororekin. Iritziak kontrastatu behar dira, baliapide berriak ezagutu behar dira, baliapide ekonomikoei dagokienean ere ez da geratu behar etxeko nagusiek jaregin ezinik dauden txanpon apur-rren zain. Muga estuok baino plaza zabalagoa behar du izan itzulpenarenak.

Instantzi asko daude, non parte hartu: Itzultzaile elkarteak, itzultzaile etxeak, FIT bere batzorde ugariekin, guretzako interes berezia dutenak asko eta asko.

Euskal itzulpenaren mundua hobetu eta aberastu dezakeen faktore eragileetako bat da harremanen alor hau. Oiloarena eta arraultzearena errepikatzen da, agian: harremanek hobetuko duten itzulpena, ala itzulpenaren hobekuntzak ekarriko duten harreman premia. Atarrabiok erabaki beza.

Josu Zabaleta

## **Tarazonako Itzultzaile Etxearen inaugurazioa**

1988ko maiatzaren 29an inauguratu zen ofizialki Tarazonako Itzultzaile etxea. Aldizkari honetan bertan idatzi izan da Itzultzaile Etxeen antolamenduz (**Senez** 1986, 2-3).

Etxeok Europako Batzordearen laguntzaz ari dira sortzen Europako estatu guztietan. Tarazonakoa laugarrena da, Alemaniako Straelen, Frantziako Arles eta Italiako Procittakoen ondoren.

Paco Uriz olerkari eta itzultzailearen bultzadaz sortu da Tarazonan etxe hau, Elmar Tophovenek Straelengoa sortu zuenean eman zizkion xede berberekin: Itzultzaileei baliapideak eskura jarritz itzulpenen kalitatea hobetu (literatur itzultzaileena batez ere).

Inaugurazio ospakizunak Veruelako monastegian eta Tarazonan bertan izan ziren. Bereziki aipatzekoak eta txalotzekoak dira ospakizunon antolamendua eta Tarazonako udaletxeak bertara joandako guztioi egin zigun atospena.

Europako Batzordeko, Zaragozako eta Tarazona bertako ordezkarietz gainera Europako lau beste hiru Itzultzaile Etxeetako ordezkariak, eta Espainiako Estatuko Itzultzaile Elkarteetakoak ere bertan

ziren eta holakoetan ohi den haiekiko harremanak estutzeko aprobe-  
txatu genuen elkarte honen izenean bertan izan gineno eskaintzen  
zitzaigun aukera.

Elkarteak harreman horiek zabaldu eta sakondu egin behar ditu  
aurrerantzean, eta bere bazkide guztiei eman horiez baliatzeko auke-  
ra.

Tarazona Nafarroaren muga-mugan dago, Zaragozako probin-  
tzian sartuta, Bilbotik eta Donostiarik ordu pare bateko bidea eginda.  
Tamalgarria litzateke, alde askotako itzultzaileekin kontrastasuna  
izateko aukera hori, eta geure izatea eta egoera ezagutzera emateko,  
atari-atarian edukita, ez baliatzea.

Josu Zabaleta







# EUSKALDUNON HIZKUNTZA EUSKARA

## EUSKALDUNON PRENTSA EUSKARAZKO PRENTSA

# ARGIA

**ARGIAREN HARPIDEDUN IZAN  
NAHI DUT**

**IZEN DEITURAK** .....

**Helbidea** .....

**Herria** ..... **Probintzia** .....

**Banku edo Aurrezki Kutxa** .....

**Sukurtsala** .....

**Zenbakia** .....

**SINADURA**

**ARGIA** astekaria  
Ramonenea etxea, behea.  
Virgen del Carmen, z/g

Donostia (12)  
T. 28 33 99



# ELHUYAR. Zientzia eta teknika

EZ GELDITU

AZALEAN

ZATOZ MUINERA

Elhuyar. Zientzia eta Teknika 80 orrialdetan zientziaren garapenez informatuta egoteko behar duzun guztia bi hilabetean behin. Bi hilabetero.

- **Astronomia** sailean *Jesus Arregi* ren eskutik unibertso mugaezinaren zorabioan murgilduko gara. Gainera, jira-biraka dauzkagun sateliteak zertan ari diren ezagutuko dugu.
- **Landuz egiten da zientzia** sailean *Jose Ramon Aizpuruak* etxean egiteko saio interesgarriak proposatuko dizkigu.
- **Osasuna** delakoan *Jabier Agirrek* aholku eta gomendioak emango dizkigu osasuntsu mantentzeko.
- **Jolas Matematikoak** izenekoan *Jesus Mari Goñi* eta *Juanito Etxeberriak* burua berotzeko problemak proposatuko dizkigute.
- Zure etxeko ordenadorearekin zer egin ez badakizu *Jesus Mari Iturriotzek* **etxeko ordenadorea** sailean zer egin planteiatuko dizu.

Gainera, liburuak, berriak, informazioa... eta interes biziko gaiak sakon eta modu ulergarri tratatuak.

bi hilabetean behin zure eskutan

Elhuyar. Zientzia eta Teknika aldizkaria jaso nahi dut. Urtean honen sei ale jasoko ditut gainera doan "Elhuyar" aldizkariaren bi ale.

Izena.....

Helbidea.....Lanbidea: .....

Hiria.....Telefona: .....

Ordainketa:

Errenboltoz  
Kontu-korrontea k/k zenbakia:.....Bankua:.....

Urtebeterako 2.000 pta. Euskal Herria eta Frantzia  
bi urterako 3.900 pta.  
hiru urterako 5.800 pta.  
urtebeterako 2.500 pta. beste herrietan.



## HARPIDETZA TXARTELA

SENEZ aldizkariaren harpidedun egin nahi dut:

Izena .....

Kalea ..... Herria .....

Urteko ordainketa (2.100 Pta.) nire Banku edo Aurrezki Kutxako kontuaren bidez egingo dut :

---

Banku edo Aurrezki Kutxa .....

Kontuaren zenbakia .....

Sukurtsala .....

Kontuaren jabea .....

Entitate horretako nire Kontuan zorpetu itzazue nire izenean doazkizuen erreziiboak.

Sinadura

Helbidea .....







# 1-2

## Gaiak

Ale honetan / Itzulpen tradizioa eta Biblia Mendebaldean / Korana eta Ekialdeko testu sakratuen transmisioa / Bibliaren itzulpena Euskal Herrian / Elizen arteko Bibliaren itzulpen taldea / Liturgiako Itzulpen Batzordearen Itun Berria / Traduire sans trahir: Itzulpenaren teoria testu biblikoei egokitua / Ruiz Arzalluz: Notas sobre algunas traducciones vascas del Nuevo Testamento / Euskarazko Bibli-itzulpenak / Bibliaren itzulpenari buruzko Bibliografia / Itzultzaile eta Interpretarien ikasketen berrikuntzari buruzko kontsiderazioak / Etorkizuneko itzulpen lizentziatura: zenbait ohar kritiko / Steinbeck, John: The Pearl – Perla: Ordu-rikarika, R. / Itzulpenari buruzko zenbait aldizkariren berri ematea / Bibliografia: SANTOYO, J.C.: Teoría y Crítica de la traducción. Antología / Euskal Itzultzaile, Zuzentzaile eta Interpretarien Elkarte / Interpretaritzari buruzko mintegia / Idazketa eta itzulpen ikastaroa / Itzultzaileentzako laguntzak? / Estatu Espainoleko hizkuntzen arteko itzulpen-jardunaldiak / Tarazonako Itzultzailearen Etxearen inaugurazioa / Testu sakratuen pasarteetako euskarazko zenbait itzulpen.